



# NAFARROAKO EKONOMIA

## 2017ko Txostena

Ikerketa Departamentua  
Zuzendaria: Joseba Madariaga  
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-946432-2-4

<b>1. ESPARRU OROKORRA.....</b>	<b>10</b>
<b>1. EKONOMIA-INGURUNEA (NAZIOARTEAN ETA ESTATUAN).....</b>	<b>11</b>
1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	11
1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA .....	21
<b>2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA .....</b>	<b>32</b>
<b>3. IKUSPEGI OROKORRA .....</b>	<b>38</b>
3.1 EKOIZPENA .....	41
3.2 ESKARIA.....	43
3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	45
3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA .....	47
3.5 FINANTZA-SEKTOREA.....	53
<b>4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA .....</b>	<b>73</b>
4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK .....	73
4.2 INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA .....	74
4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK.....	76
4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA.....	77
4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA.....	78
4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK.....	79
<b>2. LEHEN SEKTOREA.....</b>	<b>81</b>
<b>1. IKUSPEGI OROKORRA .....</b>	<b>82</b>
1.1 BILAKAERA ESTATUAN.....	82
1.2 BILAKAERA NAFARROAN.....	84
<b>2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA .....</b>	<b>88</b>
2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK .....	88
2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA.....	95
2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA.....	96
<b>3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA.....</b>	<b>97</b>
3.1 AZIENDA-ERROLDA .....	97
3.2 ABELTZAINZTA-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK .....	98
3.3 ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK .....	105
<b>3. INDUSTRIA .....</b>	<b>106</b>
<b>1. IKUSPEGI OROKORRA .....</b>	<b>107</b>
1.1 JARDUERAREN BILAKAERA .....	107
1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA.....	108
<b>2. INDUSTRIA-EGITURA .....</b>	<b>110</b>
2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA .....	110
2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA .....	114
2.3 ENPRESA NAGUSIAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTAIDETZA .....	116
<b>3. SIDERURGIA.....</b>	<b>118</b>
3.1 EGOERA OROKORRA .....	118
3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA.....	121
<b>4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA.....</b>	<b>124</b>
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	124
4.2 SEKTOREA ESPAINIAN .....	125



4.3	SEKTOREA NAFARROAN .....	126
<b>5.</b>	<b>AUTOMOBILGINTZA.....</b>	<b>131</b>
5.1	NAZIOARTEKO EGOERA.....	132
5.2	SEKTOREA ESPAINIAN .....	135
5.3	SEKTOREA NAFARROAN .....	141
<b>6.</b>	<b>PAPERA .....</b>	<b>146</b>
6.1	NAZIOARTEKO EGOERA.....	146
6.2	SEKTOREA ESPAINIAN .....	148
6.3	SEKTOREA NAFARROAN .....	151
<b>7.</b>	<b>ERAIKUNTZA .....</b>	<b>153</b>
<b>8.</b>	<b>NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA.....</b>	<b>158</b>
8.1	SARRERA.....	158
8.2	BILAKAERA OROKORRA.....	158
8.3	EKONOMIA-SEKTOREAK.....	160
8.4	SOLDATAKOEN GERUZAK.....	162
<b>4.</b>	<b>ZERBITZUAK.....</b>	<b>165</b>
<b>1.</b>	<b>IKUSPEGI OROKORRA .....</b>	<b>166</b>
<b>2.</b>	<b>HEZKUNTZA .....</b>	<b>167</b>
2.1	UNIBERTSITATEK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA.....	167
2.2	UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA .....	171
<b>3.</b>	<b>GARRAIOA.....</b>	<b>174</b>
3.1	ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA .....	174
3.2	AIRE BIDEZKO GARRAIOA .....	177

**Taula aurkibidea**

1. koadroa	Barne-produktu gordinaren bilakaera .....	11
2. koadroa	Barne-eskari osoaren bilakaera.....	12
3. koadroa	Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak.....	12
4. koadroa	Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak).....	13
5. koadroa	Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera .....	13
6. koadroa	Langile bakoitzeko ordainsarien bilakaera.....	14
7. koadroa	Enpleguaren bilakaera.....	15
8. koadroa	Langabezia-tasa .....	15
9. koadroa	Administrazio publikoen finantzaketa-premiak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo premia (-), barne-produktu gordin nominalaren ehunekotan).....	16
10. koadroa	Adierazle nagusiak (EB-28).....	18
11. koadroa	Barne-produktu gordinaren hazkundera (Europar Batasuna).....	19
12. koadroa	Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordina (2017) .....	20
13. koadroa	Aurreikuspen ekonomikoak (herrialde industrializatuak).....	21
14. koadroa	Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (eskaria eta eskaintza).....	24
15. koadroa	Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta) .....	24
16. koadroa	Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI) .....	26
17. koadroa	Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak.....	27
18. koadroa	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak .....	28
19. koadroa	Enplegua, egoera profesionalaren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak.....	29
20. koadroa	Defizit publikoa.....	29
21. koadroa	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2018) .....	31
22. koadroa	Ekoizpen-egitura (balio erantsi gordinaren konposizio sektoriala), 1960-2017 .....	32
23. koadroa	Egitura okupazionala (enpleguaren konposizio sektoriala), 1960-2017 .....	32
24. koadroa	Nafarroaren ehunekoa Espainiako ekonomian (2017) .....	33
25. koadroa	Balio erantsi gordina biztanleko Nafarroan .....	34
26. koadroa	Bilakaera orokorra .....	38
27. koadroa	Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera.....	40
28. koadroa	Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera .....	41
29. koadroa	Industria Sektorearen adierazleak .....	42
30. koadroa	Eraikuntza Sektoreko Adierazleak.....	42
31. koadroa	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak.....	43
32. koadroa	Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak .....	43
33. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan.....	44
34. koadroa	Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera .....	44
35. koadroa	Prezioen bilakaera Nafarroan.....	46
36. koadroa	Soldata-adierazleak .....	47
37. koadroa	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia.....	48
38. koadroa	Langabezia-tasa, adin-bitarteen arabera. Urteko batezbestekoak.....	49
39. koadroa	Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak.....	49
40. koadroa	EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak .....	50
41. koadroa	Hitzarmen kolektiboak eta grebak.....	51
42. koadroa	Biztanleriaren mugimendu naturala.....	52
43. koadroa	Nafarroako migrazio-saldoak, adinen arabera.....	52
44. koadroa	Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE) .....	56
45. koadroa	Gordailu-erakundeak. Bulego-kopurua.....	57
46. koadroa	Finantza- eta aseguru-jardueretan afiliatzea .....	57
47. koadroa	Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera.....	58



48. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua eragileen arabera.....	60
49. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	61
50. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	61
51. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua eragileen eta eremuaren arabera.....	63
52. koadroa	Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa.....	64
53. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera.....	65
54. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	66
55. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	67
56. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarriko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	67
57. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, eragileen arabera.....	68
58. koadroa	Gordailu-erakundeak. Gordailu-motak. Beste sektore egoiliar batzuk.....	69
59. koadroa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta AAPPen gordailuak.....	69
60. koadroa	Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina.....	70
61. koadroa	Kreditu-erakundeak. Familiei <sup>(2)</sup> eta sozietate ez-finantzarioei eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR).....	72
62. koadroa	Nafarroako enpresen emaitzen kontu bategina.....	73
63. koadroa	Nafarroako enpresen balantze bategina.....	75
64. koadroa	Nafarroako enpresen errentagarritasuna.....	77
65. koadroa	Enpleguaren produktibitatea.....	78
66. koadroa	Emaitzen kontua. Urteik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko).....	80
67. koadroa	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak.....	84
68. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa.....	86
69. koadroa	Enplegua lehen sektorean*.....	87
70. koadroa	Lur landuen erabilera.....	89
71. koadroa	Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak.....	89
72. koadroa	Zereal-aleen azalera eta ekoizpena.....	91
73. koadroa	Lekadunen azalera eta ekoizpena.....	91
74. koadroa	Tuberkuluen azalera eta ekoizpena.....	91
75. koadroa	Industria-laboreen azalera eta ekoizpena.....	92
76. koadroa	Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena.....	92
77. koadroa	Barazkien azalera eta ekoizpena.....	93
78. koadroa	Zurezko laboreen azalera eta ekoizpena.....	94
79. koadroa	Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira.....	95
80. koadroa	Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makinaren balioespena.....	96
81. koadroa	Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroa).....	98
82. koadroa	Esnearen ekoizpena.....	99
83. koadroa	Esnetarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak.....	100
84. koadroa	Nafarroan hildako ganaduaren kanaleko pisua.....	101
85. koadroa	Haragitarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak.....	103
86. koadroa	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak.....	104
87. koadroa	Animalia-produktuen prezioak. Urteko batezbestekoak.....	105
88. koadroa	Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera.....	107
89. koadroa	Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.....	108

90. koadroa	Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduerar- arloka .....	108
91. koadroa	Industria-sektoreko langileen eta enpresen kopuruaren bilakaera.....	109
92. koadroa	Nafarroako industriako enplegua eta sortutako diru-sarrerak, jardueraz- azpisektoreen arabera (2016).....	111
93. koadroa	Jarduera-adarrek industriako enpleguaren eta diru-sarreraren guztizkoan dituzten proportzioak (2016).....	112
94. koadroa	Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2017).....	114
95. koadroa	Industriako langileen kopurua, enpresaren neurriaren eta jardueraz- sektorearen arabera (2017).....	115
96. koadroa	Nafarroako industria-enpresa nagusiak (2017).....	117
97. koadroa	Altzairu gordinaren ekoizpena.....	119
98. koadroa	Siderurgia-produktuen kontsumoa.....	121
99. koadroa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*.....	121
100. koadroa	Inportatutako lehengaiak.....	123
101. koadroa	Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera.....	124
102. koadroa	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	125
103. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria (2017).....	126
104. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak (2017).....	127
105. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera .....	128
106. koadroa	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	128
107. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan .....	129
108. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua.....	129
109. koadroa	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako laginaren errentagarritasuna.....	130
110. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa.....	134
111. koadroa	Automobilgintzaren Espainiako industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza.....	136
112. koadroa	Turismoen matrikulazioa, marken arabera .....	137
113. koadroa	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak.....	138
114. koadroa	Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak.....	139
115. koadroa	Espainiako automoziorako ekipo eta osagaien industriaren kopuru nagusiak.....	140
116. koadroa	Enpleguaren eta enpresa-kopuruaren bilakaera <sup>(*)</sup> .....	142
117. koadroa	Ibilgailu automobilen eta haien ordezkotako piezen eraikuntza: enpresen egitura eta kopurua <sup>(1)</sup> .....	142
118. koadroa	Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2017.....	143
119. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, osagaiak eta osagarriak*.....	143
120. koadroa	Volkswagen Navarra SAren jardueraz-magnitude nagusiak.....	145
121. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak).....	146
122. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka.....	147
123. koadroa	Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera.....	148
124. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainiakoa, guztira .....	149
125. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, paper-motaren arabera.....	150
126. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, ore-motaren arabera.....	151
127. koadroa	Paperaren eta orearen ekoizpena Nafarroan .....	151
128. koadroa	Paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan .....	152
129. koadroa	Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan .....	152
130. koadroa	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera.....	153
131. koadroa	Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa.....	154



132. koadroa	Lizitazio ofiziala, obra moten arabera (2017).....	155
133. koadroa	Hasitako eta amaitutako etxebizitzak (*).....	156
134. koadroa	Eraikuntzako langileak.....	157
135. koadroa	Enpresak ekonomia-atalen arabera. 2011-2017 alderaketa.....	162
136. koadroa	Enpresak, soldatuko geruzen arabera. 2011-2017 alderaketa .....	164
137. koadroa	Zerbitzuen sektorearen bilakaera .....	166
138. koadroa	Ikasleen bilakaera, ikastetxe-motaren arabera. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.....	168
139. koadroa	Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.....	168
140. koadroa	Ikasleen bilakaera, ikastetxe-motaren arabera. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa .....	170
141. koadroa	Euskalduntze-maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa .....	171
142. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean.....	172
143. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP).....	173
144. koadroa	Nafarroako automobil-parkea .....	174
145. koadroa	Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia(*).....	175
146. koadroa	Motorizazio-indizeak.....	175
147. koadroa	Autobideko ibilgailuen trafikoa, Nafarroan* .....	176
148. koadroa	Garraiatutako salgaiak. Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa* .....	176
149. koadroa	Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa.....	178
150. koadroa	Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera .....	178



**Grafiko aurkibidea**

1. grafikoa	Interes-tasen aldakuntzak.....	17
2. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	30
3. grafikoa	Barne-produktu gordinaren bilakaera .....	39
4. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*.....	54
5. grafikoa	Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa .....	55
6. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE).....	62
7. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera.....	63
8. grafikoa	Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala.....	71
9. grafikoa	Nafarroako enpresen errentagarritasuna.....	77
10. grafikoa	Nekazaritzako ekoizleek jasotako prezioen indizeak.....	85
11. grafikoa	Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa, ehunekotan, 2017 .....	90
12. grafikoa	Nafarroako abeltzaintzako azienden banaketaren bilakaera, ehunekotan .....	98
13. grafikoa	Abeltzaintzako ekoizpena Nafarroan. Ganaduaren kanaleko pisua.....	102
14. grafikoa	Jarduera-azpisektoreek Nafarroako industriako enpleguaren eta diru-sarreraren guztizkoan dituzten ehunekoak (2016).....	113
15. grafikoa	Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena.....	120
16. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	122
17. grafikoa	Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian .....	149
18. grafikoa	Enpresa kopuruaren bilakaera .....	159
19. grafikoa	Enpresa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza .....	160
20. grafikoa	Estatuko guztizkoaren gaineko garrantziaren bilakaera (estatua=100).....	160
21. grafikoa	Enpresen bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera (indize kopurua 2011=100).....	161
22. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatakoen tarteen arabera (indize kopurua 2011=100).....	163
23. grafikoa	Unibertsitatetik kanpoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera Nafarroan <sup>(*)</sup> .....	169



| 17

## 1. ESPARRU OROKORRA

## 1. EKONOMIA-INGURUNEA (NAZIOARTEAN ETA ESTATUAN)

### 1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

#### Ezaugarri orokorrak: ekoizpen-jarduera

2017an munduko ekonomiak susperraldia sendotu du; eta, hazkundearen erritmoa indartuz, % 3,8ra iritsi da (2016an % 3,2). Izan ere, ekonomia aurreratuen abiadura handitu da (% 2,3ko hazkundea 2017an, aurreko ekitaldian, berriz, % 1,7koa izan zen), eta goraka ari diren eta garatzeko bidean dauden merkatuek ere bizitu egin dute abiadura (% 4,8 igo dira 2017an, aurreko ekitaldian, berriz, % 4,4), munduko merkataritzaren bultzada nagusi den egoera orokorrean.

Horiek horrela, ELGAren maiatzeko aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuek portzentajezko zazpi hamarren areagotu dute hazkundea: 2016an % 1,8 igo zen, eta 2017an, berriz, % 2,5. Bestalde, hazkunde handiago bat aurkitzeko, 2010eraino egin behar dugu atzera (% 3).

#### 1. koadroa Barne-produktu gordinaren bilakaera

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	2,9	1,5	2,3
Japonia	1,4	1,0	1,7
Alemania	1,5	1,9	2,5
Frantzia	1,0	1,1	2,3
Italia	0,8	1,0	1,6
Erresuma Batua	2,3	1,9	1,8
Kanada	1,0	1,4	3,0
<b>Eurogunea</b>	<b>1,6</b>	<b>1,7</b>	<b>2,5</b>
<b>ELGA, guztira</b>	<b>2,4</b>	<b>1,8</b>	<b>2,5</b>

*Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).*

Lehenik eta behin, Ipar Amerikako ekonomiari erreparatuta, hura ere aurreko ekitaldian baino indar handiagoz igo da 2017an (% 2,3 2017an; % 1,5 2016an), batez ere barne-eskariak bizitasun handiagoa izan duelako (% 2,4 2017an; % 1,7 aurreko ekitaldian).

Goraka ari diren eta garatzeko bidean dauden merkatu-ekonomien esparruan, Errusia eta Brasil berriro gora egiten hasi dira 2017an (% 1,5 eta % 1 hurrenez hurren; 2016an, berriz, -% 0,2 eta -% 3,5), eta Txinak eta Indiak % 7 inguruko hazkundeak lortu dituzte (% 6,9 eta % 6,7 hurrenez hurren).

**2. koadroa Barne-eskari osoaren bilakaera**

Herraldea	(% Δ)		
	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	3,5	1,7	2,4
Japonia	1,0	0,4	1,1
Alemania	1,5	2,4	2,4
Frantzia	1,5	1,9	2,3
Italia	1,4	1,3	1,3
Erresuma Batua	2,4	2,2	1,4
Kanada	0,1	0,8	3,8
<b>Eurogunea</b>	<b>1,9</b>	<b>2,3</b>	<b>2,0</b>
<b>ELGA, guztira</b>	<b>2,7</b>	<b>2,0</b>	<b>2,4</b>

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Europako testuinguruan, Euroguneak gero eta gehiago sendotu du aurrerapenaren erritmoa, eta % 2,5era iritsi da (% 1,7 2016an, % 1,6 2015ean). Horrenbestez, 2014an hasitako susperraldia (% 1,3ko errebotea) indartu egin da, eta aurreko urteetan pairatutako atzeraldia amaitu da.

**Kanpo-merkataritzea**

ELGAko kide diren herrialdeetako merkataritze-jarduera biziagoa izan da 2017an aurreko urtean baino. Bultzada handiagoa izan dute esportazioek (% 4,6 igo dira 2017an; % 2,6 2016an), bai eta inportazioek ere (% 4,5ko hazkundea; % 3,2koa aurreko urtean). Horri dagokionez, berezitasun hauek nabarmendu behar dira: Ameriketako Estatu Batuen kanpo-salmenten gorakada nabarmena, Japoniaren esportazioen bizkortze garbia, eta Kanadaren eta Japoniaren inportazioen susperraldi adierazgarria.

**3. koadroa Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak**

Herraldea	Inportazioak			Esportazioak		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	5,0	1,3	4,0	0,4	-0,3	3,4
Japonia	0,8	-1,6	3,4	2,9	1,7	6,7
Alemania	5,2	3,8	5,6	4,7	2,4	5,3
Frantzia	5,5	4,2	4,1	4,0	1,9	3,3
Italia	6,6	3,8	5,7	4,2	2,6	6,0
Erresuma Batua	5,1	4,8	3,2	5,0	2,3	5,7
Kanada	0,7	-1,0	3,6	3,5	1,0	1,0
<b>ELGA, guztira</b>	<b>4,8</b>	<b>3,2</b>	<b>4,5</b>	<b>4,3</b>	<b>2,6</b>	<b>4,6</b>

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Horrenbestez, herrialde industrializatu guztien eragiketa arruntaren balantzea (alegia, ondasun eta zerbitzuen merkataritze-jardueraren eta transferentzia arruntaren bilakaeraren emaitza) positiboa izan da 2017an: 196,5 mila milioi dolar (2016an 114,8 mila milioi dolar izan ziren). Emaitza hori bultzatu duen arrazoi nagusia izan da nabarmen

hobetu dela Euroguneko superabit-saldoa (504 mila milioi dolar 2017an; aurreko ekitaldian, berriz, 435,5 mila milioi dolar izan ziren). Bestalde, okerrera egin du Ameriketako Estatu Batuetako defizit-saldoak (-466,2 mila milioi dolar 2017an; -451,7 mila milioi dolar 2016an) eta horren eragina kaltegarria izan da.

#### 4. koadroa Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	-434,6	-451,7	-466,2
Japonia	136,4	189,2	196,6
Alemania	302,9	294,9	298,6
Frantzia	-8,9	-18,6	-14,3
Italia	27,7	47,7	53,5
Erresuma Batua	-149,7	-154,3	-106,7
Kanada	-56,1	-49,4	-49,4
<b>Eurogunea</b>	<b>441,1</b>	<b>435,5</b>	<b>504,0</b>
<b>ELGA, guztira</b>	<b>85,0</b>	<b>114,8</b>	<b>196,5</b>

(mM\$)

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

#### Prezioak eta soldatak

Ekitaldian, oro har, petrolioak garestitu denez (Brent upelak 43,3 dolar balio zuen 2016an, eta 54,3 dolar 2017an), kontsumo pribatuaren deflatoreak hazkundearen erritmoa bizkortu du aztertutako herrialde guztietan.

lido horretan, ELGaren arabera, kontsumo pribatuaren deflatoreak hazkundera bizkortu du 2017an; zehazki, % 1,7raino Estatu Batuetan eta % 1,4raino Eurogunean (2016an % 1,2 eta % 0,4 hurrenez hurren). Industrializatutako herrialdeen multzoan, berriz, % 2raino igo da (% 1,1 aurreko ekitaldian).

#### 5. koadroa Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	0,3	1,2	1,7
Japonia	0,4	-0,5	0,2
Alemania	0,6	0,6	1,7
Frantzia	0,3	0,0	0,9
Italia	0,2	0,1	1,2
Erresuma Batua	0,6	1,4	2,0
Kanada	1,1	1,0	1,1
<b>Eurogunea</b>	<b>0,3</b>	<b>0,4</b>	<b>1,4</b>
<b>ELGA, guztira</b>	<b>0,8</b>	<b>1,1</b>	<b>2,0</b>

(%Δ)

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Horiek horrela, AEBko Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren politika monetarioak desberdinak izan dira. Erreserba Federalak portzentajezko puntu laurden bat igo du bere erreferentzia-tasa hiru aldiz (martxoan, ekainean eta abenduan); horrenbestez, 2017ko ekitaldia ixtean % 1,5ekoa izan da. Bestalde, Europako Banku Zentralak tinko eutsi dio erreferentzia-tasari: % 0 izan da ekitaldi guztian.

Soldaten bilakaera aztergai hartuta, 2017an langile bakoitzeko ordainsariak aurreko ekitaldian baino gehiago egin du gora honako herrialde hauetan: Ameriketako Estatu Batuak, Alemania, Frantzia eta Kanada (% 1,7, % 2,6 eta % 1,9 azken bi herrialdeetan; 2016n, berriz, % 1, % 2,2, % 1 eta % 0,8 hurrenez hurren). Bestalde, bizitasun txikiagoko igoyerak izan dituzte Japonian (% 0,8 2017an; % 1,1 2016an), Italian (% 0,2 2017an; % 0,5 2016an) eta Erresuma Batuan (% 2,9 2017an; % 3,3 2016an).

**6. koadroa      Langile bakoitzeko ordainsarien bilakaera**

Herrialdea	(% Δ)		
	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	2,7	1,0	1,7
Japonia	0,5	1,1	0,8
Alemania	2,7	2,2	2,6
Frantzia	0,9	1,0	1,9
Italia	0,9	0,5	0,2
Erresuma Batua	1,1	3,3	2,9
Kanada	2,0	0,8	1,9
<b>Eurogunea</b>	<b>1,6</b>	<b>1,3</b>	<b>1,6</b>

*Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).*

**Lan-merkatua**

Jarduera ekonomiko sendoari esker, lan-merkatuek bilakaera ona izan dute 2017an ere: enpleguak gora egin du, eta jaitsi egin da, oro har, langabezia-tasa.

Zehazki, 2017an enpleguak gora egin du aztertutako herrialde eta bloke guztietan; bizitasun handiena Kanadak izan du (% 1,9), haren atzetik Eurogunea ageri da (% 1,5), eta ondoren Ameriketako Estatu Batuak (% 1,3). Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da enplegua aurreko ekitaldian baino erritmo motelagoan sortu dela, bai Amerikako Estatu Batuetan bai Eurogunean.

## 7. koadroa Enpleguaren bilakaera

(% Δ)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	1,7	1,7	1,3
Japonia	0,5	1,0	1,0
Alemania	0,8	2,4	1,1
Frantzia	0,1	0,6	1,1
Italia	0,8	1,3	1,1
Erresuma Batua	1,7	1,4	1,0
Kanada	0,9	0,7	1,9
<b>Eurogunea</b>	<b>1,1</b>	<b>1,7</b>	<b>1,5</b>

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

Langabezia-tasak, berriz, behera egin du orokorrean 2017an, eta Euroguneko langabezia-tasa nabarmen handiagoa da Ameriketako Estatu Batuetakoa eta herrialde industrializatuen multzo osokoa baino (% 9,1 Eurogunean, % 4,3 AEBn eta % 5,8 herrialde industrializatuen multzoan).

## 8. koadroa Langabezia-tasa

(Biztanleria aktiboaren % zenbat)

Herraldea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	5,3	4,9	4,3
Japonia	3,4	3,1	2,8
Alemania	4,6	4,2	3,8
Frantzia	10,4	10,1	9,4
Italia	11,9	11,7	11,2
Erresuma Batua	5,4	4,9	4,4
Kanada	6,9	7,0	6,3
<b>Eurogunea</b>	<b>10,9</b>	<b>10,0</b>	<b>9,1</b>
<b>ELGA, guztira</b>	<b>6,8</b>	<b>6,3</b>	<b>5,8</b>

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

## Politika monetarioa eta aurrekontuen politika

2017an gure inguruko ia herrialde guztietan jarraipena eman zaio gehiegizko defizit-mailak jaisteko neurrien ezarpenari; eta, horrenbestez, kontu publikoen desorekak murriztu dira. Japonia izan da salbuespen bakarra, igoera txiki bat ezarri baitu.

Europaren esparruan, Frantziak, Italiak eta Erresuma Batuak murriztu egin dituzte beren defizitak (-% 2,6, -% 2,3 eta -% 1,8 2017an; -% 3,4, -% 2,5 eta -% 3,3 2016an). Alemaniak, berriz, % 1,3 areagotu du superabita (% 1 aurreko ekitaldian). Eurogunearen baterako defizitari erreparatuta, -% 0,9 izan da 2017an (-% 1,5 2016an).

Nazioartean, bai Ameriketako Estatu Batuak bai Kanadak beren defizit-maila murriztu dute (2017an -% 3,6 eta -% 1 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian, berriz, -% 5 eta -% 1,1). Bestalde, Japoniak zertxobait igo du (-% 3,5 2017an; -% 3,4 2016an).

Horiek horrela, ELGAko kide diren herrialdeek finantzaketa-premiak murriztu dituzte 2017an, BPGren -% 2ra arte). Horrenbestez, aurreko ekitaldiko maila (-% 2,9) portzentajezko bederatzi hamarrenetan hobetu dute.

**9. koadroa      Administrazio publikoen finantzaketa-premiak  
(finantzaketa-gaitasuna (+) edo premia (-), barne-produktu gordin  
nominalaren ehunekotan)**

*(Barne-produktu gordinaren % zenbat)*


Herrialdea	2015	2016	2017
Ameriketako Estatu Batuak	-4,3	-5,0	-3,6
Japonia	-3,6	-3,4	-3,5
Alemania	0,8	1,0	1,3
Frantzia	-3,6	-3,4	-2,6
Italia	-2,6	-2,5	-2,3
Erresuma Batua	-4,3	-3,3	-1,8
Kanada	-0,1	-1,1	-1,0
<b>Eurogunea</b>	<b>-2,0</b>	<b>-1,5</b>	<b>-0,9</b>
<b>ELGA, guztira</b>	<b>-3,0</b>	<b>-2,9</b>	<b>-2,0</b>

*Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).*

Politika monetarioari dagokionez, lehen adierazi bezala, 2017an AEBko Erreserba Federalak % 1,5era arte igo du bere erreferentzia-tasa, eta Europako Banku Zentralak (EBZ), berriz, lehengoari eutsi dio (% 0).



## 1. grafikoa Interes-tasen aldakuntzak



Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

## Europar Batasuna

Europako eremua aztertzea helburu duen azpiepigrafe hau garatu aurretik, adierazi behar dugu EB-28 osoari buruzko informazioa ematen jarraituko dugula, Brexita gorabehera; izan ere, Erresuma Batua Europar Batasunetik benetan irteteko prozesua negoziazio-fasean dago oraindik ere.

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, 2017an EB-28 osoak bere hazkundearen erritmoa indartu du, % 2,4ra iritsi arte (% 2koa izan zen aurreko ekitaldian). Bestalde, barne-eskariaren bizitasuna baretu da, eta portzentajezko hiru hamarren behera egin ditu (% 2,1eko hazkundera 2017an; % 2,4koa 2016an), esportazioen hazkundera areagotu da (% 5,3 2017an; % 3,5 aurreko ekitaldian), eta inportazioen hazkundera, berriz, baretu egin da (% 4,5 2017an; % 4,8 aurreko ekitaldian).

Barne-eskarian arreta jarrita, bai kontsumo pribatuak bai kontsumo publikoak bai inbertsioak bizitasun handiagoa izan dute aurreko ekitaldian baino: 2017an % 1,9, % 1,1, eta % 3,4 hurrenez hurren; 2016an % 2,4, % 1,6 eta % 3,5 hurrenez hurren).

10. koadroa Adierazle nagusiak (EB-28)

(Urtetik urterako aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2015	2016	2017
<b>Jarduera</b>			
– Kontsumo pribatua	2,1	2,4	1,9
– Kontsumo publikoa	1,3	1,6	1,1
– Kapital finkoaren eraketa gordina (KFEG)	3,6	3,5	3,4
– Barne-eskaria	2,3	2,4	2,1
– Esportazioak	6,2	3,5	5,3
– Inportazioak	6,3	4,8	4,5
– Barne-produktu gordina	2,3	2,0	2,4
<b>Prezioak eta soldatak</b>			
– Barne-produktu gordinaren deflatorea	1,3	1,0	1,4
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	0,3	0,6	1,6
– Lan-kostu unitario errealak	-1,1	0,1	-0,2

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2018ko udaberria).*

Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen bilakaera kontuan hartuta, guztiek gora egin dute 2017an. Honako hauek izan dute bizitasun handiena, betiere % 5etik gorakoa: Irlanda, Errumania, Malta eta Eslovenia (% 7,8, % 6,9, % 6,6 eta % 5 hurrenez hurren). Beste muturrean daude % 2tik beherako hazkundera izan duten herrialdeak: Erresuma Batua eta Frantzia (% 1,8 bietan), Belgika (% 1,7), Italia (% 1,5) eta Grezia (% 1,4). Bestalde, Alemaniak, Europako eragile ekonomiko nagusiak, % 2,2ko hazkundera izan du; horrenbestez, portzentajezko hiru hamarren areagotu du aurrerapenaren erritmoa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 1,9 2016an).

11. koadroa Barne-produktu gordinaren hazkundera  
(Europar Batasuna)

(Urtetik urterako aldaketa-tasaren % zenbat)

Herrialdea	2015	2016	2017
Irlanda	25,6	5,1	7,8
Errumania	4,0	4,8	6,9
Malta	9,9	5,5	6,6
Eslovenia	2,3	3,1	5,0
Estonia	1,7	2,1	4,9
Polonia	3,8	3,0	4,6
Letonia	3,0	2,2	4,5
Txekiar Errepublika	5,3	2,6	4,4
Hungaria	3,4	2,2	4,0
Zipre	2,0	3,4	3,9
Lituania	2,0	2,3	3,8
Bulgaria	3,6	3,9	3,6
Eslovakia	3,9	3,3	3,4
Herbehereak	2,3	2,2	3,2
Espainia	3,4	3,3	3,1
Austria	1,1	1,5	2,9
Kroazia	2,3	3,2	2,8
Portugal	1,8	1,6	2,7
Finlandia	0,1	2,1	2,6
Suedia	4,5	3,2	2,4
<b>EB-28</b>	<b>2,3</b>	<b>2,0</b>	<b>2,4</b>
Luxenburgo	2,9	3,1	2,3
Alemania	1,7	1,9	2,2
Danimarka	1,6	2,0	2,2
Erresuma Batua	2,3	1,9	1,8
Frantzia	1,1	1,2	1,8
Belgika	1,4	1,5	1,7
Italia	1,0	0,9	1,5
Grezia	-0,3	-0,2	1,4

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2018ko udaberria).

Per capita BPGa aztertzen badugu, erosketa-ahalmenaren parekotasunari dagokionez, ikusten dugu 2017an ere Europar Batasuneko kideen arteko alde handiek irauten dutela. Lehengo kideen artean, Greziak (% 62,4), Portugalek (% 72,2), Espainiak (% 85,5), Italiak (% 89,2), Frantziak (% 96) eta Erresuma Batuak (% 98,6) dituzte maila baxuenak, EB-15eko batezbestekoa (% 100) baino baxuagoak. Maila altuena, berriz, Luxenburok du: batezbestekoa halako bi eta gehiago (% 233,6). EB-28 osorik aintzat hartuta, eta kide berriak bata bestearen segidan sartu ondoren, Europar Batasuneko per capita BPGak nabarmen behera gitea eragin du.

12. koadroa Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordina (2017)

Herraldea	UE-15=100	UE-28=100
Luxenburgo	233,6	252,0
Irlanda	174,3	188,0
Herbehereak	118,6	127,9
Austria	118,1	127,4
Alemania	114,0	123,0
Danimarka	113,9	122,9
Suedia	112,9	121,8
Belgika	107,9	116,4
Finlandia	101,6	109,6
<b>EB-15 guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>107,9</b>
Erresuma Batua	98,6	106,4
Frantzia	96,0	103,6
<b>EB-28 guztira</b>	<b>92,7</b>	<b>100,0</b>
Italia	89,2	96,2
Malta	89,0	96,0
Espainia	85,5	92,2
Txekiar Errepublika	82,8	89,3
Eslovenia	78,6	84,8
Zipre	77,4	83,5
Portugal	72,2	77,9
Lituania	72,1	77,8
Eslovakia	72,0	77,7
Estonia	71,4	77,0
Polonia	64,8	69,9
Hungaria	63,7	68,7
Grezia	62,4	67,3
Letonia	61,9	66,8
Errumania	56,6	61,1
Kroazia	56,2	60,6
Bulgaria	45,7	49,3

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2018ko udaberria).*

### Aurreikuspenak

Nazioarteko erakunde nagusien proiektzioek adierazten dutenez, hazkundearen erritmoa egonkortu egingo da, oro har, eta goraka ari diren eta garatzeko bidean dauden merkatu-ekonomiak izango dira etorkizunean ere bizienak. Zehazki, Nazioarteko Diru Funtsak adierazitakoaren arabera, munduko ekonomiak % 3,9ko hazkundera izango du, bai 2018an bai 2019an.

Bestalde, ekonomia aurreratuek profil neurritsuagoa izango dute: % 2,5 gora egingo dute 2018an, eta % 2,2 2019an. Aipatzekoa da, bereziki, ekonomia iparramerikarraren bizitasuna, ia % 3ko hazkundera izango baitu hurrengo bi ekitaldietan, ELGAK adierazitakoaren arabera. Eurogunean apalagoak izango dira hazkunderak: % 2,2 2018an eta % 2,1 2019an. Japonian, berriz, ekonomiak % 1,2 egingo du gora hurrengo bi urteetan.

Nolanahi ere, egoera hori gauza dadin, alde askoren arteko lankidetzan sakondu beharko da hainbat arlotan, hala nola merkataritzan, munduko desoreken murrizketan, zibersegurtasunean eta klima-aldaketan.

### 13. koadroa Aurreikuspen ekonomikoak (herrialde industrializatuak)

Kontzeptua	2018	2019
(%)		
– Barne-produktu gordin erreala (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,9	2,8
• Japonia	1,2	1,2
• Eurogunea	2,2	2,1
• ELGA guztira	2,6	2,5
– Inflazioa (kontsumo pribatuaren deflatorea) (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,2	2,2
• Japonia	0,9	1,3
• Eurogunea	1,6	1,8
• ELGA, guztira	2,2	2,3
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	3,9	3,6
• Japonia	2,5	2,5
• Eurogunea	8,3	7,8
• ELGA guztira	5,4	5,1
– Defizit publikoa (barne-produktu gordinaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	-5,5	-6,1
• Japonia	-3,0	-2,5
• Eurogunea	-0,6	-0,4
• ELGA guztira	-2,6	-2,7
– Munduko merkataritza (% Δ)	4,7	4,5

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2018ko maiatza).

## 1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

### Ezaugarri orokorrak

2017an Espainiako ekonomiak %3tik gorako hazkundera izan du hirugarren urtez jarraian, aurrerapenaren erritmoak moteltzen jarraitu duen arren: %3,1 2017an, %3,3 2016an eta %3,4 2015ean.

Horiek horrela, estatuko ekonomiak Europa osokoak baino bizitasun handiagoa izateak zertxobait hobetu du Europar Batasuneko ekonomia nagusiekin benetan parekatzeko konbergentzia-prozesua.

Eskariari dagokionez, 2017an barne-produktu gordinaren gorakada eragin duen arrazoi nagusia izan da barne-eskariak portzentajezko 2,8 puntuko ekarpen positiboa egin diola

hazkunde globalari (2016an portzentajezko 2,5 puntu positibo). Horrez gainera, kanpo-sektorearen portzentajezko hiru hamarreneko ekarpen positiboak ere eragina izan du (portzentajezko zortzi hamarren aurreko ekitaldian).

Eskaintzari erreparatuta, lau sektore handiek gora egin dute 2017an. Aurrerapenaren erritmoa sendotu du industriak, eta bereziki eraikuntzak (2017an % 3,7 eta % 4,9 hurrenez hurren; 2016an % 3,6 eta % 1,9 hurrenez hurren). Bestalde, lehen sektoreak eta zerbitzuek hazkundearen erritmoa baretu dute (2017an % 3,7 eta % 2,6 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 6,9 eta % 3 hurrenez hurren).

Lan-merkatuari dagokionez, 2017an biztanleria landunak % 2,6 egin du gora (% 2,7 2016an). Sektore guztietan, oro har, enpleguak gora egin du, eta aurreko ekitaldian baino bizitasun handiagoz, zerbitzuak salbuespen bakarria direlarik. Bestalde, biztanleria langabearen beheraldia erritmoa bizitu du (% -12,6 2017an; % -11,4 2016an; -% 9,9 2015ean), eta 3.916.900 langabe izatera iritsi da 2017an. Zenbateko horrek, hain zuzen, % 17,2ko langabezia-tasa dakar.

Prezioak kontuan hartuta, 2017ko ekitaldia ixtean, KPIren urtetik urterako aldaketa (abendutik abendura) % 1,1era jaitsi da (% 1,6 2016ko ekitaldia ixtean), baina urteko batezbestekoari begiratuz gero, % 2raino igo da (-% 0,2ko batezbestekoa 2016an).

Azkenik, aurrekontu-exekuzioari dagokionez, 2017ko defizitak (BPGaren -% 3,11), kreditu-erakundeentzako laguntzak barne, portzentajezko ia puntu eta erdi hobetzen du aurreko ekitaldikoa (BPGaren -% 4,51 2016an).

### **Agregatu makroekonomiko nagusiak**

Espainiako ekonomiak 2017an lortutako % 3,1eko gorakada hori egonkorra izan da hiruhilekoetan zehar: Urtetik urterako hazkundera % 3koa izan da lehen hiruhilekoan, eta % 3,1ekoa hurrengo hiruetan.

Horiek horrela, jardueraren bilakaera aztertuko dugu jarraian, ikuspegi hauek aintzat hartuta: eskaria (helmuga), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2017an, Espainiako BPG osoa 1.163.662 milioi eurora iritsi da<sup>1</sup>; horietatik 886.573 milioi azken kontsumoari dagozkio (659.274 etxeena, 12.464 etheen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko gizarte-erakundeena -EZIAGGE- eta 214.835

---

<sup>1</sup> Uneko prezioak.

administrazio publikoena), 239.176 inbertsioari (120.879 eraikuntzara bideratutakoak, 83.807 ekipo-ondasunetara eta 34.580 jabetza intelektualeko produktuetara), eta 6.881 izakinen aldakuntzari. Era horretan, barne-eskaria, guztira, 1.132.630 milioi eurokoa izan da. Esportazioen (396.725 milioi euro) eta inportazioen (365.693 milioi euro) arteko aldea kanpo-eskaria da, eta hori kontuan hartuta, guztizko eskaria zenbatekoa izan den jakin dezakegu.

- 2017ko barne-eskariak hazkunde orokorrari egindako ekarpen positiboari (portzentajezko 2,8 puntu) kanpo-eskariak egindako ekarpen positiboa (portzentajezko hiru hamarren) gehitu zaio. Barne-eskariaren esparruan, kontsumo pribatuaren hazkunde-erritmoa baretu egin da (% 2,4 2017an; % 2,9 2016an), baina kontsumo publikoa eta inbertsioa indartu egin dira (2017an % 1,6 eta % 5 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 0,8 eta % 3,3 hurrenez hurren). Azken partida horri erreparatuta, bai eraikuntzari lotutako arloak bai ekipo-ondasunekin lotutakoak hazkundea areagotu dute, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2017an % 4,6 eta % 6,1 hurrenez hurren; 2016an % 2,4 eta % 4,9 hurrenez hurren).
- Sektorekako banaketa aintzat hartuta, 30.165 milioi euro lehen sektoreari dagozkio, 190.812 milioi euro industria-sektoreari (152.026 milioi euro manufaktura-industriari dagozkio), 60.704 milioi eraikuntzari eta 773.182 milioi zerbitzuei. Partida horiei zergei dagokiona gehituz gero (108.799 milioi euro), guztizko ekoizpena lortuko dugu.
- Lau sektore handiek gora egin dute 2017an. Aurrerapenaren erritmoa sendotu du industriak, eta bereziki eraikuntzak (2017an % 3,7 eta % 4,9 hurrenez hurren; 2016an % 3,6 eta % 1,9 hurrenez hurren). Bestalde, hazkundearen erritmoa baretu dute lehen sektoreak eta zerbitzuek (2017an % 3,7 eta % 2,6 hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 6,9 eta % 3 hurrenez hurren).

**14. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (eskaria eta eskaintza)**

(Urtetik urterako tasaren % zenbat, bolumen kateatua)

Eragiketak		2016	2017
ESKARIA	Azken kontsumoko gastua	2,5	2,2
	– Etxeetan	2,9	2,4
	– EZIAGGEetan	7,4	2,7
	– Administrazio Publikoetan	0,8	1,6
	Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0
	– Eraikuntza	2,4	4,6
	– Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak	4,9	6,1
	Izakinen gorabeherak*	0,0	0,1
	Barne-eskaria*	2,5	2,8
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,8	5,0
	Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	2,7	4,7
<b>Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan</b>		<b>3,3</b>	<b>3,1</b>
ESKAINZA	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	6,9	3,7
	Industria	3,6	3,7
	Eraikuntza	1,9	4,9
	Zerbitzuak	3,0	2,6
	Produktuen gaineko zerga garbiak	4,4	4,2

(\*): Barne-produktu gordinaren hazkundeari eginiko ekarpena, merkatu prezioan.  
Iturria: EIN.

- Errentaren aldetik begiratuta, soldatakoen ordainsariek hartu dute BPGaren % 47,3, ustiapenen soberakin garbiak % 42,4 hartu du, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek, berriz, gainerako % 10,3a.

**15. koadroa Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta)**

(%  $\Delta$  nominala)

Eragiketak	2015	2016	2017	2017 (M euro)
Langileen soldatak <sup>(1)</sup>	5,3	2,9	3,3	550.272
Ustiapeneko soberakin gordina <sup>(2)</sup>	1,7	4,9	4,8	493.627
Ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zerga garbiak <sup>(3)</sup>	8,4	1,4	4,5	119.763
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan <sup>(4)</sup>	4,1	3,6	4,0	1.163.662

(4) = (1)+(2)+(3).

Iturria: EIN.

**Kanpo-merkataritza**

2017an estatuko barne-merkataritzak aurreko ekitaldian baino bizitasun handiagoa izan du; hazkundearen erritmoa bizkortu dute esportazioek eta, bereziki, inportazioek (% 5 eta % 4,7 hurrenez hurren; 2016an % 4,8 eta % 2,7 hurrenez hurren).

Inportazioen bizkortzea esportazioena baino handiagoa izan denez, kanpo-eskariak hazkunde globalari egindako ekarpen positiboa txikiagoa izan da aurreko ekitaldikoa



baino: portzentajezko 0,3 puntu 2017an eta 0,8 puntu 2016an. Horrez gainera, azpimarratu behar da ekitaldiak aurrera egin ahala aldatu egin dela kanpo-eskariak hazkunde globalari egin dion ekarpenaren izaera, positibotik negatibora: portzentajezko 0,5 puntuko ekarpen positiboa 2017ko lehen hiruhilekoan, portzentajezko 0,6 puntuko ekarpen positiboa bigarren hiruhilekoan, portzentajezko 0,1 puntuko ekarpen positiboa hirugarren hiruhilekoan, eta ekarpen negatiboa (portzentajezko -0,1 puntu) laugarren hiruhilekoan.

### Laneko kostuak eta prezioak

Petrolioaren prezioak ekitaldiaren lau hiruhilekotan izandako goranzko joerarekin bat eginez, 2017an prezioen bilakaerak urtetik urterako tasa positiboak izan ditu hilero; baina, orokorrean, beherantz egin dute pixkanaka: % 3 urtarrilean eta otsailean, % 2,3 martxoan, % 2,6 apirilean, % 1,9 maiatzean, % 1,5 ekainean eta uztailean, % 1,6 abuztuan, % 1,8 irailean, % 1,6 urrian, % 1,7 azaroan eta % 1,1 abenduan.

Hortaz, 2017ko ekitaldia ixtean, inflazioak (urtetik urterako tasa, abendutik abendura) hazkunde motelagoa izan du (% 1,1) aurreko ekitaldia ixtean izan zuena baino (% 1,6). Dena dela, urteko batezbestekoak kontuan hartuta, prezioak % 2 igo dira 2017ko ekitaldi osoan (-% 0,2 2016an), eta azpiko inflazioa % 1,1ekoa izan da (% 0,8koa aurreko ekitaldian).

Horiek horrela, kontuan hartuta ELGaren arabera Euroguneko inflazio-tasa (kontsumo pribatuaren deflatorearen bidez neurtua) % 1,4koa izan dela 2017an (2016an % 0,4koa izan zen), Espainiako ekonomiaren eta moneta bakarraren blokearen arteko diferentzialak portzentajezko sei hamarren positibo izan ditu (portzentajezko sei hamarren negatibo aurreko ekitaldian).

Ondasun-taldeak kontuan hartuta, 2017an garraioak eta etxebizitza izan dira, alde handiarekin, inflazioa gehien bultzatu dutenak, % 4 inguruko tasak eraginez (% 4,2 eta % 3,9 hurrenez hurren). Horien ondoren, honako hauek ageri dira: hotelak, kafetegiak eta jatetxeak; edari alkoholodunak eta tabakoak; komunikazioak; elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak; aisia eta kultura. Produktu eta zerbitzu horien guztien prezioek % 2 eta % 1 bitarteko igoerak izan dituzte (% 1,9, % 1,7, % 1,3, % 1,2 eta % 1,1 hurrenez hurren). Eta, horien ondoren, honako hauek daude: beste batzuk izeneko taldea eta irakaskuntza (% 0,9 bietan); medikuntza (% 0,7); eta jantziak eta oinetakoak (% 0,5). Aitzitik, etxeko tresneriaren prezioek behera egin dute (-% 0,4).

**16. koadroa Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI)**
*(Urtetik urterako aldaketa-tasa)*

Kontzeptua	2015	2016	2017
KPI			
– Indize orokorra <sup>(1)</sup>	0,0	1,6	1,1
– Indize orokorra <sup>(2)</sup>	-0,5	-0,2	2,0
Elikagaiak	1,2	1,3	1,3
Elikagaiak ez direnak	-1,0	-0,6	2,1
• Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	1,2	1,4	1,2
• Edari alkoholdunak, tabakoa	1,4	0,5	1,7
• Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,6	0,5
• Etxebizitza	-2,1	-4,2	3,9
• Etxeko tresneria	-0,2	0,2	-0,4
• Medikuntza	0,1	-0,2	0,7
• Garraioak	-4,5	-2,1	4,2
• Komunikazioak	-1,8	2,6	1,3
• Aisia eta kultura	-0,4	-1,0	1,1
• Irakaskuntza	1,1	0,6	0,9
• Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,8	1,1	1,9
• Beste batzuk	1,6	1,6	0,9
Azpikoa	0,6	0,8	1,1
IPI			
– Indize orokorra	-2,1	-3,1	4,4
• Kontsumo-ondasunak	1,1	0,2	1,9
• Ekipo-ondasunak	0,8	0,6	0,9
• Bitarteko ondasunak	-0,7	-1,5	3,4
• Energia	-8,8	-10,8	10,4

(1): Abendutik abendura.

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN.

Industria-prezioei dagokienez, 2017an indize orokorrak joera aldatu du eta % 4,4 igo da (-% 3,1 2016an), nabarmen garestitu baita energia (% 10,4), bai eta bitarteko ondasunak ere (% 3,4), eta maila apalagoan kontsumo-ondasunak (% 1,9) eta ekipo-ondasunak (% 0,9).

Lan-kostuak aztergai hartuta, 2017an produktibitatea % 0,3 areagotuenez (BPGak % 3,1 egin duelako gora, eta enpleguak, berriz, % 2,8, lanaldi osoko lanpostuen baliokideak aintzat hartuta), eta soldatadun bakoitzeko ordainsariak % 0,2 igo direnez, lan-kostu unitarioak behera egin du (-% 0,1), baina ez aurreko ekitaldian bezain beste (2016an -% 0,7).

## 17. koadroa Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak

Kontzeptua	2015	2016	2017
Barne-produktu gordin erreala	3,4	3,3	3,1
Enplegua guztira*	3,2	3,0	2,8
Produktibitatea	0,2	0,3	0,3
Langileen soldatak	5,3	2,9	3,3
Soldatako enplegua*	3,6	3,3	3,1
Langile bakoitzaren soldata	1,7	-0,4	0,2
Lan-kostu unitarioa	1,5	-0,7	-0,1

(% $\Delta$ )

(\*): Kontabilitate Nazionalako enpleguaren datuak erabili dira: Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Geure balioespena, E/Nen datuak oinarri hartuta.

**Lan-merkatua**

2017ko bultzada ekonomikoak hartaratuta (% 3,1eko hazkundera izan du barne-produktu gordinak), estatuko lan-merkatuak bilakaera ona izan du; enpleguak gora egin du eta langabeziak behera. Hala eta guztiz ere, handiegia da oraindik ere langabezia-tasa.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) adierazitakoaren arabera, biztanleria landunak aurreko ekitaldiko hazkunderaren erritmoari eutsi dio gutxi gorabehera (% 2,6 2017an; % 2,7 2016an), biztanleria aktiboak, oro har, behera egin duen bitartean (-% 0,4).

Bestalde, jarduera-tasa apur bat jaitsi da (% 58,8 2017an; % 59,2 aurreko ekitaldian), eta bai gizonen tasak bai emakumeenak behera egin dute (2017an % 64,7 eta % 53,2 hurrenez hurren; 2016an % 65,1 eta % 53,6 hurrenez hurren).

Enpleguaren hazkunde horrek (% 2,6) 2017an 18.824.800 landun izatera iristea eragin du, sektore guztietako hazkunde orokorraren ondorioz. Lehen sektoreak eta, bereziki, industriak eta eraikuntzak bizkortu dute dagokien sektoreko enpleguaren aurrerapena (2017an % 5,8, % 5 eta % 5,1 hurrenez hurren; 2016an % 5,1, % 1,6 eta hazkunde nulua, hurrenez hurren). Bestalde, baretu egin da zerbitzuen hazkundera (% 1,9 2017an; % 2,9 aurreko ekitaldian).

**18. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera.  
Urteko batezbestekoak**

*(m pertsona eta % zenbat)*

Kontzeptua	2017	% Δ		
		2015	2016	2017
Biztanleria aktiboa	22.741,7	-0,1	-0,4	-0,4
Biztanleria landuna	18.824,8	3,0	2,7	2,6
– Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	819,5	0,1	5,1	5,8
– Industria	2.647,4	4,3	1,6	5,0
– Eraikuntza	1.128,3	8,1	0,0	5,1
– Zerbitzuak	14.229,6	2,6	2,9	1,9
Biztanleria langabea	3.916,9	-9,9	-11,4	-12,6
Langabezia-tasa*	17,2	-9,7	-11,0	-12,3

*(\*): Biztanleria aktiboaren langabezia-tasa, ehunekotan.*

*Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko ekaineko datuak).*

2017an biztanleria landunak zertxobait bizkortu du hazkundearen erritmoa, % 3,2ra iritsi arte (% 3,1 2016an). Aldi berean, soldatakoa ez den biztanleriak behera egin du (-% 0,1 2017an; % 0,7 aurreko ekitaldian), funtsean autonomoen kopurua murriztu delako (-% 2,4). Kontratu mota aintzat hartuta, aurreko ekitaldietan bezala, aldi baterako kontratua duten soldatakoen kopurua askoz ere gehiago handitu da kontratu mugagabea dutenena baino (% 5,6 eta % 2,3 hurrenez hurren).

Biztanleria landunean arreta jarrita, 2017an biziagoa izan da multzo horren beherakadaren erritmoa (-% 12,6; aurreko ekitaldian, berriz, -% 11,4). Horrenbestez jarraipena eman zaio 2014an hasitako beheraldiari. Horren haritik, adierazi behar da 2017an Espainiako biztanleria langabeak lau milioi pertsona baino zertxobait gutxiago hartzen dituela; beraz, 2009ko mailatik gertu dago. Langabezia-tasa % 17,2ra jaitsi da (% 19,6 2016an), baina hala ere Europako esparruan bigarren tokian jarraitzen du, Greziak soilik baitu langabezia-tasa handiagoa (Europako Batzordearen arabera, % 21,5).

**19. koadroa Enplegua, egoera profesionalaren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak**

(m pertsona eta % zenbat)

Kontzeptua	2017	% Δ		
		2015	2016	2017
Biztanleria landuna	18.824,8	3,0	2,7	2,6
Soldatakoak	15.715,1	3,4	3,1	3,2
– Sektorre pribatua	12.686,5	3,9	3,6	3,8
– Sektorre publikoa	3.028,6	1,7	0,9	0,9
Soldatakoak ez direnak*	3.109,7	1,1	0,7	-0,1
– Enplegu-emaileak	960,9	1,3	2,4	5,7
– Autonomoak	2.032,7	1,4	0,4	-2,4
– Kooperatibistak	23,8	-7,3	15,9	-9,5
– Familia-laguntza	85,8	-2,3	-12,6	-2,2
Kontratu mugagabedun soldatakoak	11.524,2	1,9	1,8	2,3
Aldi baterako kontratudun soldatakoak	4.190,9	8,3	6,8	5,6
Lanaldi osoko landunak	16.005,9	3,2	3,3	2,9
Lanaldi partzialeko landunak	2.818,9	1,9	-0,8	1,0

(\*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, sailkatu ezin direnak ere sartu baitira bertan.

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko ekaineko datuak).

**Sektorre publikoa eta interes-tasak**

Administrazio publiko guztien 2017ko defizitak (BPGaren -% 3,11), kreditu-erakundeentzako laguntzak barne, portzentajezko ia puntu eta erdi hobetzen du aurreko ekitaldikoa (BPGaren -% 4,51 2016an).

Autonomia-erkidegoei erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak, Kanariak eta Balear Uharteek superabit-saldoa izan dute 2017an, eskualdeko barne-produktu gordinaren arabera (% 1,5, % 1,22, % 0,67 eta % 0,48 hurrenez hurren). Gainerako autonomia-erkidegoek saldo defizitarioak izan dituzte. Defizit handiena Murtziako Eskualdeak izan du (-% 1,51), eta txikiena, berriz, Galiziak (-% 0,2).

**20. koadroa Defizit publikoa**

(Barne-produktu gordinaren % zenbat)


Kontzeptua	2016	2017
Administrazio zentrala*	-2,48	-1,86
Autonomia-erkidegoak	-0,84	-0,32
Tokiko korporazioak	0,61	0,59
Gizarte Segurantzza	-1,59	-1,48
<b>Administrazio publikoak, guztira*</b>	<b>-4,29</b>	<b>-3,07</b>
• Kreditu-erakundeei emandako laguntzak	-0,21	-0,04
<b>Administrazio publikoak, guztira</b>	<b>-4,51</b>	<b>-3,11</b>

(\*): Finantza-laguntzarik gabe.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2018ko martxoaren 26a).

Azkenik, adierazi behar da, 2017ko ekitaldia ixtean Europako Banku Zentralaren erreferentzia-tasa % 0 izan dela, eta ekitaldi guztian ez dela doitu. Aitzitik, Erreserba Federalaren erreferentzia-tasa % 1,5era igo da, portzentajezko puntu laurdeneko igoerak egin baitira martxoan, ekainean eta abenduan.

**2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala**



Iturria: EBZ eta Erreserba Federala.

**Aurreikuspenak**

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak apirilaren amaieran argitaratutako egoera makroekonomikoaren arabera, estatuko ekonomiaren hazkundera % 2tik gorako erritmoa izango du hurrengo bi urteetan, baina argi ikusten da abiadura moteldu egingo dela pixkanaka (% 2,7 2018an, % 2,4 2019an, eta % 2,3 2020an eta 2021ean). Enpleguak, lanaldi osoko lanpostuen baliokideak aintzat hartuta, % 2tik gorako hazkundera izango du, eta horrek langabezia-tasaren beherakada bultzatuko du. Hala eta guztiz ere, langabezia-tasa % 10etik gorakoa izango da aurreikuspenetan aintzat hartutako denbora guztian (2018-2021).

## 21. koadroa      Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2018)

Kontzeptua	Urtetik urterako aldaketa-tasa
<b>BARNE-PRODUKTU GORDINA eta ESKARI-AGREGATUAK</b>	
• Azken kontsumo nazional pribatuko gastua	2,0
• Administrazio publikoen azken kontsumoaren gastua	1,1
• Kapital finkoaren eraketa gordina	4,7
– Barne-eskaria (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	2,3
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,8
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	4,1
– Kanpo-saldoa (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	0,4
– Barne-produktu gordina	2,7
<b>LAN-MERKATUA</b>	
– Enpleguaren aldakuntza ehunekotan*	2,5
– Langabezia-tasa	15,5

(\*): Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa (2018ko apirila).

## 2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA

Azken urte hauetan, Nafarroako egitura ekonomikoak ekonomia garatuen ohiko ezaugarriak ditu; izan ere, Nafarroako ekoizpenaren eta enpleguaren sektore-banaketaren ezaugarria da zerbitzu-sektorea nagusi dela; ondoren, industria-sektorea dago, eta jarduera horrek Nafarroan duen proportzio erlatiboa inguruko ekonomietan duena baino handiagoa da, argi eta garbi; eraikuntzaren eta lehen sektorearen proportzio erlatiboa, berriz, askoz ere txikiagoa da.

### 22. koadroa Ekoizpen-egitura (balio erantsi gordinaren konposizio sektoriala), 1960-2017

Sektorea	1960		1975		1990		2017	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Nekazaritza	33,0	22,6	14,1	9,7	4,9	4,9	3,5	2,9
Industria	27,5	31,5	37,4	31,8	38,7	27,5	32,8	18,1
Eraikuntza	5,3	5,3	6,4	7,3	7,8	9,7	5,4	5,8
Zerbitzuak	34,2	40,6	42,1	51,2	48,6	57,9	58,3	73,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EIN, FUNCAS.

### 23. koadroa Egitura okupazionala (enpleguaren konposizio sektoriala), 1960-2017

Sektorea	1960		1975		1990		2017	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Nekazaritza	41,1	41,7	20,9	23,4	7,2	11,0	3,9	4,3
Industria	23,1	23,2	36,8	27,2	35,7	22,6	27,3	14,3
Eraikuntza	7,2	6,8	8,8	9,6	8,5	9,4	6,1	6,0
Zerbitzuak	28,6	28,3	33,5	39,8	48,6	57,0	62,7	75,4
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EIN, FUNCAS.

Nafarroako produkzioaren eta enpleguaren sektore-osaeraren bilakaerak Nafarroako produkzio-sarean azken hamarkada honetan izandako aldaketa nabarmenak erakusten ditu. Aldaketa horien artean, honako hauek dira garrantzitsuenak: zerbitzuen proportzioak gora egin du zertxobait, eta lehen mailako sektorea nabarmen jaitsi da. Joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan industria-jarduerak hasitako hazkundearen eraginez, sektore horren proportzioa gero eta handiagoa izan da eskualdeko ekonomian, eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean maila handienera iritsi zen; ondoren, ordea, behera egin zuen, nahiz eta jaitsiera hori inguruko ekonomien beherakada baino txikiagoa izan. Bestalde, eraikuntza-sektorearen proportzioa aldakorragoa izan da denboran zehar; hala eta guztiz ere, ikusi da zertxobait igo dela sektore horren proportzio erlatiboa, bereziki mende honetako lehenengo urteetako goranzko zikloan, urte horietan Nafarroako ekonomiaren hazkundearen –eta



estatu osoko ekonomiaren hazkundearen- eragile nagusietako bat izan zelako, baina joera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera horrek pairatu duen krisialdiaren ondorioz.

Aipatu ditugun produkzioaren eta enpleguaren sektore-osaeran izandako aldaketek Nafarroan, orokorrean, Espainia osoan ikusitako antzeko joerei jarraitu dieten arren, aldaketa horiei buruzko azterketa zehatza egiten badugu, Nafarroako ekonomia-egituren osaeran alderdi desberdin batzuk ageri direla ikusiko dugu. Zehazki, nabarmendu behar dugu nekazaritza-produkzioaren proportzioak Nafarroan egin duen beherakada estatu osoan egin duenaren antzekoa izan dela; hortaz, 2017an Nafarroako proportzioa % 3,5 izan da, eta Espainiakoa, berriz, % 2,9.

Era berean, ikusten da hirugarren sektoreko produkzioak gorakada handiagoa egin duela Nafarroan Espainian baino. Nafarroako proportzioa % 58,3 izan da 2017an; Espainiakoa, aldiz, % 73,3. Azkenik, industria-sektorearen proportzio erlatiboa asko jaitsi da Espainiako ekonomian, eta ez hainbeste Nafarroakoan; 2017an Nafarroako proportzioa % 32,8 izan da, eta Espainiakoa, berriz, % 18,1.

**24. koadroa Nafarroaren ehunekoa Espainiako ekonomian (2017)**

Sektorea	% Nafarroa/Espainia	
	BEG	Enplegua
Nekazaritza	2,06	1,34
Industria	3,09	2,82
Eraikuntza	1,60	1,50
Zerbitzuak	1,36	1,23
<b>Guztira</b>	<b>1,70</b>	<b>1,47</b>

*Iturria: EIN.*

Azken batean, Nafarroan eta Espainian nekazaritzak eta eraikuntzak bakoitzaren ekonomian dituzten proportzioak antzekoak direnez, Nafarroaren ekonomia-egitura eta Espainia osoarena bereizten dituen alderdi nagusia da industriaren eta zerbitzuen sektoreek dituzten ehunekoak. Alde horretatik, Nafarroako industria-ekoizpenaren proportzio erlatiboa Espainian izandakoa baino 14,7 puntu handiagoa izan da 2017an (15,5 puntu 2016an); zerbitzuen sektorean, berriz, proportzio hori 15,0 puntu txikiagoa izan da Nafarroan (15,7 puntu 2016an). Aipatutako alderdi horiek berretsi egiten dira enpleguaren sektore-osaerak izandako bilakaera aztertzen denean; izan ere, arestian deskribatutako ekoizpen-sistemaren eraldaketa ekoizpen-sarearen eraldaketarekin lotuta dago.

**25. koadroa Balio erantsi gordina biztanleko Nafarroan**

*(Espainiako batez besteko oinarriaren indizea=100)*

Urtea	BEG biztanle bakoitzeko
2008	129,1
2009	128,7
2010	129,9
2011	125,4
2012	126,1
2013	125,5
2014	123,5
2015	123,2
2016	124,4
2017	123,8

*Iturria: EIN.*

Testuinguru horretan, estatuan Nafarroako ekonomiak izandako industria-espezializazio nabarmenak eragin du azken urte hauetan Nafarroako garapen- eta ongizate-maila estatu osokoa baino handiagoa izatea. Horiek horrela, Nafarroako ekonomiak azken urte hauetan bizitasun handiagoa izan duenez, biztanle bakoitzeko balio erantsi gordina estatuko batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da gaur egun Nafarroan (% 23,8 handiagoa 2017an).

Atal hau amaitzeko, Nafarroako produkzio-sistema osatzen duten jarduera-sektoreen ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu labur-labur eta orokorrean.

**Lehen sektorea**

Sektore honek enpleguari eta produkzioari egiten dien ekarpena azken hamarkada hauetan nabarmen murriztu den arren, nekazaritza-jarduera oinarritzko jarduera da eskualdeko ekonomiarako, bai sektore horrek duen proportzio erlatiboarengatik (enpleguaren % 3,9 eta balio erantsi gordinaren % 3,5 izan da 2017an), bai eta sektore horrek lurraldean duen banaketagatik ere (Nafarroako hainbat gunetan ekonomiaren oinarria da, hala nola Pirinioetan eta Erriberagoitian), eta, batez ere, nekazaritzako elikagaien industriari eusten diolako; izan ere, industria horren garrantzia eta bizitasuna funtsezko faktorea da Nafarroako ekonomiaren hazkundera, eta foru-erkidegoko eremu zabaletan biztanleria finkatzea eragin du.

Horrenbestez, Nafarroa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen badugu, ikusiko dugu pixkanaka igaroko garela baso-aberastasun handia, zelai, artasoro eta erremolatxa-soro ugari dituzten lurretatik, hau da, nagusiki abere-hazkuntzari lotuta dauden lurralde menditsuetatik, tarteko eremu batera, hots, lekaleen soroak eta bazka-soroak, fruta-

arbolak eta, azkenaldi honetan, industriarako landaketak (ekilorea eta koltza) nagusitzen diren eremura. Erriberan areagotu egiten da mahatsondoen hedapena, eta eskualdeko kontserba-industria tradizional eta garrantzitsua hornitzen duten baratzeko produktuak –ospe handikoak– nagusitzen dira. Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioak duen ospearen adierazgarri dira honako jatorrizko izendapen hauek: Idiazabal gazta (Urbasa aldean), Erronkariko gazta, Nafarroako zainzuriak, Lodosako pikillo piperrak, Nafarroako ardoa (ardo beltza, gorria eta zuria) eta Nafarroako txahala.

Epe luzera aurreikusitako proiektuen artean, Nafarroako nekazaritza-jardueraren onura eta sustapena bultzatze aldera, ia sei milioi euro jasoko ditu Nafarroako nekazaritza-sektoreak, gehienbat Europako funtsen bidez, nekazaritza ekologikoa sustatzeko, proiektu pilotuak laguntzeko, eta produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko. Besteak beste, helburua da ohiko produkzio-metodoen ordeztu pixkanaka nekazaritza ekologikoa ezartzera bultzatzea.

Hortaz, 2018tik 2022ra bitarteko ekitaldietan 4,3 milioi euro jasoko ditu sektoreak, nekazaritza ekologikoa sustatzeko. Bestalde, 2021ean 1.395.403 euroko inbertsioa jasoko du sektoreak, proiektu pilotuak laguntzeko, eta produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko, 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Programaren esparruan, 2018ko deialdian.

Horrenbestez, helburu batzuk lortu nahi dira: ustiatzearen emaitza ekonomikoak hobetzea, haiek berregituratuz eta modernizatuz; nekazaritza-produktuei balioa eranstea (tokiko merkatuetan eta banaketa-zirkuitu laburretan sustatzea); paisaien eta balio natural handiko sistemen biodibertsitatea lehengoratzeko, babestea eta hobetzea; ongariaren eta pestiziden kudeaketa hobetzea; lurzoruen higadura prebenitzea; uraren eta energiaren erabilera eraginkorragoa lortzea; ekonomia zirkularra sustatzea; azpiproduktuen, hondakinen eta energia-iturri berriztagarrien hornidura eta erabilera bideratzea; nekazaritza-sektorean berotegi-efektuko gas eta amoniako gutxiago isurtzea...

Orobat, nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan karbonoaren atzitzea eta kontserbazioa bultzatu nahi dira; horrez gainera, enpresa txikien sorrera eta garapena, dibertsifikazioa eta nekazaritzako enplegua ere sustatu nahi dira.

## Industria

Gaur egun, Nafarroa Espainiako eskualde industrializatuenetako bat da, eta industria-sektorea funtsezko ekoizpen-jarduera bihurtu da azken hamarkada hauetan (2017an enpleguaren % 27,3 eta eskualdeko balio erantsi gordinaren % 32,8), eta jarduera horren portaerak baldintzatu egiten du, neurri handi batean, Nafarroako ekonomiaren hazkundera. Jardueraren azpisektore nagusiak honako hauek dira: ibilgailu motordunen fabrikazioa, elikagaien industria, produktu metalikoen fabrikazioa, eta makineriaren eta ekipoen fabrikazioa. Jarduera horiek, 2016an, Nafarroako industriaren guztizko enpleguaren % 55,0 eta industriak guztira sortutako diru-sarreraren % 58,9 bildu dute, Estatistika Institutu Nazionalak emandako azken informazioaren arabera.

Nafarroako eta estatu osoko industria-sarearen ezaugarria da enpresa txiki eta ertainak nagusi direla. Nolanahi ere, Nafarroan dauden atzerriko inbertsioak oso elementu garrantzitsuak izan dira sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko, nahiz eta horren ondorioz foru-erkidegotik kanpoko erabaki-zentroekiko mendetasun handiagoa izan. Ildo horretan, gaur egun, Nafarroan kokatutako ehun industria-enpresa baino gehiagok kapital multinazionala dute; batez ere, tamaina erdiko edo handiko enpresak dira, eta esportaziorako joera handia dute. Enpresa horiek produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioaren azpisektorekoak dira, batez ere, baina beste azpisektore hauetakoak ere badaude: beste manufaktura-industria batzuk, kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa, edarien fabrikazioa, eta produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik. 2017an, atzerriko inbertsioa 46.952,22 mila eurokoa izan da Nafarroako industrian (836.299,33 mila eurokoa 2016an). Kapital horren zatirik handiena herrialde hauetatik etorri da: Luxenburgo (12.367,23 mila euro), Belgika (10.965,65), Jersey (6.999,88), Frantzia (6.027,7) eta Danimarka (5.300).

Banaketa geografikoari erreparatuta, industria-enpresak Iruñeako eremuan, eskualdearen ipar-ekialdean, Erriberagoitian eta Tuteran daude, batez ere.

## Eraikuntza

Mende honen hasierako goranzko zikloan, sektore honek garapen handia izan zuen Nafarroan eta estatu osoan, oro har. Bilakaera hori etxebizitzaren eskaera eta eraikuntza handiak bultzatu zuen Nafarroan, eta hainbat faktorek lagundu zioten dinamika horri, hala nola interes-tasak txikiak izateak eta egoera ekonomikoa egokia izateak. Era berean, obra zibilaren bilakaera ere positiboa izan zen. Hala eta guztiz ere, jakina denez, bilakaera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera horrek krisi handia izan duelako;

2017an, jardueraren mailari nolabait eutsi zaio, eta enpleguaren % 6,1 eta eskualdeko balio erantsi gordinaren % 5,4 izan da.

## Zerbitzuak

Ekonomia garatuen sistema ekonomikoaren tertziarizaziorako joerari jarraitu zaio: sektore publikoaren presentzia areagotu egin da, industria-enpresen jarduera jakin batzuk azpikontratatu egin dira, eta zerbitzuen eskaera igo egin da. Zerbitzu-sektoreak oso profil dinamikoa izan du azken urte hauetan (nabarmendu behar da sektore hori iraunkorra dela, ziklo ekonomikoarekiko mendetasun txikiagoa duela, eta hazkundera iraunkorra izan duela orokorrean) eta Nafarroako ekoizpen-sarean duen ehunekoa etengabe areagotu da. Zehazki, 2017an enpleguaren % 62,7 eta eskualdeko balio erantsi gordinaren % 58,3 izan da.

Nafarroako zerbitzuetan, haien kalitateari eta garrantziari erreparatuta, honako arlo hauek nabarmendu dira: osasuna, hezkuntza, merkataritza, bankuak, aholkularitza eta kontsultoretza. Bilakaerari dagokionez, azken urte hauetan enpleguaren batez besteko hazkundera baino gehiago igo dira azpisektore hauek: enpresentzako zerbitzuak, zerbitzu publikoak, eta merkataritza eta ostalaritza. Testuinguru horretan, nabarmendu behar da Interneten eta teknologia berrien esparruan informatikan eta telekomunikazioetan (web-orriak eta enpresa-atariak egitea eta abar) diharduten enpresa asko sortzen ari direla. Halaber, eta oso erakargarria izan arren, turismoak Nafarroako ekonomian duen ehunekoa mugatua da oraindik, nahiz eta eskualdeko ekonomian esanguratsua izan, eta espero da datozen urteetan ere bilakaera positibo horretan aurrera egitea.

Lurralde-banaketari dagokionez, adierazi behar dugu zerbitzu-sektoreko enpleguaren % 50etik gora Iruñean eta Iruñerrian biltzen dela; izan ere, goi-mailako gune tertziarioa da, tamaina txikiko autonomia-erkidego bat dela kontuan hartuta.

### 3. IKUSPEGI OROKORRA

Munduko ekonomiaren hazkunde-erritmoa sendotzearekin batera, Nafarroako barne-produktu gordinak ehuneko hiru hamarren areagotu du hedapena, aurreko urtearekin alderatuta: % 3,2 2017an, eta % 2,9 2016an.

Kontzeptua	26. koadroa		Bilakaera orokorra		
	2013	2014	2015	2016	2017
<i>(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)</i>					
<b>NAFARROA</b>					
– Barne-produktu gordina	-1,3	1,5	2,9	2,9	3,2
– Enplegua	-3,5	1,7	0,7	1,2	4,2
– Langabezia-tasa <sup>(1)</sup>	17,9	15,7	13,8	12,5	10,2
– KPI <sup>(2)</sup>	0,0	-1,2	-0,1	1,8	0,6
<b>ESPAINIA</b>					
– Barne-produktu gordina	-1,7	1,4	3,4	3,3	3,1
– Enplegua	-2,8	1,2	3,0	2,7	2,6
– Langabezia-tasa <sup>(1)</sup>	26,1	24,4	22,1	19,6	17,2
– KPI <sup>(2)</sup>	0,3	-1,0	0,0	1,6	1,1

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria).

Horrenbestez, euroguneko ekonomiaren aldean (% 2,5eko hazkundera, ELGAren arabera) Nafarroako ekonomiak izandako bilakaera onak aurrerapen txiki bat ekarri du Europako ekonomia nagusien mailarekin bat egiteko prozesuan.

EINen eskualdetako zenbatekoak kontuan hartuta, 2017an Espainiako autonomia-erkidego guztiek gora egin dute, eta haietako zortzik 2016an baino gorakada handiagoak izan dituzte. Zehazki, bizitasun handiena Aragoik izan du (% 3,6), eta txikiena Ceutak (% 1,6). Nafarroak % 2,8 egin du gora, EINen arabera.

Lan-merkatuari erreparatuz gero, EINen biztanleria aktiboaren inkestaren arabera, 2017an landunen kopuruak % 4,2 egin du gora Nafarroan, eta dinamika hori askoz ere biziagoa da estatukoa baino (enpleguaren % 2,6ko igoera 2017an).

Langabezia-tasak, berriz, behera egiten jarraitu du, oro har: Foru Komunitatean, 2016an % 12,5 izatetik 2017an % 10,2 izatera, eta estatuan, berriz, % 19,6tik % 17,2ra.


Prezioei dagokienez, 2017an zehar petrolio-upela garestitu egin da, eta horrek prezioen bilakaera baldintzatu du. Nafarroaren kasuan, barne-produktu gordinaren urtetik urterako aldakuntza-tasak % 3 ingurukoak izan ziren urtarrian eta otsailan, % 2tik gorakoak

martxoan eta apirilean, % 1 ingurukoak maitzetik azarora bitartean, eta tasa txikiena abendukoa izan da. Estatuan ere antzeko dinamika ageri da, baina aldakuntza-tasak zertxobait handiagoak izan dira. Horiek horrela, metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 0,6 izan da Nafarroan eta % 1,1 estatuan (2016ko ekitaldiaren amaieran % 1,8 eta % 1,6 hurrenez hurren).

Azkenik, adierazi behar da Nafarroako ekonomiak % 3,3ko urtetik urterako igoera izan duela 2018ko lehen hiruhilekoan, eta zenbateko hori ehuneko hamarren bat handiagoa dela 2017ko laugarren hiruhilekoari dagokiona baino.

### 3. grafikoa Barne-produktu gordinaren bilakaera

(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.



27. koadroa Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera

(aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2015		2016		2017	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
<b>A. EKOIZPENA ETA JARDUERA</b>						
A.1 Industria (ekoizpenak)						
• Nekazaritzako elikagaiak	3,8	1,0	1,3	2,5	-2,3	0,3
• Automobilgintza (auto kopurua)	-2,4	17,6	-0,5	5,0	-17,7	-3,0
• Papergintza (tonak)	1,0	2,6	-1,4	0,4	-0,6	0,0
A.2 Eraikuntza						
• Amaitutako etxebizitzak (kopurua)	-43,9	-4,9	-7,6	-13,3	42,0	31,0
• Hasitako etxebizitzak (kopurua)	34,1	33,0	34,4	28,1	39,6	--
• Barneko zementu-salmentak (tonak)**	-4,9	5,5	-2,3	-2,7	9,3	13,5
• Lizitazio ofizialak (euro korronteak)	98,2	-28,2	-62,4	-0,7	229,2	39,3
A.3 Nekazaritza-sektorea (ekoizpenak)						
• Nekazaritza (euro korronteak)	--	10,9	--	8,3	--	-2,6
• Abeltzaintza (euro korronteak)	--	-0,4	--	0,7	--	14,5
• Basogintza (euro korronteak)	--	--	--	--	--	--
• Guztira (euro korronteak)	1,4	7,1	1,6	5,4	3,7	2,2
A.4 Zerbitzuak						
• Errepide bidezko garraioa (salgaiak)	34,4	8,2	1,9	2,8	-4,0	9,3
• Aireko garraioa (salgaiak)	-48,2	4,7	-53,3	11,2	263,6	15,4
• Aireko garraioa (bidaiariak)	7,2	6,0	6,6	11,0	7,9	8,7
A.5 Finantza-sektorea						
• Gordailu pribatuak (euro korronteak)	-0,7	-0,4	3,0	0,4	1,1	0,5
• Sektore pribatuko kreditua (euro korronteak)	-6,3	-4,0	-2,9	-4,1	0,1	-1,9
<b>B. BARNE-ESKARIA</b>						
– Autoen matrikulazioa (kopurua)	19,7	22,9	5,3	12,4	10,4	9,2
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kopurua)	20,9	30,8	5,3	6,1	10,5	6,7
– Ekipo-ondasunen inportazioak (euro korronteak)*	38,6	21,2	-3,8	6,8	-5,6	7,8
– Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h)	--	1,7	--	0,6	--	1,1
<b>C. KANPO-MERKATARITZA</b>						
– Esportazioak (euro korronteak)	4,9	3,8	-1,2	1,7	-4,3	8,9
– Inportazioak (euro korronteak)	10,0	3,5	-0,7	-0,4	-2,4	10,5
<b>D. PREZIOAK ETA SOLDATAK</b>						
– Kontsumo-prezioen indizea (urteko batezbestekoa)	-0,6	-0,5	0,0	-0,2	1,6	2,0
– Kontsumo-prezioen indizea (abendua/abendua)	-0,1	0,0	1,8	1,6	0,6	1,1
– Nekazariak jasotako prezioak	--	-0,7	-3,1	1,4	3,9	2,9
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	-0,1	1,1	-0,4	-0,3	4,1	0,1
<b>E. LAN-MERKATUA***</b>						
– Biztanleria aktiboa	-1,5	-0,1	-0,4	-0,4	1,6	-0,4
– Biztanleria landuna	0,7	3,0	1,2	2,7	4,2	2,6
• Nekazaritza	-24,6	0,1	1,1	5,1	15,6	5,8
• Industria	-3,7	4,3	4,3	1,6	11,6	5,0
• Eraikuntza	20,7	8,1	-27,2	0,0	21,1	5,1
• Zerbitzuak	2,7	2,6	2,9	2,9	-0,4	1,9
– Biztanleria langabea	-13,3	-9,9	-10,1	-11,4	-16,5	-12,6
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	13,8	22,1	12,5	19,6	10,2	17,2
– Erregistratutako kontratuak	15,3	11,1	5,5	7,6	3,8	7,6

(\*): Nafarroan, material elektrikoa eta makinen eta aparatuen inportazioa.

(\*\*): Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa.

(\*\*\*): BAI, 2011ko biztanleria-oinarria.

--: Ez dago behin betiko datu ofizialik.

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.



### 3.1 EKOIZPENA

Nafarroako ekoizpenak eutsi egin zion igoera-erritmoari 2016. urtean, eta bilakaera moderatua erakutsi zuen Estatuan; hala, hurrengo urtean, 2017an, Nafarroako Barne Produktu Gordinak ehuneko hiru hamarrekotan indartu du goranzko joera (% 3,2 igo da 2017an eta % 2,9 aurreko urtean), eta Estatuan bi hamarreneko igoera izan du ekoizpenak (% 3,1eko igoera izan da 2017an eta % 3,3koa izan zen aurreko urtean).

Hiruhilekoetako datuei begiratuta, igoera-erritmo orekatua izan du Nafarroako ekonomian: urtetik urterako igoera % 3,1ekoa izan da lehen hiruhilekoan, % 3,3koa bigarren hiruhilekoan, eta % 3,2koa hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan.

Eskaintzaren alderdiari begiratuta, zerbitzuek eta eraikuntzak azkartu egiten dute igoera (% 4,1eko eta % 1,1eko igoerak izan dituzte 2017an, eta aurreko urtean, berriz, igoera horiek % 3,6koa eta % 0,6koa izan ziren, hurrenez hurren); bestalde, lehen sektoreak eta industriak eutsi egin diote igoera-erritmoari (% 2,1eko igoera izan dute biek 2017an, eta 2016an % 2,2koa eta % 2,3koa izan ziren, hurrenez hurren).

#### 28. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)

Kontzeptua	2015	2016	2017
<b>NAFARROA<sup>(1)</sup></b>			
- Nekazaritza	2,5	2,2	2,1
- Industria	2,9	2,3	2,1
- Eraikuntza	1,2	0,6	1,1
- Zerbitzuak	3,2	3,6	4,1
- Guztira	2,9	2,9	3,2
<b>ESPAINIA<sup>(1)</sup></b>			
- Nekazaritza	-2,4	6,9	3,7
- Industria <sup>(2)</sup>	5,4	3,6	3,7
- Eraikuntza	2,4	1,9	4,9
- Zerbitzuak	2,6	3,0	2,6
- Guztira	3,4	3,3	3,1

(1): Balio Erantsi Gordina oinarritzko prezioei sektoreen kasuan, BPG merkatuko prezioei guztizkoaren kasuan.

(2): Ez da energia sartzen.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Industria-sektoreari begiratuta, behera egin du Industria Produkzioaren Indizeak (-% 2,1 egin du behera 2017an eta % 0,7 egin zuen gora 2016an), baina sektoreak Foru Komunitatean sortzen duen enpleguak % 11,6ko igoera izan du. Industria-jardueraren giroak beherakada txiki bat izan du, baina uneko eskaerek gorako joera erakusten dute eta ez da aurreikusitako eskaeren aurreikuspenik aldatu.

**29. koadroa Industria Sektorearen adierazleak**
*(Urtetik urterako aldaketa-tasa)*

Kontzeptua	2015	2016	2017
Industria Produkzioaren Indizea (IP) <sup>(1)</sup>	2,2	0,7	-2,1
Industria-giroa <sup>(2)</sup>	2	2	1
Egungo eskaerak <sup>(2)</sup>	-1	-2	4
Aurreikusitako eskaerak <sup>(2)</sup>	13	12	12
Industria-enplegua	-3,7	4,3	11,6

*(1): Egutegi-ondorioak kontuan hartuz zuzendutako datuak.*
*(2): Erantzun-saldoak.*
*Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN.*

Eraikuntzaren sektorean, zementuaren barne-salmentek % 9,3 egin dute gora 2017an (-% 2,3 egin zuten behera 2016an), lizitazio ofizialek % 229,2 egin dute gora (-% 62,4 egin zuten behera aurreko urtean) eta amaitutako etxebizitzek % 42ko igoera izan dute (-% 7,6ko jaitsiera izan zuten 2016an). Bestalde, hasitako etxebizitzek kopurua % 39,6 igo da urtetik urtera, eta bizkortu egin du hazkunde-erritmoa (% 34,4 igo zen adierazle hori aurreko urtean). Datu horiek guztiak enplegu-igoerako testuinguru batean eman dira; izan ere, % 21,1 handitu da lurralde horretan urtetik urtera (-% 27,2ko beherakada izan zuen 2016an).

**30. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak**
*(Urtetik urterako aldaketa-tasa)*

Kontzeptua	2015	2016	2017
Zementuaren barne-salmentak*	-4,9	-2,3	9,3
Lizitazio ofiziala <sup>(1)</sup>	98,2	-62,4	229,2
Hasitako etxebizitzak <sup>(2)</sup>	34,1	34,4	39,6
Amaitutako etxebizitzak <sup>(2)</sup>	-43,9	-7,6	42,0
Enplegua	20,7	-27,2	21,1

*(\*): Oficemen-eko (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementu grisaren barneko salmentei dagokie.*
*(1): SEOPAN.*
*(2): Etxebizitza Ministerioa.*
*Iturria: Nafarroako Gobernua, EIN.*

Zerbitzuei begirada orokorra emanaz gero, ikusten da aurreko urtean baino jarduera biziagoa izan dutela Nafarroan, baina ez da horrelakorik gertatu Estatuan. Edonola ere, kontuan izan behar da sektorea oso heterogeneoa dela, eta normala dela aldeak izatea aztertutako azpisektoreen adierazleetan.

Hori horrela, aurreko urtean baino igoera handiagoak izan dituzte airetiko bidaiarien trafikoak eta autobideetan igarotako ibilgailu astunen trafikoak (% 7,9ko eta % 3ko igoerak izan dituzte 2017an, eta, hurrenez hurren, % 6,6ko eta % 2,1ko igoerak izan zituzten 2016an), baina igoera-erritmoa moteldu dute ostatu-gauek eta autobideetan igarotako ibilgailu arinen trafikoak (% 3,6ko eta % 3,4ko igoerak izan dituzte, eta aurreko urtean, berriz, % 8,2koa eta % 4,6koa, hurrenez hurren). Dena den, enpleguak, sektore osoan, -% 0,4 egin du behera (% 2,9 egin zuen gora 2016. urtean).

**31. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak***(Urtetik urterako aldaketa-tasa)*

Kontzeptua	2015	2016	2017
Hoteletako ostatu-gauak	3,4	8,2	3,6
Aire-zirkulazioko bidaiariak	7,2	6,6	7,9
Ibilgailu arinen zirkulazioa autobideetan	4,0	4,6	3,4
Ibilgailu astunen zirkulazioa autobideetan	6,3	2,1	3,0
Enplegua	2,7	2,9	-0,4

*Iturria: AENA, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.***3.2 ESKARIA****Barne-eskaria**

Nafarroako barne-produktu gordinak hazkundearen erritmoa indartu du, eta % 3,2ra iritsi da 2017an (aurreko urtean % 2,9). Barne-eskariak, ordea, zertxobait behera egin du, hazkunde globalean egiten duen ekarpen positiboari erreparatuta: 2,6 ehuneko-puntu 2017an, eta 2016an, berriz, 2,7 ehuneko-puntu.

Arlo bakoitza kontuan hartuta, kontsumo pribatua aurreko urtean baino zertxobait indartsuago agertu da (2017an % 3,4 igo da; 2016an % 3,3), kontsumo publikoak aurreko urteko bizitasunari eutsi dio (% 3,1eko hazkundea 2016an eta 2017an), eta inbertsioak ehuneko hiru hamarren moteldu du hazkundearen erritmoa (2017an % 0,3 eta 2016an % 0,6).

Kontsumo- eta inbertsio-adierazleei dagokienez, matrikulazioek –ibilgailu industrialenak eta turismoenak– indartu egin dute hazkundearen erritmoa, aurreko urtearekin alderatuta (2017an % 10,4 eta % 10,5 hurrenez hurren, eta 2016an % 5,3 bi ibilgailu motetan). Bestalde, hitzarmenetan itundutako soldata-igoerak 0,67 ehuneko egin du gora (% 1,9 2017an eta % 1,23 aurreko urtean).

**32. koadroa Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak***(Urtetik urterako aldaketa-tasa)*

Kontzeptua	2015	2016	2017
Turismoen matrikulazioa	19,7	5,3 <sup>(3)</sup>	10,4 <sup>(3)</sup>
KPI <sup>(1)</sup>	-0,1	1,8	0,6
Soldata-igoera <sup>(2)</sup>	0,67	1,23	1,90
Ibilgailu industrialen matrikulazioa	20,9	5,3 <sup>(3)</sup>	10,5 <sup>(3)</sup>

*(1): Aldaketa-tasa abendutik abendura.**(2): Hitzarmenetan itundua.**(3): Behin-behineko datuak.**Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.*

**Kanpo-merkataritza**

Barne-produktu gordinak gora egin badu ere, Nafarroako kanpo-merkataritza uzkurtu egin da 2017an: bai esportazioek bai inportazioek eritmo biziagoan egin dute behera.

**33. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan**
*(M eurotan)*

Kontzeptua	2015	2016	2017*	% Δ 17/16
Esportazioak, guztira	8.539,7	8.437,6	8.073,3	-4,3
Inportazioak, guztira	4.578,2	4.543,9	4.432,8	-2,4
<b>Guztizko saldoa</b>	<b>3.961,5</b>	<b>3.893,6</b>	<b>3.640,5</b>	<b>-6,5</b>

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Zehazki, 2017an kanpora egin diren salmentak 8.073,3 milioi eurokoak izan dira, eta 4.432,8 milioi euroko erosketak egin dira kanpoan. Kopuru horiek beherakadak adierazten dituzte: -% 4,3 eta -% 2,4 hurrenez hurren. Horiek horrela, balantza komertzialak saldo positiboa murriztu egin du, eta 3.640,5 milioi eurokoa izan da 2017an (2016an 3.893,6 milioi euro), eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 182,1ekoa izan da (% 185,7 aurreko urtean).

**34. koadroa Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera**
*(M eurotan)*

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2015	2016	2017*	%	% Δ 17/16	2015	2016	2017*	%	% Δ 17/16
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.539,7</b>	<b>8.437,6</b>	<b>8.073,3</b>	<b>100,0</b>	<b>-4,3</b>	<b>4.543,9</b>	<b>4.432,8</b>	<b>100,0</b>	<b>-2,4</b>	<b>4.543,9</b>
Herrialdeen arabera (guztira)										
- Frantzia	1.488,8	1.433,1	1.473,6	18,3	2,8	554,6	550,8	12,4	-0,7	554,6
- Alemania	1.385,8	1.282,7	1.179,7	14,6	-8,0	1.356,7	1.140,4	25,7	-15,9	1.356,7
- Italia	645,7	638,9	672,6	8,3	5,3	278,0	293,6	6,6	5,6	278,0
- Erresuma Batua	634,7	608,3	558,1	6,9	-8,3	149,3	106,2	2,4	-28,9	149,3
- Portugal	367,6	324,3	312,4	3,9	-3,7	249,0	255,3	5,8	2,5	249,0
- EB-28, guztira	6.154,8	5.912,3	5.634,2	69,8	-4,7	3.613,7	3.385,1	76,4	-6,3	3.613,7
- Europako gainerakoak	499,7	568,7	414,2	5,1	-27,2	148,9	152,6	3,4	2,5	148,9
- Ameriketako Estatu Batuak	286,4	311,5	334,9	4,1	7,5	42,6	51,0	1,2	19,7	42,6
- Beste helmuga batzuk	1.598,8	1.645,1	1.690,0	20,9	2,7	738,7	844,1	19,0	14,3	738,7
Sektoreen arabera (guztira)										
- Lehen sektorea	463,5	520,5	650,5	8,1	25,0	325,3	392,2	446,2	10,1	13,8
- Nekazaritzako elikagaien ind.	538,8	553,6	565,0	7,0	2,1	217,8	237,3	237,7	5,4	0,2
- Industria kimikoa	96,7	122,0	145,0	1,8	18,9	269,8	238,7	207,0	4,7	-13,3
- Mat. plastikoak, kautxua	269,8	266,9	294,8	3,7	10,5	287,6	280,1	290,7	6,6	3,8
- Metal arrunten manuf.	732,8	668,7	632,4	7,8	-5,4	517,8	485,4	498,7	11,3	2,7
- Makinak, mat. elektrikoa	2.145,1	1.991,8	1.928,7	23,9	-3,2	1.328,8	1.278,0	1.206,2	27,2	-5,6
- Garraio-materiala	3.743,4	3.774,6	3.259,1	40,4	-13,7	1.022,1	1.006,1	930,3	21,0	-7,5
- Gainerakoak	549,6	539,5	597,8	7,4	10,8	609,0	626,1	616,0	13,9	-1,6

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Eremu geografiko handiak aintzat hartuta, Europa (EB-28) Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia da; izan ere, 2017an kanpora saldutakoaren % 69,8 biltzen du, eta kanpoan erositakoaren % 76,4. Zehazki, esportazioen % 18,3 Frantziak hartzen ditu, eta haren hurrena Alemania dago (% 14,6). Inportazioetan, berriz, % 25,7 Alemaniak biltzen ditu, eta atzerago dago Frantzia (% 12,4).

Muga-zergen partidei dagokienez, 2017an garraio-materialak esportazioen % 40,4 eta inportazioen % 21 dira; horrenbestez, baldintzatu egiten dute, neurri handi batean, Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera globala.

### 3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

2017an, Brent petrolio-upela % 25,3 garestitu da, eta prezioek urte arteko aldaketa-tasa positiboak izan dituzte ekitaldiaren hilabete guztietan Nafarroan; hala ere, tasa horiek jaitsi egin dira pixkanaka. Hain zuzen ere, Nafarroan, KPIren urte arteko tasak % 3koak izan dira urtarrilean eta otsailean; % 2 baino altuagoak martxoan eta apirilean; % 1,2 ingurukoak maiatza eta azaroa bitartean; eta % 0,5 baino zertxobait altuagoak abenduan.

Horrela, 2017an inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) % 0,6raino jaitsi da Nafarroan (aurreko ekitaldian % 1,8); nahiz eta ekitaldi osoari dagokion urteko batez besteko tasa % 1,6raino igo den (2016an ez zuen aldaketarik izan).

35. koadroa      Prezioen bilakaera Nafarroan

(Urte arteko aldaketa-tasa)

NAFARROA	2015	2016	2017
<b>KPI</b>			
Orokorra <sup>(1)</sup>	-0,6	0,0	1,6
Orokorra <sup>(2)</sup>	-0,1	1,8	0,6
– Elik. eta alkoh. gab. edariak.	1,7	0,8	0,3
– Edari alkoholodunak, tabakoa	1,0	1,1	1,3
– Jantziak eta oinetakoak	0,5	0,9	0,7
– Etxebizitza	-3,0	0,3	1,0
– Etxeko tresneria	0,1	-0,3	-0,8
– Medikuntza	1,2	0,0	0,7
– Garraioak	-2,4	5,6	1,1
– Komunikazioak	0,4	3,2	-0,1
– Aisia eta Kultura	-0,1	1,4	-1,4
– Irakaskuntza	0,9	1,2	0,6
– Hotelak eta jatetxeak	0,7	1,9	2,5
– Beste batzuk	1,6	2,1	-0,4
<b>Nekazariak Jasotako Prezioen Indizea</b>			
Orokorra	--	-3,1	3,9
– Nekazaritza-produktuak	--	-0,6	2,9
– Baso-produktuak	--	-6,2	-0,8
– Animalia-produktuak	--	-6,0	5,4

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua eta EIN.

2017ko abenduko urte arteko aldaleta-tasari dagokionez, eta ondasun-talde guztiak kontuan hartuta, Nafarroan hotelek eta jatetxeek izan dute inflaziorik handiena (% 2,5), eta haren atzetik datoz edari alkoholodunak eta tabakoa (% 1,3), garraioak (% 1,1), etxebizitza (% 1), jantzi eta oinetakoak eta medikuntza (% 0,7 bi kasuetan), irakaskuntza (% 0,6), eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 0,3). Bestalde, Nafarroan komunikazioen, "beste batzuk" izendatutako taldearen, etxeko tresneriaren, eta aisia eta kulturaren prezioak jaitsi egin dira (-% 0,1, -% 0,4, -% 0,8 eta -% 1,4, hurrenez hurren).

Nafarroako nekazariak ordaindutako prezioak % 3,9 igo dira 2017an; animalia-produktuen eta nekazaritza-produktuen prezioek gora ere egin dute (% 5,4 eta % 2,9 hurrenez hurren), eta baso-produktuenek, aldiz, behera (-% 0,8).

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, 2017an ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua % 2,8 igo da Nafarroan. Bestalde, langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua nabarmen igo da (% 4,1).

## 36. koadroa Soldata-adierazleak

Kontzeptua	2015	2016	2017
<b>Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa)</b>			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	0,5	1,5	2,8
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	-0,1	-0,4	4,1
<b>Hitzarmenak</b>			
– Hitzarmen kopurua	207	186	161
– Eraginpeko langileak	100.425	120.210	112.407
– Adostutako soldata-igoera	0,67	1,23	1,90

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

### 3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

#### *Lan-merkatua Nafarroan*

2017ko goraldi ekonomikoak, bai Nafarroan, bai eta estatu osoan ere, enpleguaren hedapena eta langabeen beherakada eragin ditu aipatutako bi esparru geografiko horietan.

Zehazki, Nafarroako biztanleria aktiboa 310,5 mila pertsona izan dira 2017an; beraz, urtetik urterako hazkundera % 1,6 izan da. Biztanleria aktibo horren barruan, 278,8 mila pertsona landunak dira (aurreko ekitaldian baino % 4,2 gehiago), eta 131,8 mila pertsona, berriz, langabeak, eta zenbateko hori aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa da (-% 16,5). Aitzitik, zertxobait jaitsi da biztanleria aktiboa estatuan (-% 0,4); landunen kopurua % 2,6 handitu da, eta langabeena, berriz, jaitsi egin da (-% 12,6).

Foru Komunitateko jarduera-tasak gora egin du (% 59,1 2017an; % 58,5 2016an), eta bilakaera goranzkoa izan da, bai gizonen artean (% 64,6 2017an; % 63,4 aurreko ekitaldian), bai emakumeen artean (% 53,9 2017an; % 53,8 aurreko urtean). Hala eta guztiz ere, bi sexuen arteko aldea handitu egin da (ehuneko 10,7 puntu 2017an; aurreko ekitaldian, berriz, 9,6 puntu). Estatuan, oro har, jarduera-tasak behera egin du: % 59,2 2016an; % 58,8 2017an.

Biztanleria langabeari erreparatuta, urtetik urterako beherakadak izan dira 2017an, bai Nafarroan (- 16,5), bai estatu osoan (-% 12,6), gizon langabeen zein emakume langabeen kopuruek behera egin baitute bi eremuetan (-% 27,5 eta -% 6,9 Nafarroan, eta -% 13,9 eta -% 11,3 estatuan, hurrenez hurren). Hortaz, orokorra izan da langabezia-tasaren beherakada. Ildo horretan, Nafarroan gizonen langabezia-tasa 2016an % 10,9 izatetik 2017an % 7,7 izatera igaro da (estatuan % 18,1etik % 15,7ra), eta emakumeen

langabezia-tasa, berriz, 2016an % 14,3 izatetik 2017an % 13,2 izatera (estatuan % 21,4tik % 19ra).

2017an langabezia-tasa globala % 10,2 izan da Nafarroan (2016an % 12,5 izan zen) eta estatu osoan % 17,2 (aurreko ekitaldian, berriz, % 19,6). Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar da tasa hori Europako bigarrena dela oraindik ere, Greziak soilik baitu langabezia-tasa handiagoa.

**37. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia**

(urteko batezbestekoak, milakotan)

Eremua		2016			2017		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Nafarroa	Poten. aktiboak	257,5	264,6	522,1	258,7	266,5	525,3
	Aktiboak	163,3	142,4	305,6	167,0	143,6	310,5
	Landunak	145,4	122,1	267,5	154,1	124,7	278,8
	Langabeak	17,8	20,3	38,1	12,9	18,9	31,8
	Jarduera-tasa	63,4	53,8	58,5	64,6	53,9	59,1
	Langabezia-tasa	10,9	14,3	12,5	7,7	13,2	10,2
	Erregistratutako langabezia*	18,0	22,0	40,0	15,5	20,3	35,7
Espainia	Poten. aktiboak	18.754,0	19.777,5	38.531,5	18.803,1	19.851,0	38.654,1
	Aktiboak	12.213,8	10.608,9	22.822,7	12.172,1	10.569,6	22.741,7
	Landunak	10.000,8	8.340,8	18.341,5	10.266,3	8.558,5	18.824,8
	Langabeak	2.213,0	2.268,2	4.481,2	1.905,8	2.011,1	3.916,9
	Jarduera-tasa	65,1	53,6	59,2	64,7	53,2	58,8
	Langabezia-tasa	18,1	21,4	19,6	15,7	19,0	17,2
	Erregistratutako langabezia*	1.642,3	2.060,7	3.703,0	1.459,7	1.953,1	3.412,8

(\*): Abendua.

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko maiatzeko datuak) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Horrenbestez, txosten honen aurreko edizioetan bezala, labur-labur aztertuko dugu langabezia, EEZPn erregistratutako langabezia-datuen arabera. Kontuan hartu behar da, kasu honetan, zehazki, abenduko datuei buruzko informazioa ematen dela, eta ez ekitaldi osoari buruzkoa.

Iturri horren arabera, Nafarroan 2017ko abenduan EEZPren bulegoetan erregistratutako langabeak 35,7 mila izan dira, eta zenbateko hori txikiagoa da 2016koa baino (-% 10,8). Era berean, 2017ko abenduan erregistratutako langabeziak behera egin du estatu osoan (-% 7,8), eta 3.412,8 mila langabe dira guztira.

Berriro ere Biztanleria Aktiboaren Inkesta kontuan hartuta (urteko batezbesteko datuak), langabezia-tasek alde handiak dituzte adinaren arabera, eta gazteen artean daude tasa handienak. Zehazki, 2017an, 16 eta 19 urte bitarteko pertsonen % 42,9ko langabezia-



tasa izan dute Nafarroan; 20 eta 24 urte bitartekoek, berriz, % 28,7koa; 25 eta 54 urte bitartekoek % 9,2koa; eta, azkenik, 55etik gorakoek % 6,2koa.

### 38. koadroa Langabezia-tasa, adin-bitarteen arabera. Urteko batezbestekoak

(%)

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztira
Nafarroa	2015	51,9	35,2	13,2	8,2	13,8
	2016	36,7	33,3	11,4	9,2	12,5
	2017	42,9	28,7	9,2	6,2	10,2
Espainia	2015	67,2	44,6	20,6	17,9	22,1
	2016	60,0	41,4	18,2	16,4	19,6
	2017	54,5	35,2	15,9	14,8	17,2

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko maiatzeko datuak).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Foru Komunitatean adin-talde guztietan behera egin du langabezia-tasak, gazteenen artean izan ezik: 20 eta 24 urte bitarteko pertsonen artean, 2016an % 33,3 izatetik 2017an % 28,7 izatera; 25 eta 54 bitartekoen artean, % 11,4tik % 9,2ra; eta adinduenen artean, % 9,2tik % 6,2ra. Aitzitik, Nafarroako gazteen artean langabezia-tasak gora egin du: 2016an % 36,7 izatetik 2017an % 42,9 izatera.

Halaber, estatuaren esparruan gazteek izan dute langabezia-tasa handiena 2017an (% 54,5) eta behera egin du adin-bitarte guztietan.

Nafarroan enpleguak sektore bakoitzean egin duen bilakaerari erreparatuta, 2017an enpleguak gora egin du sektore guztietan: eraikuntzan lan egiten dutenen kopuruak % 21,1 egin du gora, lehen sektorean lan egiten dutenen kopurua % 15,6 igo da, eta industrian lan egiten dutenen kopurua, berriz, % 11,6. Bestalde, zerbitzuei lotutako enpleguek behera egin dute (-% 0,4). Estatuaren esparruan, sektore guztietan handitu da landunen kopurua: lehen sektorean % 5,8 igo da, eraikuntzan % 5,1 egin du gora, industrian % 5 igo da, eta zerbitzuetan, berriz, % 1,9.

### 39. koadroa Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak

(pertsonek kopuruak, milakotan)

Eremua	Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Nafarroa	2015	9,5	64,4	16,9	173,5
	2016	9,6	67,2	12,3	178,5
	2017	11,1	75,0	14,9	177,8
Espainia	2015	736,8	2.482,3	1.073,7	13.573,3
	2016	774,5	2.522,2	1.073,8	13.970,9
	2017	819,5	2.647,4	1.128,3	14.229,6

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria; 2018ko maiatzeko datuak). EJSN-2009.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuei dagokienez, 2017an gora egin dute aztergai ditugun esparru geografiko guztietan. Zehazki, urte horretan Foru Komunitatean jakinarazitako 371.431 kontratuek % 3,8 handitzea dakarte, eta estatu osoan jakinarazitako 21.501.303 kontratuek, berriz, kontratuen kopuruak % 7,6 gora egin duela adierazten dute.

Kontratu motari erreparatuta, 2017an kontratu mugagabeak gehiago handitu dira aldi baterako kontratuak baino, bai Nafarroan bai estatu osoan (Nafarroan % 13,8 eta % 3,3 hurrenez hurren, eta estatuan % 12,6 eta % 7,2 hurrenez hurren). Dena dela, kontuan izan behar da erregistratutako kontratuen % 90 baino gehiago direla, oraindik ere, aldi baterako kontratuak.

Horrenbestez, kontratu mugagabeek eremuaren guztizkoan duten proportzioak behera egin du Nafarroan (2017an % 5,8 izan dira eta 2016an % 5,3 izan ziren); aldi baterako kontratuen proportzioak, berriz, gora egin du (2017an % 94,2 izan dira eta aurreko ekitaldian % 94,7 izan ziren).

**40. koadroa EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak**

Eremua	Urtea	Hasierako mugagabea	Mugagabeak		Aldi baterakoak				KONTRATUA K GUZTIRA
			Konbertsioak	Guztira	Obra eta zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainerakoak	Guztira	
Nafarroa	2015	10.777	5.962	16.739	76.452	144.796	101.011	322.259	338.998
	2016	11.764	7.277	19.041	80.576	157.230	100.876	338.682	357.723
	2017	13.023	8.649	21.672	89.166	171.908	88.685	349.759	371.431
Espainia	2015	1.030.460	478.705	1.509.165	7.334.750	7.722.400	2.009.965	17.067.115	18.576.280
	2016	1.131.236	582.026	1.713.262	7.715.112	8.641.593	1.908.987	18.265.692	19.978.954
	2017	1.242.805	686.445	1.929.250	8.278.306	9.412.876	1.880.871	19.572.053	21.501.303

*Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.*

Gizarte- eta lan-giroari dagokionez, 2017an negoziazio kolektiboak garapen txikiagoa izan du aurreko ekitaldian baino, bai Nafarroan bai estatu osoan; hitzarmen gutxiago negoziatu dira, eta pertsona-kopuru txikiagoari eragin diete hitzarmen horiek. Horren haritik, 2017an negoziatutako hitzarmenen kopuruak behera egin du Nafarroan (-% 13,4), bai eta estatu osoan ere (-% 23,4), eta eragindako pertsonen kopuruak ere behera egin du (-% 6,5 eta -% 15,5 hurrenez hurren).

## 41. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak			
		Kopurua	Parte hartutako langileak	Hitzartutako soldata-gorakada	Kopurua	Parte hartutako langileak	Langileak greba bakoitzeko	Lan egin gabeko egunak
Nafarroa	2015	207	100.425	0,67	38	1.930	51	10.721
	2016	186	120.210	1,23	47	4.264	91	18.881
	2017	161	112.407	1,90	43	1.956	45	4.750
Espainia	2015	5.642	10.227.278	0,71	615	170.528	277	497.483
	2016	4.983	10.323.456	1,02	641	183.120	286	388.912
	2017	3.815	8.723.626	1,48	730*	482.878*	661*	851.444*

\*: Ez daude sartuta Katalunian urriaren 3an egindako greba orokorraren datuak.  
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. 2018ko maiatzeko datuak.

Laneko gatazkei dagokienez, 2017an egindako bilakaera beheranzkoa izan da Nafarroan eta goranzkoa estatuan, oro har. Foru Komunitatean grebek behera egin dute (-% 8,5), bai eta parte-hartzaileek (-% 54,1) eta jardun gabeko lanaldiek ere (-% 74,8). Estatuan, aldiz, grebek % 13,9 egin dute gora, parte-hartzaileek % 163,7 eta lan egin gabeko egunek, berriz, % 118,9.

**Biztanleria**

2016an, Nafarroako urtetik urterako biztanleria-aldakuntza nulua izan da (% 0), bertako biztanleria ia ez baita ezer ere aldatu aurreko ekitaldiarekin alderatuta. 640.647 biztanle dira, eta 640.476 ziren 2015ean. Estatuan, oro har, 46.557.008 biztanle dira, 2016ko datuen arabera, eta kopuru horrek beherakada txiki bat dakar (-% 0,1).

Kontuan hartuta 2016an Nafarroan 5.894 haur jaio zirela, eta zenbateko hori txikiagoa dela aurreko ekitaldikoa baino (-% 1,9) eta heriotzak 5.727 izan zirela (% 0,8 gehiago 2015ean baino), saldo begetatiboa positiboa da: 167 pertsona. Saldo hori txikiagoa da aurreko ekitaldikoa baino (-% 48,9), 2015eko saldoa 327 pertsonakoa izan baitzen.

Estatu osoan, 2016an erregistratutako 410.583 jaiotzek beherakada erlatibo handiagoa dakarte (-% 2,3), eta 410.611 heriotzek ere beherakada dakarte (-% 2,8); horrenbestez, emaitza da saldo begetatibo negatibo txiki bat: -28 pertsona (aurreko ekitaldian ere saldo begetatiboa negatiboa izan zen: -2.278 pertsona).

**42. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala**

Eremua	Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa
Nafarroa	2012	644.566	2.232	6.731	10,4	5.376	8,3	1.355
	2013	644.477	2.097	6.075	9,4	5.323	8,3	752
	2014	640.790	2.301	6.183	9,6	5.511	8,6	672
	2015	640.476	2.616	6.007	9,4	5.680	8,9	327
	2016	640.647	2.383	5.894	9,2	5.727	8,9	167
Espainia	2012	47.265.321	165.101	454.648	9,6	402.950	8,5	51.698
	2013	47.129.783	153.375	425.715	9,0	390.419	8,3	35.296
	2014	46.771.341	159.279	427.595	9,1	395.830	8,5	31.765
	2015	46.624.382	165.172	420.290	9,0	422.568	9,1	-2.278
	2016	46.557.008	171.023	410.583	8,8	410.611	8,8	-28

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2017ko abenduko datuak.

Ezkontzei dagokienez, Nafarroan 2.383 ezkontza egin ziren 2016an, eta kopuru hori txikiagoa da aurreko urtekoa baino (-% 8,9); estatuan, berriz, % 3,5 handitu zen ezkontzen kopurua (171.023 2016an, eta 165.172 2015ean).

Azkenik, 2016an Foru Komunitatean immigrazioen kopurua handiagoa izanenez emigrazioena baino, migrazio-saldoa positiboa izan da: 1.358 pertsonakoa. Horretarako ekarpena egin dute adin txikiena duen multzoko 443 pertsonak, bai eta 16 eta 64 urte bitarteko multzoko 937 pertsonak ere, eta kendu behar dira adin zaharreneko multzoa murriztea eragin dutenak (-22 pertsona).

**43. koadroa Nafarroako migrazio-saldoak, adinen arabera**

Urtea	Adin-bitartekak			Guztira
	-16	16-64	+ 64	
2009	176	1.376	122	1.674
2010	289	1.300	136	1.725
2011	172	768	-18	922
2012	107	706	-25	788
2013	15	-243	5	-223
2014	311	356	-5	662
2015	357	840	61	1.258
2016	443	937	-22	1.358

Iturria: Migrazio-mugimenduak (EIN). 2017ko abenduko datuak

### 3.5 FINANTZA-SEKTOREA

#### Egoera orokorra


Munduko ekonomiak %3,8ko hazkundera izan du 2017an, eta aurreko bi urteetako datuak gainditu ditu (% 3,1 eta % 3). Datu horiek adierazten dute egoera onean daudela bai ekonomia aurreratuak (% 2,3 AEBn eta Eurogunean) bai garatzeko bidean daudenak (% 4,8), batez ere, Txina (% 6,9) eta India (% 6,7); Errusiako eta Brasilgo ekonomiak, aldiz, moteldu egin dira (% 1,5 eta % 1 hurrenez hurren). Nazioarteko Diru Funtsak antzeko datuak aurreikusi ditu 2018rako eta 2019rako, eta bi urte horietan munduko ekonomia-hazkundera % 3,9koa izatea espero du: ekonomia aurreratuetarako % 2,5 eta % 2,2 eta garatze-bidean daudenetarako % 4,9 eta % 5,1.

NDFren arabera, aldeko faktore dira ekonomia-jardueraren, enpleguaren eta munduko merkataritzaren dinamismoa, finantzazioaren aldeko baldintzak izatea eta inflazioaren helburuak betetzea (petrolioaren prezioa igo egin den arren). Eragileak eta merkatuak ari dira, pixkanaka, ekonomiaren alorreko eraginak eta komunikabide-eraginak bereizten, eta zenbait gertaerek ez dute garai batean zuen eragin handia, hala nola Brexitaren negoziazioa, muga-zerga protekzionisten ondoriozko merkataritza-gerrak edo aparteko finantzazio-baldintzen amaieraren berri ematen duten iragarpen errepikariek. Izan ere, makroekonomia-datuak dira, gaur egun, hurrengo bi urteetarako iragartzen den hazkunderaren oinarri.

Hazkunde-helburua (% 3,1) bete du Espainiako ekonomiak. Helburu hori lortzeko, lagungarri izan du munduan ageri den dinamismo ekonomikoa; batez ere, inguruko ekonomia, eta oso mesedegarri izan zaizkio, era betean, finantza-merkatuen eta enpresen konfiantza eta enpleguaren eta barne-eskariaren berreskuratze progresiboa. Horren ondorioz, kontsumoa dinamizatu da, handitu egin da etxeetako inbertsioa, eta etengabe hazi da enpresa-jarduera. Bestalde, sektore pribatua palanka-efektua leuntzeko prozesuan dago, baina ez dira desagertu defizitaren eta zorpetze publikoaren desorekak dakartzaten arriskuak.

Espainiako ekonomia-hazkunderaren aurreikuspenak positiboak dira; hala eta guztiz ere, hazkundera aurreko urteetakoa baino txikiagoa izango dela aurreikusten da (% 2,8 eta % 2,2), hedapen-fase hori ahuldu egin baita. Izan ere, Espainiako Bankuak adierazi du -barne-faktoreei begiratuta- erreformak egin behar direla lan-merkatuaren eta zerbitzu-ondasunen merkatuen jarduerak hobetzeko (eraginkortasun eza zuzentzeko), politika publikoen iraunkortasuna (eta, berariaz, defizitean eta zorrean duten inpaktua) aztertu behar dela, eta aurre egin behar zaiola zahartzeak hazkunde ekonomiko eta sozial endogenoaren gaitasunean duen inpaktuari.

4. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra\*



(\*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.  
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.


Finantza-bitartekotzaren erreferentziatzko bi aldagaien bilakaerak erakusten du Espainiako sektore pribatuak palanka-efektua leuntzeko prozesuarekin jarraitzen duela, behera egin duela kreditu-saldo biziak (-% 1,9) eta Euskadin moteldu egin dela saldo horren berreskuratze-prozesua (2017an -% 1,9 eta 2016an % 0,9). Horrela, amortizatutako bolumen handia nagusitzen da kreditu-saldo biziaren gerakinean, ekitaldi horretako eragiketa berriekiko. Hala eta guztiz ere, eutsi egin zaio inbertsioa berreskuratzeko joerari; eta, horrez gainera, Espainian eta Euskadin igo egin dira hipoteka-kopurua (% 9,9 eta % 3,5) eta hipoteka horien batez besteko diru-zenbatekoa (% 6,3 eta % 0,1). 2017. urtean, etxebitzitzak erosteko 310.342 hipoteka harpidetu dira Espainian eta 20.255 hipoteka harpidetu dira Euskadin; hau da, 2009. urtean harpidetutakoen erdia (% 48 eta % 58 gutxiago, hurrenez hurren). Hau da, etxebitza erosteko merkatua, familien inbertsio-erreferente gisa, gorabidean ari da 2013ko balio minimoen ondoren, eta, zentzu horretan, urte positiboa izan da 2017a; hala ere, jarduerabolumenak urrun daude 2010eko datuetatik.

Bestalde, sektore pribatuaren gordailuetako saldoak hazkunde txiki bat izan du Espainian (% 0,5), eta zertxobait handiagoa Euskadin (% 2,2); hala ere, joera ez da asko aldatu 2016. urtetik eta aurrezteko figura tradizional horiek ordainsari apalak ematen jarraitzen dute. Horren ondorioz, indarra hartu dute beste eragiketa batzuek, hala nola inbertsio-funtsek eta, inbertsiogile partikularren artean gutxiago hedatuta dauden arren, balio-merkatuek. Hori horrela, 2017an, sektore pribatuaren gordailuetako saldoa 1,146 eta 0,016 bilioi eurotako izan da Espainian eta Euskadin. Euskadik % 8ko ratioa du Espainiarekiko, eta ehuneko hori biztanleriari (% 4,7) eta BPGari (% 6,2) dagokiena baino

handiagoa da. Horrez gainera, alderdi horien gehiengo berehalako likideziaren figurei dagozkie (% 71,3, agerikoak eta aurrezkikoak); eta beste aldean, eperakoak (% 23,8) eta beste modalitate batzuetakoak (% 4,9) daude.

Aurrezkiaren zati batek ihes egin du, ziur asko, ordainsari oso apalak dakartzaten figura ez erakargarrietatik, eta, horien orde, errendimendu handiagoa ekar dezaketenak hobetsi ditu, arrisku handiagoa izan dezaketen arren. Hori horrela, handitzen jarraitu du Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IKE) ondareak (% 10 2017an), baina behera egin du erakunde-kopuruak (-% 9,4). IKEetako ondasunen % 89 inbertsio-funtsei dagokie, eta funts horiek portaera desberdina erakusten dute ondasunaren bolumenean modalitatearen arabera: atzera egin dute errenta finkoko funtsek (-% 2,9), eta igo egin dira errenta aldakorrekoak (% 28,7) eta mistoak eta bestelakoak (% 25,1).

**5. grafikoa** Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa



*Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.*

Munduko ekonomia hazi egingo dela aurreikusten dute munduko akzio-merkatuek, eta aurreikuspen positiboak daude 2018rako eta 2019rako. Bestalde, bonuen merkatuek ez dute aldaketarik izan, banku zentral nagusien politika monetario murriztaileen zain egon baitira. Azken finean, akzioen eta bonuen merkatuak hegakortasun apala izan dute, eragile nagusien jokabidearen eta agenteen konfiantzaren ondorioz.

Testuinguru horretan, Espainiako Burtsak 2016ko kontratazio-bolumenak mantendu ditu 2017an negoziazio-merkatuetan (-% 0,2). IBEX 35 indizeak bilakaera positiboa izan du urte osoan zehar; maiatzean lortu zuen maximoa (10.880 puntu) eta urtea 10.093

punturekin itxi du, Kataluniako krisiaren eraginpean. IBEX 35 indizearen balio handitzea (% 7,9) Eurostoxx-50 indizeak (% 7,1) eta FT-SE 100 indizeak (% 6,7) erregistratutakoaren antzekoa da, baina CAC-40 (% 9,8) eta Dax-Xetra (% 13,1) indizeena baino zertxobait baxuagoa, eta batez ere, Dow Jones indizearena (% 25,7) baino askoz baxuagoa; azken indize horri dolar ahulak lagundu dio, eta Ipar Amerikako ekonomiaren hazkunde indartsuak eman dio babesa.

**44. koadroa Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak (KFE).**

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Erakunde-kopurua Guztira</b>	<b>314</b>	<b>292</b>	<b>272</b>	<b>262</b>	<b>250</b>	246
Gordailu-erakundeak	258	241	224	217	206	206
Espainiako gordailu-er.	173	155	138	135	124	123
KFC/ECAOL	55	50	47	44	43	39
<b>Enplegatutako pertsonak Guztira</b>	<b>248.093</b>	<b>217.878</b>	<b>208.291</b>	<b>202.954</b>	<b>194.263</b>	<b>192.626</b>
Gordailu-erakundeak	242.726	212.991	203.305	197.825	189.280	187.472
KFC/ECAOL	5.047	4.577	4.665	4.812	4.695	4.830
Kreditu ofiziala	320	310	321	317	308	324

*Oharra: Erakunde-kopurua. Guztizko kopuruarekiko aldea atzerriko sukurtsalei (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialari (1) dagokio.*

*Iturria: Espainiako Bankua.*

Aurrezki- eta kreditu-posizio horien eskaintza kreditu-erakunde<sup>1</sup> bidez egiten da, neurri handi batean. Erakunde horiek berregituratze handia izan dute azken hamarkadan. Gainera, 2017an gordailu-erakunde kopurua mantendu egin da (206); sistemaren zati handiena da (% 83,7) eta horietatik bi heren (% 59,7) Espainiako erakundeak dira. Bestalde, kredituko finantza establezimenduen kopurua murriztu egin da (43tik 39ra). Oro har, 2017an, badirudi sistema finkatu dela eta 2012tik dagoen berregituratze-prozesuari amaiera emango zaiola.

Agerikoak dira berregituratze organikoaren eraginak, eta, horrez gainera, doikuntza handi bat da abian; izan ere, kreditu-erakundetako langileen % 30 galdu da 2008. eta 2016. urteen bitartean (84.038 enplegu; batez beste, 10.504 enplegu urtean). Eutsi egin zaio joera horri 2017an, eta lanaren galera garbia erregistratu da (-1.637 enplegu, -% 0,8); izan ere, kontratazio (berri) gutxiago egin dira, langileen galerarekin alderatuta<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Bankuak, lehengo aurrezki-kutxak eta kreditu-kooperatibak dira gordailu-erakundeak, eta beste kredituko finantza establezimendu batzuekin kreditu-erakundeak osatzen dituzte.

<sup>2</sup> Erretiroa eta pizgarridun bajak, batez ere.



**45. koadroa**      **Gordailu-erakundeak. Bulego-kopurua**

Urtea	Nafarroa	Espainia
2015	569	30.921
2016	531	28.643
2017	508	27.320

*Iturria: Espainiako Bankua.*

Gertaera horiek Estatu osoan eman dira<sup>1</sup>, eta bulego-sarearen datuak ematen digu, zeharka, bilakaera horren berri. 2008. eta 2016. urteen artean, gordailu-erakundeek 17.019 bulego kendu zituzten Estatuan, eta 2017an joera hori mantendu da, guztira 1.323 bulego gutxiago baitaude. Hori bera gertatu da Nafarroan ere, azken urtean 23 bulego gutxiago baitaude. Beste datu argigarri bat ematen digu finantza- eta aseguru-jardueraren taldeak Gizarte Segurantzaren afiliazioan izan duen bilakaerak, talde horren esparru guztietan izan den galerak argi erakusten baitu enpleguan emandako doikuntza. Labur esanda, erakundeak bezeroen beharretara egokitzen ari dira beren sarea eta langileria, beren eguneroko lanaren zati handi bat konexio digital eta ez presentzialaren bidez egiten baitute.

**46. koadroa**      **Finantza- eta aseguru-jardueretan afiliatzea**

Urtea	Nafarroa	Espainia
2015	3.482	317.352
2016	3.456	314.837
2017	3.370	313.544

*Oharra: Hileroko batez besteko afiliazioa, urte bakoitzeko abenduan. Erregimen orokorra*

*Iturria: Gizarte Segurantza.*

2017ko ekitaldia interes-tasa txikiek baldintzatutako emaitzekin itxi dute kreditu-erakundeek, eta horiek estutu egin dute finantza- edo interes-marjina (-% 4,4); hala ere, eutsi egin diote marjina gordinari (% 0,6). Ustiapen-gastuak pixka bat igo dira (% 1) eta langile-gastuak, aldiz, badirudi behera egin dutela eta ia aurreko urteko balioa errepikatu dutela (13.935 milioi euro). Ustiapen-emaitzak beste murrizketa bat izan du (-% 28koa); izan ere, handia izan da zuzkidura garbiaren zenbatekoa (3.597 milioi euro, % 2,9) eta igo egin da galeren partida finantza-aktiboen narriaduraren eraginez. Datu horietatik ondorioztatu daiteke beste aktibo batzuen narriaduraren eraginez galeren egozpen handi bat egon dela (9.276 milioi eurokoa). Horrela, 647 milioi euroko galera izaten dute (zergen aurretikoa); 2016an, aldiz, 6.691 milioi euroko etekinak izan zituzten.

<sup>1</sup> Datuak ez daude bereizita autonomia-erkidegoka.

## Kredituaren bilakaera Nafarroan

### *Esparru orokorra*

Espainiako kreditu-erakundeek 2,65 bilioi eurotan zenbatetsitako aktiboarekin itxi dute 2017ko ekitaldia, eta balioa errepikatzen dutela esan daiteke, elkarren segidako lau urtetan behera egin eta % 22,7ko galera metatu ondoren. Horrenbestez, 2017an aurreko urteetako joera apurtu da, eta urtetik urterako bilakaera zertxobait gora egiten hasi da (% 0,2), erakunde multzo horren aktiboaren zenbatespenari dagokionez.

Aktiboan dauden partiden artean, kreditu-saldo bizia gailendu da (1,77 bilioi euro), eta are eta luzeagoa den beharrezko-joera, 2010ean hasia, apurtu du: 2010etik 2016ra bitartean, kreditu-saldo biziaren doitzea ia % 28koa izan zen; alabaina, 2017an joera-aldaketa iragarri da, urtetik urterako igoera % 2,8koa izan baita.

Kreditu-erakundearen inbertsio-erabakiak bideratzen dituzten beste bi partida hauek daude: alde batetik, akzioak eta partaidetzak (beste erakunde eta enpresa batzuetan), eta bestetik, gainerako balio eta tituluek, lehen aipatutako bi mota horietakoak ez direnak. Epigrafe horien batura 0,59 bilioi euro da, eta portaera desberdinekin itxi dute 2017ko ekitaldia: akzioek eta partaidetzek urtetik urterako -% 9,9ko beherakada izan dute, eta gainerako balio eta tituluek, % 6,5eko gorakada. Orokorrean, aurreko urteetako balioak baino txikiagoak dira.

Horiek horrela, aktiboaren egitura ez da ia aldatu, kreditu bidezko inbertsioa % 66,6koa baita; horrenbestez, kreditu-erakundeek aktiboaren guztizkoan duten proportzioa sendotu egin da, eta 2017koa izan da 2011z geroztik egindako ekarpen handiena. Bestalde, baloreetan egindako inbertsioek pisua galdu dute (% 13,8tik % 12,4ra), eta pisu horren zati bat akzio eta partaidetzatan egindako inbertsioen ekarpena hobetzera bideratu da (% 9,2tik % 9,8ra). Azkenik, sektorizatu gabeko eragiketarako aktiboaren osagai dira, eta zertxobait behera egin dute (% 12tik % 11,2ra).

### 47. koadroa Kreditu-erakundearen aktiboaren osaketa

(Meurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Guztira</b>	<b>3.422.612</b>	<b>3.025.756</b>	<b>2.906.824</b>	<b>2.760.089</b>	<b>2.646.981</b>	<b>2.652.505</b>
Kredituak	2.229.670	1.926.174	1.805.615	1.767.655	1.718.815	1.766.467
Akzioak eta partaidetzak	257.501	280.357	261.536	246.274	243.811	259.602
Baloreak, akz. eta partiz. aparte utzita	508.991	492.801	492.346	415.493	365.826	329.512
Sektorizatu gabeko aktiboak	426.449	326.424	347.327	330.667	318.529	296.924

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Eragile-segmentuen araberako kredituaren banaketan ikusten denez, 2017an 1,25 bilioi euro bideratu dira beste sektore egoiliar batzuetara (BSE), eta urtetik urterako aldakuntza-tasa negatiboa izan da (-% 1,7). Beraz, 2017ko ekitaldian berresten da berriz ere enpresetan eta familietan ez dagoela palanka-efekturik, amortizatutako kopurua kreditu berrien zenbatekoa baino handiagoa baita oraingoan ere. Egoera horren ondorioz, kreditu-saldo biziak behera egiten jarraitzen du. Hala izan da 2015ean, 2106an eta 2017an (alegia, ekonomiaren eta enpleguaren susperraldian), eta horrenbestez palanka-efektua alde batera uzteko dinamika sendotu da, sektore pribatuak sustatuta.

Kreditu bidezko inbertsioaren hurrengo xedeek munta nominal txikiagoa dute, eta ehuneko txikiagoa hartzen dute. Hala, bigarren tokian ageri den partidak kreditu-sistema bera du xede; 0,2 bilioi eurokoa da, eta urtetik urterako igoera handia izan du (% 43,9). Balio horiek 2014tik 2016ra bitartekoak baino askoz ere handiagoak dira, baina 2012-2013 biurtekoan izan zirenen parean daude. Kanpo-sektoreari emandako kredituak 0,2 bilioi euro hartzen ditu. Gora egin du, aurreko urtearekin alderatuta (% 4,5), eta bezero-segmentu horren susperraldia iragarri du; izan ere, 2012az geroztikako balio handien artean bigarren tokian dago 2017koa. Azkenik, administrazio publikoetara bideratutako kredituen zenbatekoa gainerako epigrafeetakoa baino askoz ere txikiagoa da (0,078 bilioi euro), behera egiteko joerari eutsi dio<sup>1</sup> (-% 11,7) eta 2012ko balioaren bi heren izatera iritsi da jada.

2017an honela banatu da kreditu-erakundearen kreditu-saldoa: % 71 beste sektore egoiliar batzuetara edo sektore pribatura bideratu da; % 13,3k kreditu-sistema bera izan du xede; % 11,3 kanpo-sektoreara bideratu da; eta % 4,4, berriz, administrazio publikoetara. Egitura hori aurreko urteetako banaketaren antzekoa da: erakundearen kreditu-arloko jardueraren egituraren "beste sektore egoiliar batzuk" hartzen dituen epigrafea da nagusi, baina haren proportzioak zertxobait behera egin du azken urteetan.

Labur esanda, 2017an kreditu-saldo bizia suspertu egin da, eta urtetik urterako aldaketa positiboa izan du. Horrek esan nahi du bezero-segmentu batzuk hobera egin dutela (kanpo-sektorea, kreditu-erakundeak) eta horiek orekatu dutela sektore pribatuaren palanka-efektu negatiboaren etengabeko joera, beste sektore egoiliar batzuen epigrafeak adierazten duena. Hau da, eragileen funts-eskaria (kreditu berriak) jarduera ekonomikoaren indarberritzearen eta horrek sortutako finantzaketa-beharren ondorioz suspertu arren, amortizatu den bolumenta handiagoa izan da; beraz, kreditu-saldo biziak (pribatuak) behera egiten jarraitu du.

<sup>1</sup> Beste merkatu batzuetan finantzazioa eskuratzeko aukera hoberekin batera (zor-jaulkipena).

48. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua eragileen arabera

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Guztira</b>	<b>2.228.670</b>	<b>1.926.174</b>	<b>1.805.615</b>	<b>1.767.655</b>	<b>1.718.815</b>	<b>1.766.467</b>
Kreditu-sistema	278.914	210.536	155.097	164.206	163.053	234.694
Admin. publikoak	114.275	87.140	101.313	89.972	88.471	78.110
Beste sektore egoiliar batzuk	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.123	1.276.140	1.253.944
Beste ez-egoiliar batzuk	231.546	180.254	169.104	186.354	191.151	199.719

*(Meurotan)*

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### Kredituaren xedea Estatuan

Espainiako Bankuaren datuetan, modalitate hauen arabera bereizita ageri da beste sektore egoiliar batzuetara bideratutako kreditua<sup>1</sup>: kreditu komertziala, eperako beste zordun batzuk, eta beste mailegu batzuen atal bat, ageriko zordunak, finantza-errentamendua eta kobrantza zalantzarriko kredituak biltzen dituen.

Aipatutako hiru epigrafe horiek (kreditu komertziala, eperako beste kreditu batzuk eta beste mailegu batzuk) aurreko urteetako bilakaerari jarraitzen diote. Izan ere, "eperako beste zordun batzuk" aintzat hartzen dituen atalak, osagai nagusi denak, azken bost urteetan, gutxienez, behera egin du. Beste mailegu batzuen epigrafeak etengabe behera egin du azken lau urteetan (-% 38,1), eta kreditu komertzialak, berriz, gora egin du beti lau urte horietan (% 41,1).

Beste sektore egoiliar batzuen segmentuko kreditu-saldo biziaren egitura, kredituaren xedearen arabera, ez da aldatu 2017an, eta aurreko urteetako ildoari jarraitu dio. Horrenbestez, "eperako beste zordun batzuk" (% 83,6) partida nagusia izan da, eta nabarmena da kreditu komertzialak gero eta ehuneko handiagoa hartzen duela (% 3,9 oraingoan); hala eta guztiz ere, proportzio txikia du oraindik ere, eta, neurri batean, beste mailegu batzuek galdutako ehunekoa (2013an % 17,5 izatetik oraingoan % 12,5 izatera) bereganatu du.

<sup>1</sup> Ekitaldi honetatik aurrera, Espainiako Bankuak ez du ematen eperako beste zordun batzuei buruzko informazio bereizirik, berme erreal batean oinarritutako kredituei dagokienez, eta, horien barruan, hipoteken modalitatean sinatutakoei buruz. Aldaketa hori Europar Batasuneko (Europako Banku Zentraleko) sailkapen-ereduaren egokitzapenaren ondorio da.

## 49. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

<i>(M eurotan)</i>						
Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Guztira</b>	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.123	1.276.140	1.253.944
Kreditu komertziala	40.523	34.570	36.606	42.640	45.058	48.764
Eperako beste zordun batzuk	1.335.512	1.159.366	1.117.315	1.098.012	1.064.196	1.047.827
Beste mailegu batzuk	228.899	254.308	226.180	186.471	166.886	157.353

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Gordailu-erakundeek emandako kredituaren xedeari erreparatuta, beste sektore egoiliar batzuetarako kredituan kontuan hartzen diren lau epigrafeetako hiruren saldo bizian beherakada ageri da 2017ko ekitaldia ixtean. Hortaz, ekoizpen-jardueretarako kredituaren saldo biziak % 2 egin du behera, zazpi urtez gailendutako joerari eutsiz, eta % 32,7ko beherakada metatu du. Horri erantsi behar zaio etxebizitza-segmentura bideratutako kredituaren beherakada (-% 2,6), zazpigarren urtez; hala eta guztiz ere, 2012az geroztikako beherakada guztien artean, 2017koa da txikiena. Horrenbestez, etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko kreditu-saldo bizian % 20,6ko beherakada metatu da 2011tik 2017ra bitartean.

Beste kreditu batzuen atalak ere behera egin du 2017an (-% 5,2), eta, 2008an lortutako balio maximoarekin alderatuta, dagokion saldo biziak % 35,2ko beherakada metatu du. Horrenbestez, kontuan hartutako hiru xede edo bezero-segmentuek (ekoizpen-jarduerak, etxebizitza eta beste kreditu batzuk) % 2,5eko urtetik urterako beherakada izan dute 2017an; eta, kontsumo-ondasun iraunkorren finantzaziorako kredituek nabarmen hobera egin badute ere, hobekuntza hori ez da nahikoa aipatutako beherakada konpentsatzeko.

Kontsumo-ondasun iraunkorren finantzaziorako segmentuari lotutako kreditu-saldoaren gorakada handia izan da (% 26,6), bigarren urtez, eta 2016koarekin batuta (% 18,9), % 50 baino gehiagoko igoera metatu du bi urtetan. Horrez gainera, 2010etik aurrera izan den zenbateko handiena da.

## 50. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk


<i>(M eurotan)</i>						
Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Guztira</b>	1.537.748	1.392.384	1.328.189	1.274.656	1.222.541	1.199.079
Ekoizpen-jarduerak	788.412	687.736	647.426	619.954	582.060	570.220
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	620.580	592.278	568.212	541.032	524.780	511.355
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	26.038	19.869	21.615	20.576	24.464	30.975
Beste kreditu batzuk	102.718	92.501	90.936	93.094	91.237	86.529

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Azken finean, 2017an gordailu-erakundeek beste sektore egoiliar batzuetako bezero-segmentuari emanak dituzten 1,2 bilioi euroen ia erdia (% 47,6) ekoizpen-jardueretarako da, ia beste hainbeste (% 42,6) etxebizitzak erosi eta birgaitzeko, eta ehuneko txikiagoak kontsumo-ondasun iraunkorretarako (% 2,6) eta beste kreditu batzuetarako (% 7,2).

Banaketa hori aurreko urteetako antzekoa da, eta bi segmentu nagusien konbergentziaren emaitza da; izan ere, 2008an ekoizpen-jarduera nagusitzen zen banaketan (% 54), etxebizitza-segmentuaren gaitetik (% 36), baina beste sektore egoiliar batzuetarako kreditua, guztira, 2017ko bolumena baino % 49 handiagoa zen 2008an. Bestalde, azpimarratzekoa da 2007tik aurrerako zenbatekoak kontuan hartuta, kontsumo-ondasun iraunkorretarako kredituaren kuota handiena 2017koa dela.

**6. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (BSE)**




Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

### ***Kredituaren bilakaera Nafarroan***

Nafarroako kreditu-saldo bizia 16.521 milioi eurokoa izan da 2017ko ekitaldian. Zenbateko horrek adierazten du urtetik urterako gorakada txiki bat egon dela (% 1,2), 2016ko ekitaldian ez bezalakoa, urte hartan bilakaera negatiboa izan baitzuen (-% 1,9). 2016-2017 biurtekoa aztertuta, Nafarroan 2017ko ekitaldiko saldo bizia 2015ekoa baino txikiagoa da oraindik (-117 milioi euro gutxiago).

7. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

2017an Nafarroako kredituaren bilakaera bat dator 2008tik aurrera Estatu osoan dagoen palanka-efektu negatiboaren joera orokorrarekin. Nafarroan, kreditu bizia 16.521 milioi eurokoa izan da 2017ko ekitaldian, hau da, 2010eko balioa baino % 32,1 txikiagoa –Espainiaren kasuan % 31,4 da–. Hala eta guztiz ere, azken bi urteko (2016-2017) bilakaera aztertuta, ikus daiteke ez dela joera bera errepikatu Nafarroan eta Estatuan; alabaina, ez dira oso handiak bien arteko aldeak. Lehen aldiz igo da 2008tik, Nafarroako beste sektore egoiliar batzuetara bideratutako kreditu-saldo bizia, eta beraz, sektorea suspertzen hasi dela esan daiteke. Estatuan, aldiz, doikuntza da nagusi (-86.915 milioi euro).

Nafarroan, aztertutako bi bezero-segmentuen arabera –administrazio publikoak eta beste sektore egoiliar batzuk–, kredituak ez du bilakaera bera izan (-% 15,8 eta -% 0,1 hurrenez hurren); eta, portaera hori Estatuko jokabidearen kontrakoa da (-% 11,4 eta -% 1,9 hurrenez hurren).

51. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua eragileen eta eremuaren arabera

<i>(M eurotan)</i>				
Eremua	Urtea	Admin. publikoak	BSE	Guztira
Nafarroa	2015	1.007	15.631	16.638
	2016	1.155	15.172	16.327
	2017	1.338	15.183	16.521
Espainia	2015	85.708	1.274.523	1.360.361
	2016	83.866	1.222.530	1.306.396
	2017	74.339	1.199.107	1.273.446

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

**Beste adierazle batzuk: hipotekak eratzea eta ibilgailuak matrikulatzea**

Etxebizitza eta automobila erostea eta birgaitzea dira familiek egiten dituzten inbertsioen segmentu nagusiak, eta kreditu bidezko finantzaketa erabili ohi dute. Horregatik, sinatutako hipotekei buruzko informazioa<sup>1</sup> eta ibilgailu berrien salerosketei buruzkoa kontuan hartu dugu, bi segmentuek Estatuan eta Nafarroan izan duten bilakaeraren ikuspegia osatze aldera.

2017an 310.342 hipoteka berri sinatu dira Estatuan, eta urtetik urterako igoera % 9,9koa izan da. Jarduera horrek laugarren urtez gora egin du, 2013an gutxieneko balioa izan ondoren (199.703) 2009an balioa izanda 650.889. Estatuan % 9,9 igo dira hipoteka berriak guztira. Nafarroan, 4.016 hipoteka berri egin dira; aurreko ekitaldiko datuak errepikatu dira (% 0,7ko igoera, urtetik urterako tasa), eta horrela, azken lau ekitaldietan gorakadak eman dira. Dena dela, eta sinatutako hipoteken kopuruak azken urteetan gora egin izanaren garrantzia baztertu gabe, kontuan izan behar da 2017an Estatuan eta Nafarroan sinatutako hipoteken bolumenak 2009an sinatutakoen % 48 eta % 55 direla, hurrenez hurren. Hau da, krisialdiaren aurreko kopuruetatik urrun daude oraindik ere.

Koadroan ikusten denez, hipoteken kopuruak ez ezik, hipotekatutako balioak ere gora egin du. Hortaz, 2017an 36.228 milioi euroko zenbatekoa sinatu da, guztira, hipoteketan. Zenbateko horrek gaintitzen ditu 2012tik 2016ra bitarteko urte bakoitzeko balioak; baina, hala eta guztiz ere, 2009an eta 2010ean sinatutako batez besteko balioaren (73.859 milioi euro) erdia da. Horren emaitza 116.740 euroko batez besteko hipoteka da: hipoteka horrek nabarmen egin du gora 2012z geroztik, eta 2009ko datutik (117.803 euro) hurbil dago. Nafarroan sinatutako hipoteken bolumenak gora egin du (% 5,2), eta 2017an sinatutako hipotekak 106.060 eurokoak dira, batez beste. Zenbateko hori txikiagoa da Estatuko batez besteko balioa baino.

**52. koadroa      Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa**

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Espainia</b>						
Hipoteka-kopurua	273.873	199.703	204.302	246.767	282.342	310.342
Zenbateko osoa (milioi €)	28.329	19.973	20.891	26.339	31.037	36.228
<i>Batez besteko zenb. (m €)</i>	103,44	100,01	102,25	106,74	109,78	116,74
<b>Nafarroa</b>						
Hipoteka-kopurua	4.095	3.170	3.710	3.769	3.990	4.016
Zenbateko osoa (milioi €)	459	345	384	389	405	426
<i>Batez besteko zenb. (m €)</i>	112,00	108,88	103,37	103,11	101,45	106,06

*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

<sup>1</sup> Iturria: EIN. Estatu osoko jabetza-erregistroek emandako informazioa; hemen sartzen dira xede guztietarako hipoteka-kredituak, ez ohikoena bakarrik (etxebizitza hipotekatua erostea). Fluxu-estatistika bat da (urteko hipoteka-jarduera), Espainiako Bankuak jasotako kreditu-informazioa ez bezala; azken horrek, posizio zordunen stocka jasotzen du.



Azkenik, nabarmendu behar da azken hamarkadan hipoteken merkatuan egin diren doitze handiak argi eta garbi ikusten direla maileguaren balio-bizitzan egin diren aldaketetan<sup>1</sup>. Ildo horretan, 2009an Estatuko hirurehun mila hipoteka baino gehiagotan aldatu ziren baldintzak. Aldaketen kopuruak behera egin du urtero, eta 2017an 56.256 hipoteka aldatu dira. Bilakaera bertsua izan da Nafarroan: 631 hipoteka aldatu dira, hurrenez hurren. Hau da, familietan palanka-efektuak behera egiteaz gainera, kultura finantzario hobea sustatu da. Horrek aldean artean adostutako baldintzen doitzea eragin du, eta horrek guztiak, orokorrean, zorra itzultzeko baldintzak hobetu ditu.

### 53. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera

(Unitate-kopurua)

Eremua	2013	2014	2015	2016	2017
Nafarroa	7.737	9.170	10.690	10.814	12.314
Espainia	722.689	855.308	1.034.232	1.147.007	1.234.931

Iturria: ANFAC.

Automobil berrien erosketek susperraldian jarraitzen dute, eta aurreko urteetako joerari eutsi diote. Nafarroa eta Estatu bat datoz: 2012koa izan zen inflexio-ekitaldia, orduan egin baitzen eragiketa-kopuru txikiena, eta ondorengo bi urteetan susperraldia nabarmena izan zen, aurreko urteetan atzeratutako eragiketen balizko azalerratzea barnean hartuta.

Adierazle horren bizitasuna baretu egin da 2016an eta 2017an: ibilgailu berrien salerosketen urtetik urterako igoera % 7,7koa izan da 2017an, eta proportzio hori txikiagoa da aurreko hiru urteetako baino (2015ean % 10,9, 2016an % 20,9 eta 2017an % 18,4). Hala eta guztiz ere, 1,234 milioi ibilgailutik gora dira, eta kopuru horrek ia bikoiztu egiten du 2012koa (0,699 milioi ibilgailu), 2008az geroztik izandako txikiena. Nafarroan antzeko bilakaera izan da azken lau urteetan (2014an % 13,9, 2015ean % 1,2, 2016an % 16,6 eta 2017an % 18,5), eta 2017an, 12.314 ibilgailu matrikulatu ziren 2012ko datua gainditu dut (7.034 Nafarroan).

<sup>1</sup> Zehazki: berritzeak (hipoteka kontratatu ostean egindako edozein aldaketa, aldeek kontratua berriro negoziatzea adostuz gero), hartzekodunaren subrogazioa (bankua aldatzea, eta, horren ondorioz, kontratuaren baldintza berriak) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, eta titular berriak onartzea, kontratuaren baldintzak aldatuta edo aldatu gabe). Aldaketetan kontuan hartzen dira, batez ere, alderdi hauek: epea, zenbatekoa, erreferentziako interes-tasa eta/edo aplikatuko den diferentziala.

### **Berankortasunaren bilakaera<sup>1</sup>**

Berankortasunaren adierazleak jasotzen du erabilitako kreditu bizi osotik zer kuotak duen kobrantza zalantzarria. 2009tik 2013ra bitartean ratio horrek gora egin zuen, % 13,8ra iritsi arte, eta harrezkero murriztu egin da urtero, 2017an % 7,9ra iritsi arte.

**54. koadroa      Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk**

Urtea	K. zalantzarriak	Kredituak*	(Zalantz./Kredituak) x 100
2012	162.601	1.537.748	10,6
2013	191.748	1.392.384	13,8
2014	167.743	1.328.189	12,6
2015	129.984	1.274.653	10,2
2016	112.275	1.222.511	9,2
2017	94.175	1.199.106	7,9

(\*): Beste sektore egoiliar batzuen esku utzitako funtsak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Berankortasunaren bilakaerak askotariko bezero-segmentuetan pixkanaka behera egiteko joera orokorra du. Dena dela, azpimarratu behar da, lehenik eta behin, 2017an ekoizpen-jardueren lotutako berankortasun-ratioa % 10,4 dela, eta balio horrek bikoizten duela familien segmentuari dagokion adierazlea (% 5,3). Bigarrenik, ekoizpen-jardueren berankortasun-ratioak jardueren sorta zabal bat hartzen du. Jarduera horiek askotariko joerak dituzte, berankortasunari dagokionez, eta mutur banatan daude industria-segmentua<sup>2</sup> (% 8,8) eta higiezinaren sustapena<sup>3</sup> (% 18,2). Hirugarrenik, ekoizpen-jardueren artean alde handiak egon arren, horietan guztietan berankortasun-ratioak behera egiteko joera du; hau da, segmentu guztietan kobrantza zalantzarriko kredituaren zenbatekoa murriztu egin da. Amaitzeko, familien segmentuan motelago egin du behera berankortasunak, eta % 5 inguruan dago.

<sup>1</sup> Autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik ez dugu.

<sup>2</sup> Sinatutako maileguen batez besteko bolumenagatik, zerbitzuetako edozein jarduerak baino askoz ere handiagoa, jarduera-mota eta inbertsio-premiak direla eta.

<sup>3</sup> Oso kaltetua krisiaren aurretik kredituak hedatu zirelako eta gero jarduera horrek behera jo zuelako (aktiboen balioa galtzea, salmenten beherakada, enpresen likidazioak eta abar).

55. koadroa      **Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarrien edo berankotasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Zalantzarriak, guztira</b>	<b>10,6</b>	<b>13,8</b>	<b>12,6</b>	<b>10,2</b>	<b>9,2</b>	<b>7,9</b>
<b>Ekoizpen-jarduerak</b>	<b>16,0</b>	<b>20,9</b>	<b>18,9</b>	<b>14,9</b>	<b>13,3</b>	<b>10,4</b>
Nekazaritza eta arrantza	9,1	13,6	12,2	10,2	9,1	7,5
Industria	9,4	13,8	13,9	11,2	9,1	8,8
Eraikuntza	26,6	35,3	33,7	30,9	29,7	24,5
Zerbitzuak	16,3	21,0	18,9	14,4	13,0	9,9
<i>Higiezin jarduerak</i>	<i>29,1</i>	<i>38,0</i>	<i>36,2</i>	<i>27,4</i>	<i>25,4</i>	<i>18,2</i>
<i>Finantzak (bankuak ez)</i>	<i>2,2</i>	<i>3,3</i>	<i>2,4</i>	<i>2,1</i>	<i>2,1</i>	<i>0,3</i>
<i>Merkataritza eta kon.</i>	<i>10,7</i>	<i>15,2</i>	<i>15,6</i>	<i>12,9</i>	<i>11,5</i>	<i>10,5</i>
<i>Garraioa eta bilteg.</i>	<i>8,6</i>	<i>13,7</i>	<i>17,3</i>	<i>13,1</i>	<i>6,2</i>	<i>6,4</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>16,8</i>	<i>23,2</i>	<i>20,4</i>	<i>17,2</i>	<i>14,6</i>	<i>10,8</i>
<i>Beste zerbitzu batzuk</i>	<i>8,9</i>	<i>13,3</i>	<i>12,2</i>	<i>9,9</i>	<i>8,8</i>	<i>5,3</i>
<b>Beste helburu batzuk / familiak</b>	<b>4,7</b>	<b>6,7</b>	<b>6,6</b>	<b>5,5</b>	<b>5,4</b>	<b>5,3</b>
Etxebizitzak erosi eta birg.	3,8	5,8	5,7	4,7	4,6	4,6
Beste batzuk	9,8	12,7	12,2	10,0	10,0	9,2
<b>Gainerakoak</b>	<b>10,4</b>	<b>12,2</b>	<b>6,3</b>	<b>16,6</b>	<b>7,0</b>	<b>13,2</b>

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

56. koadroa      **Gordailu-erakundeak. Kobrantza zalantzarriko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

(M eurotan)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Zalantzarriak, guztira</b>	<b>162.601</b>	<b>191.748</b>	<b>167.473</b>	<b>129.980</b>	<b>112.275</b>	<b>94.175</b>
<b>Ekoizpen-jarduerak</b>	<b>126.032</b>	<b>143.511</b>	<b>122.314</b>	<b>92.164</b>	<b>77.335</b>	<b>59.943</b>
Nekazaritza eta arrantza	1.830	2.477	2.145	1.824	1.706	1.506
Industria	11.628	14.846	14.802	11.773	9.407	9.121
Eraikuntza	19.521	20.315	15.960	12.947	11.304	8.053
Zerbitzuak	93.055	105.874	90.127	65.619	54.918	40.813
<i>Higiezin jarduerak</i>	<i>64.202</i>	<i>66.265</i>	<i>53.795</i>	<i>36.665</i>	<i>30.275</i>	<i>19.759</i>
<i>Finantzak (bankuak ez)</i>	<i>2.005</i>	<i>2.871</i>	<i>2.385</i>	<i>2.067</i>	<i>1.690</i>	<i>274</i>
<i>Merkataritza eta kon.</i>	<i>7.840</i>	<i>10.438</i>	<i>10.432</i>	<i>8.659</i>	<i>7.768</i>	<i>7.506</i>
<i>Garraioa eta bilteg.</i>	<i>3.431</i>	<i>4.761</i>	<i>4.968</i>	<i>3.635</i>	<i>1.690</i>	<i>1.920</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>5.608</i>	<i>7.094</i>	<i>5.686</i>	<i>4.612</i>	<i>3.881</i>	<i>2.889</i>
<i>Beste zerbitzu batzuk</i>	<i>9.969</i>	<i>14.534</i>	<i>12.861</i>	<i>9.981</i>	<i>9.026</i>	<i>8.465</i>
<b>Beste helburu batzuk / familiak</b>	<b>34.544</b>	<b>46.530</b>	<b>44.197</b>	<b>34.736</b>	<b>33.652</b>	<b>32.712</b>
Etxebizitzak erosi eta birg.	23.807	34.080	32.313	25.204	23.930	23.274
Beste batzuk	10.737	12.450	11.884	9.532	9.722	9.438
<b>Gainerakoak</b>	<b>2.025</b>	<b>1.707</b>	<b>962</b>	<b>3.080</b>	<b>1.288</b>	<b>1.970</b>

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

## Gordailuen bilakaera Nafarroan

### Esparru orokorra

Kreditu-erakundeetako gordailuen bolumena<sup>1</sup> 1,866 bilioi eurokoa izan da Estatuan 2017an, eta zenbateko hori 2016koaren oso antzekoa da, zertxobait gora egin badu ere (% 0,02). Horrenbestez, 2017 inflexio-puntua izan daiteke magnitude horren bilakaeran, 2008an gehieneko balioa (2,327 bilioi euro) lortu eta gero saldoak bederatzi urtez jarraian behera egin ondoren.

2017 ixtean, behera egin dute beste sektore egoiliar batzuen gordailuek (-% 3,2) eta kanpo-sektorekoek (-% 2,3); sistema bera eta administrazio publikoak xede dituzten gordailuek, berriz, gora egin dute (% 13,6 eta % 13,5 hurrenez hurren). Azken finean, pasiboen posizio horien egiturari, bi heren beste egoiliar batzuei dagozkie (% 64,4), eta beste herena honako hauen artean banatuta dago: kanpo-sektorea (% 14,7), kreditu-sistema (% 17,5) eta administrazio publikoak (% 3,3). Banaketa horrek ez dakar aldaketa handirik, aurreko urteekin alderatuta.

### 57. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, eragileen arabera

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Guztira</b>	<b>2.297.865</b>	<b>2.065.401</b>	<b>1.997.363</b>	<b>1.940.297</b>	<b>1.866.552</b>	<b>1.866.973</b>
• Kreditu-sistema	572.928	381.293	311.533	302.810	288.158	327.483
• Admin. publikoak	69.183	63.485	76.150	77.058	54.371	61.722
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.316.735	1.314.129	1.289.280	1.261.388	1.242.580	1.202.893
• Beste ez-egoiliar batzuk	339.019	306.493	320.400	299.061	281.444	274.874

Iturria: *Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Banakapen honetan beste sektore egoiliar batzuen segmentuko gordailuen osaera ageri da, haien epeen arabera: 2017an, sektore pribatuko gordailuen ia hiru laurden (% 71,3) ageriko kontuak edo aurrezki-kontuak dira, ia laurden bat (% 23,8) eperako posizioak dira, eta beste gordailu-formula batzuk, finantza-eragiketa konplexuagoarekin lotuta daudenak, askoz ere proportzio txikiagoa dute (% 4,9).

Banaketa hori nabarmen aldatu da aztertutako bosturtekoan; izan ere, 2012an honako hau izan zen: % 36,1, % 52,6 eta % 11,3 hurrenez hurren. Beraz, gordailuen zati handi bat eperako modalitateetatik likidezia azkarragoko formulatara eraman da. Mugimendu horren erritmoa beti bertsua izan da aipatutako aldirian, eta kontuan hartu diren gordailu-

<sup>1</sup> Kontuan hartu behar da ez dagoela aurrezkiaren neurri osorik pasibo-posizioetan; izan ere, gordailu-figurretara bideratzeaz gainera, baliteke beste inbertsio-xede batzuetara jotzea, esaterako, funtsetara, balioetara edo higiezin jardueretara.

ezartzeengatik ordaindu denaren arabera izan da. Epe luzerako posizioen interesak hutsaren hurrengoak izan direnez, epe laburragoetara jo da, edota eperik gabekoetara, ordainsariak hobetu zain.

#### 58. koadroa Gordailu-erakundeak. Gordailu-motak. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	(M eurotan)					
	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<b>Guztira</b>	<b>1.316.735</b>	<b>1.314.129</b>	<b>1.289.280</b>	<b>1.261.388</b>	<b>1.242.580</b>	<b>1.202.893</b>
• Agerikoak	475.367	500.208	562.629	650.098	753.624	857.135
• Aurrezkikoak	692.808	677.143	597.338	508.753	403.567	286.365
• Eperakoak	148.560	136.778	129.313	102.537	85.389	59.393

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

#### Gordailuen bilakaera Nafarroan

Nafarroan gordailuen saldoa 16.839 milioi euro izan da 2017an, eta urtetik urterako igoera % 4,1ekoa izan da. Kasu horretan, emaitzak aise gaititu du Estatuko igoera (% 1,1). Horretaz gainera, ez dute hazkunde handirik izan beste sektore egoiliar batzuen gordailuek (% 1,1eko igoera Nafarroan); baina bada Estatukoarena biano handiagoa (% 0,5eko gorakada Estatuan). Horrenbestez, sektore pribatu horretan Nafarroako gordailuek Estatuan duten proportzioa % 1,4ko da.

#### 59. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta AAPPen gordailuak.

Eremua	Urtea	(M eurotan)		
		Admin. publikoak	BSE	Guztira
Nafarroa	2015	424	15.144	15.568
	2016	571	15.602	16.173
	2017	1.061	15.778	16.839
Espainia	2015	76.097	1.135.720	1.211.817
	2016	53.412	1.140.814	1.194.227
	2017	60.910	1.146.917	1.207.827

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

#### Aurrezpenaren beste adierazle batzuk

2017an Estatuko familien errenta gordin erabilgarriak gora egiten jarraitu du (% 2). Horrenbestez, laugarren urtez, etenik gabe, iraun du susperraldiak. Hala eta guztiz ere, familien aurrezki gordinak behera egin du etengabe 2013az geroztik, eta joera hori nabarmenagoa izan da azken urtean. 2017an familien aurrezki-tasa gordinak % 4,9 da, eta gutxieneko balio hori oso urrun dago 2009tik 2013ra bitarteko batez besteko tasatik (% 8-9).

Azpimarratu behar da aurrezki-tasaren murrizketan eragiten duela aurrezki-bolumenaren beherakadak, bai eta errentaren gorakadak ere. Horrekin batera, aurrezkiak gutxi ordaintzen direnez eta egonkortasun sozioekonomikoa handiagoa denez, kontsumoa eta inbertsioa suspertu egin dira enpresa eta familien artean; beraz, funts horiek erabili dira. Azkenik, enpresen arloan, aurrezki-tasa gordinak etengabe egin du gora, eta 2017an % 30,6ra iritsi da. Horrenbestez, bistakoa da enpresen gaitasun finantzarioa suspertu egin dela.

**60. koadroa Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina**

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016	2017
<i>(Meurotan)</i>						
<b>Familiak</b>						
• Errenta gordin erabilgarria	787.414	778.824	785.894	805.257	821.962	838.709
• Aurrezki gordina	57.229	63.917	62.058	58.929	53.982	40.927
• Aurrezki-tasa (%)	7,3	8,2	7,9	7,3	6,6	4,9
<b>Soz. ez-finantzarioak</b>						
• BEG	555.499	542.922	553.516	580.034	605.264	634.502
• Aurrezki gordina	144.764	160.537	158.818	175.385	191.834	194.247
• Aurrezki-tasa (%)	26,1	29,6	28,7	30,2	31,7	30,6


*Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.*

### Interes-, kostu- eta ordainsari-tasen bilakaera

Europako Banku Zentralak % 0an eutsi dio erreferentziazko interes-tasari 2016ko martxoaz geroztik. 2018aren erdialdean banku zentral handiek agian tasak igoko dituztela esaten da, eta AEBko Erreserba Federalak egin ditu jada igoera batzuk.

Tasa orokorren egoera horren ildotik, finantza-erakundeek aplikatutako tasek behera egin dute orokorrean, baina 2017an salbuespen batzuk ikusi dira. Esate baterako, familientzako maileguetan, etxebizitzak finantzatzeko eragiketetan eta antzekoetan aplikatzen diren tasak behera egiten jarraitzen dute, baina kontsumorako kredituetan ez da hala: tasa altuenak dira, eta hala ere lehengo mailari eutsi diote.

8. grafikoa Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala



Iturria: Europako Banku Zentrala.

Etxebizitzak erosteko, % 1,83 inguruko tasak aplikatzen dira, eta zenbateko hori azken hamarkadan izan den gehienezko balioaren erdia da (% 3,58 2011n). Enpresen finantzazioari aplikatutako tasen artean, azpimarratu behar da printzipal txikia dutenak gehiago merkatu direla (% 2,79tik % 1,68ra); dena dela, zenbateko handiko eragiketetan tasa txikiagoa aplikatzen da orain ere (% 1,51).

Familien aurrezki-posizioen ordainsariak hutsaren hurrengoak dira aurrezki-modalitate guztietan, eta egoera horrek 2016az geroztik irauten du. Esan daiteke, gehienez ere, sozietate ez-finantzarioen gordailu-posizioen ordainsariak zertxobait handiagoak direla; baina, nolahi ere, oso apalak dira, diruaren prezio oso merkearen testuinguruarekin bat datozenak.

**61. koadroa Kreditu-erakundeak. Familiei<sup>(2)</sup> eta sozietate ez-finantzariei eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR)**

	2014	2015	2016	2017
				(%)
<b>FAMILIENTZAKO MAILEGU ETA KREDITUAK<sup>(2)</sup></b>				
– Etxebizitza <sup>(1)</sup>	2,56	1,98	1,91	1,83
– Kontsumoa <sup>(1)(3)</sup>	7,74	7,56	7,12	7,24
– Beste xede batzuk <sup>(1)</sup>	4,64	3,77	3,62	3,36
<b>SOZIETATE EZ-FINANTZARIOENTZAKO MAILEGU ETA KREDITUAK</b>				
– Zorpekoak	3,14	2,34	1,66	1,55
– 250.000 €-rainoko kredituak <sup>(1)</sup>	4,18	3,26	2,64	2,33
– 250.000tik 1.000.000 €-ra arteko kredituak <sup>(1)</sup>	2,79	2,05	1,79	1,68
– 1.000.000 €-tik gorako kredituak <sup>(1)</sup>	1,99	1,96	1,60	1,51
<b>FAMILIEN GORDAILUAK<sup>(2)</sup></b>				
– Agerikoak	0,17	0,12	0,06	0,04
– Eperakoak <sup>(1)</sup>	0,66	0,39	0,11	0,08
• gehienez urtebeterakoak	0,59	0,35	0,1	0,07
• 2 urtetik gorakoak	0,83	0,24	0,07	0,08
<b>SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK</b>				
– Agerikoak	0,31	0,24	0,15	0,10
– Eperakoak <sup>(1)</sup>	0,51	0,31	0,13	0,16
• gehienez urtebeterakoak	0,51	0,31	0,11	0,17
• 2 urtetik gorakoak	0,50	0,66	0,48	0,33

(1): Produktu bakoitzaren batez besteko tasa haztatua, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(2): Etxeak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

(3): 2010eko maiatzetik, zutabe honek kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere barne hartzen du.

TEDR tasa: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, UTB komisiorik gabe.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.



## 4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Hurrengo paragrafoetan Nafarroako enpresen bilakaera ekonomiko-finantzarioa nolakoa izan den aztertuko dugu, bai eta enpleguaren produktibitateari buruzko zenbait alderdi ere. Azterketa egiteko erabili den informazioa Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralari eskatutako Nafarroako enpresei buruzko ustiapen espezifiko batetik atera da; izan ere, enpresa nafarrek urtetik urtera bidaltzen diote informazioa Zentralari. Oraingoan, 2015eko eta 2016ko<sup>1</sup> ekitaldietan bezala, guztira 150 enpresa hartu dira kontuan.

### 4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK

2015eko eta 2016ko laginetan errepikatzen diren Nafarroako 150 enpresen emaitzen kontu erantsia aztertuz gero, enpresen magnitude garrantzitsuenen bilakaeraren berri izan dezakegu, diru-sarrerari, kostuei eta emaitzei dagokienez. Zehazki, enpresa horiek 9.962.694 mila euro fakturatu zituzten guztira 2016an, hau da, 2015ean baino % 1,2 gehiago.

62. koadroa Nafarroako enpresen emaitzen kontu bategina

*(m eurotan)*

Aldagaia	2015		2016		Aldakuntza-tasa % $\Delta$ 16/15
	m euro	%	m euro	%	
Ustiapeneko diru-sarrerak	9.845.218	100,0	9.962.694	100,0	1,2
Bitarteko kontsumoak	7.497.379	76,2	7.504.231	75,3	0,1
Balio erantsi gordina	2.347.839	23,8	2.458.463	24,7	4,7
Langile-gastuak	1.339.429	13,6	1.399.446	14,0	4,5
Ustiap. emaitza ekon. gordina	1.008.410	10,2	1.059.017	10,6	5,0
Amortizazioak eta hornidurak	404.196	4,1	396.224	4,0	-2,0
Ustiap. emaitza ekon. garbia	604.214	6,1	662.793	6,7	9,7
Finantza-karga garbia	-210.599	-2,1	-73.437	-0,7	-65,1
Ohiko jardueren emaitza	814.813	8,3	736.230	7,4	-9,6
Ezohiko jardueren emaitza	-5.055	-0,1	-94.840	-1,0	1776,2
Zerga aurreko emaitza	809.758	8,2	641.390	6,4	-20,8
Zergak	161.571	1,6	120.352	1,2	-25,5
Ekitaldiko emaitza garbia	648.187	6,6	521.038	5,2	-19,6
Cash-flow	1.052.383	10,7	917.262	9,2	-12,8

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

Kostuen egituraren bilakaera aztertuta (kostu-partidek zenbateko proportzioa izan duten fakturazioan), bitarteko kontsumoen ehunekoak zertxobait behera egin duela

<sup>1</sup> Urte horretako datuak dira eskura ditugun azkenak.

ikusten da, 2016an fakturazioaren % 75,3 izan baita (2015ean % 76,2); nolahi ere, termino absolututan lehengoari eutsi dio (% 0,1). Balio erantsi gordinak fakturazioan duen proportzioak gora egin du 2016an, % 24,7ra iritsi arte (2015ean % 23,8), eta zenbateko absolutuetan nabarmen igo da (% 4,7).

Langile-gastuei dagokienez, % 4,5 igo dira termino nominaletan 2016an, diru-sarreretan duten proportzioak zertxobait gora egin du (2016an % 14,0 eta 2013an % 13,6), eta amortizazioen kasuan, berriz, haien pisuari eutsi zaio (2016an % 4,0 eta 2015ean % 4,1). Bestalde, nabarmendu behar da 2016an areagotu egin dela finantza-karga; hain zuzen ere, gastu finantzarioak baino 73.437 mila euro handiagoak izan dira diru-sarrera finantzarioak (2016ko fakturazioan -% 0,7ko pisua eta 2015ekoan -% 2,1). Kontabilizatutako ezohiko emaitzek, berriz, behera egin dute (-94.840 milioi euro 2016an; -5.055 milioi euro 2015ean), eta saldo negatiboa nabarmen areagotu da (2016ko fakturazioaren -% 1,0 eta 2015ekoan -% 0,1).

lido horretan, zergen aurreko emaitzak (% 20,8 behera egin du termino nominaletan) 2016ko fakturazioaren % 6,4 hartzen du, aurreko urteko ehunekoa baino nabarmen txikiagoa (2015ean % 8,2).

Azken finean, fakturazioaren igoera txiki baten testuinguruan, Nafarroako enpresek zertxobait behera egin dute 2016ko emaitzetan; izan ere, aurreko urteko datuekin alderatuta, ohiko zein ezohiko emaitzek behera egin dute. Dena dela, zenbatekoak positiboak izaten jarraitzen dute.

## **4.2 INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA**

2015-2016 aldian aztertutako Nafarroako enpresen laginaren balantze erantsia aztertuz gero, jakingo dugu enpresen magnitude adierazgarrienen bilakaera zer-nolakoa izan den egindako inbertsioei eta finantzaketari dagokienez.

## 63. koadroa Nafarroako enpresen balantze bategina

(m eurotan)

Aldagaia	2015		2016		Aldakuntza-tasa %Δ 16/15
	m euro	%	m euro	%	
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	12.623.364	100,0	13.231.680	100,0	4,8
AKTIBO FINKOA	6.842.104	54,2	7.753.105	58,6	13,3
Ibilgetu immateriala	1.129.304	8,9	1.083.118	8,2	-4,1
Ibilgetu materiala	2.451.754	19,4	2.585.796	19,5	5,5
Ibilgetu finantzarioa	3.261.046	25,8	4.084.191	30,9	25,2
ZIRKULATZAILEA	5.781.260	45,8	5.478.575	41,4	-5,2
Izakinak	1.325.235	10,5	1.309.654	9,9	-1,2
Zordunak	3.958.149	31,4	3.655.335	27,6	-7,7
Diruzaintza	497.876	3,9	513.586	3,9	3,2
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	12.623.364	100,0	13.231.680	100,0	4,8
PASIBO FINKOA	8.055.440	63,8	8.636.438	65,3	7,2
Ondare garbia	5.920.365	46,9	6.152.513	46,5	3,9
Epe luzeko besteren baliabideak	2.135.075	16,9	2.483.925	18,8	16,3
EPE LAB. HARTZEKODUNAK	4.295.555	34,0	4.326.372	32,7	0,7
- Kostua dutenak	1.320.157	10,5	1.606.915	12,1	21,7
- Kosturik gabekoak	2.975.398	23,6	2.719.457	20,6	-8,6
HORNIDURAK	272.369	2,2	268.870	2,0	-1,3

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Inbertsioen atalari helduta, honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- 2016an aktibo finkoak guztizko aktiboan duen proportzioak gora egin du (% 58,6 2016an eta % 54,2 2015ean); termino nominaletan, berriz, % 13,3 igo da.
- Aktibo finkoaren pisua areagotu da, batez ere, ibilgetu finantzarioak gora egin duelako; izan ere, guztizko aktiboan duen pisu erlatiboak nabarmen egin du gora, 2016an % 30,9ra iritsi arte (2015ean % 25,8). Bestalde, ibilgetu immaterialak duen proportzioak zertxobait behera egin du, 2016an % 8,2 izatera iritsi arte (2015ean % 8,9). Ibilgetu materialaren pisu erlatiboak, berriz, apur bat gora egin du, eta 2016an % 19,5 hartu du (2015ean % 19,4). Magnitude horrek nahiko ondo neurtzen du inbertsioaren bilakaera, ondasun finko eta ukigarrien zentzu klasikoan, eta % 5,5 igo da, termino nominaletan.
- Zirkulatzailan egindako inbertsioari dagokionez, aktiboaren guztizkoan duen proportzioak behera egin du (2016an % 41,4 eta 2015ean % 45,8), eta termino nominaletan % 5,2 jaitsi da.
- Zirkulatzailak guztizko aktiboan duen pisuaren beherakada gertatu da zordunen pisuak nabarmen behera egin duenean (2016an % 27,6 eta 2015ean % 31,4), eta beherakada hori termino nominaletan % 7,7 jaitsi ostean izan da. Izakinen pisuak ere

behera egin du (2016an % 9,9 eta 2015ean % 10,5). Diruzaintzari dagokionez, lehengo pisuari eutsi dio (% 3,9 bai 2016an bai 2015ean).

Finantzaketari buruzko alderdi garrantzitsuenei begira, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Epe motzeko finantzaketak (epe laburreko hartzekodunak) pisu erlatibo gutxiago du, finantzaketa iraunkorrak (pasibo finkoa) nabarmen gora eta hornidurek pixka bat behera egin duten testuinguruan. Zehazki, epe motzeko finantzaketak pasiboaren guztizkoan duen pisua % 32,7 izan da 2016an (2015ean % 34,0) eta finantzaketa iraunkorraren pisua, termino nominaletan % 7,2 igo dena, % 65,3ra arte areagotu da (2015ean % 63,8). Bestalde, horniduren pisua % 2,0 izan da (2015ean % 2,2).
- Pasibo finkoaren pisu erlatiboak gora egin du, ondare garbiaren proportzioak zertxobait behera eta epe luzeko besteren baliabideek nabarmen gora egin duten testuinguruan; hain zuzen ere, ondare garbiaren kasuan, 2015ean guztizko pasiboaren % 46,9 izatetik 2016an % 46,5 izatera, eta epe luzeko besteren baliabideen kasuan, 2015ean % 16,9 izatetik 2016an % 18,8 izatera.
- Halaber, epe laburreko finantzaketaren pisu erlatiboak behera egin du kostua duten baliabideen proportzioak nabarmen gora egin duenean (2016an guztizko pasiboaren % 12,1 eta 2015ean % 10,5), eta kosturik gabeko baliabideek, aldiz, behera egin dute (2016an % 20,6 eta 2015ean % 23,6).
- Azkenik, maniobra-funtsak (aktibo zirkulatzaila ken epe laburreko hartzekodunak) 2016an % 22,4 behera egin du termino nominaletan; hala ere, saldo positiboa du (2016an guztizko pasiboaren % 8,7 eta 2015ean % 11,8).

### **4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK**

2016an, Nafarroako enpresen laginaren errentagarritasun ekonomikoak (zerga aurretik kalkulatuta) behera egin du aurreko urtearekin alderatuta. Zehazki, errentagarritasun hori 2016an % 7,1 izan da, eta aurreko urtean, berriz, % 9,5.

## 64. koadroa Nafarroako enpresen errentagarritasuna


Ratioak (%)	2012	2013	2014	2015	2016
AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zerga aurretik)	8,5	0,2	6,7	9,5	7,1
Jasotako finant. Interesak / Kostua duten besteren bal.	3,2	3,3	3,7	3,0	2,5
BALIABIDE PROPIOEN ERRENT. (zerga aurretik)	12,1	-2,6	9,7	13,7	10,4
Zorpetze-ratioa	40,9	61,5	61,2	41,5	45,9
Palanka-efektu finantzarioa*	5,3	-3,0	3,0	6,5	4,6

(\*): Errentagarritasun ekonomikoa – besteren finantzaketaren kostua  
Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Era berean, finantza-errentagarritasunak (zerga aurretik kalkulatuta) nabarmen behera egin du 2016an, % 10,4 izan baita (2015ean % 13,7).

Finantza-errentagarritasunaren beherakada errentagarritasun ekonomikoaren beherakadaren ondorio izan da nagusiki; baina zorraren kostuak ere zertxobait behera ere egin du. Horren guztiaren ondorioz, 2016an palanka-efektu finantzarioak nabarmen behera egin du.

## 9. grafikoa Nafarroako enpresen errentagarritasuna



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

## 4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA

Aurreko ataletan egindako azterketa ekonomiko-finantzarioaren osagarri, aztertu dugun Nafarroako enpresen laginean enpleguak izan duen produktibitatearekin lotutako zenbait alderdi azalduko ditugu labur-labur.

**65. koadroa      Enpleguaren produktibitatea**

Ratioak	(m eurotan)				
	2012	2013	2014	2015	2016
BEG/langile	78,2	73,8	75,1	78,2	79,5
Enpleguaren batez besteko kostua	43,5	42,9	43,5	44,6	45,2

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.*

Zehazki, langile bakoitzeko balio erantsia 79,5 mila euro izan da 2016an; aurreko urtearekin alderatuta, % 1,7 egin du gora. Bestalde, enpleguaren batez besteko kostua 45,2 mila euro izan da, aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa (% 1,3).

#### **4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA**

Aurreko ataletan emandako informazioaren sintesi gisa, 2016an Nafarroako enpresek izan duten egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako alderdi positiboak eta negatiboak aipatuko ditugu.

Alderdi positiboen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Ustiapeneko diru-sarrerak pixka bat gora egin dute.
- Bitarteko kontsumoek eta amortizazioek lehengoari eutsi diote.
- Aktibo finkoak gora egin du, ibilgetu immaterialean eta finantzarioan egindako gorakadaren ondorioz.
- Zordunen partidak behera egin du.
- Maniobra-funtsa positiboa izan da.
- Zorraren kostua pixka bat jaitsi da.

Alderdi ez hain positiboak dagokienez, honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen kostuen pisu erlatiboak gora egin du.
- Finantza-karga garbiak nabarmen behera egin du.
- Ezohiko emaitzek behera egin dute.
- Ondare garbiaren pisu erlatiboak zertxobait behera egin du.
- Kostua duten epe laburreko hartzekodunen gorakada nabarmena izan da.
- Errentagarritasun ekonomiko eta finantzarioak behera egin du.

## 4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK

Jarraian, Espainiako enpresa ez-finantzarioek 2017an izandako emaitzen alderdi garrantzitsuenak azalduko ditugu labur-labur; horretarako, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren informazioa baliatuko dugu<sup>1</sup>, eta informazio hori estatu osokoa den arren, Nafarroako enpresek 2017ko ekitaldian izan dituzten joeren gutxi gorabeherako egoera zein den jakin ahal izango dugu.

Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak bildutako informazioak adierazten du 2017an enpresen jarduerak gora egiten jarraitu duela, baina aurreko urtean baino erritmo motelagoan. Urtean zehar laginaren balio erantsi gordina %1 igo da, termino nominaletan, eta 2016an, berriz, % 3,4 egin zuen gora. Dena dela, aurreko hiruhilekoetan bezala, soberakin horren bilakaera erantsian eragin negatiboa izan du lagin honetan pisu nabarmena duten enpresa oso handi batzuen portaera kaltegarriak. Enpresa horiek energiaren sektorekoak dira, batez ere, eta adar horretan merkataritzako marjinak estutu egin dira, ekoizpen-kostuen geraldien testuinguruan. Adar hori alde batera utziz gero, bizitasun handiagoz igo da balio erantsi gordina (% 3,8); baina, hala ere, motelago aurreko urtean baino (% 4,2).

Enpleguari dagokionez, 2017an joera positiboa izan du, eta % 2,2 egin du gora (2016an % 1,4). Kontratu motari erreparatuta, aldi baterako enpleguak indar handiagoz egin du gora (% 6,8), baina finkoa ere igo da (% 1,2).

Bestalde, ohiko emaitza garbiak % 7,4 egin du gora 2017an. Dena dela, ehuneko hori apalagoa da aurreko urtekoa baino (% 17). Soberakin horrek gora egin du finantza-sarreraren igoeragatik; izan ere % 11,7 egin dute gora, batez ere dibidendu handiagoak jaso eta finantza-gastuak murriztu dituztelako (% 11,8 behera egin dute, azken urteetan besteren finantzaketaren batez besteko kostuak behera egiteko izan duten joerak jarraipena izan duelako). Bestalde, diru-sarrera ezohikoen bilakaerak inpaktu negatiboa izan du azken emaitzan, eta horren ondorioz % 23,8 behera egin du. Hala eta guztiz ere, pisu erlatibo handia du oraindik ere balio erantsi gordinarekiko (% 24,9 2017an; % 33,6 aurreko urtean).

Testuinguru horretan, ohiko errentagarritasun-ratioek zabaltzeko joerari eutsi diote. Zehazki, aktibo garbiaren ohiko errentagarritasunak gora egin du 2017an % 5,9ra iritsi

<sup>1</sup> Espainiako 944 enpresa ez-finantzariok 2017ko lau hiruhilekokoei dagozkien datuak bidali dituzte, eta lagin horren emaitzak dira (lagina aldatu egiten da urtero, eta manufaktura-industriak du ordezkartza hoberena). Enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektoreko balio erantsi gordinaren % 12,8 osatzen dute.



arte (2016an % 5,8) eta baliabide propioen ohiko errentagarritasuna % 8,6ra iritsi da (2016ean % 8,2), zorraren kostua berriro murriztu den testuinguru batean.

**66. koadroa      Emaitzen kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)**

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala <sup>(*)</sup>		
	I-IV 15/ I-IV 14	I-IV 16/ I-IV 15	I-IV 17/ I-IV 16
<b>Enpresa kopurua / Nazioko guztizko estaldura</b>	<b>986/%14,0</b>	<b>982/%13,9</b>	<b>944/%12,8</b>
1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne)	-4,0	-0,7	5,9
Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiap. beste diru-sarrera batzuk	-2,4	-3,6	7,4
2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne)	-8,5	-2,7	8,3
Erosketa garbiak	-13,8	-1,1	11,7
Beste ustiapen-gastu batzuk	4,3	-2,9	-0,3
S1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	6,3	3,4	1,0
3. Langile-gastuak	2,2	0,7	2,4
S2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S1-3)	11,0	6,2	-0,4
4. Diru-sarrera finantzarioak	-13,7	1,7	11,7
5. Finantza-gastuak	-10,3	-12,6	-11,8
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	0,2	-0,3	1,4
S3. EMAITZA EKONOMIKO GARBIA (S2 + 4 - 5 - 6)	16,9	17,0	7,4
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	--	--	--
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	-77,8	19,5	40,1
9. Mozkinen gaineko zergak	--	--	-50,0
S4. EKITALDIAREN EMAITZA (S3 + 7 + 8 - 9)	-53,2	182,0	-23,8
EKITALDIAREN EMAITZA / BEGd (S4 / S1)	10,9	33,6	24,9
ERRENTAGARRITASUNAK			
R1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	5,3	5,8	5,9
R2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideekiko	3,0	2,7	2,4
R3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	7,1	8,2	8,6
R4. Errentagarritasuna - finantza-kostua (R1 - R2)	2,3	3,1	3,5

(\*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu gisa kalkulatu dira.

Iturria: Espainiako Bankua.





| 17

## 2. LEHEN SEKTOREA

## 1. IKUSPEGI OROKORRA

### 1.1 BILAKAERA ESTATUAN

Estatuko nekazaritza-sektoreak (landare- eta animalia-ekoizpenak, beste ekoizpen batzuk, eta haiekin lotutako zerbitzuak) etengabe gora egin du 2010etik aurrera. Goraldi horrek erritmo oso uniformeak izan ditu, eta 2017an ere hala jarraitu du. Horrenbestez, 2009ko zenbatekoarekin alderatuta, 2017ko ekoizpenaren balioa ia % 30 handiagoa izan da, eta hor, jakina prezioen eragina sartuta dago.

Azken zazpi urtetan aldaketa txikiak egin dira, -% 0,2tik % 5,4ra bitartekoak, eta haietatik sei positiboak izan dira. Zehazki, 2017ko urtetik urterako aldaketa % 2,2 izan da. Aurreko urteekin alderatuta, oraingoak berrikuntza bat ekarri du: animalia-ekoizpenak gora egin du, eta landare-ekoizpenak, berriz, behera. Izan ere, 2001az geroztik azizenda-produkzioak egin duen gorakadarik handiena izan da (% 14,5); bestalde, nekazaritza-eremuan egin den beherakada neurritsua (-% 2,6) 2011z geroztik izandako handiena da. Horrenbestez, landare-ekoizpenak ehuneko 3 puntu behera egin du sektoreko guztizkoan, eta % 58,3ra jaitsi da, animalia-ekoizpenak % 38,1 du, eta beste produktu eta zerbitzu batzuei dagokien gainerako % 3,5a. Proporzio horiek oso egonkorak izan dira azken hamarkadetan; dena dela, landare-ekoizpena, haren izaera biologikoaren ondorioz, abeltzaintzakoa baino aldakorragoa da urte batetik bestera, emaitza ekonomikoari erreparatuta.

Zehazki, 2015etik 2017ra bitarteko gorabeherek zeinu-aldaketak ekarri dituzte, bai landareen arloan bai animalien arloan, bai kantitateetan bai prezioetan. Landare-ekoizpenak behera egin du kantitatean (-% 6,1) eta gora prezioetan (% 3,7); horiek horrela, balioa jaitsi egin da (-% 2,6). Aurreko urtean, berriz, % 8,4ko, -% 3,7ko eta % 4,4ko aldaketak izan zituzten, hurrenez hurren. Animalia-ekoizpenean, 2017ko ratioak % 1,9, % 8,6 eta % 10,6 izan dira, eta 2016koak % 4,5, -% 3,6 eta % 0,7. Nekazaritzan, aipatutako bi esparruak batuta, - % 3,1, % 5,5 eta % 2,2 izan dira 2017an, eta horrenbestez, nolabait konpentsatu dira 2016ko zenbatekoak: % 6,7, -% 3,6 eta % 2,9.

Landare-ekoizpenaren balioari erreparatuta, honako hauek osatzen dute lehen aipatutako % 58,3a: barazkiak (% 19,1), fruta (% 17,7), oliba-olioa (% 6,4), zerealak (% 6,1), bazka-laboreak (% 3,3), ardoa eta mostoa (% 2,4), industria-laboreak (% 2,2), patatak (% 0,9) eta beste batzuk (% 0,3). Urtetik urterako aldaketa hauek izan dituzte, hurrenez hurren: % 1,3, -% 1,2, -% 8,2, -% 28,1, -% 13,8, -% 19,6, -% 2,2, % 6,7 eta -% 10,3. Kantitatean egindako beherakadaren erdia baino gehiago zerealen ondorioz da; urtetik

urterako aldaketa handienak izaten dituzten laboreak dira, eta nabarmen behera egin dute, baina prezioak % 8,5 igo direnez, balioaren beherakada ez da hain handia izan (-% 22). Gehien garestitu diren produktuak ardoa (% 21,3) eta olioak (% 19,7) izan dira, baina sektorearen guztizkoan eragin handiena izan duena barazkien % 5,5eko igoera izan da. Prezioak merkatu dituzten kategoriatan bakarrak fruta (-% 1,2) eta patata (-% 45) izan dira.

Animalia-ekoizpena, guztira, % 38,1 izan da: % 28,9 haragia eta ganadua (ia erdia txerri-aziendari lotua), % 9,2 esnea, % 2,7 arrautzak eta % 0,5 beste batzuk. Esparru honetan urtetik urterako aldaketak txikiagoak dira landareen arloan baino, salbuespen batzuk izan ezik, hala nola arrautzak (balioaren % 48,6ko igoera 2017an). Aurtengo animalia-ekoizpenaren gorakada handian gehien eragin duten aldagaiak txerri-aziendaren eta hegaztien prezio-igoerak izan dira (% 10 eta % 12,2 hurrenez hurren).

Oro har, barazkiak, fruta eta txerri-azienda dira lehen sektoreak Espainian dituen kategoriatan nagusiak, eta hazkunde handienak dituztenak, batez ere azken bosturtekoan, eta txerri-haragiaren kasuan azken hamarkadan.

Estatistika horretan monitorizatzen da, bereziki, nekazaritza-errenta deritzona; hau da, lehen sektoreko balio erantsi garbia, eta azken urtean % 2,6 egin du gora. Alabaina, gorakada horrekin batera, urteko lan-unitateak % 7,6 igo dira, eta igoera hori ez da batere ohikoa, azken hamarkadetan beheranzko joera nabarmena izan baita. Horiek horrela, lan-unitateko errentak % 4,7 egin du behera, prezio konstanteetan. Lan-unitateko errenta, prezio konstanteetan, Ministerioaren estatistikak erreferentziatzen hartzen duen 1990eko balioa baino heren bat handiagoa da.

67. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(Meurotan)

Kontzeptua	2016	2017*	% Δ 2017/2016		
	Balioa	Balioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	48.091	49.165,5	2,2	-3,1	5,5
• Landare-ekoizpena	29.438,7	28.687,4	-2,6	-6,1	3,7
• Animalia-ekoizpena	16.377,1	18.755,7	10,6	1,9	8,6
• Zerbitzu-ekoizpena	513,1	514,8	0,3	1,6	-1,2
• Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	1.188,2	1.207,6	1,6	0,2	1,4
B.- Bitarteko kontsumoak	21.310,3	21.437,7	1,6	1,6	-0,3
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	25.496,9	27.727,8	2,7	10,4	-6,9
D.- Amortizazioak	5.251,5	5.149	0,0	-0,9	0,9
E.- Beste diru-laguntza batzuk	5.804,7	5.660,6	-0,1	--	--
F.- Beste zerga batzuk	362,4	408,1	6,5	--	--
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	25.687,7	27.831,3	2,6	--	--

(\*): 2018ko urtarrileko 2. zenbatespena, ekoizleak jasotako oinarrizko prezioetan.

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.


## 1.2 BILAKAERA NAFARROAN

### Sektorearen makromagnitudeak

Nafarroan, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari dagokio barne-produktu gordinaren % 2,9 2017an, eta zenbateko hori ez da ia aldatu azken sei urteetan. 2017an barne-produktu gordinak % 4,2 gora egin du Nafarroan, eta nekazaritza-arloak, lehen esan bezala, % 3,7. Ekonomiak 2007az geroztik egindako urtetik urterako hazkunde handiena izan da, eta sektoreak 2012az geroztik egin duen handiena. Krisialdian lehen sektoreak zertxobait gora egin du, eta ekonomiaren gainerako sektoreak baino egonkorragoa izan da, edo kalte gutxiago izan ditu. Orokorrean hiru urtetan egin zuen behera (2009, 2012 eta 2013); nekazaritza-arloak, berriz, beheraldi txiki bat baino ez zuen izan, 2009an, eta 2012an gorakada handienetako bat egin zuen. Aipatu dugun gutxieneko horren ondorengo 8 urteetan, guztira, % 20,9 egin du gora.

10. grafikoa Nekazaritzako ekoizleek jasotako prezioen indizeak

(2005eko urtarileko indizea = 100)



Oharra: Hileko prezio-indizeen batezbestekoa urtean.  
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Aipatu ditugun joeretan eragin handia dute ekoiztako produktuen azken prezioen igoerek; alabaina, ekoizpen-kate bakoitzaren lehen eragileak jasotako prezioei erreparatuz gero, nolabaiteko geldialdia nabari da. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta, oro har, lehen sektoreko produktuen prezioak, 2017an, % 10 inguru handiagoak izan dira 2010eko erreferentziazko balioak baino. Igoera hori, zalantzarik gabe, neurritsua da 7 urteko aldirako, eta azken 3 urteetako geldialdia nabarmena da, oinarritzat hartzen den urtea aldatu zenetik (2005etik 2010era). Salbuespen deigarriena basogintza da; izan ere, zuraren prezioak nabarmen aldatu dira, eta 2010eko balioa baino heren bat gehiago dute. Gorabehera horien zioa da moztutako zuraren eskaintzak ez duela erregulartasunik, eta horrek prezioei eragiten diela.

Nafarroan, kategoria horietan prezio-aldaketa hauek izan dira 2017an: % 3,9 sektoreko ekoizpen orokorrean, % 2,9 nekazaritzan, -% 0,8 basogintzan, eta % 5,4 animalia-ekoizpenetan. Igoera horiek estatukoak baino nabarmen txikiagoak dira. Aldaketak kalkulatzeko, urteko batezbestekoak erabili dira, urtarokotasuna saihesteko.

Kategorien arabera beste prezio batzuk, berriz, urte bakoitzeko abenduko balioen aldaketa gisa eman dira, iturri bera hartuta. Horrenbestez, Nafarroan 2016tik 2017ra bitartean prezio-aldaketa hauek egin dira: % 9,1 zerealak, -% 3,2 lekadunak, % 5,6 patata, % 0,7 industria-laboreak, -% 5,6 bazka-laboreak, -% 3,7 fruta, -% 29,1 fruitu lehorrak, % 9 barazkiak, eta % 16,5 mahastizaintza eta ardogintza. Abeltzaintzako produktuetan, hau izan da bilakaera: % 2,6 behi-haragia, % 4,7 ardi-haragia, % 2,2 ahuntz-haragia,

% 11,9 txerri-haragia, % 12,6 hegaztiak, % 12,3 untxiak, -% 0,3 esnea, % 19,1 arrautzak, eta % 15,4 azienda bizia. Horiek horrela, zerealak, barazkiak, txerri-haragia eta hegaztiak garestitzearen ondorioz egin du gora sektoreak.

### Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

Nafarroan, sektoreko kanpo-merkataritzan hazkunde ekonomikoaren eragina nabari da, eta gora egin dute aztertutako kategoria guztiek: bai esportazioek bai inportazioek, animalien arloan, landareen arloan, eta elikagaien industrian. Esportazioek % 57,8 gora egin dute animalien arloan, % 13,2 landareen arloan, eta % 2,1 industrian; guztira, % 13,2 gora egin dute sektoreko esportazioek. Inportazioek, berriz, % 18,5, % 8,1, % 0,2 eta % 8,6 egin dute gora, hurrenez hurren.

**68. koadroa**      **Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa**

(M eurotan)

Muga-zergen atalak	Esportazioak		Inportazioak	
	2016	2017	2016	2017
Animalia biziak eta animalia-produktuak	137,4	216,9	158,6	188,0
Landare-produktuak, gantzak eta olioak	383,1	433,7	238,9	258,3
Elikagaigintzako produktuak	553,6	565,1	237,3	237,7
Nekazaritzako elikagaien sektorea	1.074,1	1.215,6	629,5	683,9
Nekazaritzako elikagaien sektorearen % esportazio-inportazioen guztizkoetan	12,4	15,1	13,6	15,4

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuen gainean.*

Horrenbestez, azken urteetan balantza negatiboa izan duen kategoria bakarrak egin du gorakada handiena (animalia-produkzioak, alegia). Esportazioak % 15,4 handiagoak dira inportazioak baino animalien arloan; % 67,9 landareen arloan; % 137,8 industriaren arloan; eta % 77,7 guztien batura kontuan hartuta. Superabita 444,6 milioi eurokoa izan zen 2016an, eta 531,7 milioi eurokoa izan da 2017an; hau da, % 19,6 handiagoa izan da.

Nafarroan, kanpo-merkataritzaren guztizkoan sektoreak duen ehunekoa handia da, eta azken urteetan erritmo oso irmoan egin du gora; urtetik urterako gorakadari erreparatuta, esportazioen % 12,4 izatetik % 15,1 izatera igaro da, eta inportazioen % 13,6 izatetik % 15,4 izatera. Nafarroaren kanpo-merkataritzak izandako superabit osoaren % 14,6 dagokio sektoreari (3.640,9 milioietatik 531,7 milioi).

## Biztanleria landuna

Nekazaritzaren egoera orokorra adierazten duen beste adierazle garrantzitsu bat landunen kopurua da. Estatistika ofizialetan, jarduera mota horietan alta emanda dauden pertsonen kopuruan aldaketa handiak izaten dira Nafarroan. Datua urtearen erdian hartuta dago, 2011n izan zuen gutxieneko balioa, eta oinarritzko balio hori halako bost izatera iritsi zen 2015ean. Azken hiru urteetan, berriz, tarteko mailan egonkoritu dela dirudi.

### 69. koadroa Enplegua lehen sektorean\*

(pertsonen kopuruak, milakotan)

Urtea	Nafarroa	Espainia
2008	14,0	830,6
2009	13,3	790,8
2010	11,3	772,8
2011	7,1	735,9
2012	8,6	722,3
2013	15,5	753,1
2014	13,4	739,3
2015	9,4	740,4
2016	9,8	760,2
2017	10,1	832,6

(\*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak aurkeztu dira, sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaera hobeto adierazten dutelakoan.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.

Estatuko goraldia (% 9,5 langile gehiago 2016an baino) ez da Nafarroara guztiz hedatu, % 3,1 igo baita langile kopurua. Estatuan 2008ko erdialdean izan zen maila berreskuratu da (krisiaren aurreko maila, alegia) eta beheranzko joera garbia eten da, oraingoz behintzat. Aipatutako gorabehera handi horien azpian, epe luzeko joera beheranzkoa da Nafarroan, azken bi urteetako goraldiak iraunkorrak direla berresten ez den bitartean. Estatuko guztizkoan duen ehunekoak ere hamarren bat egin du behera (% 1,2ra) eta ratio horrek ere beheranzko joera adierazten du epe luzean.

## 2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA

### Nekazaritzako azpisektorea

Nafarroan, eta batez ere, Nafarroaren hegoaldean, garrantzi handiko jarduera da nekazaritza. Ofizialki kontuan hartu diren laboreek Foru Erkidegoaren laurden bat hartzen du. Krisiaren lehen urteetako aztoramenduaren ostean, sektoreak normaltasuna berreskuratu du. Askorik ez bada ere, ekoizpenak gora egin du oro har, eta, berariaz, igo egin da Nafarroako baratzekeo zenbait produktu estrategikoren produkzioa. Hala eta guztiz ere, produktu horiek epe laburrean gorabeherak izan ditzakete, bai produktukopuruan bai prezioetan. Izan ere, honako alderdi hauek eragina dute produktu horien gainean: produktuen eskariak eta eskaintzak; eguraldiaren gorabeherak; laboreen ezaugarriek (errotazioak gero eta azkarragoak dira eta egokitzapen tekniko ugari egiten dira); eta bestelako faktore batzuek, eragin partziala edo aldi baterakoa izan dezaketenak.

2017an, aurreko urteetan ez bezala, behera egin du labore garrantzitsu batzuen ekoizpenak; bestalde, labore batzuen prezioek gora egin dute, eta behera beste batzuenak. Prezioen zenbatekoek, hala ere, ez dute aldaketa handirik izan.

### 2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK

Oro har, labore-kategoria bakoitzak bere gorabeherak eta aldaketak izaten ditu; hala ere, laborantzarako erabiltzen diren lursailek joera egonkorragoak izaten dituzte. Nafarroan landutako lursail guztien % 60,1 lehorreko belarki-laboreak ekoizteko erabiltzen da; % 29,5 ureztatutako belarki-laboreak lantzeko; % 4,4an lehorreko zurezko laboreak ekoizteko, eta azkenik, % 5,9 ureztatutako zurezko laboreentzat.

Nekazaritzarako erabiltzen diren laborantza-sailak ez dute hazkunde handirik izan; hala eta guztiz ere, ureztatutako belarki-laboreek hedatzeko joera izan dute. Ureztatutako belarki-laboreak lantzeko azalerak % 10 egin du gora azken 4 urteetan zehar; sail horietan, adibidez, barazkiak ekoizten dira (Nafarroako baratzekeo produktu nagusia). Zurezko laboreek (mahatsondoa, olibadia, fruta-arbolak) garrantzi handia dute Estatuko beste eskualde batzuetan, baina Nafarroan azalerak ez du aldaketa handirik izan, eta labore horiek hazkunde-epea luzeagoa dutenez, ez dute belarki-laboreen bezalako igoera azkarrik izan.



Lehen aipatu den sektoreko balantza orokorrari lotuta, behera egin du landutako guztizko azalerak (-% 0,4ko jaitsiera); aurreko ekitaldietan ez zen horrelakorik gertatu.

#### 70. koadroa Lur landuen erabilera

(m Ha)

Kontzeptua	2016			2017			% Δ 17/16		
	Lehorreko laborantza	Ureztatutako laborantza	Guztira	Lehorreko laborantza	Ureztatutako laborantza	Guztira	Lehorreko laborantza	Ureztatutako laborantza	Guztira
Belarki-laboreak	176,7	83,3	260,0	173,6	85,2	258,8	-1,8	2,3	-0,5
Zurezko laboreak	12,8	17,0	29,8	12,8	17,0	29,8	-0,1	0,2	0,0
Laboreak, guztira	189,5	100,3	289,8	186,4	102,2	288,6	-1,6	1,9	-0,4

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua. Kategoria bakoitzeko guztizkoetan ez dira sartzen hainbat laborantza txiki.

Aurreko ekitaldian hainbat gorakada izan ostean, aurtengoan behera egin dute labore-kategoria nagusiek; esate baterako, zerealek -% 10,9ko beherakada izan dute, barazkiek -% 9koa, eta mahastiek -% 17,3koa. Guztizko pisuak -% 4,9 egin du behera aurreko ekitaldiarekiko; eta lehen aldiz jaitsiera bat eman da 2012. urtetik.

Hiru beherakada horiez gain, lekadunek ere behera egin dute (-% 9,4ko jaitsiera). Alabaina, gainerakoek gora egin dute: industria-laboreek % 61,9ko igoera izan dute eta tuberkuluek % 41,8koa (bi produktu horiek ez dute ekoizpen handirik izaten, eta gorabehera handiak izaten dituzte). Horretaz gainera, olio olibadiak % 28,2ko igoera dute, fruta-arboleak % 3,7koa eta bazka-laboreek % 0,7koa (hala ere, bazka-laboreek ez dute interes ekonomiko handirik).

#### 71. koadroa Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak

(Tm)

Kontzeptua	2016	2017	% Δ 17/16
Zerealak	1.059.372	944.218	-10,9
Lekadunak	18.623	16.868	-9,4
Tuberkuluak (patatak)	9.417	13.356	41,8
Industria-laboreak	39.811	64.454	61,9
Bazka-laboreak	1.038.599	1.046.034	0,7
Barazkiak	510.755	464.963	-9,0
Zurezko laboreak	204.113	189.323	-7,2
- Fruta-arbolak	52.446	54.393	3,7
- Mahastiak	130.714	108.059	-17,3
- Olio olibadiak	20.953	26.871	28,2
<b>Guztira</b>	<b>3.084.803</b>	<b>2.722.741</b>	<b>-11,7</b>


Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua.

Produktuak masaren arabera aztertuta, ehunekoak horrela geratu dira 2017an: bazka-laboreak % 38,2, zerealak % 34,5, barazkiak % 17, mahastiak % 3,9, industria-laboreak

% 2,4, fruta-arbolak % 2, olio olibarrak % 1, lekadunak % 0,6 eta tuberkuluak % 0,5. Beraz, bazka-laboreak eta zerealak dira gehien ekoiztu diren produktuak (aurreko ekitaldian ere bi produktu horiek produzitu ziren gehien, baina lehen eta bigarren postuak alderantziz geratu ziren). Edonola ere, kontuan hartu behar da produktuen banaketa gutxi gorabeherakoa dela; izan ere, kategoria bakoitzeko labore nagusiak aztertu dira. Bazka-laboreen kasuan, esate baterako, azken urteetan tipologiek aldaketa ugari izan dituzte eta aurtengoan 2014an baino datu hobekak lortu dituzte. Beraz, zaila da kuota horietatik ondorioak ateratzea, batez ere, eragina dutelako garrantzi gutxiko kategorietan, baina, era berean, horiek dute interes estrategiko handiena sektorean.

Azken urteetako bilakaeren artean, nabarmendu behar da, 2013. eta 2016. urteen artean, barazkiek goranzko joera nabarmena izan zutela, baina aurtengoan ez dutela gora egin. Zerealek, bestalde, gorabehera indartsuak izaten dituzte, baina berehala konpentsatzen dira datuak.

**11. grafikoa      Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa, ehunekotan, 2017**



*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.*

Zerealen datuak aztertuta, tona-kopuruak  $-10,9\%$ ko jaitsiera izan du, eta azalerak behera egin du, baina ez hain nabarmen ( $-1,2\%$ ko beherakada). Zerealen jaitsiera hori bi produktu nagusiren beherakadaren ondorioz izan da: garia ( $-14,5\%$ ) eta garagarra ( $-10,2\%$ ); eta bi produktu horiek ekoizpen osoaren bi laurden produzitzen dute. Bestalde, artoak  $-5\%$ eko jaitsiera izan du tona-kopuruan, baina beherakada hori beste urteetakoa baino txikiagoa izan da. Oloa da garrantzi gehien duen laugarren produktua; eta  $0,6\%$  soilik egin du gora (aurreko ekitaldian hazkunde handiagoa izan zuen). Garrantzi gutxiago duten beste zereal batzuk ere behera egin dute.

## 72. koadroa Zereal-aleen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2016		2017		% Δ 17/16	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Garia	77.769	425.576	74.108	363.741	-4,7	-14,5
Garagarra	85.156	400.613	86.241	359.935	1,3	-10,2
Oloa	11.249	55.821	13.129	56.183	16,7	0,6
Arroza	2.153	14.690	2.141	11.940	-0,6	-18,7
Artoa	14.861	157.620	13.651	149.705	-8,1	-5,0
Zekalea	83	340	55	150	-33,7	-55,9
Tritikalea	1.282	4.712	1.000	2.564	-22,0	-45,6

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.

Zerealen artean, garia eta garagarra badira lehen postuan txandaka ibili direnak, lekadunen artean, babak eta ilar lehorrak txandakatzen dira tona-ekoizpenaren lehen postuan (ekoizpenaren % 94,1 hartzen dute). 2017an, tona-kopuruari begiratuta, baba lehorrak izan du beherakada nabarmenena (-% 17,5 amaierako pisuan), eta ilarak -% 1,2ko beherakada apala izan du. Ehunekoetan, babarrun lehorrak izan du galera handiena, bi heren galdu baititu (-% 65,2). Zalkea izan da igoera izan duen labore bakarra (% 1,5eko hazkundea).

## 73. koadroa Lekadunen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2016		2017		% Δ 17/16	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Babarrun lehorra	227	638	103	222	-54,6	-65,2
Baba lehorra	3.587	7.056	2.741	5.824	-23,6	-17,5
Ilar lehorra	4.289	10.172	4.279	10.054	-0,2	-1,2
Zalkea	800	757	863	768	7,9	1,5

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.

Tuberkuluek, bestalde, gorabehera ugari izan dituzte; izan ere, aurreko ekitaldian behera egin zuten nabarmen eta aurtengoan gorakada ikaragarria izan dute. 2017an, azalera heren bat baino gehiago egin du gora, eta tona-kopuruetan ekoizpen guztiaren % 41,8. Izan ere, gora egin du, batez ere, sasoi erdiko patatak, baina ez da atzean geratu patata berantiarra edo hazitarako patata.

## 74. koadroa Tuberkuluen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2016		2017		% Δ 17/16	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Sasoi erdiko patata	160	5.878	259	9.045	61,9	53,9
Patata berantiarra eta hazitarakoa	169	3.539	183	4.311	8,3	21,8
<b>Patata (guztira)</b>	<b>329</b>	<b>9.417</b>	<b>442</b>	<b>13.356</b>	<b>34,3</b>	<b>41,8</b>

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.

Industria-laboreak substantziak lortzeko erabiltzen dira; esate baterako, erremolatxatik azukrea ateratzen da (hala ere, badago mahaiko erremolatxa ere); edo ekiloretik eta koltzatik olioak lortzen da. Azken bi landare horiek azalera handiagoa hartzen dute erremolatxak baino. Laborantza intentsibo horrek urtetik urterako hazkunde nabarmena izan ohi du; 2017an, adibidez, azalera % 172,3 egin du gora, eta ekoizpenak % 160,4. Tona-kopurua orain dela bost urte baino handiagoa da, hiru aldiz handiagoa. Hala ere, denbora horretan, behera egin du ekiloreak, baina 2017an jarduera berreskuratu eta % 20,3 igo da. Bestalde, koltzak behera egin du hirugarren urtez, aurtengoan -% 23,3ko jaitsiera izan du.

**75. koadroa Industria-laboreen azalera eta ekoizpena**

Kontzeptua	2016		2017		% Δ 17/16	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Azukre-erremolatxa	173	16.861	471	43.902	172,3	160,4
Ekilorea	4.013	6.766	3.976	8.138	-0,9	20,3
Koltza	5.467	16.184	5.375	12.414	-1,7	-23,3

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.*

Abeltzaintzarako erabiltzen den bazka-laboreen artean, 4 produktuk antzeko magnitude-ordena dute ekoizpenean: alpapak, aldi baterako belardiak, bazka-artoak eta ray grass belarrak. Alpapak eta ray grass belarrak beherakada txiki bat izan dute 2017an; eta gainerakoek gora egin dute; talde horretan kontuan hartu dira, lekadunen atalean aipatutako zalkearen eta ilarraren bazka-erabilerak. Epe luzera, ikusi da aldi baterako belardiak goranzko joera duela, eta alpapari kenduko diola lehen postua; izan ere, jaitsiera izan du aurtengoan alpapak.

**76. koadroa Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena**

Kontzeptua	2016		2017		% Δ 17/16	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Bazka-artoak	4.215	178.196	4.124	190.703	-2,2	7,0
Ray grass belarra	5.261	192.958	5.215	188.349	-0,9	-2,4
Alpapa	6.152	316.662	6.652	299.967	8,1	-5,3
Bazka-zalkea	4.468	78.840	4.638	81.077	3,8	2,8
Bazka-ilarra	488	8.854	530	9.996	8,6	12,9
Aldi baterako belardia	6.691	263.089	6.889	275.942	3,0	4,9

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.*

Atal honetan aztertutako barazkien ekoizpenari begiratua, tomateak ekoizpen guztiaren heren bat hartzen du; eta seiren bat brokoliak. Bestalde, datu baxuagorekin, piperrak % 7,6 hartzen du eta azalera % 6,1, eta beste batzuek, gutxiago, esate baterako, ilarrak, espinakak, lekak, tipulak eta arto gozoak. Lehen laurak (hau da, tomateak,

brokoliak, piperrak eta azaloreak) tonu-kopuru guztiaren % 63,6 ekoizten dute, eta aurtengoan, behera egin du ekoizpenak (-% 19,9, -% 8,3, -% 6,2, -% 20,6 hurrenez hurren). Kategoria osoko egoera ulertzeko (-% 9ko beherakada, eta 45.791 tona), nahikoa da tomatearen eta brokoliaren beheranzko datuak gehitzea.

Balantzeak joera ezberdinak izan ditu; izan ere, produktu batzuk gorabeherak izan dituzte, nahiz eta azken emaitzan ez duen eragin handirik. Esate baterako, gora egin dute azak (% 129, 9), eskarolak (% 89,1), lekak (% 33), Nafarroako zainzuriak (% 29,9), zerbak (% 28,7) eta baba berdeak (% 28,4). Bestalde, behera egin dute barazki nagusiez gain, ekoizpen txikiagoa duten barazkiek; adibidez, letxugak tona-kopuruaren heren bat galdu du aurreko ekitaldiarekiko, eta arto gozoak, kalonjeak eta enbidiak, berriz, bosten bat galdu du.

Azken hiru urteetan, hazkunde-erritmo bizia izan dute tomateek eta barazkien kategoria osoak; baina aurtengoan, beheranzko errebote-efektua izan dute. Hala ere, jaitsiera hori ez da eman azalera, % 3,8ko igoera izan baitu. Nahiz eta 2017an behera egin duten lau barazki nagusiek; epe luzean, goranzko joera izan dutela esan daiteke. Horretaz gainera, beste produktu batzuek ere izan dute mota horretako igoera (egitura aldetik hobea edo garrantzi handiagokoa), adibidez, lekak, babak eta ilar berdeak. Bestalde, letxugak eta zerbak behera egin dute nabarmen.

#### 77. koadroa Barazkien azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2016		2017		% Δ 17/16	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Aza	95	2.097	218	4.820	129,5	129,9
Zainzuria	1.203	4.618	1.461	6.000	21,4	29,9
Letxuga	677	15.851	509	10.622	-24,8	-33,0
Eskarola	112	3.032	234	5.732	108,9	89,1
Espinaka	868	19.791	985	20.618	13,5	4,2
Zerba	162	3.024	166	3.892	2,5	28,7
Kalonjea	170	1.124	164	900	-3,5	-19,9
Errukula	57	578	92	622	61,4	7,6
Kardua	239	10.755	206	9.270	-13,8	-13,8
Borraja	44	2.244	43	2.580	-2,3	15,0
Endibia	52	1.503	42	1.218	-19,2	-19,0
Kuiatxoa	104	8.446	102	7.650	-1,9	-9,4
Alberjina	123	6.980	106	5.445	-13,8	-22,0
Tomatea	2.236	183.330	2.059	146.828	-7,9	-19,9
Piperra	1043	36.268	1.115	34.021	6,9	-6,2
Orburua	1129	14.108	1.269	16.492	12,4	16,9
Azalorea	1.538	34.591	1.220	27.465	-20,7	-20,6
Brokolia	5.676	83.891	5.750	76.894	1,3	-8,3
Tipula	282	17.061	294	16.060	4,3	-5,9
Leka	819	13.015	1.307	17.311	59,6	33,0
Ilar berdea	2.595	20.005	2.765	21.479	6,6	7,4
Baba berdea	1.103	8.860	1.210	11.374	9,7	28,4
Arto gozoa	947	19.583	755	15.505	-20,3	-20,8

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.*

Jarraian fruta-arbolak aztertuko ditugu. Azken urteetan, madariondoak izan du tonakopuru handiena, eta sagarrondoari eta mertxikondoari kendu die lehen postua. Izan ere, madariondoak % 18,3 egin du gora (gainera, azalera -% 3,2 egin du behera); sagarrondoak -% 24,4 egin du behera; eta mertxikondoak, berriz, % 8ko hazkundera izan du. Ekoizpen txikiagoa duten fruta-arbolek ere igoyerak izan dituzte; horietako batzuk, gainera, ehunekoan gorakada handia izan dute; esate baterako, aranondoak ekoizpena bikoiztu du 2017an.

Gainerako zurezko laboreetan, mahastiek eta olibadiak bilakaera positiboa izan dute azken hamarkadan. Olio olibadien tona-kopuruak -% 28,4 egin zuen behera aurreko ekitaldian; aurtengoan, berriz, % 28,2ko hazkundera izan du, eta zerikusia du landutako azaleraren % 4ko igoyerarekin (gorakada txikia da, baina azpisektore horretan sendotu egiten da).

Bestalde, atal honetan bi mahatsondo azertu dira: Errioxako sor-markako mahastia eta Nafarroako sor-markako mahastia. Errioxako mahastiak aurreko ekitaldiko uzta-kantitate bera eman du; Nafarroako mahastiak, aldiz, -% 27,1 egin du behera. Ez da ohikoa Nafarroako mahasti horrek behera egitea, hala ere, beherakada ez da gertatu lursailak murriztu direlako; izan ere, azalera ez du aldaketarik izan mahastietan (beste urteetan behera egiten zuten).

**78. koadroa Zurezko laboreen azalera eta ekoizpena**

Kontzeptua	2016		2017		% Δ 17/16	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Sagarrondoa	526	15.945	435	12.052	-17,3	-24,4
Madariondoa	1.068	19.224	1.034	22.748	-3,2	18,3
Gereziondoa	337	894	338	1.454	0,3	62,6
Mertxikondoa / nektarioa	526	12.339	482	13.322	-8,4	8,0
Aranondoa	92	466	88	899	-4,3	92,9
Elorri beltza	130	569	118	590	-9,2	3,7
Almendrondoa	3.248	2.631	3.234	2.990	-0,4	13,6
Intxaurrondoa	245	378	233	338	-4,9	-10,6
Mahastiak (Errioxako sor-markakoak)	6.825	47.703	6.823	47.514	0,0	-0,4
Mahastiak (Nafarroako sor-markakoak)	10.835	83.011	10.841	60.545	0,1	-27,1
Olio olibadiak	5.923	20.953	6.162	26.871	4,0	28,2

*Oharra: Ez dira sartu zuhaitz sakabanatuak.*

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2018ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentua.*

## 2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA

2017an, aurreko ekitaldietan ez bezala, tona-kopuruak aldaketa gehiago izan ditu prezioek baino; eta horrek eragina izan du kategorien osotasunean. Bi adierazleen emaitzetan (amaierako balio ekonomikoa) argi ikusten dira lehen aipatutako gorabeherak; izan ere, urtetik urterako aldakuntza ugari eman dira.

Prezioen laginak erakusten du igoyerak txikiak izan direla. Gariak eta garagarriak % 11 egin dute gora; patata berantiarra % 15,9 garestitu da, eta sasoi erdiko patatak, berriz, ez du aldaketa handirik izan. Bestalde, barazkietan, tomateak % 0,5eko igoera txikia izan du; tomateak tona-kopuru handia du, baina prezio baxua dauka, bestetik. Horretaz gainera, merketu egin dira zainzuriak, espinakak eta piperrak; eta igoera txikiak izan dituzte orburuak eta ilarrak.

Fruta-arbolak aztertuta, ikus daiteke madarien ekoizpenak gora egin duela. Igoera hori ez da izan oztopo prezioak gora egiteko tona-kopuruak baino gehiago (% 20,4ko hazkundera prezioan), eta horren ondorioz, diru-sarrerek % 42,5eko igoera izan dute. Bestalde, mertxika merketu da, hein handi batean (prezioak -% 30,9 egin du behera eta balioak -% 25,4). Sagarrak, berriz, % 9,8 egin du gora prezioan, eta -% 17 egin du behera diru-sarreretan, ekoizpenak behera egin baitu. Ardoari dagokionez, ardo beltza gehiago merketu da gorria baino (beltza -% 14,5 eta gorria -% 5).

### 79. koadroa Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira

Produktua	Nekazariak Jasotako Prezioak (euro/100 kg)			Ekoizpenaren balio zenbatetsia (m euro)		
	2016	2017	% $\Delta$ 17/16	2016	2017	% $\Delta$ 17/16
Garia	15,84	17,63	11,3	67.411,24	64.127,54	-4,9
Garagarra	14,66	16,39	11,8	58.729,87	58.993,35	0,4
Artoa	16,91	17,34	2,5	26.653,54	25.958,85	-2,6
Sasoi erdiko patata	45,00	45,00	0,0	2.645,10	4.070,25	53,9
Patata berantiarra	20,70	24,00	15,9	732,57	1.034,64	41,2
Zainzuria	329,72	323,30	-1,9	15.226,47	19.398,00	27,4
Letxuga	52,53	51,15	-2,6	8.326,53	5.433,15	-34,7
Espinaka	76,20	66,85	-12,3	15.080,74	13.783,13	-8,6
Tomatea	11,30	11,36	0,5	20.716,29	16.679,66	-19,5
Piperra	68,17	65,78	-3,5	24.723,90	22.379,01	-9,5
Orburua	86,09	92,83	7,8	12.145,58	15.309,52	26,1
Ilar berdea	24,00	25,17	4,9	4.801,20	5.406,26	12,6
Sagarra	41,88	46,00	9,8	6.677,77	5.543,92	-17,0
Madaria	50,31	60,59	20,4	9.671,59	13.783,01	42,5
Mertxika / nektarina	43,36	29,96	-30,9	5.350,19	3.991,27	-25,4
Ardo beltz berria (€/HI)	52,52	44,90	-14,5	--	--	--
Ardo gorri berria (€/HI)	59,62	56,66	-5,0	--	--	--

Iturria: Nekazaritza-koiunturaren aldirkaria (2017ko abendua). Nafarroako Gobernuak. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua.

Estimatutako balioen artean, prezioak aldatu egin dira eta aldaketa horretan zenbait produktuk (hala nola mertxika, orburua eta madaria) eragina izan dute, eta lehen aurreratu bezala, produktuen ekoizpenak izan dituzte aldaketa handiak. Patata izan da diru-sarrera gehien izan dituen produktua (% 53,9 sasoi erdiko patatak eta % 41,2 berantiarrak); horretaz gainera, gora egin dute zainzuriek (% 27,4), orburuak (% 26,1) eta lehen aipatutako madariak. Bestalde, behera egin dute letxugak (-% 34,7) eta tomateak (-% 19,5); eta noski lehen aipatutako fruta-arbolek.

Azken balioaren joera aztertuta, ikusi da artoak behera egin duela nabarmen, eta hainbat barazkik (esate baterako, piperrak, orburuak edo zainzuriek) igoera handiak izan dituztela. Tomateak, bestalde, ez du izan aurreko ekitaldiko gorakada.

### 2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA

Nekazari-enpresek aktiboetan egiten dituzten inbertsioei dagokienez, 2017an, indartu egin da aurreko urteetako hazkunde-erritmoa. Aurtengo ekitaldian erositako makinaren balio ekonomikoak gora egin du, eta balio hori % 28,4koa izan da lau kategorietan. Igoera handiena traktoreek izan dute (aurtengoan makinerien erdia hartzen du); eta aurreko ekitaldiarekin alderatua, % 13,7 egin du gora.

Ondoren, makina autopropulsatuak eta arrastatutako makinak datoz. Bi makina-mota horiek ere gora egin dute (traktoreek ez bezala, gorabeherak izan dituzte azken urteetan); arrastatutakoek erositako guztien bi heren hartu zituzten 2016an eta autopropulsatuek % 45. Azkenik, atoiak aurreko ekitaldiko datu berdinak errepikatu dituzte.

**80. koadroa** Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makinaren balioespena

Kontzeptua	2016	2017	<i>Meurotan)</i> % Δ 17/16
Traktoreak	17.111	19.458	13,7
Motokultoreak eta autopropulsatuak	6.208	9.004	45,0
Atoiak	1.338	1.339	0,1
Arrastatutako nekazaritzako makinak	4.724	7.928	67,8
<b>Makinak, guztira</b>	<b>29.380</b>	<b>37.729</b>	<b>28,4</b>

*Oharra: Makinen balioan ez dago BEZa barne.*

*Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko abendua). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua.*



### 3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA

#### 3.1 AZIENDA-ERROLDA

Abereen azizendek Nafarroan beti izan duten garrantziaren erakusgarri dira espezie nagusien azizendak, hau da, behien, ardien, ahuntzen eta txerrien azizendak; izan ere, horietako 2 abere daude biztanle bakoitzeko Nafarroan, baina Espainian, berriz, ratio hori abere 1 baino zertxobait handiagoa da. Nafarroan zein Espainian, txerri-azizenden ehunekoa da handiena, kopuru osoaren erditik gorakoa: Nafarroan, txerri-azizendak % 50,7 dira, ardiak % 38,8, behiak % 9,5 eta ahuntzenak % 1; eta Espainian, berriz, txerrienak % 54, ardiak % 28,8, behiak % 11,7 eta ahuntzenak % 5,5. Ardi-azizenden ehunekoak behera egin duen arren Nafarroan, foru-erkidegoan Estatuko ehunekoarekiko duen aldea gainerako espezieetan dagoena baino handiagoa da (% 3,1). 2014. urtera bitartean, ardi-azizendak ziren ugarien Nafarroan.


Azken hamarkadan, ardi-azizendak % 28,1 murriztu dira Estatuan, eta % 33,1 Nafarroan. Ardi-azizenden murrizketak ez du etenik izan Nafarroan, baina izan da salbuespenik Espainian, hala nola 2015. urtekoa, eta, arina izan baldin bada ere, baita 2017. urtekoa ere, 200 abelburu baino zertxobait gehiagoko gehikuntza izan baita, 16 milioi abelburuko kopuru guztizkoan (+% 0,001). Behien azizendek % 3,3ko igoera izan dute, txerrienek % 2,5ekoa, eta ahuntzenek, berriz, -% 0,9 egin dute behera. Hauek izan dira, hurrenez hurren, Nafarroako ehunekoak: -% 2, % 5,7, % 0,5 eta % 0,2. Behien azizendek hamarkadako igoerarik handiena izan dute urtetik urtera, aurreko urtean, 2016an, murrizketa apal bat izan ondoren. Txerrien kasuan, igoera arin bat izan da, baina 2014 eta 2016 urteetan % 22tik gorako igoera handiak izan ziren txerri-azizendetan. 2007-2017 hamarkadako balantzeari begiratuta, hauek izan dira aldaketa-ehunekoak Espainian: -% 1,8 behi-azizendetan, - % 28,1 ardi-azizendetan, +% 5,8 ahuntz-azizendetan eta +% 15 txerri-azizendetan. Hau izan da bariazioa Nafarroan: % 8,2, -% 33,1, % 6,8 eta % 27,9, hurrenez hurren.

81. koadroa      **Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroa)**

Eremua	Urtea	(unitateak)			
		Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
Nafarroa	2013	110.425	542.319	12.435	447.849
	2014	114.030	527.890	12.708	546.356
	2015	116.223	516.469	12.968	528.763
	2016	115.737	508.138	12.985	647.096
	2017	122.293	498.116	13.010	650.250
Espainia	2013	5.696.907	16.118.586	2.609.989	25.494.715
	2014	6.078.733	15.431.804	2.704.229	26.567.578
	2015	6.182.908	16.522.956	3.009.582	28.367.335
	2016	6.257.057	15.962.892	3.088.035	29.231.595
	2017	6.465.747	15.963.106	3.059.731	29.971.357
% Nafarroa/Espainia	2017	1,9	3,1	0,4	2,2

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

12. grafikoa      **Nafarroako abeltzaintzako azien banaketaren bilakaera, ehunekotan**



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

### 3.2 ABELTZAINZA-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

#### Esnearen ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Haragi-ekoizpenarekin batera, esnearen ekoizpena jarduera finkoa da Nafarroako abeltzaintza-sektorean, baina ez da gorabeherarik gabeko jarduera, prezioek beherazko joera nabarmena baitute. Ekoizpen-bolumenak behera egin du 2017. urtean, eta lehen aldiz gertatu da hori azken hamarkada honetan. Igoera etengabea izan zen 2007-2016

aldian, harik eta % 47,3ko igoera metatu arte. Aurreko bi hamarkadetan, berriz, Nafarroan ekoiztako esne-produkzioak ez zuen gorabehera handirik izan. Edonola ere, beherakada txikia izan da 2017an, -% 0,5ekoa, eta espezie bakoitzari begiratuta, ardienak -% 2,5 egin du behera, behienak -% 0,4 eta ahuntz-esnearen ekoizpena, bolumenean apala baldin bada ere, % 16,6 egin du gora.

## 82. koadroa Esnearen ekoizpena

*(m litro)*

Urtea	Behia	Ardia	Ahuntza	Guztira
2008	175.423	8.786	318	184.527
2009	181.619	8.204	398	190.221
2010	182.096	8.820	407	191.323
2011	186.301	7.534	411	194.246
2012	191.507	10.365	399	202.271
2013	194.382	11.281	361	206.024
2014	208.408	11.570	343	220.321
2015	233.074	12.460	348	245.882
2016	239.499	15.432	255	255.185
2017	238.643	15.043	297	253.984

*Iturria: Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.*

Esne-ekoizpen guztiaren % 94 behi-esnearen ekoizpena da, eta esne mota hori izan da, beraz, ekoizpen-gorakadaren erantzule nagusia 2007 eta 2016 urteen bitartean. Ardi-esnearen ekoizpena bikoiztu egin da 2011. urteaz geroztik, 2012 eta 2016 urteetan ekoizpen-gorakada nabarmenak izanda; hala ere, 5 urtez ekoizpenak gora egin ondoren, behera egin du 2017an. Ahuntz-esnearen ekoizpena beti izan da apala, baina gorakada nabarmen bat izan zuen 2008an. Hala ere, azken hamarkadan ekoizpen txikienekoak izan dira azken bi urteak.

**83. koadroa Esnetarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak**

Kontzeptua	Esnetarako behiak		Esnetarako ardiak(*)	
	2016	2017	2016	2017
<b>DATU TEKNIKO-EKONOMIKOAK</b>				
Ustiategien lagina	51	49	29	28
Eskulana (GLU)	2,7	2,7	1,7	1,9
Behiak/Ardiak ustiategiko	110	117	359	358
Azalera (ha)	47,2	46,2	23,9	25,0
Behi-/ardi-esnearen ekoizpena	9.609	9.636	147	146
Esnearen prezioa (euroak/1.000 litro)	317,52	336,19	1.537,20	1.579,87
<b>EKOIZ. eta EMAITZAK (euroak)</b>				
Produktu gordina	369.403,47	424.906,29	95.422,06	97.323,46
+ Diru-laguntzak	14.184,33	12.496,83	5.737,29	5.969,28
- Gastuak elikagaietan	155.071,22	163.635,37	24.011,68	25.433,24
- Gastu aldakorak	59.984,54	65.637,20	9.313,73	8.773,62
= Marjina gordina	168.532,03	208.130,55	67.833,93	69.085,88
- Gastu finkoak, eskulana	120.709,22	127.574,51	34.266,55	35.908,67
= Marjina garbia	47.822,82	80.556,04	33.567,39	33.177,21
<b>EMAITZA UNITARIOAK (euroak)</b>				
Marjina garbia behi/ardia	434,33	685,96	93,62	92,61
Marjina garbia / GLU	26.324,49	44.768,58	22.851,04	20.961,64

(\*): *Ardi latxaren ustiategiak: esnea ekoizten dute 14 ustiategik, gazta egiten dute 12 ustiategik eta 3 ustiategik egiten dituzte bi jarduerak.*

*Iturria: INTIA-ITG, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).*

INTIA-ITG institutuak egiten du Nafarroan esnea ekoizten duten ustiategien jarraipena, eta gertutik jarraitzen du horien jardun ekonomikoa. Ardien 28 ustiategien batez besteko emaitza aurreko bi urteetako antzekoa izan da. Zehazki, behera egin zuen 2016an, baina 2017. urtean gorakada nabarmena izan du, marjina garbiak % 23,5eko hobekuntza izan baitu.

Hori gertatu da ekoizpen gordina % 15 igo delako eta, era berean, gastuek, finkoek eta langileenak barne, % 6,3 soilik igo direlako. Ardi-azienden diru-sarrerek igoera apal bat izan dute (% 2,1), baina zertxobait handiagoa izan da gastuen igoera (% 3,7); hori horrela, marjina gordina % 1,8koa izan da, eta garbia, berriz, negatiboa izan da (-% 1,2), gastu finkoak aplikatu ondoren.

**Haragiaren ekoizpena eta emaitza ekonomikoak**

Abeltzaintza-ekoizpenaren beste osagai nabarmena haragia da, eta Nafarroan berritasun bat izan du 2017an, lurraldean txerri-aziendek izan duten gorakadaren kontrako noranzkoan. Gorabehera txiki batzuk izan badituzte ere, antzekoak izan dira, urtez urte, Nafarroako hiltegiatan hil diren txerrien kopuruak; hala ere, 2017ko datuek berretsi egiten dute 2016an azienta horretan izan zen bolumen herenaren galera, nahiz eta, galera handi horrekin alderatuta, beherakada nahiko txikia izan den (aurreko urteko

tonajearen % 9,3 izan da). Denbora-bitarte honetan, hiltegi berri bat egin da Salinasen, baina ez du txerriak hiltzeko atalik, haren aurrekoak, San Jorgekoak, bazuen arren.

Horren guztiaren ondorioz, ekoiztako haragiaren guztizkoak % 14 egin du behera. Espezie bakoitzari begiratuta, hauek izan dira urtetik urterako aldaketak: behiak, % 0,5; ardiak, -% 10,1; ahuntzak, % 21,4; txerriak, -% 90,7; zaldiak, % 7,1; hegaztiak, % 2,3; eta untxiak, -% 0,6. Krisi ekonomikoaren lehen urteetan beheraka nabarmena izan zuten behien, ardien eta hauntzen haragi-ekoizpenek, eta gerora zenbait gorabehera izan badituzte ere, ez dituzte krisi aurreko bolumenak berreskuratu.

Egoera bestelakoa da hegaztien ekoizpenean. Horren arrazoi nagusia da gora egiten ari dela "broiler" oilaskoaren negozioa: maximoak lortzen ditu urtetik urtera, eta laster hirukoiztu egin ditzake 2000ko urteen hasierako datuak. Txerrien ekoizpen-bolumena nabarmen murriztu ondoren, tonaje guztiaren % 84,5era iritsi da hegaztien ekoizpena, eta honela banatzen da gainerako espezieen ekoizpena: behiak (% 5), ardiak (% 2,9), ahuntzak (% 0,04), txerriak (% 1,8), zaldiak (% 3,3) eta untxiak (% 2,4).

#### 84. koadroa Nafarroan hildako ganaduaren kanaleko pisua


(Tm)

Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda	Zaldi-azienda	Hegazti-azienda	Untxiak	Guztira
2013	7.326,9	3.819,3	24,6	36.610,5	2.500,3	79.155,6	2.641,8	132.078,9
2014	6.435,4	3.681,9	37,0	36.720,5	2.574,1	80.687,0	2.763,8	132.899,7
2015	6.067,1	3.512,7	34,9	33.745,1	3.165,1	80.767,7	2.817,4	130.110,0
2016	5.518,0	3.621,5	32,8	22.241,2	3.475,8	92.127,2	2.661,3	129.677,8
2017	5.546,8	3.255,4	39,8	2.062,3	3.723,7	94.291,3	2.644,4	108.919,9
% Nafarroa/Espainia	0,9	2,8	0,4	0,05	33,7	6,2	4,6	1,7

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

13. grafikoa Abeltzaintzako ekoizpena Nafarroan. Ganaduaren kanaleko pisua

(Indizea: 1990=100)



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Erantsitako grafikoak 1990eko datuetan finkatutako 100 balio-oinarria baliatzen du tonak konparatzeko, eta argi eta garbi erakusten du produktu gehienek datu egonkorak dituztela urtetik urtera, hegaztien ekoizpena pixkanaka gora egiten duen bitartean. Ikusten da, era berean, txerriak hiltzeko atala kendu izanak zer eragin izan duen Nafarroan 2016 eta 2017 urteetan.

Aldaketa horren ondorioz, Nafarroan hildako ganaduaren tona-bolumena, Estatu osoko bolumenaren barruan, % 2 izatetik % 1,7 izatera igaro da. Espezie bakoitzari begirata, hau da banaketa zehatza: behien % 0,9, ardien % 2,8, ahuntzen % 0,4, txerrien % 0,05 (izan ere, txerri-haragiaren ekoizpena gora egiten ari da etengabe Espainian), zaldien % 33,7, hegaztien % 6,2 -azken bi horien kuotak nabarmen ari dira gora egiten azken urteetan- eta untxien % 4,6.

Esne-ekoizpenarekin gertatzen den moduan, INTIA-ITG institutuak biltzen ditu haragitarako behien eta ardien ustategietako datu ekonomikoak. Azken datuak oso justuak izan dira 2017an, behera egin baitute 2016aren aldean (bi espezie horien ekoizpen-balantzeak gora egin zuen urte horretan). Esnetarako ardien egoera parekoa da haragitarako ardien egoera (emaitzak beherakada arin bat izan du eta bitarteko adierazleek eta zenbaketek oso aldaketa txikiak izan dituzte); behi-aziendari begiratu gero, diferentzia nabarmen bat ikusten da esnearen negozioarekin alderatuta, izan ere, esnearen jarduerak eta emaitzek gora egin dute, baina haragiaren jarduerak behera egin

du eta, emaitzak hobera egin duen arren, hobekuntza oso txikia izan da, eta amaierako datuak oso gutxiatik izan dira positiboak.

#### 85. koadroa Haragitarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	Haragitarako behiak		Haragitarako ardiak	
	2016	2017	2016	2017
<b>EZAUGARRIAK</b>				
Ustiategien lagina	34	28	28	28
Eskulana (GLU)	1,3	1,1	1,2	1,2
Behiak/Ardiak ustiategiko	77	71	638	670
Azalera (ha)	40,1	36,5	34,5	39,0
Ekoiz. kg txahal/arkume sal. behi/ardiko(1)	230,3	220,5	20,8	19,7
Salmenta-prezioa txahal/arkume kg-ko	3,90	3,99	3,65	3,82
<b>EKOIZP. eta EMAITZAK (euroak)</b>				
Produktu gordina eta beste sarrera batzuk <sup>(2)</sup>	79.050	72.327	54.365	55.142
+ Diru-laguntzak	12.072	9.789	10.787	10.831
- Gastuak elikagaietan	40.396	36.367	28.106	28.597
- Gastu aldakorrak	16.047	13.898	7.520	8.368
= Marjina gordina	34.679	31.852	29.526	29.008
- Gastu finkoak	34.753	31.053	19.198	19.392
= Marjina garbia	-74	799	10.329	9.616
<b>EMAITZA UNITARIOAK (euroak)</b>				
Marjina garbia behia/ardia	-0,95	11,23	16,18	14,35
Marjina garbia / GLU	-60	738	9.705	8.548

(1): Haragi-kiloak: behienak, kanalean. Ardi-aziendan, kiloak bizirik.

(2): INTIA-ITGren kasuan, diru-laguntzak eta zenbait diru-sarrera (zerbitzuengatik edo beste batzuegatik) produktu gordinean jasota daude.

Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

Oro har, azken urteetako ildoan jarraitu dela nabarmendu behar da. Urtetik urterako aldaketek konpentsatu egiten dituzte emaitzak, eta, zenbaitetan, diru-laguntzei esker salbatu dira emaitzak. Askotan, doitu egiten da ekoizpena, eta emaitzak zerora gerturatzen dira edo positiboak izaten dira, baina datu apalekin.

Edonola ere, kontrastea nabarmena da negozio baten zein bestearen marjina garbia / produktu gordina ratioan (% 1,1ekoa da behi-aziendan eta % 17,4koa ardi-aziendan). Emaitzak negatiboak izango lirateke negozio batean zein bestean, baldin eta diru-laguntzen ekarpena deskontatuko balitz. Behi-azienden kasuan, sarrera arruntak baino % 12,4 handiagoak dira gastuak; eta ardi-azienden kasuan, berriz, % 2,2 handiagoak. Esnearen negozioarekin gertatzen den moduan, laguntza publikoei esker egiten dute onera ardi-aziendak eta horien emaitzak. Egoera hori, gainera, prezioek igoera apal bat izan dutenean gertatu da.

**86. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak**

Kontzeptua	Esne-txerrien ekoizpena(1)		Ziklo itxia(2)	
	2016	2017	2016	2017
<b>EZAUGARRI TEKNIKO-EKONOMIKOAK</b>				
Aztertutako ustiategi kop.	12	10	16	14
Ustiategiko txerri eme kop.	161,7	172,3	356,1	392,1
Txerri eme bakoitzeko saldutako esne-txerriak	23,5	21,6	1,0	0,9
Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,2	0,3	23,6	22,6
Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri-kopurua	23,8	21,9	23,6	22,6
Esne-txerriaren salmentaren batez besteko pisua (kg)	18,1	20,8	8,8	14,6
Gizentzeko azientaren salmentaren batez besteko pisua (kg)	113,0	110,0	109,4	110,2
Saldutako esne-txerri kop. + gizentzekoak	3.820	3.772	8.399	8.846
Esne-txerriaren salmentarako batez besteko prezioa (euroak)	38,07	46,59	25,64	41,01
Txerriaren kg-ko salmentarako batez besteko prezioa (txerria)	1,06	1,19	1,07	1,19
GLU guztira	1,0	1,1	2,8	3,2
<b>EMAITZA EKONOMIKOAK (euroak)</b>				
Produktu gordina	158.781,80	196.265,30	970.616,59	1.163.484,78
- Gastu aldakorak	104.243,62	114.902,31	699.469,85	767.305,91
Marjina gordina	54.538,18	81.362,99	271.146,74	396.178,88
- Gastu finkoak	38.791,59	45.771,47	196.066,03	222.369,26
Marjina garbia	15.746,60	35.591,52	75.080,71	173.809,61

(1): 3 ustiategik 27,60 kg-ko esne-txerriak ekoitzi dituzte eta 7k titia kenduta saldu dituzte (6,95 kg/esne-txerri).

(2): Ekoizpenaren % 80 baino gehiago gizendutako txerri gisa saltzen duten ustiategiak.

Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

Haragitarako behien eta ardien azientek erakutsi dituzten emaitza horien aldean, eta hiltzegietan txerriak hiltzeko jardueran izan den bat-bateko beherakadaren aldean, Nafarroan oso emaitza onak izan ditu txerri bizien salmentak 2017. urtean, datuak aurreko urtekoekin konparatzen baldin badira, bederen. Txerri bizien salmentak bi modalitate ditu, esne-txerrikumeen salmenta eta ziklo osoko salmenta. Esne-txerrikumeen ekoizpenak % 23,6 egin du gora eta ziklo osokoak, berriz, % 19,9. Gastuen osotasunari begiratuta, ez dira hainbeste hasi, % 12,3 eta % 10,5 igo baitira, hurrenez hurren. Hori horrela, marjina garbia % 126 handitu da lehen ustiategi motan, eta % 131,5 bigarreanean. Produktu gordinaren eta marjina garbiaren arteko aldea % 18,1koa da esne-txerrikumeen salmentan, eta % 14,9koa ziklo itxian. Batez besteko prezioen bilakaerak azaltzen du aldaketa hori, bigarren jarduera motan batik bat; izan ere, prezioak % 22,4 eta % 59,9 garestitu dira, hurrenez hurren.



### 3.3 ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK

Nafarroako abeltzainei urtean ordaindu zaizkien batez besteko prezioak aztertuta, ikusten da handizkako salmentarako ganaduak joera homogeenak erakusten dituela urte jakinetan. Hori horrela, 2017. urtean, aurreko 2011, 2012 eta 2015 urteetan gertatu zen moduan, prezioak igo egin dira oro har, eta bitarteko beste urte batzuetan, berriz, kontrakoa izan da joera, prezioak jaitsi egin dira, oro har. Aztertutako laginean bederen, igoerak handiagoak dira txerrien, hegaztien eta untxien azientetan (% 10etik gorakoak), behien, ardien eta ahuntzen azientetan baino. Esnekien bilakaerak ez du hainbesteko gorabeherarik eta aldaketak txikiak dira; hala ere, ardien esnearen prezioak hiru urte daramatza ageriko igoerak izaten. Beste muturrean, oiloen arrautzek gorabehera handiak izan dituzte urtetik urtera (2017an, esaterako, % 19,1 igo da, eta nabarmen konpentsatu du aurreko urteko beherakada); hala ere, epe luzeko datuei begiratuta, ildo nahiko definitua izan du.

#### 87. koadroa Animalia-produktuen prezioak. Urteko batezbestekoak

Produktua	2015	2016	2017	(euroak) % Δ 17/16
<b>Gizentzeko azienta (100 kg/bizirik):</b>				
– Urtebeteko behi-azienta	216,88	217,53	226,37	4,1
– Behi-azienta zaharra	116,10	117,15	118,11	0,8
– Esneko arkumea	394,28	379,43	394,98	4,1
– Esneko antxumea	534,87	487,62	498,28	2,2
– Txerri gizendua	113,33	112,67	125,92	11,8
– Baserriko oilaskoak	111,75	93,58	105,33	12,6
– Untxiak	158,67	152,83	171,58	12,3
<b>Abeltzaintzako produktuak:</b>				
– Behi-esnea (100 litro)	34,17	31,10	31,00	-0,3
– Ardi-esnea (100 litro)	105,42	108,98	109,07	0,1
– Oilo-arrautzak (100 dozena)	123,26	111,65	133,01	19,1

*Iturria: Urte bakoitzeko abenduko Coyuntura Agraria aldizkaria. Nafarroako Gobernua.*

| 17

### 3. INDUSTRIA



## 1. IKUSPEGI OROKORRA

### 1.1 JARDUERAREN BILAKAERA

Egoera orokorra ona izanda, Nafarroako industria-sektorearen jarduerak berriro egin du gora 2017an eta, horrela, aurreko urteetan hasitako goranzko dinamikari eutsi dio, nahiz eta hazkunde-erritmoa pixka bat mantsotu den aurreko ekitaldiaren aldean.

Hain zuzen ere, Nafarroako industriako balio erantsi gordina % 2,1 igo da 2017an, eta % 2,3 aurreko ekitaldian. Urtean zehar hazkunde-erritmoa mantsotzen joan da (lehen hiruhilekotik laugarrenera, % 2,7, % 2,4, % 1,5 eta % 1,6 hurrenez hurren). Aipatu behar da Nafarroan izan den industria-jardueraren hobekuntza, 2017an, Estatu osoan erregistratutakoa (% 3,7) baino pixka bat txikiagoa izan dela.

**88. koadroa** Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera

Urtea	IPI*- Nafarroa	IPI*- Estatu
2008	0,4	-7,3
2009	-20,3	-15,8
2010	6,4	0,8
2011	-2,1	-1,6
2012	-8,0	-6,7
2013	-1,6	-1,6
2014	3,9	1,3
2015	2,2	3,4
2016	0,7	1,8
2017	-2,1	3,2

(\*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentua (NEI) eta EIN.

Industria-jardueraren beste adierazle batzuk kontuan hartuta, Nafarroako Estatistika Erakundeak eginiko Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) % 2,1eko jaitziera izan du 2017an, eta % 0,7ko gorakada izan zuen 2016an. Halaber, indize hori % 3,2 areagotu da Estatu osoan (2016an, % 1,8).

**89. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoaren arabera**

Kontzeptua	2015	2016	2017
Bitarteko ondasunak	-0,8	0,9	7,4
Ekipo-ondasunak	4,9	-0,3	-4,5
Kontsumo-ondasunak	2,4	0,8	-0,5
Energia	6,9	12,8	2,7

(%)

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).*

Ondasun-motei dagokienez, gora egin dute Nafarroako bitarteko ondasunen eta energiaren produkzioek (% 7,4 eta % 2,7 hurrenez hurren); eta ekipo-ondasunek eta kontsumo-ondasunek, aldiz, behera (-% 4,5 eta -% 0,5 hurrenez hurren).

**90. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-arloka**

Kontzeptua	2015	2016	2017
Nekazaritzako elikagaien ind.	3,8	1,3	-2,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	-3,4	0,3	8,7
Papera, zura eta altzariak	4,3	7,9	7,1
Garraio-materiala	1,5	-2,0	-14,6
Beste manufaktura-industria batzuk	-0,4	0,5	6,4

(%)

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).*

Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera jarduera-arloka nahiko heterogeneoa izan da aurten ere, eta aipagarriak dira arlo hauetan izandako igoerak: metalurgia eta produktu metalikoak (% 8,7), papera, zura eta altzariak (% 7,1) eta beste manufaktura-industria batzuk (% 6,4). Beherakada gertatu da, berriz, nekazaritzako elikagaien industrian (-% 2,3), eta, batez ere, garraio-materialean (-% 14,6).

## 1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA

Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2017an Nafarroan erregistratutako industria-jardueraren hazkundea sektorekako enpleguaren jokabidean ere hauteman da. Gainera, sektorean erregistratutako enpresa-kopuruak nahiz langile-kopuruak igoera izan dute, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**91. koadroa      Industria-sektoreko langileen eta enpresen kopuruaren bilakaera**

Urtea	Enpresak	% Δ	Enplegua	% Δ
2008	2.861	0,2	69.704	0,6
2009	2.728	-4,6	64.440	-7,5
2010	2.654	-2,7	62.760	-2,6
2011	2.617	-1,4	62.824	0,1
2012	2.539	-3,0	59.026	-6,0
2013	2.456	-3,3	56.545	-4,2
2014	2.460	0,2	57.348	1,4
2015	2.447	-0,5	58.601	2,2
2016	2.436	-0,4	59.622	1,7
2017	2.438	0,1	61.379	2,9

*Iturria: Nafarroako Ganbera, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datuetan oinarrituta.*

Zehazki, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako informazioaren arabera, industriako enpresen batez besteko kopurua 2.438 izan da 2017an, hau da, 2016an izandakoa baino % 0,1 handiagoa. Gainera, enpresa horiek 61.379 pertsonari eman diete enplegua 2017an; kopuru hori aurreko ekitaldian baino % 2,9 handiagoa izan da. Dena den, adierazi behar da, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestan Nafarroarako bildutako datuen arabera, industria-enpleguak % 11,6ko gorakada nabarmena izan duela 2017an (% 4,3koa, 2016an).

## 2. INDUSTRIA-EGITURA

Atal honetan, Nafarroako industria-sektorearen analisia egingo dugu, foru-erkidegoan garrantzi handia duten industria-sektoreak zein diren zehazteko. Horretarako, lehenik eta behin enplegua eta diru-sarrerak aztertuko ditugu, jarduera-azpisektoreen arabera, kontuan hartuta EINen industria-inkestak ematen duen informazioa (eskuragarri ditugun datu berrienak 2016koak dira). Analisi horren osagarri gisa, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioa erabiliko dugu, enpresa kopuruari eta industriako langileei buruzkoa, enpresaren tamainaren arabera. Informazio horrek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia du iturri, eta Nafarroako industria-enpresa nagusiei buruzkoa da.

### 2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA

EINen industria-inkesta oinarri hartuta, eskura dauden azken datuen arabera (2016), Nafarroako industriak 66.642 langile izan ditu 2016an, eta 18.658,3 milioi euro fakturatu ditu. Nafarroako industrian lanean ari diren pertsonak estatuko industria-enpleguaren guztizkoaren % 2,8 dira; fakturazioari erreparatuz gero, berriz, proportzioa handiagoa da: % 3,1.

Nafarroako industriako enpleguaren sektorekako banaketa aztertzen badugu (EJSN-2009ren arabera), ikus dezakegu hauek direla jarduera nagusiak: ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioa (guztizkoaren % 17,9); elikagai en industria (% 17,5); produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik (% 11,5); makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 8,0); eta material eta ekipo elektriko en fabrikazioa (% 6,6). Sektore horietan biltzen da Nafarroako industria-enpleguaren guztizkoaren % 61,5.

Orobat, ehuneko esanguratsua dute honako hauek ere: kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa (% 5,2); metalurgia (% 4,3); makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 3,2); papergintza (% 3,0); energia elektriko en, gasaren, lurrunen eta airearen hornikuntza (% 2,5); edarien fabrikazioa (% 2,5); eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa (% 2,3). Gainerako jardueren proportzioa % 2tik beherakoa da.

92. koadroa Nafarroako industriako enplegua eta sortutako diru-sarrerak, jarduerazpisektoreen arabera (2016)

*(M eurotan)*

Sektorea (EJSN-2009)	Enplegua	Diru-sarrerak
Elikagaien industria	11.686	2.991.155
Edarien fabrikazioa	1.666	481.703
Ehungintza	340	47.331
Jantzigintza	303	51.286
Larruaren eta oinetakoaren industria	191	38.986
Zuraren eta kortxoaren industria	1.132	134.884
Papergintza	2.009	643.780
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioak	1.029	139.417
Industria kimikoa	900	274.978
Farmazia-produktuen fabrikazioa	1.214	360.990
Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	3.493	698.523
Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa	1.554	377.568
Metalurgia	2.887	856.686
Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik	7.652	1.308.543
Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa	605	69.386
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	4.401	1.541.144
Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	5.346	1.313.364
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	11.954	5.137.708
Beste garraio-material batzuen fabrikazioa	154	33.276
Altzarien fabrikazioa	998	135.252
Beste manufaktura-industria batzuk	743	39.956
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	2.139	172.574
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	1.669	1.487.971
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	855	104.839
Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	1.295	120.954
Gainerako jarduerak	427	96.068
<b>Industria, guztira</b>	<b>66.642</b>	<b>18.658.322</b>

*Iturria: EIN, Industria Inkesta.*

Industriako diru-sarreraren jardueraz- sektorekako banaketa sakon aztertuta ikusten denez, ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa da nagusi (guztizkoaren % 27,5), eta hauek ditu atzetik: elikagaien industria (% 16,0); material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (% 8,3); eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza (% 8,0). Sektore horiek guztiek, batuta, Nafarroako industriak sortutako balio erantsiaren guztizkoaren % 59,8 hartzen dute.

Diru-sarreraren analisiarekin jarraituz, ehuneko esanguratsua dute honako hauek ere: makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 7,0); produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik (% 7,0); metalurgia (% 4,6); kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa (% 3,7); papergintza (% 3,5); edarien fabrikazioa (% 2,6); eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa (% 2,0). Gainerako jardueren tamaina % 2tik beherakoa da.

**93. koadroa      Jarduera-adarrek industriako enpleguaren eta diru-sarreraren guztizkoan dituzten proportzioak (2016)**

Sektorea (EJSN-2009)	Enplegua (%)	Sektorea (EJSN-2009)	Diru-sarrerak (%)
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	17,9	Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	27,5
Elikagaien industria	17,5	Elikagaien industria	16,0
Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik	11,5	Material eta ekipoen fabrikazioa	8,3
Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	8,0	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	8,0
Material eta ekipoen fabrikazioa	6,6	Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	7,0
Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	5,2	Produktu metalikoen fabrik., makin. eta ekip. izan ezik	7,0
Metalurgia	4,3	Metalurgia	4,6
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	3,2	Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	3,7
Papergintza	3,0	Papergintza	3,5
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	2,5	Edariaren fabrikazioa	2,6
Edariaren fabrikazioa	2,5	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa	2,0
Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa	2,3	Farmazia-produktuen fabrikazioa	1,9
Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	1,9	Industria kimikoa	1,5
Farmazia-produktuen fabrikazioa	1,8	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	0,9
Zuraren eta kortxoaren industria	1,7	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioak	0,7
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioak	1,5	Altzarien fabrikazioa	0,7
Altzarien fabrikazioa	1,5	Zuraren eta kortxoaren industria	0,7
Industria kimikoa	1,4	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	0,6
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	1,3	Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	0,6
Beste manufaktura-industria batzuk	1,1	Gainerako jarduerak	0,5
Produktu informat., elektronik. eta optikoen fabrikazioa	0,9	Produktu informat., elektronik. eta optikoen fabrikazioa	0,4
Gainerako jarduerak	0,6	Jantzigintza	0,3
Ehungintza	0,5	Ehungintza	0,3
Jantzigintza	0,5	Beste manufaktura-industria batzuk	0,2
Larruaren eta oinetakoen industria	0,3	Larruaren eta oinetakoen industria	0,2
Beste garraio-material batzuen fabrikazioa	0,2	Beste garraio-material batzuen fabrikazioa	0,2
<b>Industria, guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>Industria, guztira</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: EIN, Industria Inkesta eta geuk egina.*


Enpleguaren eta diru-sarreraren sektorekako banaketaren analisiari esker, Nafarroako industriako jarduera esanguratsuenak identifikatzen jarrai dezakegu. Ildo horretan, hauek dira Nafarroako industria-jarduera guztiari ekarpen handiena egiten dieten arloak: ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa; elikagaien industria; produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen fabrikazioa.

Ehuneko txikiagoa izan arren, honako hauek ere nabarmentzekoak dira: material eta ekipoen fabrikazioa; kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa; eta metalurgia.



14. grafikoa **Jarduera-azpisektoreek Nafarroako industriako enpleguaren eta diru-sarreraren guztizkoan dituzten ehunekoak (2016)**

Diru-sarrerak (%)



Iturria: EIN, Industria Inkesta eta geuk egina.

## 2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA

Nafarroako industriaren jarduera nagusiak identifikatu ondoren, enpresen eta langileen kopurua aztertuko dugu, enpresen neurriaren arabera. Azterketa horrek hainbat jarduera-sektoretako enpresa-sarearen ezaugarriak sakonago ezagutzen lagunduko digu. Hain zuzen ere, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2.438 enpresa izan dira jardunean 2017an, eta guztira 61.379 langileri eman diete lana.

Industria-enpresa horietako gehienak azpisektore hauetan dihardute: elikagaiak, edariak eta tabakoa (guztizkoaren % 22,4); eta produktu metalikoen lehenengo eraldaketa eta fabrikazioa (% 22,2). Bi sektore horiek barne hartzen dituzte Nafarroako industria-enpresa guztien % 44,6.

Sailkapen horretan pixka bat beherago, enpresen kopuruari erreparatuta, honako azpisektore hauek ditugu: makineria eta ekipo mekanikoa (% 6,3); makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 5,5); papera eta arte grafikoak (% 5,3); mineralen erauzketa eta eraldaketa (% 4,7); zura eta kortxoa, altzariak izan ezik (% 4,4); altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk (% 4,4); garraio-materiala (% 4,2); industria kimikoa (% 3,9); eta kautxu- eta plastiko-manufakturak (% 3,8). Gainerako jardueren proportzioa % 3 baino txikiagoa da.

### 94. koadroa Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2017)

SEKTOREA (EJSN-2009)	1-5 lang.	6-50 lang.	51-100 lang.	101-500 lang.	>500 lang.	Guztira	Industria osoaren %
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	279	210	25	29	3	546	22,4
Produktu metalikoak (lehen eraldaketa eta fabrikazioa)	258	244	24	15	0	541	22,2
Makineria eta ekipo mekanikoa	65	63	14	11	0	153	6,3
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	86	43	3	2	0	134	5,5
Papera eta arte grafikoak	75	42	3	8	0	128	5,3
Mineralen erauzketa eta eraldaketa	56	52	2	5	0	115	4,7
Zura eta kortxoa, altzariak izan ezik	62	44	2	0	0	108	4,4
Altzarien fabrikazioa; beste manufaktura-industria batzuk	75	30	2	1	0	108	4,4
Garraio-materiala	31	37	13	19	3	103	4,2
Industria kimikoa	57	27	7	4	1	96	3,9
Kautxu- eta plastiko-manufakturak	32	42	8	11	0	93	3,8
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	50	16	1	2	0	69	2,8
Jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	41	24	2	1	0	68	2,8
Birziklapena	28	27	2	1	0	58	2,4
Makineria eta ekipo elektrikoa	24	22	4	4	1	55	2,3
Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa	34	12	1	1	0	48	2,0
Saneamendu publikoko jarduerak	7	7	0	1	0	15	0,6
<b>Guztira</b>	<b>1.260</b>	<b>942</b>	<b>113</b>	<b>115</b>	<b>8</b>	<b>2.438</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: erregimen orokorrean afiliatutako enpresen batez besteko kopurua, 2017an) eta geuk egina.*

Nafarroako industria-enpresen neurriari dagokionez, eta langileen kopuruari begiratuta, nabarmendu behar da 6 langile baino gutxiago izan dituztela, 2017an, enpresa horien guztien % 51,7k, 6 eta 50 langile bitartean % 38,6k, 51 eta 100 langile bitartean % 4,6k, 101 eta 500 langile bitartean % 4,7k, eta soilik % 0,3k (8 enpresak) izan dituzte 500 langile baino gehiago. Zifra horiek argi erakusten dute oraindik ere enpresa txiki eta ertainak direla nagusi Nafarroako industria-sarean.

Jarduera-sektoreen arabera enpresen neurrien azterketak erakusten du enpresa handienak (500 langile baino gehiagokoak) sektore hauetan aritzen direla: elikagaiak, edariak eta tabakoa; garraio-materiala; industria kimikoa; eta makineria eta ekipo elektrikoa. Bereziki nabarmendu behar da garraio-materialaren sektorea; izan ere, enpresa asko hartzen ez baditu ere (enpresa guztien % 4,2 besterik ez du), garrantzi berezia du Nafarroako industria-jardueran, enpresa oso handiak baitira.

Alderdi horiek argi ikusten dira jarduera desberdinek enpleguaren guztizkoan duten proportzioa eta enpleguak enpresaren neurriaren arabera duen banaketa aztertzean. Informazio horrek, alde batetik, egiaztatzen eta berresten du aurreko atalean jarduera-azpisektore nagusiak identifikatzeko zehaztutakoa (EINek emandako datuak); eta, bestetik, enpresa-sarearen ezaugarriak hobeto ezagutzen laguntzen du.

**95. koadroa      Industriako langileen kopurua, enpresaren neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2017)**

SEKTOREA (EJSN-2009)	1-5 lang.	6-50 lang.	51-100 lang.	101-500 lang.	>500 lang.	Guztira	Industria osoaren %
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	675	3.654	1.632	5.568	1.995	13.524	22,0
Garraio-materiala	55	967	908	3.996	6.200	12.126	19,8
Produktu metalikoak (lehen eraldaketa eta fabrikazioa)	623	4.588	1.706	3.150	0	10.067	16,4
Makineria eta ekipo mekanikoa	166	1.173	1.049	2.370	171	4.587	7,5
Kautxu- eta plastiko-manufakturak	79	961	517	2.006	0	3.563	5,8
Papera eta arte grafikoak	172	748	241	1.876	0	3.037	4,9
Makineria eta ekipo elektrikoa	62	317	303	1.008	908	2.598	4,2
Industria kimikoa	108	446	409	812	737	2.512	4,1
Mineralen erauzketa eta eraldaketa	120	742	172	972	0	2.006	3,3
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	198	603	197	628	0	1.626	2,6
Altzarien fabrikazioa; beste manufaktura-industria batzuk	165	470	164	247	0	1.046	1,7
Birziklapena	68	397	149	423	43	994	1,6
Zura eta kortxoak, altzariak izan ezik	151	662	98	0	0	911	1,5
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	88	227	65	486	0	866	1,4
Jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	94	452	129	160	0	835	1,4
Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa	58	185	87	491	0	821	1,3
Saneamendu publikoko jarduerak	14	98	0	148	0	260	0,4
<b>Guztira</b>	<b>2.896</b>	<b>16.690</b>	<b>7.826</b>	<b>24.341</b>	<b>9.626</b>	<b>61.379</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: erregimen orokorrean afiliatutako langileen batez besteko kopurua, 2017an) eta geuk egina.*

Zehazki, enpleguari ekarpen handia egiten dioten eta, aldi berean, enpresa-sare garrantzitsua (enpresa-kopuru handia) duten jardueren artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: elikagaiak, edariak eta tabakoa; eta produktu metalikoak (lehenengo eraldaketa eta fabrikazioa).

Bestalde, industria-enplegu osoan ehuneko handia dute honako jardura hauek, nahiz eta enpresa handi gutxi batzuetan bilduta egon: garraio-materiala, makineria eta ekipo mekanikoa, eta, neurri txikiagoan, papera eta arte grafikoak, makineria eta ekipo elektrikoa, eta industria kimikoa.

Azkenik, enpleguari dagokionez, ehuneko txikiagoa dute honako sektore hauek: zura eta kortxoa, altzariak izan ezik; uraren bilketa, arazketa eta banaketa; jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza; energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa; eta saneamendu publikoko jarduerak.

### **2.3 ENPRESA NAGUSIAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTAIDETZA**

Kapitulu honi amaiera emateko, labur-labur aztertuko ditugu foru-erkidegoko industria-enpresa nagusiak, bai eta multinazionalak Nafarroako enpresetan sartzen duten kapitala ere.

Enpresa nagusiei dagokienez, eta Espainiako merkataritza-ganberen elkartearen datu-basetik (Camerdata) hartutako informazioaren arabera, hurrengo koadroan ikus daitezke 2017an 250 enplegu baino gehiago izan dituzten Nafarroako industria-enpresak (27 enpresa). Koadroan adierazita dago, halaber, enpresak zein udalerritan dauden, zenbateko enplegu-estratua duten eta zer jardura duten (EJSN-2009ren arabera).

Bestalde, Nafarroako enpresetan sartutako kapital multinazionalari dagokionez, hasteko aipatu behar da atzerriko inbertsioak garrantzitsuak izan direla Nafarroan azken urteotan, industria-sektorea dinamizatze eta modernizatze, nahiz eta horrek foru-erkidegotik kanpoko erabaki-zentroekiko menpekotasun handiagoa eragin. Ildo horretan, gaur egun, Nafarroan kokatutako ehun industria-enpresa baino gehiagok kapital multinazionala dute; gehienak tamaina erdiko edo handiko enpresak dira, eta esportaziorako joera handia dute. Enpresa horiek produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioaren azpisektorekoak dira, batez ere, baina beste azpisektore hauetakoak ere badaude: beste manufaktura-industria batzuk, kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa, edarien fabrikazioa, eta produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik.

Ildo horretan, eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera (Merkataritzaren eta Inbertsioen Zuzendaritza Nagusiak emandako datuak), 2017ko ekitaldian Nafarroako industrian atzerriko inbertsioa

46.952,22 mila eurokoa izan da (2016an 836.299,33 mila eurokoa izan zen). Kapital horren zatirik handiena herrialde hauetatik etorri da: Luxenburgo (12.367,23 mila euro), Belgika (10.965,65), Jersey (6.999,88), Frantzia (6.027,7) eta Danimarka (5.300).

**96. koadroa Nafarroako industria-enpresa nagusiak (2017)**

Enpresa	Udalerría	Enplegu estratua	Jarduera
Fagor Ederlan Tafalla SC	Tafalla	500etik gora	Burdina eta altzairuzko piezen galdaketa
TRW Automotive España SL	Iruñea	500etik gora	Automobilen ekipoen, osagaien, osagarrien eta ordezkoko piezen fabrikazioa.
Gamesa Eolica SL	Eguesibar	500etik gora	Beste makina eta ekipo mekaniko batzuen eraikuntza
Merit Automotive Electronics Systems SL	Iruñea	500etik gora	Erabiltzeko material elektrikoaren eta ekipamenduaren fabrikazioa
Editorial Aranzadi SAU	Zizur Txikia	500etik gora	Liburuen argitalpena
Acciona Energia SA	Eguesibar	500etik gora	Beste epigrafe batzuetan zehaztu gabeko energia-ekoizpena, mareetatik datorrena, eguzki-energia eta halakoak barne.
Acciona Windpower SA	Eguesibar	500etik gora	Motor eta turbinen eraikuntza (garraiorako direnak izan ezik)
Viscofan SA	Taxoare	500etik gora	Beste elikagai batzuen ekoizpena
KYB Suspensions Europe SA	Asiain	500etik gora	Turismo-automobilak
Volkswagen Navarra SA	Aratzuri	500etik gora	Automobilen eta haien motorren eraikuntza eta muntaia
Cementos Portland Valderrivas SA	Iruñea	500etik gora	Zementu artifizialen fabrikazioa
Laboratorios Cinfa SA	Uharte	500etik gora	Farmaziako espezialitateen eta beste produktu batzuen fabrikazioa
Manufacturas del Aluminio Pamplona Sector Automoción SLC	Orkoien	500etik gora	Burdina ez den metalezko piezen eta haien aleazioen galdaketa
Guardian Industries Navarra SL	Tutera	500etik gora	Beira lauaren fabrikazioa
Zalain Transformados SL	Zalain Zoko	251- 500	Altzairuzko hodien fabrikazioa
AN Avícola Mérida SL	Mérida	251- 500	Ganaduaren hilketa eta zatiketa, oro har
Gelagri Ibérica SL	Milagro	251- 500	Landare-zukuen eta -kontserben fabrikazioa
Gestamp Navarra SA	Iruñea	251- 500	Automobilentzako osagaiak
Congelados de Navarra SA	Arguedas	251- 500	Landare-kontserbak
Iberfruta Muerza SA	Azagra	251- 500	Landare-zukuen eta -kontserben fabrikazioa
Tecnoconfort SA	Iruñea	251- 500	Automobilen beste ekipo, osagai, osagarri eta ordezkoko pieza batzuen fabrikazioa (ekipo elektrikoa izan ezik)
Acciona Blades SA	Irunberri	251- 500	Plastikozko produktu erdilanduen fabrikazioa
Ultracongelados Virto SA	Azagra	251- 500	Landare-kontserbak
UVESA	Tutera	251- 500	Edozein motatako pentsu konposatuaren elaborazioa (4224 epigrafeak izan ezik)
Dynamobel SA	Azkoien	251- 500	Metalezko altzarien fabrikazioa
Faurecia Emissions Control Technologies Pamplona SL	Orkoien	251- 500	Automobilen ekipoen, osagaien, osagarrien eta ordezkoko piezen fabrikazioa
Dana Automoción SA	Iruñea	251- 500	Automobilen ekipoen, osagaien, osagarrien eta ordezkoko piezen fabrikazioa

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.*

### 3. SIDERURGIA

#### 3.1 EGOERA OROKORRA

2017. urtea ona izan da bai mundu-mailako ekonomiarentzat bai Espainiakoarentzat. Dinamikotasun hori siderurgiaren sektorerara heldu da eta, lehengaien prezioak oso aldakorrek badira ere, positiboan itxi du urtea.

Munduko gehiegizko ekoizpen-ahalmena dela-eta, erronka handi baten aurrean dago sektorea; izan ere, gorabidean diren beste merkatu batzuetara hedatu da duela urte gutxira arte Txinan ardaizten zen fenomeno hori. Ildo horretatik, G20koek –ELGEren eskutik– mundu mailako arazo horri irtenbide posibleak bilatzeko foroa sortu dute: Altzairuaren Gehiegizko Ahalmenaren inguruko Mundu Mailako Foroa (GFSEC). Aipatzekoa da Espainiako Gobernua eta Europako Batzordea prozesuaren parte direla eta Foroan elkarlan aktiboan ari direla.

Mundu-mailan siderurgia sektoreak dituen erronkei aurre egite aldera, eta merkataritza-defentsarako neurriak erregulatzea eraginkorrago eta errazago egiteko, Europako merkataritza-politiken arloko erregulazio-prozesuak burutu dira urtean zehar.

World Steel Association-en (Altzairuaren Munduko Erakundea) ahaleginen helburu den beste gai bat langileen segurtasuna eta ongizatea da, eta “Zero ezbehar” ekimenaren bidez, % 78 gutxitu da lesioen tasa 2016tik.

Orobat, berrikuntza funtsezkoa da etengabe garatzen ari den altzairuaren sektorean, eta horregatik, altzairuaren industriak bere diru-sarreraren % 13 inbertsioarekin eta prozesuen hobekuntzarekin zerikusia duten proiektuetan inbertitu du.

World Steel Association-ek argitaratutako azken datuen arabera, altzairu gordinaren guztizko ekoizpena 1.689 milioi tonakoa izan da 2017an, eta kontsumoa 1.587 milioi tonara igo da. Ildo beretik, 2016arekin alderatuta, altzairuaren ekoizpenean zein kontsumoan erregistratu diren hazkundeak aurreko ekitaldian erregistratu zirenak baino handiagoak izan dira. Zehazki, altzairu gordinaren mundu-mailako ekoizpena % 3,8 hazi da 2016koarekin alderatuta (aurreko urtean baino ia hiru ehuneko gehiago), eta altzairuaren munduko kontsumoa % 4,7 hazi da urtetik urtera (% 1 aurreko urtean).

## 97. koadroa      Altzairu gordinaren ekoizpena

Herrialdea	2016			2017		
	m Tm	Δ %	%	m Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	91,1	-0,2	5,6	95,2	4,5	5,6
Japonia	104,8	-0,3	6,4	104,7	-0,1	6,2
Txina	807,6	0,6	49,6	831,7	3,0	49,2
India	95,5	7,4	5,9	101,4	6,2	6,0
Alemania	42,1	-1,4	2,6	43,4	3,1	2,6
Italia	23,4	6,4	1,4	24,1	3,0	1,4
Frantzia	14,4	-4,0	0,9	15,5	7,6	0,9
Erresuma Batua	7,6	-30,3	0,5	7,5	-1,3	0,4
Espainia	13,6	-8,1	0,8	14,5	6,6	0,9
EB-28	156,5	-2,7	9,6	162,3	3,7	9,6
<b>Mundu osoa</b>	<b>1.627,0</b>	<b>0,6</b>	<b>100,0</b>	<b>1.689,4</b>	<b>3,8</b>	<b>100,0</b>


Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

Altzairuaren ekoizpenaren konposizioari jatorri geografikoaren arabera begiratu gero, ez da aldaketarik ageri aurreko urteekin alderatuta. Hala, Txinak 832 milioi tona ekarri dizkio munduko ekoizpenari, eta urtetik urterako % 3,0ko hazkundera izan du. Ehuneko hori aurreko urteetan erregistratutakoak baino handiagoa da (% 0,6koa 2016an; -% 2,3koa 2015ean eta % 0,1koa 2014an). Indiaren altzairu ekoizpena txikiagoa den arren (101 milioi tona), hazkunde handienetako bat (% 6,2) izan du aurreko urtearekin alderatuta. Aipatu behar da Txinak, munduko ekoizpenaren % 49,2arekin, altzairua ekoizten duten herrialdeen artean nagusi izaten jarraitzen duela. Ekoizpen horrekin alderatuta, tradizionalki siderurgia landu duten herrialdeek jarrera moderatuagoak erregistratu dituzte: EB-28ko ekoizpena, 162,3 milioi tonarekin, % 3,7 hazi da. AEBen eta Kanadaren baterako ekoizpena 95,2 milioi tonakoa da (urterik urterako % 4,5eko hazkundera izan du) eta Japoniarena, berriz, 104,7 milioi tonakoa (% 0,1 txikitu da).

Arreta merkatu hurbilenetan jarrita, ikusiko dugu Alemaniak, Italiak, Frantziak, Espainiak eta Erresuma Batuak Europako jardueraren zati handiena hartzen jarraitzen dutela; izan ere, EB-28ko altzairu ekoizpenaren % 65 hartzen dute.

Merkatu horietako altzairuaren ekoizpenen bilakaerei dagokienez, nabarmentzekoa da azken urtean merkatu gehienek hobera egin dutela. Zehazki, Frantziako altzairuaren ekoizpena, taldean hazkunde handiena izan duena, % 7,6 hazi da urtetik urtera, Alemaniakoa % 3,1 hazi da eta Italiakoa % 3,0. Erresuma Batua da talde horretatik txikitu den merkatu bakarra (-% 1,3 urtetik urtera). Hala, EB-28ko altzairuaren guztizko ekoizpenak urtetik urterako % 3,7ko hazkundera izan du.

15. grafikoa      Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Altzairuaren kontsumoari dagokionez, EB-28ko herrialde nagusien egoera antzekoa da, eta ildo beretik, EB-28ko altzairuaren kontsumo orokorra ere hazi egin da azken urtean, nahiz eta hazkunde hori moteldu egin den 2016arekin alderatuta. Hala, 2017ko EB-28ko baterako altzairuaren kontsumoa 162 milioi tonakoa izan da eta, beraz, % 2,5 hazi da (+% 2,9 hazi zen 2016an). Hazkunde horren eragile nagusia aztertutako herrialde guztiek erakutsi duten dinamismoa da, Erresuma Batuak izan ezik, bere altzairu kontsumoa % 0,9 txikitu baita.

Aitzitik, Espainiako (+% 7,9), Alemaniako (+% 3,2), Italiako (+% 1,7) eta Frantziako (+% 0,8) altzairuaren kontsumoek hobera egin dute duela urtebetekoeekin alderatuta. Eremu geografiko zabalago bati begiratuta, Txina nabarmentzen da altzairu kontsumitzaile nagusi gisa. 2017an mundu-mailako altzairu kontsumo guztiaren % 46,4 hartu du eta % 8,3 hazi da 2016arekin alderatuta. AEBn eta Kanadan % 6,9 igo da kontsumoa eta 114,3 milioi tonara iritsi da (mundu-mailako kontsumo guztiaren % 7,9 da). Orobat, Indian, nahiz eta merkatu-tasa txikixeagoa (% 5,5) izan, kontsumoak hazten (+% 4,3) jarraitzen du. Gauza bera gertatzen da Japonian ere: % 4,1ko kontsumoa du eta % 3,5 hazi da urtetik urtera.



98. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2016			2017		
	m Tm	Δ %	%	m Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	106,9	-2,3	7,1	114,3	6,9	7,2
Japonia	62,2	-1,3	4,1	64,4	3,5	4,1
Txina	680,3	1,2	44,9	736,8	8,3	46,4
India	83,6	4,2	5,5	87,2	4,3	5,5
Alemania	40,5	3,1	2,7	41,8	3,2	2,6
Italia	24,1	-2,0	1,6	24,5	1,7	1,5
Frantzia	13,2	3,9	0,9	13,3	0,8	0,8
Erresuma Batua	10,9	3,8	0,7	10,8	-0,9	0,7
Espainia	12,6	0,0	0,8	13,6	7,9	0,9
EB-28	158,4	2,9	10,4	162,3	2,5	10,2
<b>Mundu osoa</b>	<b>1.516,0</b>	<b>1,0</b>	<b>100,0</b>	<b>1.587,4</b>	<b>4,7</b>	<b>100,0</b>

Iturria: World Steel Association.

### 3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Orokorrean Espainiak 2017an bizi izan duen aldi ekonomiko oparoa herrialdeko sektore siderurgikoan ere islatu da. Ekonomiaren egoera baikor hori Espainiako sektore siderurgikoko magnitude nagusietan ere igarri da; hala, % 7,5eko hazkundera izan da ageriko kontsumoan eta % 5,9koa altzairuaren ekoizpenean. Zehazki, 12.767 mila tonara igo da produkzioa eta 13.851 mila tonatan zenbatu da ageriko kontsumoa, 2010etik (13.851 mila tona) erregistratu den zifra altuena.

99. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak\*

Urtea	(mila Tm)			
	Ekoizpena	Esportazioak	Inportazioak	Ageriko kontsumoa
2010	14.814	9.901	9.153	13.851
2011	14.015	10.178	9.038	13.179
2012	12.154	9.901	7.816	10.745
2013	12.842	9.956	7.612	10.924
2014	12.739	9.950	8.275	11.587
2015	13.287	9.600	8.974	12.717
2016	12.060	8.487	8.622	12.651
2017	12.767	8.764	9.892	13.594


(\*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritzan siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Halaber, siderurgia-sektorearen dinamismoak sektore horretako enpresek kanpoan egin dituzten erosketei eta salmentei ere eragin die. Izan ere, gainerako adierazle nagusiak bezala, inportazioak eta esportazioak ere hazi egin dira 2017an, nahiz eta ez diren proportzio berean hazi. Hala, siderurgia-produktuen inportazioek % 14,7 egin dute gora eta esportazioek, berriz, % 3,3, -lehen hazkundera izan da urrenez urreneco hiru

ekitalditan jaitsierak izan eta gero-. Zehazki, Espainiako siderurgia-sektoreko enpresek kanpora eginiko salmentak 8.876 mila tonara heldu dira 2017an eta inportazioak 9.892 mila tonatan zenbatu dira.

16. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Espainiako siderurgia-sektoreko beste magnitudeetan gertatu den antzera, enpleguarentzat ere urte ona izan da 2017a. Hala, ekoizpenean izan den hazkundearekin paraleloan, sektoreko enpleguan ere susperraldi arin bat gertatu da. Izan ere, 2017ra arte, siderurgia-enpleguak jaitsierak izan ditu urrenez urreneko sei ekitalditan, besteak beste, krisi ekonomikoa zela-eta sektoreko enpresek egin zituzten enplegu-doikuntzen ondorioz. Horregatik, 2017an sektorean joera aldaketa gertatu dela esan daiteke, % 0,8ko hazkundera erregistratu baita, eta 22.300 enplegaturen zifarra heldu (duela urtebete baino 187 enplegatu gehiago).

Sektoreak inportatu dituen lehengai nagusien bilakaerari dagozkion datuak bat datoz ekitaldiaren bilakaerarekin. Koke bihur daitekeen harrikaitzaren kontsumoa berdin mantendu da 2016tik, nahiz eta prezioa, azken urtearekin alderatuta, ia bikoiztu (+% 94,0) eta 2011ko mailara iritsi den. Orobat, txatarraren prezioa % 4,5 igo da urterik urtera eta igoera nabarmen bat egon da horren prezioan ere (+% 42,8). Egoera berbera erregistratu da burdin mearen eta pelleten kontsumoan eta prezioan ere (+% 8,9 eta +% 52,9, hurrenez hurren). 2017an, burdin meak eta pelletek Espainiako siderurgia-

sektoreko lehengai nagusi izaten jarraitzen dute, eta horien kontsumoa 6.546 mila tonakoa da; hau da, guztizkoaren % 52,5.

#### 100. koadroa Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikaitza		Burdin mea eta pelletak		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2008	3.371	147,0	6.328	69,0	7.408	342,0
2009	2.058	133,0	3.951	62,0	4.654	211,0
2010	2.984	161,0	6.707	87,0	6.186	311,0
2011	2.610	215,0	5.373	129,0	5.271	390,0
2012	2.492	176,0	5.220	100,0	4.747	375,0
2013	2.528	129,0	6.259	103,0	4.925	318,0
2014	1.632	105,0	5.699	75,0	4.928	330,0
2015	1.720	102,9	6.378	51,4	5.145	293,3
2016	1.768	106,2	6.010	49,1	3.970	226,1
2017	1.767	206,0	6.546	75,1	4.148	322,9
Hazk. % 16-17	0,0	94,0	8,9	52,9	4,5	42,8

Iturria: Unesid.

Enpresako langileen segurtasunari dagokionez, Unesid-en lehentasunetako bat Espainiako siderurgia-enpresa guztietan segurtasun-bikaintasuna lortzea da, industriaren iraunkortasuna eta enpresen arrakasta lortzeko ezinbesteko baldintzatzat jotzen baitu.

Siderurgia-sektorean funtsezko beste alderdi bat berrikuntza da. Horregatik, Unesid industriari bere osotasunean eragiten dieten teknologia-aldaketetan murgilduta dago. Gainera, PLATEA plataformaren bidez, Unesideko kide diren enpresek *"elkarrekintzan dihardute unibertsitateekin eta ikerkuntza-zentroekin Espainiar siderurgiaren lidergoa bermatuko duten produktu eta zerbitzu berezituak garatzeko eta ezartzeko"*.

## 4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA

### 4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Europar Batasuneko Nekazaritzako Elikagaien Industriaren Konfederazioaren azken informazioa aztertuta, nekazaritzako elikagaien ekoizpenak goranzko joera izan du 2017an, eta hiruhilekoen arteko hazkundeak positiboak izan dira ekitaldian zehar (lehen hiruhilekoko jarduera-beherakada txikia kenduta).

**101. koadroa** Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera

Urtea	Aldia	% Δ
2016	I. hiruhilekoa	0,7
	II. hiruhilekoa	0,2
	III. hiruhilekoa	1,0
	IV. hiruhilekoa	-0,2
2017	I. hiruhilekoa	-0,2
	II. hiruhilekoa	1,2
	III. hiruhilekoa	0,6
	IV. hiruhilekoa	0,3

*Iturria: CIAA.*

Egiturari dagokion ikuspegitik, nekazaritzako elikaduraren industriak garrantzi handia du, aspalditik, Europar Batasuneko eta bertako kide diren herrialde gehienetako ekonomia-sarean. Hain zuzen ere, EBko industria-sektore nagusia da une honetan, automobilgintzaren industriaren aurretik.

lido horretan, sektoreak EB-25ean 1.089 bilioi euro fakturatu zituen 2015. urtean (aurreko ekitaldian baino % 0,8 handiagoa), hau da, Europako Erkidegoko manufaktura-industriako guztizkoaren % 14, eta sektore horrek bildu du enpleguaren % 15,4 eta balio erantsiaren % 12,8. Ekoizpen hori guztia 4,24 milioi langilek egin dute, 289.000 enpresatan. Sektore tradizionala da, eta enpresa txiki eta ertainak dira nagusi (250 langile baino gutxiagoko enpresak guztien % 99,1 izan dira urte horretan, eta tamaina horretako enpresek bildu dute sektoreko fakturazioaren % 48,3 eta enpleguaren % 62,1). Herrialdeei dagokienez, ekoizle nagusiak Frantzia, Alemania, Italia, Erresuma Batua eta Espainia dira; 2015. urtean, fakturazioaren % 66 bildu zuten herrialde horiek.

## 4.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako Industria Produkzioaren Indizea (IPI) kontuan hartuta, Espainiako elikagaien industriak jardueraren igoera apal bat izan du 2017an; hala ere, igoera hori Espainiako industria osokoa baino txikiagoa izan da, eta aurreko urtekoa baino askoz apalagoa. Zehazki, elikagaien sektoreko IPIk % 0,3ko gorakada izan du 2017an (2016an, % 2,5), eta, Estatuko industria-sektore osoak, berriz, % 3,2koa (2016an, % 1,8).

### 102. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

Urtea	Elikagaiak*	Industria, guztira*
2013	-0,9	-1,6
2014	3,7	1,3
2015	1,0	3,4
2016	2,5	1,8
2017	0,3	3,2

(\*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.  
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

lido horretan, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak 2017rako emandako informazioaren arabera, nekazaritzako elikagaien sektorea nagusi da oraindik ere Estatuko industria-jarduera osoan. Zehazki, 98.163 milioi euro fakturazten ditu (industria osoaren fakturazioaren % 21,7), eta 527.400 pertsonari ematen die lana (industria osoaren % 16,7), 29.018 enpresatan. Halaber, elikagaien eta edarien industriak industria osoko balio erantsiaren % 15,5 biltzen du.

Sektorearen ezaugarri nagusia da, Europar Batasun osoan gertatzen den moduan, atomizazio-maila handia duela (2017an, 50 langile baino gutxiago zituzten enpresen % 96,3k, eta 10 langile baino gutxiago % 78,9k); alabaina, sektoreko enpresa handiek ekoizpenaren % 70 inguru ekoizten dute, teknologikoki aurreratuenak dira eta mundu-mailan egiten dute lan (atzerriko kapitalaren presentzia handia dute). Enpresa txiki eta ertainek, berriz, eskala geografikoki txikiagoetan egiten dute lan.

2017an sektorean izandako berritasunei begiratuta, nabarmendu behar da Espainiaren eta Txinaren arteko harremanak estutu egin direla nekazaritzako elikagaien esportaziorako. Horretarako, alde batetik, ofizialki sinatu dute melokotoien eta aranen esportazio-protokoloa, eta, bestetik, bi herrialdeetako Nekazaritza eta Elikadura Ministerioen artean egiaztatenei eta trukeei buruzko talde tekniko bat sortzea adostu da; horrela, informazioa trukatu dute eta merkataritza-trukeen segurtasuna hobetzeko konponbideak proposatu dituzte.

Enpresa-mugimenduei dagokienez, Grupo Heineken bere ostalaritza-adarraren salmenta hitzartzeaz dago; eta horren ondorioz, Casual Beer & Food taldea eskuz alda daiteke laster, garagardo-enpresak ekindako prozesu horren harian. Horrez gainera, enpresen erosketaren bidez osasun-eremuan sartzen jarraitzeko urratsak ematen ari da Ebro Foods taldea; berariaz, Geovita talde italiarraren % 52 erosi du orain dela gutxi, 16,5 milioi ordainduta.

Azkenik, Campofrío Food Groupek Caroli Foods Groupen % 100 lortu du aliantza estrategiko baten bidez; lehen, akzioen % 49 zuen. Caroli Foods Groupek Errumanian du egoitza eta haragi-produktuak eta plater prestatuak ("Sigma") egiten ditu. Eragiketa hori talde espainiarraren eta errumaniarraren arteko negozioak bat egin eta zazpi urtera osatu da. Herrialdeko haragiaren negozioko liderra izatea da eragiketa horren helburua. Horretarako, ekintza-ratioa eragingune bereko beste merkatu batzuetara zabaltzeko asmoa dute, hala nola Bulgariara, Moldaviako Errepublikara, Serbiara, Ukrainara eta Turkiara.

### 4.3 SEKTOREA NAFARROAN

Nekazaritzako elikagaien industriak beti izan du garrantzi handia Nafarroako ekonomian, eta Foru Erkidegoko industriaren azpisektore nagusietako bat da gaur egun ere. Zehazki, EINEK 2016. urteari buruz emandako datuen arabera, nekazaritzako elikagaien industriak (elikagaiak eta edariak) industriako enplegu guztien % 17,5 sortzen du (bigarrena da sailkapenean, motordun ibilgailuen sektorearen atzetik –% 17,9–), baita industriako balio erantsi gordin guztiaren % 16 ere (kasu horretan ere bigarrena da sailkapenean, motordun ibilgailuen sektorearen atzetik –% 27,5–).

**103. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria (2017)**

Tamaina	Enpresen %	Enpleguaren %
1-5 lang.	51,1	5,0
6-50 lang.	38,5	27,0
51-100 lang.	4,6	12,1
>100 lang.	5,9	55,9
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.*

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2017an nekazaritzako elikagaien sektoreko 546 enpresa aritu dira Nafarroan, eta guztira 13.524 langileri eman diete lana. Enpresa horiek langile-kopuruaren arabera duten tamainari buruzko analisiaren arabera, ETEak dira nagusi oraindik ere enpresa-sarean.

Izan ere, 6 langile baino gutxiago ditu enpresen % 51,1ek (sektoreko enplegu guztien % 5,0), 6-50 langile bitartean ditu enpresen % 38,5ek (enpleguaren % 27,0 sortzen dute), eta 50 langile baino gehiago % 10,4k (sektoreko enpleguen % 68).

Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa nagusiei dagokienez, 100 langile baino gehiagoko enpresak agertzen dira beheko taulan (5 enpresa guztira), eta zer udalerritan dauden, zer jarduera egiten duten eta zer enplegu-estratu sortzen duten zehazten da. Enpresa horietatik, batek baino ez ditu 500 langile baino gehiago. Jarduera nagusia landare-kontserben fabrikazioa da.

**104. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak (2017)**

Enpresa	Udalerría	Enplegu-estratua	Jarduera nagusia
Viscofan S.A.	Taxoare	500etik gora	Beste ezein lekutan sailkatu gabeko elikagaien ekoizpena
Gelagri Ibérica S.L.	Milagro	251- 500	Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa
Congelados de Navarra S.A.	Arguedas	251- 500	Landare-kontserbak
Iberfruta Muerza S.A.	Azagra	251- 500	Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa
Ultracongelados Virto S.A.	Azagra	251- 500	Landare-kontserbak

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.*

Kapital multinazionalaren sarrerari dagokionez, lehenik eta behin gogorarazi behar da atzerriko inbertsioak garrantzitsuak izan direla Nafarroan industria-sektorea dinamizatze eta modernizatze (nahiz eta horrek foru-komunitatetik kanpoko erabakizentrokiko mendekotasun handiagoa izatea dakarren). Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberaren informazioaren arabera, nabarmendu behar da 2017ko ekitaldian nekazaritzako elikagaien industriara bideratutako atzerriko inbertsio bakarra egon dela, 43,40 mila eurokoa.

Industria-egituraren ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren jarduera-aldagai nagusien azken bilakaera aztertuko dugu orain.

Enpresa-kopuruari eta enpresa horietan sortutako enpleguei dagokienez, 2017. urtean % 0,2ko igoera izan da sektorean diharduten enpresen kopuruan (2016. urtean, -% 1,3); enpleguak ere gorakada izan du (% 4,1) aurreko ekitaldiarekiko (igoera hori % 4,3koa izan zen 2016an). Horrela, beraz, enpresa horien batez besteko langile-kopurua 24,8 izan da 2017an (23,8 aurreko urtean).

**105. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera**

Urtea	Enpresak	% Δ	Enplegua	% Δ	Batez besteko enplegua
2008	587	0,9	12.424	0,1	21,2
2009	596	1,5	11.979	-3,6	20,1
2010	585	-1,8	11.896	-0,7	20,3
2011	577	-1,4	11.897	0,0	20,6
2012	579	0,3	11.773	-1,0	20,3
2013	566	-2,2	11.419	-3,0	20,2
2014	560	-1,1	11.999	5,1	21,4
2015	552	-1,4	12.457	3,8	22,6
2016	545	-1,3	12.989	4,3	23,8
2017	546	0,2	13.524	4,1	24,8

*Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.*

Era berean, Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren Industria Produkzioaren Indizeak (jardueraren bilakaeraren adierazle gisa erabili da) -% 2,3ko beherakada izan du 2017an (aurreko urtean, % 1,3ko hazkundea izan zuen). Beherakada hori Nafarroako industria osoan jasotakoaren antzekoa izan da (IPI adierazleak, zehazki, -% 2,1eko jaitsiera izan du).

**106. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

Urtea	Nekazaritzako elikagaiak	Industria, guztira* (% Δ)
2010	-6,3	6,4
2011	4,1	-2,1
2012	-5,8	-8,0
2013	-2,2	-1,6
2014	0,4	3,9
2015	3,8	2,2
2016	1,3	0,7
2017	-2,3	-2,1

*(\*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.*

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

Sektoreak Nafarroatik kanpora izan duen kanpo-merkataritzako jardueraren bilakaerari dagokionez, esportazioek % 2,1 egin dute gora (2016an % 2,7), eta 565 milioi eurora iritsi dira 2017an. Bestalde, inportazioek % 0,2 egin dute gora (2016an % 9,0), eta 237,7 milioi eurora iritsi dira 2017an. Kanpo-merkataritzaren bilakaera horrek superabita egotea ekarri du, 2017an, sektoreko merkataritza-balantzan; hain zuzen ere, 327,3 milioi eurokoa. Saldo hori aurreko urtean erregistratukoa baino pixka bat handiagoa da (316,3 milioi euroko superabita izan zen iaz). Era berean, estaldura-tasa % 237,7ra igo da (% 233,3koa izan zen 2016an).



**107. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan**

(Meurotan)

Urtea	Esportazioak	% Δ	Inportazioak	% Δ	Merkataritza-balantza	Estaldura-tasa
2008	327,1	15,3	174,1	-5,2	153,0	187,9
2009	303,0	-7,4	147,0	-15,6	156,0	206,1
2010	334,1	10,3	140,1	-4,7	194,0	238,5
2011	395,3	18,3	142,4	1,6	252,9	277,6
2012	402,6	1,8	163,1	14,5	239,5	246,8
2013	493,1	22,5	211,6	29,8	281,5	233,0
2014	512,9	4,0	203,5	-3,8	309,4	252,0
2015	538,8	5,1	217,8	7,0	321,0	247,4
2016	553,6	2,7	237,3	9,0	316,3	233,3
2017	565,0	2,1	237,7	0,2	327,3	237,7

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia

Azkenik, Nafarroako sektorekako jardueraren analisiari amaiera emateko, eta aurreko txostenetan egin bezala, 16 enpresako lagin batean jasotako jardueraren emaitzak ikus daitezke beheko taulan, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak emandako informazioan oinarrituta. Enpresa horiek guztiek 1.070.409 milioi euro fakturatu zituzten 2016an, aurreko ekitaldian baino % 1,9 gehiago.

**108. koadroa Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua**

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15
	m euro	%	m euro	%	
Ustiapeneko diru-sarrerak	1.050.215	100,0	1.070.409	100,0	1,9
Bitarteko kontsumoak	813.307	77,4	827.061	77,3	1,7
Balio erantsi gordina	236.908	22,6	243.348	22,7	2,7
Langile-gastuak	123.611	11,8	127.670	11,9	3,3
Ustiap. emaitza ekon. gordina	113.297	10,8	115.678	10,8	2,1
Amortizazioak eta hornidurak	51.460	4,9	52.154	4,9	1,3
Ustiap. emaitza ekon. garbia	61.837	5,9	63.524	5,9	2,7
Finantza-karga	-10.546	-1,0	-10.547	-1,0	0,0
Ohiko jardueren emaitza	72.383	6,9	74.071	6,9	2,3
Ezohiko jardueren emaitza	2.020	0,2	-14.189	-1,3	-802,4
Zerga aurreko emaitza	74.403	7,1	59.882	5,6	-19,5
Zergak	11.740	1,1	10.424	1,0	-11,2
Ekitaldiko emaitza garbia	62.663	6,0	49.458	4,6	-21,1
Cash-flow	114.123	10,9	101.612	9,5	-11,0

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Kostuen egituraren bilakaera aztertuz gero (kostu-partidek fakturazioan duten partaidetza), ikus daiteke pixka bat jaitsi dela bitarteko kontsumoen partaidetza; zehazki, % 77,3 hartzen dute 2016an (2015ean, % 77,4). Bilakaera horren harian, balio erantsiaren partaidetzak gora egin du apur bat % 22,7ra arte (2015ean, % 22,6).

Langile-gastuei dagokienez, diru-sarreraren gaineko ehunekoa % 11,9ra arte igo da 2016an (2015ean, % 11,8), eta amortizazioen eta horniduren partaidetzak 2016ko % 4,9ari eutsi dio. Bestalde, finantza-kargak fakturazioaren % 1,0 hartzen du.

Testuinguru horretan, nahiz eta ohiko emaitzak igo egin diren, 2016an ezohiko emaitzek izandako beherakada handiaren ondorioz ekitaldi honetako emaitza garbiak nabarmen egin du behera; horrela, sarrerekiko partaidetza % 5,6koa izan da (% 7,1ekoa izan zen 2015ean). Gauza bera gertatzen da cash-flowarekin, % 9,5era iritsi ondoren (% 10,5era iritsi zen 2015ean).

**109. koadroa      Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 16 enpresatako laginaren errentagarritasuna**

RATIOAK	2014	2015	2016
AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zerga aurretik)	12,5	10,9	8,9
Jasotako finant. Interesak / Kostua duten besteren baliabideak	2,4	3,1	2,8
BALIABIDE PROPIOEN ERRENT. (zerga aurretik)	17,6	15,8	12,3
Zorpetze-ratioa	33,3	38,2	35,0
Palanka-efektu finantzarioa*	10,1	7,8	6,2

(\*): Errentagarritasun ekonomikoa – kostua (kanpoko finantzaketa).

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Enpresa-lagin horretan, beraz, behera egin dute, zergen aurretik, errentagarritasun ekonomikoa eta finantza-errentagarritasunak. Zehazki, errentagarritasun ekonomikoa % 8,9koa izan da 2016ean (% 10,9koa izan zen 2015ean), eta errentagarritasun finantzarioa % 12,3koa (2015ean % 15,8koa izan zen). Kontuan hartu behar da, halaber, zorraren kostua murriztu egin dela (2016an % 2,8koa izan da; 2015ean, berriz, % 3,1ekoa izan zen), baita zorpetze-ratioa ere (2016an, % 35,0; 2015ean, % 38,2).

## 5. AUTOMOBILGINTZA

Berriro igo da, zortzigarren urtez jarraian, mundu osoan saldutako automobilen kopurua, eta orain arteko markak hautsi dira, 96,8 milioi ibilgailu saldu baitira. Matrikulazioek % 3,1 egin dute gora, eta hainbat faktorek eragin dute igoera horretan: ekonomiaren gorakada, erosten laguntzeko hainbat neurri abian jartzea, interes-tasa txikiagoak... Kontsumitzaileen konfiantza hobetu da, eta horren ondorioz, erosketak bultzatu dira. Bestalde, egia da joera hori ez dela berdina izan toki guztietan, eremu geografikoen arabera portaera nahiko desberdinak ikusi baitira. Horiek horrela, emaitza positiboarekin itxi du urtea Asia, Ozeania eta Erdialdeko Ekialdea biltzen dituen blokeak (% 50,5eko pisu espezifikoa eta % 4,3ko igoera), Europak (% 21,6ko partaidetza eta % 3,9ko igoera) eta Latinoamerikak (% 4,7ko partaidetza eta ibilgailuen eskaeraren gorakada handia: % 12,4). Aitzitik, beste herrialde batzuetan behera egin dute salmentek, hala nola NAFTAko herrialdeetan (-% 1,2 eta % 21,9ko partaidetza) eta Afrikan (% 1,2ko partaidetza, eta beherakada nabarmena: -% 9,1).

Ekoizpenari buruzko datuekin jarraituz, Asiak eta Ozeaniak osatutako blokea nagusi da munduan: 53,5 milioi ibilgailu ekoitzi dituzte, aurreko urtean baino % 3,3 gehiago. Azpimarratu behar da Asian eta Ozeanian oso bizkor egin duela gora automobilgintzaren sektoreak. Txina da gorakada hori gehien bultzatu duen herrialdea; izan ere, hamarkada batean produkzio-erritmoak bikoiztu eta gehiago egin dira, eta 2017an munduko fabrikazioaren % 55 izatera iritsi da. NAFTAko herrialdeetan, berriz, 17,5 milioiko ekoizpenarekin, hainbat urtetako goraldiaren ostean, % 3,8 behera egin du ekoizpenak; izan ere, Ameriketako Estatu Batuetan jaitsi egin da (-% 8,1), bai eta Kanadan ere (-% 7,2). Europari erreparatuta, aurreko urteko ekoizpenari eutsi zaio: 14,7 milioi EB-15en (% 0,7ko igoera) eta 18,8 milioi EB-27n (% 0,9ko igoera), eta Europako gainerako herrialdeek bizitasun handiagoa izan dute. Beraz, Europako gainerako herrialde horietako ekoizpenak ere zenbatuz gero, Europa osoan 22,1 milioi ibilgailu ekoitzi dira, eta urtetik urterako igoera % 3,1ekoa izan da. Hego Amerika aztergai hartuta, munduko ekoizpenaren zati txikia izan arren (% 3,3), 2017ko ekitaldian nabarmen egin du gora (% 20,3); hiru milioi ibilgailutik gora ekoitzi ditu, eta Brasil izan da bilakaera horren egile nagusia. Afrikak, berriz, ekoizpenaren % 1 du, eta 2017an % 3,1 egin du gora; hala eta guztiz ere, ekoizpena ez da iritsi milioi bat ibilgailura.

## 5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Datuak sakon aztertuta, produkzio-eremuari dagokionez, urtean 100 milioi ibilgailuren zenbateko sinbolikoa ekoiztetik gero eta gertuago gauden honetan, errealitate oso desberdinak daude, herrialdeen arabera. Zehazki, ekoiztitako bolumena nabarmen igotzen lagundu duten herrialdeetatik hasita, aurtengoan ere Txina gailendu da. Asiako erraldoiaren ibilbidea geldiezina da, eta munduko lehen ekoizlea izan da oraingoan ere: 29 milioi ibilgailu egin ditu 2017an, aurreko urtean baino % 3,2 gehiago. Ildo beretik, sendotu egin da ekoizpen-mapan presentzia handia duen Asiako beste herrialde bat: Japonia. Izan ere, 2017ko ekitaldian % 5,3 egin du gora, eta urtean 10 milioi ibilgailu muntatzetik gero eta gertuago dago. Indiak eta Hego Koreak 4,8 eta 4,1 milioi ibilgailu egin dituzte, hurrenez hurren, baina bi herrialde horien bilakaerak kontrakoak izan dira (% 5,8 eta -% 2,7). Dena dela, herrialde horietako jarduera lagungarria izan da Asia ibilgailuen munduko lehen ekoizle gisa kokatzeko. Azpimarratu behar da munduko ibilgailu guztien erdia (% 50,9) ekoizten dela Asiako bost herrialde hauetan: Txina (% 29,8), Japonia (% 10), India (% 4,9), Hego Korea (% 4,2) eta Thailandia (% 2).

Azterketarekin jarraituz, Amerikari dagokionez, NAFTAko herrialdeetan, lehen esan bezala, 2017ko ekitaldia ixtean emaitza negatiboa izan da (-% 3,8). Bai Ameriketako Estatu Batuek (11,2 milioi ibilgailu ekoiztiak, -% 8,1), bai Kanadak (2,2 milioi, -% 7,2) ibilgailu gutxiago ekoizti dute, eta Mexikok egindako gorakada nabarmena (% 13ko igoera, 4,1 milioi ibilgailu) ez da nahikoa izan beste bi herrialdeetako beherakadak konpentsatzeko. Horren guztiaren ondorioz, pixkanaka ahuldu egin da NAFTAko herrialdeek munduko ekoizpenen taulan duten presentzia, eta 2017an % 17,9 baino ez da izan (2016an % 19, 2015ean % 20). Hego Amerikari dagokionez, ekoizpenen mapan ageri diren herrialdeen artean, Brasil da nagusi, bai bolumenagatik, bai bilakaeragatik. Zehazki, ekoizpenak nabarmen gora egin du (% 25,2) eta 2,7 milioi ibilgailu inguru egin dira. Horrenbestez, munduko bederatzigarren ekoizlea izatera iritsi da Brasil; izan ere, alde batetik, barne-merkatua suspertu egin da (% 9,2ko igoera), eta bestetik, esportazioetan orain arteko marka guztiak hautsi ditu.

Europako datuei erreparatuta, argi eta garbi ikusten da, oro har, ekoizpen handiak dituzten herrialdeek zertxobait behera egin dutela, eta ekoizpen txikiak dituztenek, berriz, gora egin dutela. Frantzia da salbuespena: munduko hamargarren ekoizlea da, % 6,5 egin du gora, aurreko urteko datuekin alderatuta, eta 2,2 milioi ibilgailu egitera iritsi da. Espainiak % 1,5 behera egin du, eta murrizketa txiki horrek azken bost urteetako joera apurtu du; dena dela, 2.848.335 ibilgailu egin ditu, eta zortzigarren tokiari eutsi dio. Alemania Europako lehenengo potentzia da; zertxobait behera egin badu ere (-% 1,8), tinko eutsi dio laugarren tokiari munduko rankingean eta 5,6 milioi ibilgailu egin

ditu. Joera hori Erresuma Batura ere hedatu da: ekoizpenak % 3,7 egin du behera, eta 1,7 milioi ibilgailu egin dira. Aitzitik, Europako ekoizle nagusien artean, gora egin dute Italiak (1,1 milioi ibilgailu eta % 3,5eko igoera) eta Txekiar Errepublikak (1,4 milioi ibilgailu eta % 5,2ko igoera). Goranzko joera hori Errusiara ere hedatu da, eta herrialde horretan indar handia hartu du (1,5 milioi ibilgailu eta % 19ko igoera). Produkzio-bolumen txikiagoak dituzten herrialdeen bizitasuna ere azpimarratu behar da; esate baterako, aipatzekoak dira Portugal (175.544 ibilgailu eta % 22,7ko igoera) eta Finlandia (91.598 ibilgailu eta % 91eko igoera).

Afrikan, bi herrialdek soilik dute ekoizpenaren ehuneko aipagarria: alde batetik, Maroko (% 0,4), eta bestetik, Hegoafrika (% 0,6). 2017an, herrialde horiek kontrako bilakaerak izan dituzte: lehengoak % 9 egin du gora, eta bigarrenak, aldiz, % 1,5 behera.

Matrikulazioen bilakaera aztergai hartuta, Txina nagusi izan da oraingoan ere, ibilgailuen mundu-merkatuaren % 30,1 bereganatu baitu. Zehazki, 29,1 milioi ibilgailu matrikulatu dituzte Asiako herrialde erraldoi horretan, aurreko urtean baino % 4 gehiago. AEB da bigarren herrialdea (17,6 milioi, % 18,2), matrikulazioek % 1,6 behera egin badute ere. Horrelako bilakaerarik ez du izan 2009ko krisi finantzarioaz geroztik, eta beherakadak AEBko hiru fabrikatzaile handiak (*big three*: Ford, GM eta Fiat Chrysler) herrestan eraman ditu, behera egiteko ohitura handirik ez badute ere. Hirugarren eta laugarren tokietan Asiako bi herrialde sendotu dira: Japonia (5,2 matrikulazio eta % 5,4ko igoera) eta India (4 milioi matrikulazio eta % 9,5eko igoera). Asiako binomio horren atzetik, Europako hiru herrialde hauek daude: Alemania (3,8 milioi eta % 2,8ko igoera), Erresuma Batua (2,9 milioi euro eta % 5,4ko jaitsiera) eta Frantzia (2,6 milioi eta % 5,1eko igoera). 10 merkatu nagusien rankinga osatzen duten herrialdeak Brasil, Italia eta Kanada dira. Horietako bakoitzean 2 milioi ibilgailu inguru matrikulatu dituzte, eta guztietan gora egin du matrikulazioen kopuruak (% 9,2, % 6,8 eta % 4,7 hurrenez hurren). Horiek horrela, azpimarratu behar da hamar herrialde horietan egin direla matrikulazio guztien % 75 inguru.

Halaber, marken merkatuari erreparatuta, 2017ko ekitaldian gora egin du PSA taldeak. Peugeot, Citroën eta DS automobilen jabe da talde hori, eta orain arte General Motorsenak ziren bi marka erosi ditu: Opel eta Vauxhall. Talde berri horrek merkatuko beste lider batekin lehian jardun beharko du, Volkswagen taldearekin, hain zuzen, azken horrek isuri kutsatzaileen eskandaluak sortutako astindua gainditu duela baitirudi, salmenten atalean behintzat: 10,7 milioi ibilgailu saldu ditu mundu osoan, eta % 5 egin du gora, aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta.

Esanak esan, azaldutako datuen arabera, 2017an ekonomia guztietako adierazleek ez dute gora egin, salmenten gorakada geldiarazi duten zenbait faktore direla eta. Faktore horien artean, aipatzekoak dira honako hauek: zenbait neurri protekzionista, programa fiskal kaltegarriak, eta zenbait herrialdetako egoera politikoarekin lotutako ziurgabetasuna (Erresuma Batua, AEB...). Horrez gainera, aurreikuspenak betetzen badira, hazkundearen oztopo horiek iraungo dute seguruenik 2018an, eta kutsatze-efektua ere agertuko da, batez ere neurri protekzionisten alorrean. Horiek horrela, sektorearen hazkundeari buruzko aurreikuspenek behera egin dute, eta % 1 ingurukoa izango dela uste da.

**110. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa**

		<i>(unitateak)</i>		
HERRIALDEA	Kontzeptua	2016	2017	% Δ 17/16
Alemania	Ekoizpena (turismoak soilik)	5.746.808	5.645.581	-1,8
	Matrikulazioak	3.708.867	3.811.246	2,8
Frantzia	Ekoizpena (turismoak soilik)	2.090.279	2.227.000	6,5
	Matrikulazioak	2.478.472	2.604.942	5,1
Espainia	Ekoizpena	2.891.922	2.848.335	-1,5
	Matrikulazioak	1.347.344	1.462.235	8,5
Erresuma Batua	Ekoizpena	1.816.622	1.749.385	-3,7
	Matrikulazioak	3.123.755	2.955.182	-5,4
Italia	Ekoizpena	1.103.305	1.142.210	3,5
	Matrikulazioak	2.050.292	2.190.403	6,8
Belgika	Ekoizpena	399.427	379.140	-5,1
	Matrikulazioak	617.854	634.111	2,6
EB-15	Ekoizpena	14.629.947	14.730.310	0,7
	Matrikulazioak <sup>(1)</sup>	16.145.220	16.563.830	2,6
Txekiar Errepublika	Ekoizpena	1.349.896	1.419.993	5,2
	Matrikulazioak	291.008	302.109	3,8
EB-27	Ekoizpena	18.595.985	18.768.153	0,9
	Matrikulazioak <sup>(2)</sup>	17.568.449	18.147.636	3,3
Errusia	Ekoizpena	1.303.544	1.551.293	19,0
	Matrikulazioak	1.404.464	1.602.270	14,1
Estatu Batuak	Ekoizpena	12.180.301	11.189.985	-8,1
	Matrikulazioak	17.865.773	17.583.842	-1,6
Mexiko	Ekoizpena	3.600.365	4.068.415	13,0
	Matrikulazioak	1.647.723	1.570.764	-4,7
Brasil	Ekoizpena	2.156.356	2.699.672	25,2
	Matrikulazioak	2.050.321	2.238.915	9,2
Kanada	Ekoizpena	2.370.271	2.199.789	-7,2
	Matrikulazioak	1.983.745	2.077.000	4,7
Japonia	Ekoizpena	9.204.813	9.693.746	5,3
	Matrikulazioak	4.970.260	5.238.888	5,4
India	Ekoizpena	4.519.341	4.782.896	5,8
	Matrikulazioak	3.669.277	4.017.539	9,5
Thailandia	Ekoizpena	1.944.417	1.988.823	2,3
	Matrikulazioak	768.788	873.506	13,6
Hego Korea	Ekoizpena	4.228.509	4.114.913	-2,7
	Matrikulazioak	1.823.041	1.798.796	-1,3
Txina	Ekoizpena	28.118.794	29.015.434	3,2
	Matrikulazioak	28.028.175	29.122.531	3,9

(1): EB-15 + EFTA eta (2): EB-28 + EFTA

Iturria: ANFAC eta OICA.

## 5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatuan, 2017ko ekitaldian ibilgailuen ekoizpenak zertxobait behera egin du (-% 1,5), eta bilakaera horrek apurtu du 2013az geroztik estatuko industriaren ezaugarri izan den goranzko joera. Hala eta guztiz ere, behera egin arren, nazioartean duen tokiari eutsi dio estatuko industriak: zortzigarren ekoizlea da munduko rankingean, eta Europako lehena da ibilgailu komertzialen arloan. Gogoan izan behar da gaur egun ere automobilgintzaren sektorea erreferentzia dela mundu-mailan; izan ere, 17 ekoizpen-zentro daude, eta 42 modelo muntatzen dira, haietatik 20 mundu guztirako eskusiba gisa. 2017an, Anfac elkarteak<sup>1</sup> emandako informazioaren arabera, automobilgintzaren sektoreko fakturazioa 64.569 milioi eurokoa izan da, eta inbertsioa, berriz, 2.160 milioi eurokoa, aurreko ekitaldikoa baino % 11 gehiago. Enplegua kontuan hartuta, sektoreak biztanleria aktiboaren % 9 hartzen du, 5.300 enplegu berri sortu dira 2017an, eta barne-produktu gordinaren % 8,6 da. Zenbateko horiek adierazten dute sektorea estatuko ekonomiaren motor nagusietako bat dela gaur egun ere.

Azterketarekin jarraituz, lehen esan bezala, azken bost urte hauetako ibilbidea kontuan hartuta, aurtengoan ibilgailuen ekoizpenak behera egin du estreinakoz; horrenbestez, ezin izan da lortu Anfac elkarteak 2017rako aurreikusitako kopuru sinbolikoa; 3 milioi ibilgailu ekoiztea, alegia. Hainbat erronkak eragin dute eta eragingo dute industriaren ibileran, gehientsuenak kanpokoak, ekoizpenaren % 81,4 (2,3 milioi ibilgailu) kanpo-merkatuetara baitoa. Lehenengoa Erresuma Batuko merkatuko salmenten etengabeko behaldiarekin lotuta dago; izan ere, aspalditik izan da estatuko industriaren hirugarren bezeroa, eta zenbait modelo ia eskusiboki merkatu horretara bideratzen dira. Brexitak sortu duen ziurgabetasunari eta liberaren balio-gutxitzeari (euroarekin alderatuta), beste faktore batzuk ere erantsi behar zaizkie, hala nola Macronek aurreikusitako inbertsioa, Frantzia automobilgintza sustatzeko, eta ekoizleen artean tokia eskatzen duten herrialdeen susperraldia (Brasil, Mexiko...). Ziurgabetasun handiko egoera horri erantsi behar zaio, bestalde, Trumpen mehatxu itzela, ibilgailuen inportazioen arantzelak % 25era igo nahi baititu. Kontuan izan behar da esportaziora nabarmen bideratutako industria dela, kanpoko salmenten mende dagoela, eta esportazioen balioa 37.000 milioi eurotik gorakoa dela; horren guztiaren ondorioz, estatuko ekonomian sektore esportatzaile nagusia da. Bestalde, matrikulazioek (1.462.235 ibilgailu) bilakaera ona izan dute (% 8,5), baina igoyeraren erritmoa moteldu egin da, besteak beste 2016ko ekainaz geroztik ez dagoelako PIVE planik.

<sup>1</sup> ANFAC: Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

Esanak esan, sektorearen adierazle nagusiak aztergai hartuta, datuei lehen begiratu ematean argi eta garbi ikusten da beherakada txikiak egin direla ekoizpenaren atalean (-% 1,5%) eta esportazioetan (-% 1,1), eta matrikulazioek, berriz, gora egin dutela (% 8,5). Ibilgailu mota aintzat hartuta, turismoen alorrean, sektoreko jarduera orokorraren ildo beretik, ekoizpenak behera egin du, eta esportazioak proportzio berean jaitsi dira (% 3 inguru); horrenbestez, 2.243.220 unitate ekoitzi dira 2017ko ekitaldian, eta 1.866.931 unitate esportatu dira. Testuinguru horretan, matrikulazioek % 7,7 gora egin dute, eta 1.234.932 unitatera iritsi dira.

Gainerako segmentuen proportzioa askoz ere txikiagoa izanik, gora egin dute esportazioetan, ekoizpenean eta matrikulazioetan ere hobera egin dute segmentu guztietan, ibilgailu industrialetan izan ezik, % 5,2 eta % 0,1 egin baitute behera, hurrenez hurren.

**111. koadroa    Automobilgintzaren Espainiako industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza**

(unitateak)

Azpisektorea	Ekoizpena			Esportazioak			Matrikulazioak		
	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ
Turismoak	2.313.391	2.243.220	-3,0	1.923.099	1.866.931	-2,9	1.147.007	1.234.932	7,7
Lur orotakoak	46.726	48.272	3,3	44.773	46.209	3,2	--	--	--
Komer. arinak eta furgoiak	466.766	495.217	6,1	348.144	369.149	6,0	172.106	198.821	15,5
Ibilgailu industrialak	65.039	61.626	-5,2	28.236	35.928	27,2	24.705	24.675	-0,1
Autobusak	0	0	--	--	--	--	3.527	3.807	7,9
<b>Guztira</b>	<b>2.891.922</b>	<b>2.848.335</b>	<b>-1,5</b>	<b>2.344.252</b>	<b>2.318.217</b>	<b>-1,1</b>	<b>1.347.344</b>	<b>1.462.235</b>	<b>8,5</b>

(\*): Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako matrikulazioak ere jasotzen ditu.

Iturria: ANFAC.

Azterketan aurrera eginez, marken banaketari erreparatuta, Renault lider eztabaidaezina da estatuko merkatuan; salmentak % 12,2 igo ostean, 100.000 unitateen muga gainditu duen fabrikatzaile bakarra da. Bigarren eta hirugarren tokietan Seat (94.461) eta Volkswagen (89.602) daude; bien artean 184.000 matrikulaziotik gora lortu dituzte; hau da, merkatuaren % 15. Kopuru horrek nabarmen gora egingo luke taldeko beste bi marka komertzialenak kontuan hartuz gero: Audi (54.939) eta Skoda (24.860). Hartara, 263.862 matrikulazio izango liriateke (% 21,3ko merkatu-kuota). Azken urtean, Seat bikain ibili da; izan ere, haren salmentek nabarmen egin dute gora (% 21,7), eta aise gainditu dituzte Volkswagenen emaitzak, hura oso gutxi igo baita (% 0,7), aurreko ekitaldian bezala. Estatuko merkatuan hurrengo tokian dagoen taldea PSA da (Peugeot, Citroën, bai eta Opel ere, oraindik orain sartu dena). Talde horrek gorakada neurritsua egin du (% 2,5), eta, 239.396 ibilgailu matrikulatuta, merkatuaren % 19 eskuratu du. Frantziar binomioan, Peugeotek lehenengo tokiari eutsi dio, 87.732 unitate salduta, eta atzean utzi du ohiko kidea, Citroën (64.743 unitate). Kide komertzial berria, Opel, antzeko kopuruetara iritsi da



(86.921 unitate), baina, hala ere, behera egin duen bakarra izan da (-% 2,8), marka nagusien artean. Esanak esan, Toyotaren bilakaera nabarmendu behar da (% 19,1), estatuko rankingean bi toki aurreratu baititu, eta Kia, Fiat eta Mercedes ere aipatzekoak dira, bi digituko igoerak egin dituzten aldetik (% 10,4, % 11,2 eta % 10,6 hurrenez hurren).

### 112. koadroa Turismoen matrikulazioa, marken arabera

Marka nagusiak	2016	2017	(unitateak) %Δ
Seat	77.643	94.461	21,7
Volkswagen	89.012	89.602	0,7
Audi	51.655	54.939	6,4
<b>Volkswagen taldea</b>	<b>218.310</b>	<b>239.002<sup>(*)</sup></b>	<b>9,5</b>
Peugeot	83.524	87.732	5,0
Opel	89.383	86.921	-2,8
Citroën	60.607	64.743	6,8
<b>PSA taldea</b>	<b>233.514</b>	<b>239.396</b>	<b>2,5</b>
Renault	90.504	101.503	12,2
Toyota	55.672	66.300	19,1
Nissan	57.087	62.403	9,3
Ford	60.114	62.398	3,8
KIA	53.412	58.949	10,4
Hyundai	50.912	55.219	8,5
Fiat	48.866	54.343	11,2
Mercedes	47.065	52.058	10,6
BMW	44.365	48.754	9,9
Dacia	44.599	46.398	4,0
Gainerako markak	142.589	148.209	3,9
<b>Guztira</b>	<b>1.147.007</b>	<b>1.234.932</b>	<b>7,7</b>

(\*): Skoda barne hartuz gero, Volkswagen taldeko 263.862 auto matrikulatu dira.  
Iturria: DGT eta ANFAC.

Kanpo-merkataritza kontuan hartuta, 2.318.217 ibilgailu esportatu dira 150 herrialde baino gehiagotara. Urteko emaitza negatiboa izan da (-% 1,1), eta guztizko ekoizpenaren % 81,4 esportatu da. Aurreko urtean beherakada txiki batzuk ikusi ziren, baina 2017an joera hori nagusitu da esportazioen jomuga nagusi diren herrialdetan. Halaber, industriak jomuga minoritarioetan merkataritza-jarduera sendotu badu ere, Europarekiko mendekotasun handia du oraindik ere. Izan ere, estatuko industriaren 10 bezero nagusiek esportazio-jardueren % 80 hartzen dute, eta horietatik gehienak europarrak dira.

113. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

Herraldea	2016	2017	%Δ
Frantzia	421.423	433.614	2,9
Alemania	425.718	404.499	-5,0
Erresuma Batua	348.199	304.931	-12,4
Italia	241.505	254.603	5,4
Turkia	135.035	117.657	-12,9
Belgika	92.846	86.086	-7,3
Herbehereak	65.797	60.946	-7,4
Austria	61.718	57.572	-6,7
Polonia	52.314	52.585	0,5
Portugal	41.691	42.266	1,4
10 herrialde nagusiak, guztira	1.886.246	1.814.759	-3,8
Gainerakoak	458.006	503.458	9,9
<b>Esportazioak, guztira</b>	<b>2.344.252</b>	<b>2.318.217</b>	<b>-1,1</b>

Iturria: ANFAC.

Zehazki, Frantzia, % 3 inguruko gorakadaren ostean, rankingeko lehenengo tokian jarri da berriro, eta Alemania bigarren tokian geratu da, ekitaldian emaitza negatiboa izan ondoren (-% 5). Azpimarratu behar da binomio horren pisu espezifikoek (% 18,7 eta % 17,4 hurrenez hurren) protagonismo handia ematen dietela esportazioen arloan. Dena dela, haietatik nahiko hurbil ageri dira beste bi herrialde hauek: alde batetik, Erresuma Batua (% 13,2), nahiz eta behera egin duen (-% 12,4), eta bestetik, Italia (% 11), 2017an % 5,4 gora egin ostean. Aurreko urtean gertatu bezala, *Brexit efektua* dela-eta, Erresuma Batuan behera jo dute *Made in Spain* ibilgailuen matrikulazioek. Egoera ahul horretan dago Turkia ere, eta hango merkatuak behera egin du (-% 12,9%), bai eta merkataritza-fluxu handienak dituzten hurrengo hiru herrialdeetako merkatuek ere: Belgika, Herbehereak eta Austria (% 7 inguruko beherakadak). Aitzitik, Polonia eta Portugal nahiko egonkor ageri dira zenbatekoetan, eta beste herrialde minoritario batzuk gero eta indartsuago daude nazioartean, hala nola Singapur, Kanada –EBrekin merkataritza askeko tratatua oraindik orain sinatzearen ondorioz– eta Argentina.

Dena dela, kanpo-salmentek zertxobait behera egin duten arren (-% 1,1) adierazi behar da automobilgintzak estatuko sektore esportatzaile nagusia izaten jarraitzen duela. Beheraldien testuinguru horretan, ordea, inportazioek % 7,7 gora egin dute, eta 20.875 milioi eurokoak izatera iritsi dira. Horiek horrela, sektoreko merkataritza-saldoa, % 10,3 behera egin arren, 16.500 milioi eurora iristen da.

## 114. koadroa Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak

(M eurotan)

Ibilgailuak	Esportazioak eta entregak Europar Batasunaren baruan			Inportazioak eta erosketak Europar Batasunaren baruan			Esportazioen eta inportazioen arteko saldoa		
	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ	2016	2017	%Δ
Turismoak	31.210	30.706	-1,6	16.336	17.661	8,1	14.874	13.044	-12,3
Kamioiak	6.218	6.305	1,4	2.696	2.811	4,3	3.522	3.493	-0,8
Ibilgailu bereziak	84,7	93,7	10,6	103,3	125,1	21,1	-19	-31	63,2
Autobusak	269	266	-1,1	248	277	11,7	21	-11	-152,4
<b>Guztira</b>	<b>37.781</b>	<b>37.370</b>	<b>-1,1</b>	<b>19.383</b>	<b>20.875</b>	<b>7,7</b>	<b>18.398</b>	<b>16.495</b>	<b>-10,3</b>

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.

Etorkizunari begira, ingurua gero eta lehiakorragoa da: Europako 230 automobil-fabrikak lehia dihardute modelo berriak muntatzeko aukera ditzaten. Testuinguru horretan Anfac elkarteak aurkeztu duen ibilbide-orriak bost ardatz hauek ditu: zerga-sistema berdea, modernoa eta zorrotzagoa; lehiakortasunari eustea, ekoizpen-kostuak hobetuz; inbertsioak sustatuko dituen berrikuntza-politika eraginkorra; hiri handiak mugikortasun iraunkorra garatzeko erreferentziazko eremu izan daitezzen bultzatzea. Dena dela, 2018rako aurreikuspenak onak dira: matrikulazioek % 8 gora egingo dutela kalkulatu da, eta hartara, orain dela hamarkada bat -krisia hasi aurretik- genituen zenbatekoak izango ditugu berriro ere.

Automobilgintzako magnitude handiak aztertu ostean, automoziorako ekipo eta osagaien Espainiako industriaren adierazle nagusien bilakaera aurkeztuko dugu, 2017an guztiek ere gora egin dutela kontuan hartuta. Lehenik eta behin, automoziorako hornitzaileek estatuko ekonomiari egiten dioten ekarpen garrantzitsua nabarmendu behar da; izan ere, haien fakturazioa 36.240 milioi eurokoa izan da (2016koa baino % 6,6 handiagoa), eta zenbateko hori BEGaren % 4 inguru da. Sektorea osatzen duten 1.000 enpresatik gora daude, 170 herrialdetan, eta 364.000 enplegu inguru sortzen dituzte, zuzenak eta zeharkakoak kontuan hartuta. Bigarrenik, automobilgintzaren bilakaeran duen eginkizun estrategikoa azpimarratu behar da; izan ere, industria laguntzailearen ekarpena gero eta garrantzitsuagoa da, eta ibilgailuaren balioaren % 75 izatera iritsi da.

**115. koadroa    Espainiako automoziorako ekipo eta osagaien industriaren kopuru nagusiak**

*(M eurotan)*

Kontzeptua	2016	2017	%Δ 17/16
Fakturazioa	34.000	36.240	6,6
Salmentak merkatu nazionalean	14.500	16.225	11,9
- Jatorrizko ekipoa	9.600	10.910	13,6
- Ordezko piezak	4.900	5.315	8,5
Esportazioak	19.500	20.015	2,6
Inbertsioak	2.000	2.200	10,0
I+G+B inbertsioak	1.350	1.530	13,3
Enplegua (langile kopurua)	212.000	224.000	6,0

*Iturria: Sernauto.*

Sektoreko zifra nagusien azterketan aurrera eginez, eta Sernautok<sup>1</sup> emandako datuen arabera, gorakada nabarmenak egin dira. Urteko bilakaera neurritsuena esportazioena izan da: % 2,6 gora egin dute esportazioek, eta 20.000 milioi euroko muga gainditu da. Testuinguru horretan, fakturazioa eta enplegua batera doaz: % 6 inguru igo dira biak, 2017ko fakturazioak (36.240 milioi euro) orain arteko markak hautsi ditu, 12.000 enplegu zuzen gehiago sortu dira, eta guztira 224.000 enplegu izatera iritsi da sektorea. Gorakadak nagusi diren egoera horretan, batez ere barne-merkatuko salmentak igo dira (% 11,9), eta 16.225 milioi euro izatera iritsi dira. Gorakada horretan eragin handiagoa izan du jatorrizko ekipoen salmenten bilakaerak (% 13,6ko igoera eta % 67,2ko partaidetza) ordezko piezen merkatuarenak baino (% 8,5eko igoera). I+G+B arloko inbertsioek (1.530 milioi euro) salmentek egindako gorakada bera egin dute (% 13,3); ekoizpen-ahalmenak areagotzeko eta hobetzeko inbertsioek % 10 egin dute gora, eta 2.200 milioi euro izatera iritsi dira.

Azken finean, adierazitako datu horiek kontuan hartuta, 2017ko ekitaldiak berresten du industria laguntzaileak garai ona bizi duela, eta *osagaien 2020ko agenda estrategikoan* sektoreak ezarritako helburu oro bete dituela. Horrek guztiak sektorearen lehiakortasun handia agerian jartzen du. Bestalde, patronalak iragarri duenez, 2018an hazkundea neurritsuagoa izango da (% 3 fakturazioan eta % 2 enpleguan), baina hurrengo urteetan ere iraungo du gora egiteko joerak.

<sup>1</sup> Automobilgintzako Hornitzaileen Espainiako Elkartea

### 5.3 SEKTOREA NAFARROAN

Automobilgintza pisu handiko sektorea da Nafarroako ekonomian: 11.500 pertsona enplegatzen ditu, 5.700 milioi euro inguruko fakturazioa du, eta Nafarroako barne-produktu gordinaren % 7 inguru da<sup>1</sup>. Enplegu gehien sortzen duten sektoreen zerrendan bigarren tokian ageri da, nekazaritzako elikagaien ondoren, eta esportazioen alorrean aktiboena da. 2017an automobilgintzaren esportazioak 3.234,4 milioi eurokoak izan ziren, hau da, Nafarroak esportatutako guztiaren % 40, nahiz eta % 13,8 behera egin, 2016ko datuekin alderatuta.

Azpinarratu behar da Volkswagen Nafarroak protagonismo handia duela, industria hornitzailearen enpresa traktorea delako, eta sektoreko magnitude nagusietan eragin itzela duelako; izan ere, sektoreko fakturazioaren eta enpleguaren ia erdia dagokio. Enpresaren aldagai nagusiei begiratu bat emanez gero, badirudi 2017ko ekitaldia ez dela biziena izan ekoizpenaren aldetik (-% 17,7), ezta arlo ekonomikoan ere (-% 12,9%), baina beherakada horien zioa da lantegia egokitu behar izan dela modelo berri bat ekoizten hasteko. Hortaz, urte ona izan da enpleguaren aldetik; izan ere, plantillak nabarmen gora egin du (% 7,6), 4.893 langile izatera iritsi arte, eta inbertsioen gorakada are eta handiagoa izan da (% 38,8): 2016an 165,8 milioi euro izatetik 2017an 230,1 milioi izatera. Datu horiek aintzat hartuta, 2017 aldaketa-urtea izan da enpresa nafarrantzat: ekainaren 24ean Polo A05 modeloko azken automobila muntatu zen, horrenbestez itxi zen 2009an hasitako produkzio-zikloa, 2,4 milioi unitate egin ondoren, eta modelo berri baten fabrikazioa hasi zen: VW270.

Horiek horrela, eta automobilgintzaren adierazle nagusien azterketarekin jarraituz, datuen lehen irakurketak argi eta garbi adierazten du 2017ko ekitaldian hazkunde neurritsua egin dela, bai enpresa-egituran, bai sektoreko enpleguan. Horrenbestez, enpresen errolda 102 enpresa biltzetik 103 biltzera igaro da, eta enpleguak, % 1,7 gora egin ostean, 12.000 enpleguen muga gainditu du. Dena dela, sektoreak industria-enpleguan duen ehunekoak zenbait hamarren behera egin du (% 18,8tik % 18,4ra), industriak, oro har, bilakaera hobea izan duelako (% 3,7ko igoera) automobilgintzak baino. Hobera nabarmen egin duten sektore horien artean, honako bi hauek gailendu dira: elikagaiak, edariak eta tabakoa (14.876 enplegu eta % 4,5eko hazkundera), eta produktu metalikoak (11.001 enplegu eta % 5,7ko hazkundera).

<sup>1</sup> Nafarroako Automozioren Klusterraren Elkartek (ACAN) argitaratutako "Diagnóstico y oportunidades del sector" azterlanean adierazitako informazioaren arabera.

**116. koadroa Enpleguaren eta enpresa-kopuruaren bilakaera<sup>(\*)</sup>**

Kontzeptua	2013	2014	2015	2016	2017
Automobilgintzako enpresa-kopurua	103	108	105	102	103
Automobilgintzako enplegua	11.604	11.929	11.988	11.969	12.169
<b>Industriako enplegua, guztira</b>	<b>60.264</b>	<b>61.086</b>	<b>62.429</b>	<b>63.726</b>	<b>66.061</b>
Automobilg. enpl. industria-enpleguarekiko (%)	19,3	19,5	19,2	18,8	18,4

(\*): Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datuak. Garraio-materialen enpresak.  
Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

Enpresen erroldaren bilakaera aztergai hartuta, haren osaera ez da ia aldatu, mugimendu bakar bat baitago: 5 langile baino gutxiagoko enpresen kopurua 30 izatetik 31 izatera igaro da. Gainerako segmentuetan ez dago aldaketarik; hau da, 6 eta 50 langile bitarteko 37 enpresa daude, 51 eta 100 langile bitarteko 13 enpresa, 101 eta 500 langile bitarteko 19 enpresa, eta handienen multzoan, 500 langiletik gorakoetan, 3 enpresa daude oraingoan ere.

Enpleguari dagokionez, lehen esan bezala, bilakaera positiboa izan du, aurreko urtean baino 200 langile gehiago izan baitira. Hortaz, 2017an 12.169 langile aritu dira automobilgintzan; horietatik 43 autonomoak dira, eta erdia (6.200) hiru enpresa handietan lanean ari da.

**117. koadroa Ibilgailu automobilen eta haien ordezkio piezen eraikuntza: enpresen egitura eta kopurua<sup>(1)</sup>**

Enplegu-estratuak	Enpresa kop.	Enplegua
≤ 5	31	55
6-50	37	967
51-100	13	908
101-500	19	3.996
>500	3	6.200
<b>GUZTIRA</b>	<b>103</b>	<b>12.169<sup>(2)</sup></b>

(1): Informazioa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatutako enpresen eta langileen batezbestekoari dagokio. Garraio-materialen enpresak.

(2): 12.169 landunen enplegu osoaren zifra langile autonomoekin osatzen da; horien kopurua 43 da.

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

**118. koadroa Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2017**

Enpresa	Enplegua	Udalerrria
Volkswagen Navarra SA	4.893 <sup>(*)</sup>	Aratzuri
TRW Automotive España SL	500 baino gehiago	Iruñea
KYB Suspensions Europe SA	500 baino gehiago	Asiain
Merit Automotive Electronics Systems SL	500 baino gehiago	Iruñea
Dana Automoción SA	251 eta 500 artean	Iruñea
SAS Autosystemtechnik SA	251 eta 500 artean	Aratzuri
Tecnoconfort SA	251 eta 500 artean	Iruñea
Gestamp Navarra	251 eta 500 artean	Iruñea
Manufacturas de Aluminio Pamplona	251 eta 500 artean	Orkoien
Faurecia Emcon Technologies Spain SL	251 eta 500 artean	Orkoien
KYB Steering Spain SA	101 eta 250 artean	Orkoien
Grupo Antolin Navarra SA	101 eta 250 artean	Aratzuri
Mecanizados Industria Auxiliar SA	101 eta 250 artean	Iruñea
TI Automotive Pamplona SA	101 eta 250 artean	Aitzoain
Alcala Industrial SA	101 eta 250 artean	Galar
Sigma Brakes SA	101 eta 250 artean	Tutera
Ibérica de suspensiones SL	101 eta 250 artean	Altsasu
HBPO Automotive Spain SLU	101 eta 250 artean	Oltza zendea
Delmon Group Inepsa SA	101 eta 250 artean	Iruñea
Maier Navarra SL	101 eta 250 artean	Iraizotz
Navarra de estampación e inyección	101 eta 250 artean	Agoitz
Schnellecke Logistics España SA	101 eta 250 artean	Aratzuri
Zertan SA (Cebi taldea)	101 eta 250 artean	Lizarra

(\*): Plantilla (abenduren 31n). Volkswagen Nafarroaren 2017ko memoriako datuak.

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Enpresen Enpresa Direktorioko informazioa eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren informazioa erabilita.

Enpresa-ehunaren ezaugarriak aztertzen jarraituz, Nafarroak hornitzaile-sare zabal bat dauka (Tier 1, 2 eta 3), maila handikoa eta oso lehiakorra, malgutasuna, moldagarritasuna eta hurbiltasuna nagusi diren sektorean diharduena. Sektoreak berrikuntzaren alde egin duen apustuaren adierazle da I+G+B alorrean egindako inbertsioa, 2017an 31 milioi euro ingurukoa izan dena, eta 34 milioi eurora ere iritsiko litzateke Volkswagen kontuan hartuz gero.

**119. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, osagaiak eta osagarriak\***

Kontzeptua	(M eurotan)				
	2013	2014	2015	2016	2017**
Automobilgintzako esportazioak (1)	3.369,8	3.617,7	3.724,9	3.751,6	3.234,4
Esportazioak, guztira (2)	7.448,1	8.141,1	8.539,7	8.437,6	8.073,7
(1)/(2)	45,2	44,4	43,7	44,5	40,1
Automobilgintzako inportazioak	900,1	1.183,9	1.020,6	1.005,3	929,3

(\*): Muga-zergen 87. kapitulua: Ibilgailu automobilak, traktoreak, zikloak eta lurreko gainerako ibilgailuak, haien osagaiak eta osagarriak.

(\*\*): Aurrerapen-datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Kanpo-merkataritza sakonago aztertuz, lehen esandakoaren ildotik, sektoreko esportazioak 3.234,4 milioi eurokoak izan dira, eta 2017ko ekitaldia negatiboan itxi da (-% 13,8). Joera hori Nafarroako esportazio guztietara hedatu da, maila neurritsuagoan ordea. Guztira, 8.073,7 milioi eurokoak izan dira esportazioak, eta % 4,3 behera egin dute, 2016ko datuekin alderatuta. Inportazioei erreparatuta, automobil, traktore, ziklo eta gainerako ibilgailuei dagozkienak milioi eurotik behera daude, % 7,6ko jaitsieraren ostean; hala eta guztiz ere, lehenengo tokian daude Nafarroako rankingean, inportazio guztien % 21 baitira.

Esportazioen banaketari dagokionez, Nafarroako esportazioen % 70 inguru EB-28ra bideratzen dira, eta Europako gainerako herrialdeak kontuan hartuz gero % 75eraino igoko litzateke proportzioa. Alemania eta Frantzia sendotu egin dira Nafarroako enpresen merkataritza-bazkide nagusi gisa, bai eta automobilgintzan eta osagaien industrian ere. Izan ere, kanpoko salmenten % 24k Alemania dute jomuga, bai turismoetan eta gainerako ibilgailuetan bai osagaietan eta osagarrietan, partida horietan esportazioen bolumenak % 16,2 eta % 14,2 behera egin arren. Frantzia bigarren tokian dago, aipatutako arlo horietan % 18,1eko eta % 20ko pisu espezifikoak ditu, eta bilakaerak kontrakoak izan dira: lehenengoak zertxobait behera egin du (-% 2), eta bigarrenak pixka bat gora (% 5,6). Italia hirugarren jomuga da automobilen muntaketarentzat (% 17,2 du eta % 4,3 egin du behera), eta laugarren jomuga industria laguntzailearentzat (% 4,8 eta -% 10,9), Hegoafrikak aurea hartu baitio (% 8,4ko sartzea, eta merkataritza-jardueraren % 9,2ko igoera). Halaber, aipatzekoa da Erresuma Batuen jokaera: automobilen muntaketarentzat laugarren tokian jarraitzen badu ere, % 26 behera egin du haren eskaerak, eta industria laguntzaileari dagokionez, bosgarren tokian dago, eta % 4,4 behera egin dute haren inportazioek. Esanak esan, azpimarratu behar da, automobilgintzak merkatuak dibertsifikatzeko ahaleginak egin baditu ere, merkataritza-jardueraren kontzentrazioa oso handia dela, eta benetan arriskutsua, esportazioetan proportzio handiagoa duten zenbait herrialdek azken urteetan izan duten bilakaera kontuan hartuta. Izan ere, hiru herrialderen eskuetan dago automobilen muntaketaren arloko esportazioen % 60, eta beste hiru herrialderen eskuetan, berriz, industria laguntzailearen kanpo-merkataritzaren % 52,5.

Kapitulu hau amaitzeko, Volkswagen Nafarroak, foru-erkideko automobilgintzaren ikurrak, izan dituen emaitza nagusien berri emango dugu. Lehen adierazi bezala, 2017ko ekitaldiaren bereizgarri izan dira lantegian egin dituzten barne-aldaketak, fabrikazio-lerroak modelo berriaren ekoizpenari egokitzeko, eta horretara bideratu da inbertsioen zati handi bat. Horiek horrela, eta ekoizpenaren azterketari ekinez, 244.127 ibilgailu egin dira, eta kopuru horrek beherakada nabarmena adierazten du (% 17,7), diru-sarreraren atalean gertatutakoarekin bat eginez: 2.560,8 milioi euro, eta % 12,9ko beherakada.



Testuinguru horretan, zergen ondorengo emaitzak nabarmen behera egin du (-% 25), eta urtean sortutako cash-flow gordina 120,5 milioikoa izan da (2016koa baino % 3,1 txikiagoa). Alabaina, oso bilakaera ona izan dute bi adierazle hauek: alde batetik, inbertsioa, 2017ko ekitaldian 230,1 milioikoa izan dena (aurreko urtekoa baino % 38,8 gehiago), eta bestetik, enplegua, % 7,6 handitu baita plantilla, hau da, 145 pertsona gehiago Landabengo instalazioko plantilla sendotzeko, pixkanaka 5.000 langile izatera iristeko bidean.

#### 120. koadroa Volkswagen Navarra SAREN jarduera-magnitute nagusiak

*(M eurotan)*

Kontzeptua	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Ekoizpen-jarduera				
-Ekoizpena (ibilgailuak)	298.358	296.799	244.127	-17,7
Plantilla (abenduaren 31n)	4.402	4.547	4.893	7,6
Diru-sarrerak	2.996,7	2.939,7	2.560,8	-12,9
Emaitzak zergen ondoren	60,8	74,5	55,9	-25,0
Cash-flow gordina	124,9	124,3	120,5	-3,1
Inbertsioak	129,4	165,8	230,1	38,8

*Iturria: Volkswagen Navarra SA.*

Etorkizunari begira, Volkswagen taldeak Nafarroako instalazioan 1.000 milioi euroko inbertsioa egiteko konpromisoa hartu du bere gain, alde batetik, lantegia prestatzeko, Polo modelo berria ekoizte aldera, eta bestetik, bigarren modelo bat estreinakoz sartzeko: T-Cross modelo. Beraz, hurrengo urteetarako aurreikusitako produktio-bolumena 350.000 unitate ingurukoa izan daiteke. Horrek ondorio oso onak izango lituzke enpresaren magnitute nagusietan, bai eta hornitzaileen multzoan ere.

## 6. PAPERERA

### 6.1 NAZIOARTEKO EGOERA

CEPI (Confederation of European Paper Industries) konfederazioaren datuetatik abiatuta, Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen ASPAPEL Elkarteak adierazi du CEPIko kideen herrialdeetako paper- eta kartoi-ekoizpena 92.271 mila tonakoa izan dela 2017an, eta urtetik urterako hazkundea % 1,5koa izan dela. Beraz, esan daiteke jarraipena eman zaiola aurreko ekitaldian hasitako susperraldiari (beherakada ugariren ondoren, 2016an ez zen jaitsierarik izan).

**121. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)**

Urtea	m Tm	% Δ
2012	92.081	-1,6
2013	91.128	-1,0
2014	90.949	-0,2
2015	90.872	-0,1
2016	90.982	0,0
2017 (*)	92.271	1,5

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Paper-ekoizpenaren herrialde-banaketari begiratuta eta 2016ko datuen arabera (ez dago, kasu zehatz honetan, 2017ko daturik), munduan ekoizten den paperaren % 22,1 produzitu dute CEPI osatzen duten herrialdeek. Asia da ekoizle handiena (paper guztiaren % 46,4 ekoizten du). Bestalde, Ipar Amerikak ekoizpenaren % 20 hartzen du, hau da, CEPIko herrialdeek baino zertxobait gutxiago.

CEPIko kideen herrialdeetan, gora egin dute paperaren esportazioek eta kontsumoak 2017an (esportazioek % 5,2ko igoera izan dute eta kontsumoak % 0,5eko hazkundea); eta behera egin dute, aldiz, inportazioek (-% 0,4ko jaitsiera). Hain zuzen ere, esportazioak 20.127 mila tonakoak izan dira. Latinoamerikara eta Asiara bideratutako esportazioek nabarmen egin dute gora (% 14,5eko eta % 11ko igoera, hurrenez hurren); Europara eta Ipar Amerikara bideratutakoek, berriz, igoera baxuagoa izan dute (% 3,4ko eta % 2,7ko gorakada, hurrenez hurren); eta gainerako tokietara bideratutakoek behera egin dute. Bestalde, kontsumoa 77.714 mila tonakoa izan da, eta inportazioak 5.668 mila tonakoak. Inportazioek, oro har, behera egin dute, Europako gainerako tokietatik egin direnek izan ezik; inportazio horiek % 2,4ko gorakada izan dute.

Horrela, bada, CEPI osatzen duten herrialdeetan 14.459 mila tonako saldo positiboa izan du paperaren merkataritza-balantzak 2017an; eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 7,5 igo da balantza hori (2016an, 13.451 mila tonako superabita izan zuen).

### 122. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka

*(m tona)*

Herrialdea	2016*	Gutzizkoaren %
Alemania	22.633	5,5
Austria	4.995	1,2
Belgika	2.077	0,5
Bulgaria	262	0,1
Danimarka	60	0,0
Espainia	6.219	1,5
Finlandia	10.145	2,5
Frantzia	7.984	1,9
Grezia	227	0,1
Hungaria	758	0,2
Italia	9.001	2,2
Holanda	2.671	0,7
Polonia	4.614	1,1
Portugal	2.281	0,6
Erresuma Batua	3.676	0,9
Txekiar Errepublika	795	0,2
Eslovakia	783	0,2
Suedia	10.103	2,5
Norvegia	1.099	0,3
Suitza	1.234	0,3
Brasil	10.464	2,5
Kanada	10.117	2,5
Txina	111.288	27,1
Ameriketako Estatu Batuak	72.120	17,6
India	11.257	2,7
Japonia	26.279	6,4
Errusia	8.539	2,1
<b>Mundua osorik**</b>	<b>410.760</b>	<b>100,0</b>

(\*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2016ko informazioa baino ez dugu.

(\*\*): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarte.

CEPI esparruan, orearen ekoizpena 37.795 mila tonakoa izan da, eta ekoizpen horrek % 1,7 egin du gora aurreko ekitaldiarekiko. 2016ko datuen arabera (ez dago 2017ko daturik), CEPIko kideek orearen ekoizpen mundialaren % 20,6 produzitu dute, Asiak ekoizpenaren % 21,5 eta Ipar Amerikak, berriz, ekoizpenaren % 35,6.

123. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera

Herraldea	2016*	Gutzizkoaren % (m tona)
Alemania	2.485	1,4
Austria	1.655	0,9
Belgika	500	0,3
Bulgaria	204	0,1
Danimarka	0	0,0
Espainia	1.677	0,9
Finlandia	10.782	6,0
Frantzia	1.720	1,0
Grezia	0	0,0
Hungaria	0	0,0
Italia	303	0,2
Holanda	45	0,0
Polonia	1.145	0,6
Portugal	2.624	1,5
Erresuma Batua	220	0,1
Txekiar Errepublika	439	0,2
Eslovakia	680	0,4
Suedia	11.140	6,2
Norvegia	874	0,5
Suitza	113	0,1
Brasil	18.710	10,4
Kanada	16.500	9,1
Txina	10.618	5,9
Ameriketako Estatu Batuak	47.806	26,5
India	1.579	0,9
Japonia	8.624	4,8
Errusia	8.104	4,5
<b>Mundua osorik**</b>	<b>180.413</b>	<b>100,0</b>

(\*): Herraldeen araberako banaketaren kasuan, 2016ko informazioa baino ez dugu.

(\*\*): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarteak.

## 6.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPPEL elkartearen datuen arabera, Espainiako paper- eta kartoi-ekoizpena 6.217,8 mila tonakoa izan da 2017an, eta datu hori ez da apenas aldatu aurreko ekitaldiarekiko (ezdeusa izan da urtetik urterako aldakuntza); CEPI eremuan, aldiz, ekoizpenak % 1,5 egin du gora.

Bestalde, Espainiako paper-inportazioak 3.266,6 mila tonakoak izan dira, eta % 0,3 egin dute gora; esportazioak, aldiz, 2.681,4 mila tonakoak izan dira, eta -% 5,3 egin dute behera. Horrez gainera, paperaren ageriko kontsumoak (6.802,9 mila tonakoak) % 2,4ko hazkundea izan du. Hori horrela, paperaren Estatuko merkataritza-balantzak saldo negatiboa izan du: -585,2 mila tonako jaitsiera izan du 2017an (-425,9 mila tonako defizita izan zuen 2016an).

**124. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainiakoa, guztira**


(m Tm)

Urtea	Ekoizpena	Inportazioak	Esportazioak	Ageriko kontsumoa
2008	6.414,3	3.815,9	2.964,6	7.265,6
2009	5.679,2	3.323,2	2.809,8	6.192,4
2010	6.193,4	3.316,9	3.062,4	6.447,9
2011	6.202,6	3.180,4	2.955,3	6.427,7
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5
2017	6.217,8	3.266,6	2.681,4	6.802,9

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

**17. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian**

(Indizea: 1985=100)



Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Aurreko urteetan bezala, 2017an ere Europar Batasuna da Estatuaren bazkide komertzial nagusia; inportazioen % 87,4 eta esportazioen % 58,7 hartzen baititu. Zehazki, Frantziak eta Finlandiak kanpo-erosketen % 18,1 eta % 17 hartzen dituzte, hurrenez hurren; eta Portugalek eta Frantziak, kanporako salmenten % 22,1 eta % 18,8 hurrenez hurren.

Paper-mota guztiek ez dute bilakaera bera izan Espainian. Ekoizpenari begiratuta, zenbait paper-motak gora egin dute; esateko baterako, kartoi iztukatuak (% 12,2ko

igoera), beste paper batzuek (% 9,7ko hazkundea), uhin-kartoiak (% 2,9ko gorakada) eta beste ontzi eta enbalaje batzuek (% 0,7ko hazkundea). Beste paper-mota batzuek, aldiz, behera egin dute ekoizpenean, hala nola prentsarako, inprimatzeko eta idazteko paperek (-% 10,7ko jaitsiera) eta higieniko eta sanitarioak (-% 2,7ko beherakada).

**125. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper-motaren arabera**
*(m Tm)*

Mota	Ekoizpena		Inportazioak		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16
Prentsa, inprimatze eta idazteko papera	1.299,5	-10,7	1.183,4	-3,0	1.105,9	-9,0	1.307,0	-5,4
Higienikoak eta sanitarioak	704,1	-2,7	154,1	0,4	168,4	-0,3	689,8	-2,6
Uhin-kartoirako	2.963,7	2,9	954,5	-0,4	799,3	-8,5	3.118,8	5,2
– Uhinetarako	1.363,0	2,2	335,4	-2,7	307,1	-14,3	1.391,4	5,4
– Test Liner eta Kraft Liner	1.185,7	5,7	587,3	0,3	433,1	-2,8	1.339,8	6,2
– Bikoak eta larruak	415,0	-2,3	31,8	13,5	59,1	-15,6	387,7	1,2
Kartoi iztukatua	299,3	12,2	568,3	8,0	148,1	13,5	719,5	8,6
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	496,5	0,7	318,2	7,3	367,7	7,0	447,0	0,2
Beste paper batzuk	524,7	9,7	88,2	-13,5	92,1	-5,9	520,8	8,0
<b>Papera eta kartoa, guztira</b>	<b>6.217,8</b>	<b>0,0</b>	<b>3.266,6</b>	<b>0,3</b>	<b>2.681,4</b>	<b>-5,3</b>	<b>6.802,9</b>	<b>2,4</b>

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.*

Jarraian, paper-orearen datuak aztertuko dira. 2017an, % 1,7ko hazkundea izan du paper-orearen ekoizpenak (1.699,5 mila tona ekoiztu dira); eta era berean, gorakada izan dute esportazioek (962 mila tona, aurreko urtean baino % 3,6 gehiago). Behera egin dute, berriz, inportazioek (1.139,4 mila tona, -% 2,3ko beherakada) eta ageriko kontsumoak (1.876,9 mila tona, -% 1,9ko jaitsiera).

Horrela, paper-orearen Estatuko merkataritza-balantzak saldo negatiboa izan du 2017an, -177,4 mila tonako beherakada izan du (2016an, -237,3 mila tonako saldo negatiboa); eta estaldura-tasa % 84,4koa izan da (aurreko ekitaldian, % 79,6koa).

Ore mekanikoa eta kimikoa da gehien erabiltzen den ore-mota. Guztizko ekoizpenaren % 98,5 hartzen du; eta ore-mota hori nagusi da esportazio eta inportazioetan, bai eta ageriko kontsumoan ere. Horretaz gainera, gora egin dute ore mekanikoaren eta kimikoaren kanpo-salmentek (% 3,3ko igoera, 941 mila tona) eta ekoizpenak (% 1,3ko gorakada, 1.673,8 mila tona); eta behera egin dute, aldiz, kanpo-erosketek (-% 2ko jaitsiera, 1.097,4 mila tona), eta ageriko kontsumoak (-% 1,7ko beherakada, 1.830,1 mila tona).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa 5.020 mila tonakoa izan da 2017an, eta -% 3,4ko beherakada izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

**126. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore-motaren arabera**

(m Tm)

Mota	Ekoizpena		Inportazioak		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16	2017	% Δ 17/16
Ore mekanikoa eta kimikoa	1.673,8	1,3	1.097,4	-2,0	941,0	3,3	1.830,1	-1,7
Erdikimikoa eta beste batzuk	25,7	9,0	42,0	-9,4	20,9	19,2	46,8	-10,7
Ore birjinak, guztira	1.699,5	1,4	1.139,4	-2,3	962,0	3,6	1.876,9	-1,9
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.560,1	-3,2	1.521,6	-7,1	1.061,7	-7,9	5.020,0	-3,4

Iturria: Espainiako Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Elkarte.

Txosten honen aurreko argitalpenetan bezala, jarraian berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko da, adierazle hauek oinarri hartuta: ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 67koa 2017an eta % 70,9koa 2016an; erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): % 80,7koa 2017an eta % 83,6koa 2016an; birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 73,8koa 2017an, eta aurreko ekitaldian, berriz, % 78,2koa.

Estatuko datuak CEPIkoekin alderatuta, Espainiako paperaren sektorean ekoizpenak ez du aldaketarik izan (hazkundera ezdeusa izan da Estatuan) eta CEPIn, berriz, % 1,5eko hazkundera egon da. Esportazioek, aldiz, behera egin dute Estatuan (-% 5,3ko beherakada) eta gora, CEPIn (% 5,2ko igoera). Bestalde, inportazioek aldaketak izan dituzte; esate baterako, Estatuan % 0,3ko hazkundera izan da, eta CEPIn, -% 0,4 egin dute behera.

**6.3 SEKTOREA NAFARROAN**

Espainiako paperaren eta kartoiaren ekoizpenak ez du ez igoerarik ez beherakadarik izan 2017an; baina egoera bestelakoa izan da Nafarroan. Foru Komunitatean, -% 0,6ko jaitsiera izan du paperaren sektoreak, eta 488,9 mila tona ekoitzi dira, guztira. Hori horrela, Nafarroak eutsi egin dio Estatuko paperaren sektorean duen proportzioari (% 7,9 2016an eta 2017an).

**127. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Nafarroan**

(m Tm)

Kontzeptua	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Papera eta kartoia, guztira	499,2	492,0	488,9	-0,6
Orea, guztira	--*	--*	--*	--

(\*): Informazioa ez dago eskuragarri, datuak isilpekoak direlako.

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Kanpo-merkataritzako jarduerari eta jarduera horren datu ekonomikoei begiratuta, Nafarroako paper-eta ore-esportazioek % 21,2ko hazkundera izan dute eta 289.500 mila euroko bolumena. Inportazioek, berriz, % 7,6ko igoera eta 124.200 mila euroko bolumena. Ondorioz, 165.300 mila euroko suberabit komertziala izan du Nafarroak (123.400 mila eurokoa izan zen 2016an).

**128. koadroa Paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan**
*(M eurotan)*

Urtea	Esportazioak	% Δ	Inportazioak	% Δ	Merkataritza-balantza	% Δ	Estaldura-tasa
2013	236.450	-7,9	132.220	3,7	104.230	-19,3	178,8
2014	238.700	1,0	82.600	-37,5	156.100	49,8	289,0
2015	249.400	4,5	131.180	58,8	118.220	-24,3	190,1
2016	238.800	-4,3	115.400	-12,0	123.400	4,4	206,9
2017*	289.500	21,2	124.200	7,6	165.300	34,0	233,1

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta.

Atalari amaiera emateko, jarraian Nafarroako paperaren sektoreko enpresa nagusiak aurkeztuko dira, bai eta enpresa bakoitzaren kokapena eta ekoizten duten paper-mota ere.

**129. koadroa Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan**

Enpresak	Kokapena	Jarduera
Sarriopapel y Celulosa, S.A.	Leitza, Zornotza, Uranga	Inpresiorako eta idazketarako p. eta ore
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, Kraft papera, uhin-kartoiak eta zakuak
Sca Hygiene Spain	Allo	Tisu papera
Ebroko paper-fabrika	Viana	Paperaren fabrikazioa eta enbalajeak
Newark San Andrés, S.L.	Atarrabia	Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa
Bertako, S.L.	Uharte	Paperaren eta uhin-kartoiaren fabrikazioa
Papertech, S.L.	Tutera	Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa
Papeles el Carmen, S.A.	Altzuza	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Ibertissue, S.L.	Buñuel	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Videcart, S.A.	Ibiriku	Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa

Iturria: Memoriak eta Nafarroako Ganbera.



## 7. ERAIKUNTZA

2017. urtean, eraikuntzaren sektoreak eman du baikortasunerako daturik Nafarroan, igoeraren bidea urratu baitute sektore horretako zenbait adierazlek. Enpleguaren datua da horietako bat, 2017an lehen aldiz igo baita, 10 urteren ondoren. Igoera, gainera, nabarmena izan da. Urrun dira oraindik krisiaren aurreko bolumenak, baina susperraldi baten sintomak erakusten dituzte etxegintzak, etxebizitza libreek eta lizitazio ofizialak; hori horrela, Nafarroako Foru Komunitatea da, Espainia osoan, adierazleen horietan gehien hazi den lurraldeetako bat.

### 130. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

(% Δ)

Kontzeptua	Nafarroa		Espainia	
	2016	2017	2016	2017
Enplegua	-27,2	21,0	0,01	5,1
Zementuaren barne-salmentak (*)	-2,3	9,3	-2,7	13,5
Amaitutako etxebizitzak	-7,6	42,0	-13,3	31,0
Hasitako etxebizitzak	34,4	39,6	28,1	8,3 <sup>(**)</sup>
Lizitazio ofiziala	-62,4	229,2	-0,7	39,3

(\*): *Oficemeneko enpresa elkartuek Ipar Eremuan (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) egindako zementu grisaren barne-salmentak dira.*

(\*\*): *Espainian, hasitako etxebizitza babestuen gaineko informazioa bakarrik dago.*

*Iturria: INE, Seopan eta Oficemen.*

Hori horrela, sektoreko magnitude handien lehen begirada batek esaten digu magnitude horiek gora egin dutela, bai Nafarroan bai Espainian, eta bilakaera, oro har, hobea izan dela Nafarroako Foru Komunitatean. Urte askoren ondoren, enpleguaren urte amaierako datu positiboa izan da Nafarroan (% 21). Espainian ere positiboa izan da datua, baina igoera askoz ere apalagoa izan da (% 5,1). Zementuaren barne-salmentari begiratuta, Oficemen<sup>1</sup> elkarteak emandako datuak nabarmendu behar dira, eta datu horiek adierazten dute zementu grisaren barne-eskaerak % 9,3 egin duela gora Ipar Eremuan (eremu horretan dago Nafarroa) eta % 13,5 egin duela gora Estatu osoan (hurrenez hurren, 1,2 milioi tonakoa izan da lehen eremuan, eta 12 milioi tona ingurukoa bigarreanean). Eskaerak susperraldia izan duen arren, esan behar da susperraldi nahiko apala dela eta ez duela arintzen sektorearen egoeran, jarduera-bolumenaren % 80 galdu baitu 2007. urteaz geroztik. Nabarmendu behar da, alde horretatik, Obra zibilean lizitatu diren bolumenak historiako txikiak direla oraindik ere, eta obra horiek kontsumitzen dute, hain justu, zementu gehien. Lizitazio ofiziala da hurrengo adierazlea, eta adierazle horrek igoera esponentziala izan du 2017. urtean Nafarroan. Igoera txikiagoa izan da

<sup>1</sup> Espainiako Zementu Fabrikatzaileen Elkarteak.

Estutuan, baina handia hala ere (% 39,3koa). Igoera askoz ere handiagoa izan da Nafarroan, inbertsio handia egin delako Kantauri Isurialdearen eta Mediterraneoaren bitarteko korridorean egitekoa den Zaragoza-Iruñea Abiadura Handiko Trenbidean, eta inbertsio horrek baliabide-igoera handia ekarri du urte amaieran. Goranzko joera hori bera izan dute hasitako etxebizitzek; izan ere, % 39,3 egin du gora horien kopuruak, eta hori bera gertatu da amaitutako etxebizitzekin (% 42). Amaitutako etxebizitzek igoera apalagoa izan da Estatuan (% 31koa), eta ez daude eskura Estatuan egiten hasiak diren etxebizitzek gainerako datuak.

**131. koadroa    Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa**

(m euro)

Eremua	2016				2017			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Nafarroa	3,0	39,1	33,5	75,5	91,4	104,5	52,6	248,6
Espania	3.146,82	2.844,18	3.254,94	9.245,95	3.827,43	3.936,63	5.110,97	12.875,03

Iturria: Seopan.

Erakunde lizitatuaren arabera aztertzen baldin badira obra publikoen datuak, ikusten da lizitatu bolumenek gora egin dutela Nafarroako eta Estatuko maila administratibo guztietan; hala ere, aldeak daude aldaketa horien nolakoan, eta horrek gorabehera handiak erakusten ditu lizitatuaren mapan. Estatuan, Administrazio Zentralak % 21,6 handitu du lizitatu bolumena, baina ildo orokorrari begiratuta, Administrazio horrek lizitatu bolumenak behera egin du pixkanaka, harik eta bolumen osoaren % 29,7a iritsi arte 2017. urtean (bolumen hori % 34koa izan zen 2016an). Gobernu Zentralaren jardura apaldu egin baldin bada ere, handitu egin dute inbertsio-eritmoa bai autonomia-erkidegoetako administrazioek (% 38,5eko igoera egin dute urtetik urtera eta bolumen osoaren % 30,6 izan dira) bai toki-administrazioek (% 57ko igoera egin dute eta bolumen osoaren % 39,7 izan dira). Lizitazio publikoaren mapak, beraz, ezohiko egoera bat erakusten du. Nafarroan egiten baldin badugu analisi hori bera, ikusten da Administrazio Zentralak nabarmen handitu duela foru-komunitatean egindako inbertsioak (% 2.946,7). Aurreko urtean, 2016an, minoritarioa zen bere partaidetza (% 4koa), baina partaidetza hori urte honetan lizitatu bolumen osoaren % 36,8koa izan da. Dinamikoa izan da lizitazio publikoaren beste bi administrazioen jardura ere; hori horrela, igoera handia izan du Administrazio Autonomikoaren jarduerak (% 167,4koa), eta apalagoa izan da tokiko administrazioaren igoera (% 57koa). Lizitazio-balio osoari begiratuta, Administrazio Autonomikoak % 42,1 lizitatu du, eta toki-administrazioak, berriz, % 21,2 (proportzioak, 2016an, % 51,8koa eta % 44,4koa ziren, hurrenez hurren).

## 132. koadroa Lizitazio ofiziala, obra moten arabera (2017)

Obra mota	Nafarroa			Espainia		
	m euro	% Δ 17/16	%	m euro	% Δ 17/16	%
Etxebizitzak	20,8	20.680,0	8,4	501,0	127,9	3,9
Gizarte Ekipamendua	57,3	134,9	23,1	2.445,3	52,1	19,0
Gainerako Eraikuntza	10,4	14,3	4,2	1.647,5	16,6	12,8
<b>Eraikuntza, guztira</b>	<b>88,5</b>	<b>163,4</b>	<b>35,6</b>	<b>4.593,8</b>	<b>41,8</b>	<b>35,7</b>
Garraioak	109,6	1.104,7	44,1	4.955,5	31,8	38,5
Urbanizazioak	24,8	55,0	10,0	1.629,6	42,3	12,7
Hidraulikoak	21,2	78,2	8,5	1.372,4	54,5	10,7
Ingurumena	4,4	-11,8	1,8	323,7	53,3	2,5
<b>Obra Zibila, guztira</b>	<b>160,1</b>	<b>281,1</b>	<b>64,4</b>	<b>8.281,2</b>	<b>37,9</b>	<b>64,3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>248,6</b>	<b>229,2</b>	<b>100,0</b>	<b>12.875,0</b>	<b>39,3</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Seopan.*

Inbertsioak non egin diren aztertuko dugu orain, eta adierazi behar da lizitazio-inbertsioen banaketa antzekoa izan dela 2017. urtean lurralde guztietan; hala ere, ñabardura batzuk azpimarratu behar dira. Bi jarduera-azpisektore handiei begiratu gero, ikusten da Obra zibilak hartu dituela, bi lurralde-erremuetan, milioi gehien lizitazioetan, eta proportzioak ere oso antzekoak izan dira bi kasuetan (lizitazio ofizialaren % 64,3 eta % 64,4). Ehuneko horiek, ordea, azken bi hamarkadetan izan diren batez bestekoetatik behera daude (% 70 ingurukoak izan dira).

Estatuko egoera aztertuko dugu lehenik, eta adierazi behar da Obra zibilak eta eraikuntzak handitu egin dutela, 2017an, lizitatutako bolumena (% 37,9 eta % 41,8). Informazioa obra motaren arabera zehazten baldin badugu, ikusten da garraioen azpiegituretan egin dela inbertsio handiena (% 38,5), eta azpiegitura horietarako egin den inbertsio-zuzkidura % 31,8 handitu da 2017an. Haren atzetik daude Gizarte ekipamendua, bilakaera positiboa izan baitute (% 52,1); gainera, % 19ko ehunekoak dute bolumen osoan. Urbanizazioak eta Gainerako eraikuntzak % 13 inguruko bolumena dute jarduera osoan, eta beren lizitazio-bolumen propioetan % 42,3ko eta % 16,6ko igoerak izan dituzte, hurrenez hurren. Aurreko bien antzerako bolumen-ehunekoak dute obra hidraulikoek (% 10,7) eta lan horiek % 54,5eko igoera izan dute. Igotzeko joera bera hori erakutsi duten Ingurumen obrek (% 53,3), baina bolumen osoan duten ehunekoak askoz ere txikiagoa da (% 2,5).

Nafarroako datuen azterketak adierazten digu, ikusi dugun moduan, lizitazioek goranzko joera adierazi dutela (Ingurumenekoak izan dira salbuespen bakarra, -% 11,8ko jaitsierarekin), eta goranzko joera horretan, igoera nabarmenak izan dituzte bi partidak. Etxebizitzena da bi horietako bat; izan ere, 0,1 milioi euroko zuzkidura izan duen 2016an, eta 20,8 milioi euro inguruko zuzkidura izan du 2017. urtean. Garraioena da beste partida, 100 milioi eurotan handitu baitu, 2017. urtean, bere aurrekontu-saila (9,1 milioiko

aurrekontua izan zuen 2016 . urtean, eta 109,6 milioi eurokoa izan du 2017an). Alderdi horiek azaldu ondoren, argitu behar da Gizarte ekipamenduarena dela, Eraikuntzaren azpisektorean, aurrekontu-zuzkidura handienekoa (% 23,1) eta zuzkidura hori nabarmen handitu dela urtetik urtera (% 134,9). Obra zibilaren azpisektoreko gainerako atalei begiratura, garraioek darabiltzaten baliabideen bolumen-ehunekotik (bolumen osoaren % 44,1) urrun daude Urbanizazioen atala (% 10) eta Obra hidraulikoena (% 8,5), beren bolumenak, hurrenez hurren, % 55 eta % 78,2 handitu dituzten arren. Ingurumeneko lanen atala izan da, urtean, bestelako joera adierazi duen bakarra; izan ere, lizitazio-bolumen apala du (% 1,8) eta taulan jaitsiera izan duen bakarra izan da (-% 11,8).

**133. koadroa      Hasitako eta amaitutako etxebizitzak (\*)**

*(etxebizitzem kopurua)*

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak				Amaitutako etxebizitzak			
		2014	2015	2016	2017	2014	2015	2016	2017
Nafarroa	Babestuak	406	329	214	854	1.165	425	348	227
	Libreak	636	1.068	1.664	1.767	591	560	562	1.065
Espainia	Babestuak	5.898	5.306	6.787	7.348	15.046	7.931	7.118	5.465
	Libreak	32.120	45.259	57.979	--	35.226	39.891	34.351	48.853

*(\*): 2018/07/12ko datuak. Ez dugu Estatuan hasitako etxebizitza libreem gaineko daturik.*

*Iturria: Sustapen Departamentua. Nafarroako Gobernua eta EIN.*

Hasitako etxebizitzem gaineko datuei buruzko xehetasunak aztertzen hasiz gero, ikusten da Nafarroan 2.621 etxebizitza egiten hasi direla 2017. urtean, aurreko urtean baino 743 gehiago. Igoera horren arrazoia izan dira, batik bat, babes ofizialeko etxebizitzak, 214 etxebizitzaren eraikuntza abiatu baitziren 2016an, eta 854 abiatu baitira 2017an (% 299,1). Horiez gainera, goranzko joera, baino apalagoa, izan dute etxebizitza pribatuek, 1.664 etxebizitzatik 1.767 etxebizitzara igo baitira urtetik urtera (% 6,2); hala ere, etxebizitza libreem bolumena askoz ere handiagoa da (% 67). Babes ofizialeko etxebizitzem kopuruak soilik azter ditzakegu Estatu osoan, eta datu horiek adierazten dute babes ofizialeko 7.348 etxebizitza egiten hasi zirela; beraz, igoera % 8,3koa izan da 2016. urtearekiko.

Amaitutako etxebizitzem begiratuta, kontrako bi joera ikusi dira 2017an: jarduera publikoak behera egin du, eta pribatuak, berriz, gora. Jarduera pribatuaren igoerak konpentsatu egin du jardun publikoaren beherakada hori. Urte amaierako datuei begiratuta, beraz, ikusten da aurreko urtekoak baino etxebizitza askoz gehiago amaitu direla Nafarroan eta Estatu osoan. Nafarroan, guztira, 1.292 etxebizitza amaitu dira, baina babes ofizialeko etxebizitza amaituen kopuruak behera egin du nabarmen (-% 34,8); hala ere, asko handitu da etxebizitza libre amaituen kopurua (% 89,5), eta pribatuak dira amaitutako etxebizitza guztien % 82,4. Egoera antzekoa da Estatuan, 54.318 amaitu dira guztira, aurreko urtean baino % 31 gehiago. Etxebizitza libreek soilik

izan dute gorakada (% 42,2koa), eta horiek dira gehiengo amaitutako etxebizitzaren artean (% 89,9).

#### 134. koadroa Eraikuntzako langileak

(pertsonek kopuruak, milakotan)

Eremua	2015	2016	2017	% Δ 17/16
Nafarroa	16,9	12,3	14,9	21,0
Espainia	1.073,7	1.073,9	1.128,3	5,1

Iturria: EIN. Biztanleria aktiboaren inkesta (2005eko oinarria).

Biztanleria okupatua da, ez bairik gabe, sektore-jarduera neurtzeko beste adierazle bat. Lehen azaldutako egoerak adierazten digu adierazle batzuk suspertzen ari direla eta beste batzuk ez dutela goranzko joerarik erakutsi; hala ere, eraikuntza-sektoreak handitu egin du okupazio-tasa Espainian (% 5,1), eta, bereziki, Nafarroan, azken 10 urteotako emaitzarik onena izan baitu.

## 8. NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

### 8.1 SARRERA

Txosten honen aurreko edizioetan egin den bezala, kapitulu honen helburua da Nafarroako eta estatu osoko enpresa-sarearen bilakaera eta egitura aztertzea, denbora-ikuspegi zabal batetik (2011-2017 aldia), ekonomia-sektoreak eta soldatakoen geruzak kontuan hartuta. Horren haritik, gogoan izan behar da aurtengoan ere EINeko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) izan dela informazio-iturri bakarra, azterketa homogeneoa egiteko.


### 8.2 BILAKAERA OROKORRA

Enpresa aktiboen kopuruak behera egin du, krisi ekonomikoaren ondorioz, aztergai ditugun bi esparru geografikoetan (Nafarroa eta estatu osoa). Dena dela, 2014an goraka hasi zen Nafarroan, eta 2015ean estatuan, oro har. Bi kasuetan, susperraldiari eutsi zaio, etenik gabe, 2017ra arte, baina azken ekitaldietan bizitasun pixka bat galdu du joera horrek.

Zehazki, Nafarroako enpresa aktiboen kopurua 2011n 41.541 izatetik 2017an 44.120 izatera igaro da, eta bilakaera horrek % 6,2ko igoera metatua adierazten du. Era berean, estatuan, oro har, enpresen kopuruak gora egin du aldi horretan, 2011n 3.250.576 izatetik 2017an 3.282.346 izatera igaro arte. Horrek % 1eko hazkunde metatua eragin du, Foru Komunitatekoa baino nabarmen txikiagoa.

Edonola ere, nabarmendu behar da aintzat hartu diren bi eremu geografikoetan urtetik urterako gorabeherak desberdinak izan direla aztertutako aldian. Horrez gain, alde handiak daude eremu bakoitzari dagozkion urtetik urterako aldaketetan ere.


18. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Bai Nafarroan, bai estatu osoan, urtetik urterako murrizketa handiena 2013an izan zen (-% 1,1 eta -% 1,7 hurrenez hurren), eta hazkunde handiena 2015ean (% 3,7 eta % 2,2 hurrenez hurren).


19. grafikoa Enpresa kopuruaren urtetik urterako aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Bilakaera horren arabera, enpresa kopuruak estatuko guztizkoaren gainean duen ehunekoa handitu da Nafarroan: 2011n guztizkoaren % 1,28 zen eta 2017n, berriz, % 1,34).

20. grafikoa Estatuko guztizkoaren gaineko garrantziaren bilakaera (estatura=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

### 8.3 EKONOMIA-SEKTOREAK


Arreta ekonomia-sektoreetan jarrita, multzo hauetan banatu ditugu: industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak. Orokorrean, 2011tik 2017ra bitartean, industriak eta eraikuntzak behera egin dute Nafarroan, eta estatu osoan, berriz, industriak, eraikuntzak eta merkataritzak.



Bi ekitaldien artean (2017 eta 2011 alderatuta) enpresa kopuruak industrian izan du beherakada handiena, bai Nafarroan (-% 7,6), bai estatu osoan (-% 17,3). Bestalde, bizitasun handiena zerbitzuetan izan da bi eremuetan (% 14,1eko eta % 9,5eko hazkundeak, hurrenez hurren).

Zehazki, Foru Komunitatearen kasuan, eraikuntzarekin lotura duten enpresen kopurua nabarmen murriztu da 2011tik 2017ra bitartean (-% 7,6), eta industria-enpresen kopuruak ere behera egin du (-% 1). Bestalde, gainerako zerbitzuetako enpresen kopurua % 14,1 handitu da, eta merkataritza-enpresen kopurua, berriz, % 1,4.

**21. grafikoa Enpresen bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera (indize kopurua 2011=100)**



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2011tik 2017ra bitarteko aldiari erreparatuta, eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean (EJSN-2009) egindako banaketari jarraituz, handizkako eta txikizkako merkataritzan diharduten enpresak eta ibilgailu motordun eta motoen konponketan dihardutenak dira, urte horietan eta bi eremu geografikoetan, parte-hartze handiena izan dutenak. Ildo horretan, Nafarroan, 2017an, jarduera horretan diharduten 9.767 enpresak

autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 22,1 dira (2011n % 23,2). Estatu osoan, berriz, zertxobait handiagoa da portzentajea (2017an estatuko enpresa guztien % 23; 2011n % 24,1).

**135. koadroa    Enpresak ekonomia-atalen arabera. 2011-2017 alderaketa**

	Nafarroa		Estatua	
	2011	2017	2011	2017
<b>Guztira</b>	<b>41.541</b>	<b>44.120</b>	<b>3.250.576</b>	<b>3.282.346</b>
Erauzketa-industriak	30	33	2.743	2.282
Manufaktura-industria	3.314	3.073	196.678	174.090
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	493	688	14.852	15.511
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa	137	139	6.662	6.922
Eraikuntza	6.649	6.145	487.224	402.923
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	9.636	9.767	782.194	753.503
Garraioa eta biltegiatzea	3.504	3.245	217.064	194.463
Ostalaritza	3.223	3.612	287.434	279.613
Informazioa eta komunikazioak	469	647	53.651	63.526
Finantza- eta aseguru-jarduerak	745	819	69.670	77.340
Higiezin-jarduerak	1.140	1.432	123.741	168.540
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	4.815	5.367	391.623	400.216
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	2.136	2.398	162.328	194.374
Hezkuntza	821	1.283	77.088	103.828
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	1.280	1.649	141.441	158.571
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	897	1.184	73.194	90.852
Beste zerbitzu batzuk	2.252	2.639	162.989	195.792

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren, honako hauek ageri dira, ordena honetan, aztertutako bi eremu geografikoetan: eraikuntza, eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Horren haritik, 2017an eraikuntzak 6.145 enpresa bildu ditu Nafarroan, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 13,9 (% 16 2011n) eta 402.923 enpresa estatu osoan, enpresa guztien % 12,3 (% 15 2011n).

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoei dagokienez, 2017an Nafarroan 5.367 enpresa izan dira, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 12,2 (% 11,6 2011n), eta 400.216 enpresa estatu osoan, enpresa guztien % 12,2 (% 12 2011n).

## 8.4 SOLDATAKOEN GERUZAK


Soldatakoen geruzak aztergai hartuta, eta lehenik eta behin haien agregazio handiari begira, 2011 eta 2017 bitartean enpresa aktiboak behera egiten dute, oro har, bai

Nafarroan, bai estatu osoan, soldatakorik gabeko enpresak eta soldatako bat edo bi dituztenak izan ezik, bi eremu geografikoetan.

Seitik bederatzira bitarteko langile kopurua duten enpresetan ikusten da beherakada handiena, 2017ko datuak 2011koekin alderatuta, bai Nafarroan (1.991tik 1.629ra jaistera; hau da, -% 18,2), bai estatu osoan (138.040tik 120.696ra jaistera; hau da, -% 12,6).

Behera egin dutenen artean bigarren tokian ageri dira hamarretik hemeretzi bitarteko langile kopurua duten enpresak.

**22. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatakoen tarteen arabera (indize kopurua 2011=100)**



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2011ko eta 2017ko ekitaldiak aztergai hartuta, soldatakoen geruzen desagregazio handiari begira, soldatakorik gabeko enpresak dira nagusi ekitaldi horietan, aztergai ditugun bi eremu geografikoetan. Ildo horretan, Nafarroan 2017an horrelako 24.755 enpresa daude, eta autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 56,1 dira (2011n % 55,1

ziren). Pisu erlatibo zertxobait txikiagoa dute estatuan, oro har (estatuko enpresa guztien % 55,5 dira; 2011n % 55,2).

**136. koadroa Enpresak, soldatakoen geruzen arabera. 2011-2017 alderaketa**

	Nafarroa		Estatua	
	2011	2017	2011	2017
<b>Guztira</b>	<b>41.541</b>	<b>44.120</b>	<b>3.250.576</b>	<b>3.282.346</b>
Soldatakorik gabe	22.899	24.755	1.795.321	1.823.250
1-2 soldatako	9.908	11.472	847.952	894.179
3-5 soldatako	4.038	3.897	313.408	298.744
6-9 soldatako	1.991	1.629	138.040	120.696
10-19 soldatako	1.376	1.155	84.834	77.632
20-49 soldatako	825	746	46.160	43.079
50-99 soldatako	257	223	13.279	12.540
100-199 soldatako	157	144	6.585	6.674
200-499 soldatako	64	72	3.288	3.756
500-999 soldatako	17	17	923	969
1.000-4.999 soldatako	9	10	679	709
5.000 soldatako edo gehiago	0	0	107	118

*Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).*

Soldatakorik gabeko enpresen ondoren ageri dira, kontuan hartutako bi eremu geografikoetan, soldatako bat edo bi dituztenak, eta haien ostean hiru soldatakotik bostera bitarteko enpresak. Zehazki, Nafarroan, 2017an soldatako bat edo bi izan dituzten enpresak 11.472 dira, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 26 (2011n % 23,9). Geruza horri kuota handiagoa dagokio estatuan (% 27,2 2017an; % 26,1 2011n). Bestalde Foru Komunitatean 2017an hiru soldatakotik bostera bitarteko enpresak 3.897 izan dira, autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 8,8 (2011n % 9,7). Estatuan proportzio zertxobait handiagoa izan dute (% 9,1 2017an; % 9,6 2011n).



| 17

## 4. ZERBITZUAK

## 1. IKUSPEGI OROKORRA

Estatuko barne-produktu gordinak hedapena baretu duen bitartean (% 3,3ko igoera 2016an, % 3,1ekoa 2017an), Nafarroako ekonomiak sendotu egin du goranzko joera (% 2,9tik % 3,2ra).

Zerbitzuen sektorean arreta jarrita, 2017an % 4,1 gora egin du Nafarroan, eta % 2,6 estatuan. Aurreko urteko emaitza hobetu da Nafarroan (% 3,6 2016an), ez ordea estatuan (% 3 aurreko urtean).

### 137. koadroa Zerbitzuen sektorearen bilakaera

(aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2015		2016		2017	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Errepide bidezko garraioa (salgaiak)	34,4	8,2	1,9	2,8	-4,0	9,3
Aireko garraioa (salgaiak)	-48,2	4,7	-53,3	11,2	263,6	15,4
Aireko garraioa (bidaiariak)	7,2	6,0	6,6	11,0	7,9	8,7

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.

Horrenbestez, azpimarratu behar dugu, sektorearen heterogeneotasuna dela-eta, zaila dela sektorearen azterketa agregatua egitea; hala ere, enplegua da adierazlerik egonkorrenetako bat. Horren haritik, adierazi behar da hirugarren sektorean lan egiten duen biztanleriak behera egin duela Nafarroan (-% 0,4), estatuan gora egin duen bitartean (% 1,9).

## 2. HEZKUNTZA

Datuen lehen begiratuak esaten digu Nafarroako unibertsitateetik kanpoko ikasleen kopuruak gora egin duela berriz ere. Hain zuzen ere, % 1,8ko igoera izan dute matrikulazioek, hau da, aurreko ikasturtean baino 1.993 ikasle gehiago matrikulatu dira; eta guztira, 110.896 ikasle hartzen ditu Nafarroako hezkuntzak. Oro har, gora egin dute datuek, baina izan dira bi jaitsiera ere. Lehena, Haur Hezkuntzako sare pribatua izan da (-% 1,7ko beherakada izan da); hala eta guztiz ere, sare publikoan, matrikulazioek gora egin dute irakasmila horretan (% 1,2ko igoera), eta konpentsatu egin da beherakada. Bigarren beherakada sare publikoan gertatu da, Batxilergoko irakasmilan (-% 0,5ko jaitsiera), baina kasu horretan ere sare pribatuko bilakaera positiboak konpentsatu egin du beherakada (% 3,5ko igoera). Beraz, irakasmila guztietan gora egin du unibertsitateetik kanpoko ikasle-kopuruak; batez ere, Lanbide Heziketan (% 8,2), eta, datu baxuagoekin, Lehen Hezkuntzan (% 2,1), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (% 1,3), Batxilergoan (% 1,0), eta, azkenik, Haur Hezkuntzan (% 0,2).

Nafarroako unibertsitateetan 15.196 ikasle matrikulatu dira guztira. Matrikulazioek gora egin dute Nafarroako bi unibertsitateetan, baina ez indar berarekin: Nafarroako Unibertsitateko matrikulazioek % 4,8 egin dute gora, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko matrikulazioek, berriz, % 0,7ko gorakada izan dute. Guztira, 425 ikasle gehiago matrikulatu dira Nafarroako bi unibertsitateetan, hau da, aurreko ikasturtean baino % 2,9 gehiago.

### 2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA

#### **Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH).**

Haur Hezkuntzako ikasleen bilakaerari begiratuta, 2017/18 ikasturtean 24.493 ikasle matrikulatu dira Nafarroako Foru Erkidegoan, hau da, aurreko ikasturtean baino 54 ikasle gehiago. Igoera hori sare publikoari esker izan da; izan ere, sare horretan dago matrikulatuta ikasleen gehiengoa (% 66,8), eta ikasle-kopuruak % 1,2ko gorakada izan du. Sare pribatua, berriz, behera egin dute matrikulazioek (-% 1,7ko jaitsiera).

**138. koadroa    Ikasleen bilakaera, ikastetxe-motaren arabera.  
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.**

Kontzeptua	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea	Δ % aurreko ikasturtea
HAUR HEZKUNTZA	24.628	24.439	24.493	0,2
– Publikoa	16.424	16.179	16.371	1,2
– Pribatua	8.204	8.260	8.122	-1,7
LEHEN HEZKUNTZA	40.908	41.369	42.235	2,1
– Publikoa	25.827	26.257	27.045	3,0
– Pribatua	15.081	15.112	15.190	0,5
DBH	26.108	26.561	26.898	1,3
– Publikoa	15.663	15.817	15.926	0,7
– Pribatua	10.445	10.744	10.972	2,1

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Bestalde, Lehen Hezkuntzako matrikulazioek % 2,1eko igoera izan dute, eta guztira 42.235 ikasle matrikulatu dira. Gorakada horretan bi sareek izan dute eragina, baina ez indar berarekin. Hain zuzen ere, ikastetxe publikoek ikasleen % 64 hartzen dute, eta gorakada txiki bat izan dute sare horretako matrikulazioek (% 3,0ko igoera); ikastetxe pribatuetan, aldiz, ez dute gorabehera handirik izan matrikulazioek (% 0,5ko gorakada).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako datuak aztertuta, 2017/18 ikasturtean gora egin du ikasle-kopuruak (% 1,3ko igoera); eta guztira, 26.898 ikasle matrikulatu dira. Gainerako irakasmiletan ez bezala, DBHko matrikulazioek sare publikoan baino igoera handiagoa izan dute sare pribatuan (publikoan % 0,7 igo dira, eta pribatuan, % 2,1). Hala eta guztiz ere, sare pribatuak baino ikasle gehiago hartzen ditu sare publikoak: 10 ikasletik 6k sare publikoan egiten du matrikula.

**139. koadroa    Euskalduntze-maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.**

Kontzeptua	A	B	D	X	Guztira (%)
HAUR HEZKUNTZA					
– 17/18 ikasturtea	30,5	1,8	27,9	39,8	100
LEHEN HEZKUNTZA					
– 17/18 ikasturtea	19,8	0,5	26,3	53,4	100
DBH					
– 17/18 ikasturtea	8,9	0,2	25,5	65,4	100

*A: Hezkuntza gaztelaniaz, eta euskara irakasgai.*

*B: Irakaskuntza elebiduna.*

*D: Hezkuntza euskaraz, eta gaztelania irakasgai.*

*X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.*

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Euskalduntze-mailari begiratuta, datuek adierazi dute Haur Hezkuntzan X ereduak (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) ikasleen gehiengoa hartzen




jarraitzen duela (ikasleen % 39,8). Datu apalagoekin, A ereduak (hezkuntza gaztelaniaz, eta euskara irakasgai) ikasleen % 30,5 hartzen du, eta D ereduak (hezkuntza euskaraz, eta gaztelania irakasgai) ikasleen % 27,9. Azkenik, ikasleen % 1,8 soilik hartzen du B ereduak (irakaskuntza elebiduna). Hori horrela, Nafarroako Haur Hezkuntzako euskalduntze-tasa % 29,7koa da.

Lehen Hezkuntzako hizkuntza-mapa, aldiz, bestelakoa da. Lehen Hezkuntzan, gora egin du X ereduak, eta ikasleen erdia baino gehiago matrikulatu da eredu horretan (ikasleen % 53,4). D ereduak da bigarrena sailkapenean, eta ikasleen % 26,3 hartzen du. Lehen Hezkuntzako A ereduak, berriz, Haur Hezkuntzakoak baino ikasle gutxiago hartzen ditu, hau da, ikasleen % 19,8; eta B ereduak (ia desagertua) ikasleen % 0,5 soilik. Horrekin guztiarekin, Lehen Hezkuntzako euskalduntze-tasa % 26,8koa da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gero eta garrantzi gehiago hartzen du X ereduak (ikasleen % 65,4 matrikulatzen da eredu horretan). Gainerako 3 hizkuntza-ereduetan, aldiz, alde handiak daude. Hain zuzen ere, D ereduan ikasleen % 25,5 matrikulatzen da; A ereduan ikasleen % 8,9; eta, azkenik, B ereduan gainerako % 0,2a. Horrenbestez, DBHko euskalduntze-tasa % 25,7koa da.

**23. grafikoa Unibertsitatetik kanpoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera Nafarroan<sup>(\*)</sup>**



(\*): Ez dago 2006-2007 ikasturteari buruzko informaziorik.

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Beraz, 2017/18 ikasturtean, gora egin dute matrikulazioek Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hiru irakasmila horietan, 1.257 ikasle gehiago matrikulatu dira; guztira, 93.626 ikasle.

### Erdi-mailako irakaskuntzak

Oinarrizko Lanbide Heziketa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa, aztertzen hasita, adierazi behar da ikasketa horiek eutsi egiten diotela urtetik urterako matrikulazio-igoerari. Zehazki, % 8,2ko igoera izan dute, aurreko ikasturtearekiko; eta guztira, 8.611 ikasle matrikulatu dira 2017/18 ikasturtean. Atal honetan, adierazi behar da heziketa duala garrantzi handia ari dela hartzen Nafarroan; heziketa-mota horretan ikasgeletan ikasteaz gain, enpresetan ere formakuntza jasotzen dute ikasleek. Azken ikasturtean, 641 ikaslek aukeratu dute heziketa duala; eta heziketa hori emateko, 11 ikastetxek eta 190 enpresak hartu dute parte. Gobernuak adierazi du oraindik gehiago igo daitezkeela heziketa horretako matrikulazioak eta ikastetxe gehiagok eskain dezaketela heziketa-mota hori. Horrez gainera, baieztatu du Nafarroako espezializazio-estrategia lantzen duten heziketa-zikloak sustatuko direla.

**140. koadroa** Ikasleen bilakaera, ikastetxe-motaren arabera.  
Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.

Kontzeptua	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea	Δ % aurreko ikasturtea
HEZIKETA ZIKLOAK	7.688	7.962	8.611	8,2
– Publikoa	5.792	5.935	6.303	6,2
– Pribatua	1.896	2.027	2.308	13,9
LOGSE BATXILERGOA	8.568	8.572	8.659	1,0
– Publikoa	5.408	5.311	5.284	-0,5
– Pribatua	3.160	3.261	3.375	3,5

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Heziketa-zikloetan, nabarmen egin du gora sare pribatuak aurreko ikasturtearekiko (% 13,9ko igoera); eta sare publikoan, aldiz, gorakada txikiagoa izan da (% 6,2koa). Bi sareetan egondako igoerek alde handiak izan dituzte; baina egoera horrek ez du eraginik izan eskola-mapan. Aurreko ikasturteetan bezala, irakaskuntza pribatuan baino ikasle gehiago matrikulatu dira irakaskuntza publikoan (irakaskuntza pribatuak ikasleen % 26,8 hartu du, eta irakaskuntza publikoak gainerako % 73,2a).

Heziketa-zikloetan bezala, Batxilergoan ere sare publikoak baino bilakaera hobea izan du sare pribatuak (sare pribatuan % 3,5eko igoera izan da eta -% 0,5eko jaitsiera publikoan). Sare pribatuak bilakaera ona izan duen arren, ikastetxe publikoetan matrikulatu da ikasleen % 61, eta ikastetxe pribatuetan gainerako % 39a.

**141. koadroa Euskalduntze-maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.**

Kontzeptua	A	B	D	X	Guztira (%)
HEZIKETA ZIKLOAK					
- 17/18 ikasturtea	0,0	0,0	4,8	95,2	100,0
LOGSE BATXILERGOA					
- 17/18 ikasturtea	3,8	0,0	25,2	71,0	100,0

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Heziketa-zikloetako euskalduntze-tasa gainerako irakaskuntza-mailetakoa baino apalagoa da (D ereduan ikasleen % 4,8 matrikulatu da); izan ere, ia ikasle guztiak X ereduan matrikulatu dira (ikasleen % 95,2). Batxilergoan, bestalde, ikasleen % 71 X ereduan matrikulatu da, % 3,8 soilik A ereduan; eta ikasleen laurdena D ereduan. Azken eredu horren bultzadarekin, Batxilergoko euskalduntze-tasa % 25,2koa da.

## 2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Nafarroan bi unibertsitate daude: bat pribatua da (Nafarroako Unibertsitatea) eta, bestea, publikoa (Nafarroako Unibertsitate Publikoa). Guztira 15.196 ikasle matrikulatu dira bi unibertsitate horietan, eta antzeko ikasle-kopurua dute bietan. Nafarroako Unibertsitateak 8.238 ikasle hartzen ditu; eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, berriz, 6.958 ikasle.

Azken ikasturteko bilakaera aztertuta, bi unibertsitateetan igo da ikasle-kopurua, baina ez indar berarekin. Nafarroako Unibertsitatean % 4,8 egin dute gora matrikulazioek, hau da, aurreko ikasturtean baino 377 ikasle gehiago matrikulatu dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, berriz, gorakada txikiagoa izan da (% 0,7koa), eta 48 ikasle gehiago matrikulatu dira.

Bestalde, irakasle-kopuruak ere gorakada izan du 2017/18 ikasturtean. Nafarroako Unibertsitatean, % 2,2 igo da irakasle-kopurua, eta, beraz, 17 irakasle berri hasi dira lanean. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, aldiz, % 1,8ko hazkundea egon da, hau da, 16 irakasle gehiago hartu ditu unibertsitate publikoak.

Gauzak horrela, jarraian Nafarroako bi unibertsitate horietan matrikulazioek zer-nolako bilakaera izan duten adieraziko da.

142. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea <sup>(1)</sup>	%	Δ% aurreko urtea
<b>Nafarroa</b>	<b>6.890</b>	<b>7.244</b>	<b>100,0</b>	<b>5,1</b>
Zuzenbidea	511	615	8,5	20,4
Medikuntza	1.249	1.239	17,1	-0,8
Filosofia eta Letrak	342	341	4,7	-0,3
Informazio/Komunikazio Zientziak	712	791	10,9	11,1
Hezkuntza eta Psikologia	521	618	8,5	18,6
Zientziak	606	625	8,6	3,1
Farmazia eta elikadura	673	656	9,1	-2,5
Arkitektura	450	463	6,4	2,9
Teologia	144	150	2,1	4,2
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	1.024	1.077	14,9	5,2
Idazkaritza eta Administrazioa (ISSA)	157	171	2,4	8,9
Erizaintza	501	498	6,9	-0,6
<b>Gipuzkoa</b>	<b>971</b>	<b>994</b>	<b>100,0</b>	<b>2,4</b>
Industria Ingeniaritza	965	994	100,0	3,0
Idazkaritza eta Administrazioa (ISSA)	6	0	0,0	-100,0
<b>Guztira<sup>(2)</sup></b>	<b>7.861</b>	<b>8.238</b>	<b>100,0</b>	<b>4,8</b>

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Gainera, doktoregoko 993 ikasle eta masterreko 789 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea

2017/2018 ikasturtean, 8.000 ikaslek baino gehiagok ikasi dute Nafarroako Unibertsitatean. Guztira, aurreko ikasturtean baino 377 ikasle gehiago matrikulatu dira, eta jauzi kuantitatibo horri esker, ikasle-kopurua 8.238ra iritsi da. Ikasleen gehiengoa (10 ikasletatik 9) Iruñeko campusean dago matrikulatuta. Beraz, Iruñeko campuseko matrikulazioetan % 5,1eko igoera izan da azken ikasturtean (aurreko ikasturtean baino 354 ikasle gehiago matrikulatu dira). Igoera izan dute, zehazki, campuseko 12 fakultatetatik 8k; beste hiruk ez dute aldaketarik izan; eta fakultate batek ikasle gutxiago hartu ditu. Igoerak izan dituzten zortzi fakultate horietatik bi fakultatetan nabarmen egin du gora ikasle-kopuruak; hau da, Hezkuntza eta Psikologian (ikasleen % 8,5 hartu ditu eta % 18,6ko igoera izan du) eta Zuzenbidean (ikasleen % 8,5 hartu ditu eta % 20,4ko hazkundera izan du). Bestalde, beste bi fakultate hauek ere gorakada handiak izan dituzte: Ekonomia eta Enpresa Zientziak (ikasleen % 14,9 eta % 5,2ko igoera) eta Informazio Zientziak (ikasleen % 10,9 eta % 11,1eko hazkundera). Horrez gainera, lau fakultatek ere goranzko joera bera izan dute, baina igoera txikiagoak izan dituzte: Idazkaritza eta Administrazioak (% 8,9ko igoera), Teologiak (% 4,2ko gorakada) eta Arkitekturak (% 2,9ko igoera). Aitzitik, ikasle gehien dituen fakultateak, hau da, Medikuntzako fakultateak, behera egin du matrikulazioetan (-% 0,8). Bilakaera bera izan dute Erizaintzak (ikasleen % 6,9 eta -% 0,6ko jaitsiera) eta Filosofia eta Letrek (ikasleen % 4,7 eta -% 0,3ko beherakada). Hala ere, Farmazia Fakultatean egin dute behera gehien matrikulazioek (-% 2,5ko jaitsiera).

Gipuzkoako campusean, Industria Ingeniaritzako Fakultateak soilik izan ditu ikasleak –Idazkaritza eta Administrazioan ez da ikaslerik izan aurren–: 23 ikasle gehiago matrikulatu dira fakultate horretan, eta, ehunekotan, matrikulazioa % 2,4 igo da.

#### 143. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP)

Fakultateak eta unibertsitate-eskolak	16/17 ikasturtea	17/18 ikasturtea <sup>(1)</sup>	%	Δ% aurreko urtea
Nekazaritza Ingeniaritzen GET	501	484	7,0	-3,4
Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET	1.945	1.919	27,6	-1,3
Osasun Zientzia F	644	659	9,5	2,3
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1.213	1.210	17,4	-0,2
Giza eta Gizarte Zientzien F.	1.767	1.812	26,0	2,5
Zientzia Juridikoen F.	624	653	9,4	4,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. / Zientzia Juridikoak <sup>(2)</sup>	216	221	3,2	2,3
<b>Guztira<sup>(3)</sup></b>	<b>6.910</b>	<b>6.958</b>	<b>100,0</b>	<b>0,7</b>

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Ez dira kontuan hartu Doktoretzako, Masterreko eta Zikloetako ikasleak.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 48 ikasle gehiago izan ditu 2017/2018 ikasturtean; guztira, 6.958 ikasle matrikulatu dira unibertsitate horrek eskaintzen dituen zazpi fakultateetan. Hauek dira ikasle-kopuru eta matrikulazio-igoera handiak izan dituzten fakultateak: Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (ikasleen % 26 eta % 2,5eko hazkundea), Zientzia Juridikoen Fakultatea (ikasleen % 9,5 eta % 4,6ko igoera) eta Osasun Zientzia Fakultatea (ikasleen % 9,4 eta % 2,3ko igoera). Horrez gainera, datu positiboak izan ditu Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak/Zientzia Juridikoak; izan ere, ikasleen % 3,2 hartzen ditu eta % 2,3 igo dira matrikulazioak. Bestalde, hauek dira datu negatiboak izan dituzten fakultateak: Nekazaritza Ingeniaritzen GET (-% 3,4), Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET (-% 1,3ko) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 0,2); azken bi fakultateek ikasle-kopuru handia dute (% 27,6 eta % 17,4 hurrenez hurren).

### 3. GARRAIOA

#### 3.1 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratutako informazioaren arabera, Nafarroako automobil-parkea 455.467 unitatekoa da; eta aurreko ekitaldian baino 10.858 ibilgailu gehiago daude. Horretaz gainera, azken hamarkadako urtetik urterako hazkunde-tasa handiena izan du aurtengoan Nafarroako automobil-parkeak (% 2,4ko igoera). Dena den, azken lau ekitaldiak datu positiboekin itxi dira, eta gainera, argi eta garbi ikusten da goranzko hazkunde-erritmoa duela parkeak.

**144. koadroa Nafarroako automobil-parkea**

(unitateak)

Urtea	Kamioiak eta furgonetak	Autobusak	Turismoak	Motozikletak	Industria-traktoreak	Beste batzuk	Guztira	% Δ
2008	81.997	936	291.838	25.832	4.739	17.819	423.161	2,3
2009	82.087	950	294.293	27.206	4.510	17.916	426.962	0,9
2010	82.425	934	297.770	28.499	4.282	18.064	431.974	1,2
2011	81.745	932	301.238	29.700	4.290	18.268	436.173	1,0
2012	80.765	903	301.600	30.121	4.178	18.165	435.732	-0,1
2013	79.249	842	299.058	30.406	4.198	18.151	431.904	-0,9
2014	77.899	817	299.536	31.224	4.043	18.661	432.180	0,1
2015	77.178	812	303.975	32.166	4.267	17.795	436.193	0,9
2016	76.886	825	310.846	33.299	4.389	18.364	444.609	1,9
2017*	74.845	848	322.140	34.327	4.432	18.875	455.467	2,4

(\*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Jarraian, ibilgailu-motaren arabera aztertuko da automobil-parkea. Nafarroako automobil-parkeko ibilgailuen % 70,7 turismoak dira. Ondoren, furgonetak eta kamioiak daude gehien (automobil-parkeko ibilgailuen % 16,4); gero, motozikletak (% 7,5) eta, datu apalagoekin, industria-traktoreak (% 1) eta autobusak (% 0,2). Kamioiek eta furgonetek izan ezik, gora egin dute gainerako ibilgailu guztiek 2017an. Hain zuzen ere, -% 2,7 egin dute behera kamioiek eta furgonetek, eta, guztira, 2.041 unitate gutxiago daude. Bilakaera onena turismoek izan dute (% 3,6ko gorakada); guztira, 322.140 turismo daude, aurreko ekitaldian baino 11.924 unitate gehiago. Motozikletek aurreko urteetako hazkuntza-erritmo bera jarraitu dute, eta beraz, % 3,1 egin dute gora; guztira, 34.327 motozikleta gehiago daude, hau da, aurreko ekitaldian baino 1.028 gehiago. Bestalde, autobusek ere % 3 inguruko igoera izan dute; guztira, 848 autobus daude Nafarroan, aurreko urtean baino 23 gehiago. Eta azkenik, industria-traktoreek % 1eko gorakada txikia izan dute; guztira, 4.432 traktore daude, 2016an baino 43 gehiago.

## 145. koadroa Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia(\*)

(unitateak)

Urtea	Kamioiak eta industria-traktoreak		Autobusak		Gutxira	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2008	1.192	52.302	13	1.157	1.207	53.459
2009	-139	-62.641	14	467	-125	-62.174
2010	110	-39.478	-16	-218	94	-39.696
2011	-672	-46.715	-2	-87	-674	-46.802
2012	-1.092	-85.065	-29	-1.231	-1.121	-86.296
2013	-1.496	-101.512	-61	-1.235	-1.557	-102.747
2014	-1.505	-44.630	-25	-93	-1.530	-44.723
2015	-497	21.631	-5	453	-502	22.084
2016	-170	41.433	13	1.589	-157	43.022
2017	-1.998	-68.523	23	1.749	-1.975	-66.774

(\*) Parkearen urtetik urterako aldakuntza.

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Kamioien, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbiak antzeko bilakaera izan du Nafarroan eta Estatuan. Izan ere, bai Estatuan bai Nafarroan behera egin du kamioien eta industria-traktoreen matrikulazio garbiak, eta gora egin du, aldiz, autobusen matrikulazio garbiak. Hain zuzen ere, Nafarroako Foru Erkidegoan, aurreko urteetan bezala, behera egin du kamioien eta industria-traktoreen matrikulazio garbiak (1.998 unitate gutxiago); eta gora egin du, berriz, autobusenak (23 unitate gehiago). Bestalde, Estatuan, 2015ean hasitako hazkundeari jarraipena eman zaio; eta beraz, autobusen matrikulazio garbiak datu positiboak izan ditu (1.749 autobus gehiago daude). Kamioien eta industria-traktoreen matrikulazioak, ordea, aurreko bi urteetan izandako bilakaera positiboa hautsi, eta behera egin du (68.523 kamioi eta traktore gutxiago).

## 146. koadroa Motorizazio-indizeak

Urtea	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanle/auto	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2008	682	670	2,1	2,1
2009	677	660	2,1	2,1
2010	678	661	2,1	2,1
2011	679	663	2,1	2,1
2012	676	660	2,1	2,1
2013	676	662	2,1	2,1
2014	679	666	2,1	2,1
2015	685	676	2,1	2,1
2016	697	691	2,1	2,0
2017	708	707	2,0	2,0

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta geuk egina.

Motorizazio-indizea aztertuta, ikusi da 1.000 biztanleko ibilgailu-tasak bilakaera positiboa izan duela Nafarroan eta Espainian, eta 2012ko ekitaldian hasitako joerari

jarraipena eman zaiola. 2017an, 700 ibilgailu baino gehiago egon dira 1.000 biztanleko bai Nafarroan bai Estatuan; hain zuzen ere, Nafarroan 1.000 biztanleko 708 ibilgailu dituzte, eta Espainian, 707 ibilgailu. Turismo bakoitzeko biztanle-kopurua neurtzen duen ratioari begiratuta, 2,0 biztanle daude turismo bakoitzeko bai Nafarroan bai Estatuan. Nafarroan behera egin du datu horrek aurtengo ekitaldian (hainbat urtez 2,1 biztanle izan ditu); eta Espainian, aldiz, 2016an eman zen beherakada hori.

**147. koadroa Autobideko ibilgailuen trafikoa, Nafarroan\***

Urtea	Ibilgailu arinak	% Δ	Ibilgailu astunak	% Δ	Ibilgailuak, guztira	% Δ
2008	16.010	4,2	4.271	-2,6	20.281	2,7
2009	15.954	-0,3	3.703	-13,3	19.657	-3,1
2010	15.902	-0,3	3.698	-0,1	19.600	-0,3
2011	15.633	-1,7	3.686	-0,3	19.319	-1,4
2012	14.388	-8,0	3.326	-9,8	17.714	-8,3
2013	13.850	-3,7	3.330	0,1	17.180	-3,0
2014	13.963	0,8	3.428	2,9	17.391	1,2
2015	14.523	4,0	3.645	6,3	18.168	4,5
2016	15.195	4,6	3.722	2,1	18.917	4,1
2017	15.709	3,4	3.834	3,0	19.543	3,3

(\*): Eguneko ibilgailuen batez bestekoa.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Errepide bidezko trafikoaren datuak aztertuta, ikusten da Nafarroan autobidea erabiltzen duten ibilgailuek gora egin dutela laugarren urtez, eguneko batez besteko balioetan. 2017ko ekitaldian, beraz, autobideko ibilgailu arinen trafikoa % 3,4 egin du gora, eta egunero batez beste 15.709 ibilgailu zirkulatzen dute Nafarroako autobidetik. Ibilgailu astunek ere joera horri jarraitzen diote, baina gorakada txikiagoekin. Izan ere, %3,0eko igoera izan dute ibilgailu astunek aurreko ekitaldiarekiko; eta batez beste egunero 3.834 ibilgailu astunek erabiltzen dute Nafarroako autobidea. Gauzak horrela, autobidetik zirkulatzen duten automobil gehienak ibilgailu arinak dira (% 80,4); eta egunero 20.000 ibilgailu arin eta astun ibiltzen dira, guztira.

**148. koadroa Garraiatutako salgaiak. Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa\***

(m Tm)

Eremua	Nafarroa			Espainia		
	2016	2017	% Δ	2016	2017	% Δ
Eskualde barruko garraioa	14.739	11.880	-19,4	693.352	761.381	9,8
Eskualde arteko garraioa	24.299	25.605	5,4	305.537	330.082	8,0
<b>Guztira</b>	<b>39.037</b>	<b>37.485</b>	<b>-4,0</b>	<b>998.888</b>	<b>1.091.463</b>	<b>9,3</b>

(\*): Zifrak urte bakoitzeko osotasunari dagozkio.

Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Aldizkaria.



Errepideko Salgaien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorrak<sup>1</sup> argitaratutako informazioaren arabera, behera egin du Nafarroako salgaien garraioak (eskualde barruko garraioaren eta eskualde arteko garraioaren datuak batera aztertuta). Dena den, ez dute bilakaera bera izan bi garraio-mota horiek. Alde batetik, behera egin du nabarmen Nafarroako eskualde barruko garraioaren jarduerak (-% 19,4ko jaitsiera). Gauzak horrela, 2017an, 37.485 mila tona garraiatu dira; horietatik 11.880 mila tona eskualde barruko garraioak garraiatu ditu, eta 25.605 mila tona eskualde arteko garraioak. Eta bestetik, eskualde arteko garraioak % 5,4 egin du gora, eta garraiatutako salgaien % 68,3 eskualde artekoak dira; baina igoera hori ez da izan nahikoa eskualde barruko garraioen beherakada konpentsatzeko. Bestalde, Estatuan, garraiatutako salgaiek bilakaera positiboa izan dute (% 9,3ko gorakada); igoera hori bi garraio-motetan eman da, eta antzeko bilakaera izan dute. Nafarroako Foru Erkidegoan ez bezala, Espainian eskualde barruko garraioak jarduera handiagoa izan du eskualde arteko garraioak baino (% 69,7ko jarduera izan du eskualde barruko garraioak), eta mila milioi tona baino gehiago garraiatzen dituzte bi garraio-motek.

### 3.2 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Noingo aireportuko datuen arabera, Nafarroako aire bidezko garraioak hondoa jo zuen 2014an, baina azken urteetan jarduera berreskuratzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Esate baterako, 2017an gora egin dute erreferentziazko hiru adierazleek. Hain zuzen ere, % 7,9 egin du gora bidaiari-kopuruak, eta guztira 166 mila bidaiari izan ditu aireportuak; era berean, % 5,8 egin dute gora hegaldiek, eta guztira, 5.683 aireontzi aireratu edo lurreratu dira Nafarroako aireportuan. Horretaz gainera, salgaien trafikoak ere nabarmen egin du gora (% 263,6ko igoera); eta merkataritza-trafikoaren karga 2.006 kilotik 7.293 kilora pasa da; hala eta guztiz ere, hamarkada hasierako datuetatik urrun dago.

<sup>1</sup> Ikuspuntu metodologikotik, inkesta Trenbide eta Errepide bidezko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak errepideko garraiorako baimendutako ibilgailu astunen kolektiboari zuzenduta dago; ibilgailu horien karga erabilgarriko edukierak 3,5 Tm-tik gorakoa izan behar du eta gehieneko pisu baimenduak 6 Tm-tik gorakoa.

149. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Salgaiak <sup>TM</sup>		
	Guztira	% Δ	% Espainia- rekiko	Guztira	% Δ	% Espainia- rekiko	Guztira	% Δ	% Espainia- rekiko
2011	6.484	-7,0	0,35	230,5	-19,0	0,11	34,2	-19,7	0,005
2012	4.963	-23,5	0,29	183,9	-20,3	0,10	12,0	-64,9	0,002
2013	3.540	-28,7	0,23	153,9	-16,2	0,08	2,8	-76,7	0,0004
2014	3.131	-11,6	0,19	134,3	-12,7	0,07	8,3	196,4	0,001
2015	3.138	0,2	0,19	144,0	7,2	0,07	4,3	-48,2	0,001
2016	5.371	71,2	0,30	153,5	6,6	0,1	2,0	-53,3	0,0003
2017	5.683	5,8	1,1	165,6	7,9	0,2	7,3	263,6	0,006

Iturria: AENA.

Aire bidezko trafikoaren jatorria lehen begiratuan aztertuta, ikus daiteke Noaingo aireportuan Estatu barneko trafikoa dela nagusi. Izan ere, bidaiarien % 93,2k Estatuaren barruko hegaldiak hartzen ditu, eta aireontzien mugimenduen % 91,2 Estatu barrukoak dira. Salgaien trafikoaren ia jarduera guztia, aldiz, nazioartean egiten da. Gauzak horrela, Nafarroako aireportuak bidaiari gutxi dituen arren, adierazi behar da bikoiztu egin dela nazioarteko bidaiari-kopurua (2016an 5,5 mila bidaiari egon ziren, eta 2017an 11,2 mila bidaiari). Aireontziek 2016an eman zioten hasiera joera horri.

150. koadroa Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Salgaiak (Tm)		
	Guztira	Barrual- dekoa	Nazio- artekoa	Guztira	Barrual- dekoa	Nazio- artekoa	Guztira	Barrual- dekoa	Nazio- artekoa
2011	6.484	6.131	353	230,5	222,5	8,0	34,2	7,0	27,2
2012	4.963	4.805	158	183,6	180,1	3,5	12,0	5,2	6,8
2013	3.540	3.267	273	153,9	148,9	5,0	2,8	0,9	1,9
2014	3.131	2.853	278	134,3	130,3	4,0	8,3	0,1	8,2
2015	3.138	2.872	266	144,0	138,5	5,5	4,3	1,0	3,3
2016	5.371	4.830	541	153	148	5,5	2,0	0,8	1,3
2017	5.683	5.137	546	166	154,4	11,2	7,3	0,1	7,3

Iturria: AENA.

Atalari amaiera emateko, Nafarroako aireportuko aurtengo berrikuntza, zalantzarik gabe, Iruñea-Frankfurt hegaldia martxan jartzea izan da (Lufthansa airelinearen esku dago hegaldi hori). Horretaz gainera, aire-geltokiko hegazkinera igotzeko eremua berritu da. Beraz, Nafarroako aireportuak ohiko loturak ditu Madril eta Frankfurt hiriekin. Gainera, data seinalatuetan hegaldi bereziak eskaintzen dira, eta hegaldi horiek eragin handia dute bidaiari-kopuruan. Hala eta guztiz ere, 2018ko ekitaldiaren amaierara arte itxaron beharko da Lufthansa airelineak aerodromoan zer eragin izan duen ikusteko. Era berean, Alemaniako konpainia horrek iragarri du, lehen hilabetetan izandako emaitza onak ikusita, hegaldiak eskaintzen jarraituko duela Iruñeko aireportuan eta posible dela

hobekuntzak egitea bertan. Egoera hori aukera bikaina izan daiteke Nafarroako aireportuarentzat; izan ere, urtean 200.000 bidaiari baino gehiago izatea espero da.